Joseba ARREGI
Joxe AZURMENDI

KOLAKOWSKI

JAKIN
ARANTZAZU
OINATI

JAKIN liburu sorta (5)
Zuzendari: Joseba Intxausti

GOGOETA saila: Joan M. Torrealday
Paulo Agirrebalzategi

© COPYRIGHT LESZEK KOLAKOWSKI
ED. FRANCISCANA ARANZAZU
NUMERO REGISTRO 1 692
DEPOSITO LEGAL S. S. 369/72

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

Aurkibidea

Lehen oharra: *J. A. eta J. A.* 7
Kolakowski: *Joxe Azurmendi* 9
1956 aurretik Polonian 10
Leszek Kolakowski: desestalinizazio haroan 13

LEHEN PARTEA

MILA PROBLEMA, «TEORIA» MARXISTARI BURUZ:
Joxe Azurmendi

Gaia zertzen 18
Erantzunaren bideratzen 31
Problema eta problemak 34
Teoriaren krisi unea 47
Aintzin-oharra 48
Teoriari buruzko praksi marxista 51
Teoriaren balio-oinarria: ezagutza teoria ... 62
Materialismo metafisiko? 73
Filosofia sobietarraren joera objetibista ... 76
1. sujetua galduz 79
2. posizio burgesa marxismoaren baitaraturik 87

Azalpen bi 93
Labur-bilduma historiko-logiko 94
Krisia eta kritika 100
Sistima eta dogmakeria 105
Marxismoa=zientzia hutsa? 110
Marxismo zientista antifilosofia bezala ... 117
Marxismo sustantzialista 123
Ezagupena: jakite ala imajinazio praktiko? 125
Naturaleza eta gizona 128
Kondaira eta gizona 132
Bukaera 136
Ohar luzeak 142
Eraskinak 145

BIGARREN PARTEA

LAU ENTSEGU LIBURU BATERAKO: *L. Kolakowski*
Sarrera, Pentsabideak eta itzulpena: *Joseba Arregi*
Marxismoaren burutapen gaurtiarra eta ezgaurtiarra 165
Pentsabide 167
I. — Erakunde ala pentsametodu ... 170
II. — Ideologia eta teoria 189
Intelektualak eta komunista mogimendua 211
Pentsabide 213
Jesukristo, igarle eta erreformadore 235
Pentsabide 237
Filosofuak eta Jesus 244
Jesusen igarkizun nagusia 248
Jesusen erreforma 250
Jesus guretzat 255
Jesus kulturarako ber-irabaztea ... 262
Ulermenezko materialismoa posible ahal da? ... 266
Pentsabide 267

LEHEN OHARRA

Hurrengo lanok berenez-beren eta bakoitza beren aldetik irakur daitezkeenak dira, banaka harturik, bakoitza beregango osotasunarekin pentsatua denez gero.

Kolakowskiren lanetatik hemen ez dadukazu sorta tipi bat besterik. Lanon aukera aprosimazio bidez, edo Zegaman esaten dutenez, ahal-iritzira egina dago, Kolakowskiren obra zuzen samar ezagutarazteari eta gure herriaren interesei begira ibiliz. Filosofiako lanik zailenak ez ditugu itzuli nahi izan, oraingoz

zailegiak iruditu bait zaizkigu jendaurrean zabaltzeko. Kolakowskik berak adierazi digunez, txit pozgarri zaio bere lanon euskeralpena. Intelektualak eta komunista mogimendua *eta* Ulermenezko materialismoa posible ahal da? *saioak aski zahartutzat jotzen ditu egileak berak. Gure egoeran ezagutzera ematea merezi dutela uste izan dugu, halare.*

Itzulpenak alemanetik eginak eta Joseba Arregirenak dira. Joxe Azurmnedi teoria marxistari buruzko problematika zerbait azaltzen saiatu da, Kolakowskiren lekugunea literatura marxistaren baitan ongiago hauteman dadin. Lanok, beraz, —eta iadanik jakin behar lukeenarentzat diogu— ez dira kristau fededun batenak, ez eta marxista fededun batenak ere.

Gure herriarentzat argibide izan daitekeelakoan ematen dugu argitara liburu hau.

J. A. eta J. A.

KOLAKOWSKI

1970 arte Kolakowski eguzkialdeko filosofia zaleen taldetxoetan bakarrik ezagutzen zen. Hori bai, hemen estimazio handia gozartzen zuen, eraberean eguzkialdeko filosofia guztian ezpairik gabe polakoa estimatuentsu agiri den bezalaxe. Bi izarri eskerrak, batez ere, hori: A. Schaff eta L. Kolakowski. Publizidade handia joan den urtean Oxford Union *klubak eratutako debateek ekarri zioten.* Oxford Union *ikasle inglesen debate-klub sonatuenetako eta antzinakoenetakoa duzu, eta esaniko urtearen azaroan Poloniari buruzko eztabaida zegoen antolaturik, Poloniako enbajadorea eta Kolakowski tarteko zirelarik. Kolakowskik Poloniako askata-*

sun falta deitoratzen zuen. Arian-arian 1968-ko ikasle erreboltek eta haien errepresioak irten zuten mahain gainera. Eta izugarrizko jaleo batere ez britanikoa eta gutxiago akademikoa sortu zen. Debrosielski enbajadoreak Polonian ez zela ikasle bat bakarrik preso hartu askatasun akademikoaren eske demostratzeagatik baieztatzen zuen. Iskanbila haietan guti batzuk besterik ez zirela espetxeratu izan, eta bestelako arrazoiengatik haiek. Norbaitek Poloniako Premier Cyrankiewiczen hitzaldi zati bat irakurri zuen: han manifestazioetako lehen egunetan bakarrik preso sartutako 2.730 ikaslez zen mintzoa, eta Varsoviako Unibertsidadean bakarrik. Hori guti batzuk besterik ez ahal zen, galdetzen zuen. Enbajadore Dobrosielski bere onetik atera zen: stalinista zaharrek aprobetxa ez zitzaten oinperatu behar izan zirela ikasle erreboltak, erreboltaok ez zutela askatasun akademikoarekin zerikusirik batere, Polonian holakorik aski ba-dagoela-ta. Gezurretan ari zara, enbajadore, *berotu zen Kolakowski ere, aretoan trotzkistak zaratan hasita zeudelarik. Istilu hau zela-ta, albistariek beren orrietan Kolakowskiren izena gogotik aireatu zuten.*

Ez zen asko pasako eta, ikasleen erreboltaren ondoren, Polonian Harmadak langileena zapaldu beharko zuen. Kolakowski eztabaida publikoak utzi eta deserriko isiltasunean ari zen lanean, Oxforden, eguneroko prentsak ahaztuta. Gomulka, ikasle erreboltaren zanpatzailea erori egin zen.

Filosofo bat eta polakoa duzu, bada, esku artean.

1956 aurretik Polonian

Polonia sozialista egonezinak eta urduriak hartua dago, eta bere *sozialismo nazionala egiten asmatu ezari*

zor zaiola hori pentsa diteke. Gomulkaren trajeria hor dago.

1905-ean Krosno petroleo eskualdean jaio zen Gomulka. Urte hartantxe bertan Poloniako langileria erreboltaturik zebilen, kausa sozial eta abertzaleengatik (Rusia, Austria ta Alemaniaren artean banaturik zegoen Polonia). Gomulka sarrailgileak Langile Alderdian ekin zion. Zenbait lanuzte eratu eta 1932-an, poliziak bilera batetan harrapatu eta ihes egin ondoren, bala batek jo eta preso lau urtetarako. (Urteotan jaiotzen da Kolakowski). 1936-an berriz gartzelan. Eskerrak honi bizirik irtengo du, zeren-eta 1938-an Stalinek komunista polakoen buruzagitzari Moskura deitzen bait dio beren ekintzaren berri ematera, eta guzietatik ez da inor Poloniara gehiago itzuliko, denak Moskun «garbituta». (A. Warski, J. Lenski, Wera Kostrzewa, H. Walecki: denak lehen orduko Leninen lagun minak izanak). Alemanek gartzelatik atera eta Gomulka klandestinidadera pasatzen da, Karpatoetan partisano taldeak antolatuz, Polonia zeharo independiente eta demokratiko baten alde. *Polonian antikomunismoa gogorra da garai honetan, aurkitu berriak bait dira Katyngo basoetan errusoek afusilaturiko 4.000 ofizial polakoren gorputzak. Gomulka Langile Alderdiaren sekretario orokor dago, eta partisanotan dabil. Kolakowski gazteria komunistetan sartzen da. Varsoviako altxamentua laguntzarik gabe uzten du Stalinek, alemanek poloniar herria txikitzen dutelarik. Kolakowski Alderdian onartua da.*

Gerra ondoan Gomulkak sozialismoa eraikitzeko Polonia erabat bonbapean apartu bat besterik ez daduka, eta Errusiari tradizionalki gorroto izan dion herri bat, abertzale eta katoliko, eta Sobiet Batasuna aliadu bezala. Eginkizun izugarriaren aurrean, Gomulkak Elizarekin konpoketak egiten ditu, laborari tipiei beren lurrak uzten dizkie. Eguzkialdean Poloniak Errusiarentzat utzi

behartako lurretatik mendebalean Alemaniak Poloniari utzi behartakora pilaka aldatzen da jendea: poloniar lautatik batek jaiolekua aldatzen du, honek berez dakarzkien problemekin. Alemanek atzera utzitako makineria Errusiari eman beharrak eta ikatza ere sobietarrei bere ustez merkeegi saldu beharrak ez dio Gomulkari graziarik egiten. Protestatzen du. 1948-an, Stalinek agindurik, Gomulka eskuindargatik *erortzen da. 1949: Alderditik botea. 1951: berriz ere gartzelan,* traidore eta errebixionistagatik. *Baina torturek ere ezin atera izan zioten Gomulkari akusazioak nahi zuen erru aitortzarik. Bere bizitza arriskuan zegoen: Rajk Ungarian, Slánsky Txekoslobakian, Kostoff Bulgarian hilarazi egin ditu Stalinek. Jakub Berman stalinista polakoak (desestalinizazio polakoak dionez 28.000 preso politiko* garbitu *omen zituen) 1955-ean oraino deklaratzen du:* Urte batzuek duela galdetzen ziguten lagun sobietarrek nolatan dagoen oraindik Gomulka bizirik. Guk ez dugu ezer presaka egiten... *Gomulkak ez du amor ematen.*

Gomulka eroritakoan Polonia sozialismo sobietarrari lotu zitzaion: inbersioetako % 50-etik gora industria astuna sortzera zihoan, produzio guzia Sobiet Batasunari atxikia dagokio. Laborari tipiak ere koljozetan sarrarazten dira. Presioak eta kontrolak langileria gogaitu egin zuten, halare, eta ezin zen produzioa burubidatu. Urte txarrak dira Poloniarentzat. Sozialismoa gogorrean eraiki nahi izan zen eta, sozialismoa ezezik, produzioa ere doi-doi zegoen bide horretatik altxatzerik. 1956-an Pozenen langileak altxatu egiten dira: ogia eta askatasuna *dehadarka Alderdiaren etxea inguratu zuten. Milizianoek tiroka hartu zuten demostrazioa: 85 gorpu gelditu zen lurrean. Ekaitz nazionalaren zabaleroa hartzera zohan ia errebolta, tanke sobietarrek Varsovia hartu zuten, Jrustxof Poloniako hiriburura etorri zen: Alderdian ere ez zegoen Gomulka, espetxetik atera eta Erresuma buruzagitara jaso erazi zuen.*

Hamar urteren buruan jirabira guziok. Ekonomiazko eta barne politikako kinka larri honetan abiatzen du Poloniak, Gomulkaren itzulerarekin, desestalinizazio prozesoa. Honek, bada, inon baino amorrazio handiagoa edukiko du Polonian. Alderdiaren autoridade morala lurreraturik dago, deskontentua jenerala da, nahasiak sentimentuak herrian: guzi hau gogoan eduki behar dela uste dut filosofo polakoen radikaltasun hozpina eta ironia gordina ulertzeko.

Leszek Kolakowski: desestalinizazio haroan

Kolakowskiren lan filosofikoa haro honetan sartzen da. Kolakowskik biziro hartu zuen desestalinizazioan parte, hasieratik beretik marxismo liberalaren aldezkari porrokatu agertuz. Zorrozki ikusi zuen desestalinizazioa axaleko aldakuntza soiletan geldi ez zedin marxismo *konzeptua desideologizatzea, gutienez desmitologizatzea behar-beharrezko zela. Inola ere ez dirudio marxismoa erabat ezetsi ala baitetsi egiteko doktrinarik,*

> ez sistima unibertsalik — ezpada mundu ikuskera orokor baten baitako inspirazio filosofiko bizi bat, gizadiaren inteligentzia sozialean eta oroitzapen sozialean eragikor dirauen bultzada bat...

Leszek Kolakowski 1927-an eta Radomen jaio zen, familia intelektual librepentsatzaile eta liberal baten altzoan. Lodzeko eskola katoliko batetara ibili zen (A. Schaffen sorlekua da hiri au). Poloniar faxistek nazien eskuetara entregaturik, alemanek eho zioten aita. Kolakowski, gazteria komunistan egon ondoren, 18 urterekin Alderdian zegoen. Gudu ondorenean, Lodzen filosofia egin zuen. 1952-an bozemaldietarako kanpainetan aritu zen, Alderdiaren espezialista moduan erlijio arazoetarako, meeting eta jendaurreko eztabaida ainitzetan arituz. Kolakowskiren lehenengo kritikak Eliza polakoaren kontrakoak izanen dira. Urte haretan ber-

tan Avizennari buruzko azterketa sakon bat agertarazi zuen.

1957-an liburu honetan lehenengo doan saiakerarekin izugarrizko eztanda sortu zuen bloke sozialistako intelektual sailetan: Marxismoaren bururapen gaurtiarra ta ezgaurtiarra. *Geroxeago Gomulkaren gobernuak Holandara bidali zuen 1957/59-rako. Etxera itzuli eta* Askatasuna eta askatasun antinomiak Spinozaren filosofian *agertu zuen. Varsoviako Unibertsidadean filosofia irakasle. Urte haretan bertan idatzitako* Zeruetako giltzeak (Onbidezko ipuinak Eskritura Santuaren arabera, Jendea ilustratzeko eta eskarmentatzeko) *zazpi urte itxaron behar izan zuen publikoaren argia ikusteko Eragozpenak eta kritikak bazter guzietatik altxa zitzaizkion, errestalinizazio joerak ere berriz indartzenago agertu ala. Drama bat egin zuen orduan:* Sarrera eta irteera *(1962). Ateneo teatroan lau aldiz agertua izan orduko zentsurak debekatu egin zuen nortasun kultoaren kiritikazko obra hau. 1965-ean irakurleak frantsesez irakur lezakeen liburua ematen du, atzera erlijio gaietara itzulirik:* Chrétiens sans Eglise. La conscience religieuse et le lien confessionel au XVII siècle (1).

1966: Urri polakoa*ren hamargarren urteurrenean Kolakowskiri dagokio Varsoviako ikasleen aurrean jai-mintzaldia egitea. Ez dago ezer festaz ospatzeko arrazoirik batere, esaten du, aurreko urteen begiratu baten ondoren: oraindik ez bait dago askatasun politikorik, ez herri-iritzi librerik eta ez bozemate edo auteskunde librerik. Egun batzuk geroago, bere 39-gn urtebetetzean hain zuzen, Gomulkaren erabaki batek Alderditik at botatzen du. 1968-ko ikasleen erreboltetan berriro konprometaturik, Irakasletza galdu eta herbestera aldegin behar izan zuen.*

(1) Ik. honen berri, J. Beaude, **Cristianos sin Iglesia. Reflexiones sobre el libro de L. Kolakowski**, Concilium 69 (1971) or. 398-403.

Mila Problema

«Teoria» marxistari buruz

Gaia zertzen

Has gaitezen, bada, haztamuka eta poliki-poliki. Izan ere, gairen bati tire egin orduko hasten da beste mila gai inguruan mogitzen. Hemen dialektikaz arituko gara. Zehazkiago, dialektikaren ikusalde batez: praksiaren eta kontzientziaren arteko batasunaz (2). Eta hontaz ere batasunari

(2) **Dialektika** honzeptua argitzen duen euskal literaturarik doi-doi dago oraindik. Ik. daitezke: G. M. Garate, **Marxen marxismoa,** 1971, or. 85-91; A. Sagarna, **Soziologiaren hastapenak,** 1970, or. 24 (baina 63-rekin batera). Biak marxismoaz ari direla. Ikus **Ekai-arauketa dialektikorrari buruz,** 1971, batez ere V kapituloa: «Dialektikaren zenbait arau nagusi», Ik. liburu honen VII kapituloa ere: «Ekai-arauketa dialektikorraren ezagutzaren theoria».

Gauzak erdizka eta ilun esaten ditudala egozten zait. Eta arrazoi guziarekin, badakit. Nik, izan ere, ilunbetan eta dudatan igarian dadukat nire mundu guzia. Horrelaxe hitz egin behar, baieztapenak egiten direnean ere irakurleak erraz igarriko bait lioke inseguridadeari. Eta nik neuk ere ez dut besterik nahi, irakurle; iritziak iritzi bezala eta duda eta problemetan bilduta har dezaizkidazula besterik ez. Eta oraingoan ere bai (1).

---

(1) Euskera zailaz eta espresio bihurriaz aparte, gaiak erabiltzeko tankeragatik esaten zait hori. Hala, adibidez, «taldeko beste Marisabelek» **Anaitasunan** 205, 1971, otsailaren 15: «Hala ere, askotan, zail egiten zaiku Azurmendiren esannahia garbi jakitea; **berak ideiak oso klaro ez dituelako;** edo ta, gauzak garbi eta denek ulertzeko eran esatea komeni ez delako». Nik neuk azpimarkatzen dut lehenengoa. Ik. baita ere J. Lasaren kritika, ZA 477 = «ez muturrik, ez erdirik, ez azkenik», aurkitzen dio nire lanari.

bere sorkuraren aldetik bakarrik begiratuz. Praksia egiazkotasunaren neurri eta irizpide omen den arloa, esaterako, ez da ikutuko (axaletik eta zeharka ezik), gaiaren hurbil-hurbilean egon arren. Areago, ekintzari baino jaramon gehiago eginez konzientziari, teoriari. Gainera, saiakera honen osagarri bezala Kolakowskiren idazkiak honekin batera —gogoetaon osapena hari utziaz, hortakoz— irakurriko dituzula kontu eginaz.

Hegel eta Marx ulertzea ez da erraz. Baina dialektikaz jabetzea ez da errazena. Merleau-Pontyk bere liburu bati nola *Les Aventures de la Dialectique* izenburua jarri zion gogoraturik, kontsolagarri izan daiteke irakurlearentzat, esaten badiot, segur aski biotan inork ez dakigula dialektikarik zer den alegia, baina —probisionalki— ba dakigun itxura eginaz has gindezkeela, gure gaian lasai-lasai murgiltzeko. Zintzotasunaren amorez, halare, geure gai barrutira sartzeko behar dugun salto horren prezio moduan, dialektikari aitortza hauxe eginen diogu: dialektika entenditzeko mila modu dago, eta ez entenditzeko hamar mila. Horren sinpleki garbitzen dugu lehenengo problema.

Eta hemen, bigarrenik, marxismoaz ari gara. Ba ote dago marxismoa zer den azaldu beharrik? Egon bai, balegoke apika. Baina hemen ere marxismoa zer den —trazo arruntenen arabera behinik behin— badakigula imajinatuz hasiko gara. Badakizkigula, beraz, dialektikaren legeak, materiaren definizioa, etab. Baina, batez ere, materialismo historikoaz ongi samar jabeturik gaudela: oinarri materialek, produzio indarrek eta harremanek hain zuzen, moldatzen dutela kontzientzia; haietxek gizartea klasetan banatzen dutela; hauen esku dagoela kondaira, eta azkeneko honen azkeneko ardatza, funtsean, produzio indarrak direla; areago, produzio indarron gaurko mailan eta berek dakarten harreman taiuan proletargoa burgesiarekin borrokan ari dela, eta

noizpait (produzio indar haietxen eraginduraz) langileria burgesiari nahitaez nagusituko zaiola, buruzagi Alderdi Komunista duelarik hain zuzen, etab.

Halabaina, marxismoa dialektikaz ari denean *bereaz* ari da, ez edozein eratako edozeintaz. Kasu, bada, marxismoa materialista dela —idealismoarekiko aurkatasunean— eta honen dialektikak ez dadukala Hegelena bezalakoa izarterik. Hauxe bera ere ez da inolaz bakun eta problemarik gabeko: zein dialektika kabitzen da azken fineko *Lehena* beti materia bere buruarekin identikoa baldin bada? Zer da, materia baitan, *zenbatenaren jauzia zertasunera?* etab. (3). Baina gu hemen ere problemaon gainetik pasatuko gara. Finean, bada, gorde zagun gogoan dialektika marxista materialista dela.

Har dezagun, orain, marxismoaren bere buru esplikazioko mutur bi: sistima eta beronen oinarria. Filosofia marxistaren gaia, guziena bezalaxe —hala esan ohi bait da— izatearen eta pentsatzearen arteko harremanek egiten dute: hala esan du Engelsek, birresan Leninek eta errebirresan Stalinek, harrez gero ohiartzunak in infinitum jarraitzeko. Euskera errazean, beharbada, izena eta izana batera pentsatzean datzala filosofia guzia esan genezake. *Pero sólo la filosofía marxista ofrece una solución científica hasta el fin, la única acertada y consecuente,* esaten digu Afanasievek (4).

---

(3) Autore ez marxistek buru honetan egin ohi dituzten kontrakarra korrienteenak A. Wetter eta Calvez baitan ik. daitezke. Autore marxisten aldetik Adorno da, nire jakitez, gai hau lantzen bereziki ahalegin duena. Adorno basiak gainegitura **determinatzen** duen tesia zeharo arbuiatzera doa bere entseiuetan. Ez izpiritua eta ez errealidadea dago **Primum** antzean bururatzerik, erlazio edo harreman konzeptuen ordez sustantzia honzeptuak (materia-izpiritu) sartzen dituztenek dagiten gisa. Cfr. J. Habernas, **Theorie und Praxis,** 1971, or. 435/436. **Sustantzialismo** akusazioa, marxismo ortodoxoarentzat, berriro agertuko da Kolakowski baitan. (Ikus azkenean 1-go eraskina ere).

(4) Cfr. **Fundamentos de filosofía** (urterik gabe), or. 13.

Autore berak, 400 orrialde eta gehiagotan askabide hori atalik atal azaldu ondoren, honelaxe ebazten du: *La doctrina de Marx es todopoderosa porque es exacta, escribió Lenín.* Edozein marxista klasiko hartu, eta segurantzia harrigarri berdina kausitzen da. Marxismoa zientzia osatu, burutu, borobil borobildu eta bete bezala presentatzen da. Batetik beste filosofia orori filosofiaren izenik eramateko eskubidea ere ukatuz; zer esanik ez zientziazko izatekorik. Eta bestetik bere osotasun bikaina arkitekturarik herrerianoenarekin trazatuta (5): marxismoak hainbeste parte du eta parte bakoitzak zehatz-zehazki beste hainbeste atal, eta atal bakoitzak hainbeste tesi. Bat bakarrik utzi gabeko tesi guzien kopuruak biltzen du marxismo osoa, eta osoa bakarrik omen da marxismo zuzena (hala Sobiet Batasuneko *Enziklopedia filosofikoak).* Materiaren definizio eta desarroilo legeez, konzientzia edo ezagupidearen sorkura, izakera eta funtzioez, gizarte gauzaren eta kondairaren muinaz, ekonomiaz, politikaz, erlijioaz, arteaz, moralaz, dretxoaz eta nik al dakit zertaz gehiago irakasten digu —berak dioenez— beti oinarrizko egia, eta beti eskema liluragarri, garbi eta berdinarekin. Hau da lehenengo pundua. Beste muturrean irakaspen guzi horien oinarri apal-apal bat dago, Afanasievek *la práctica, punto de partida y base del proceso cognoscitivo* legez formulatzen duena (or. 172).

Beraz, 1. Marxismoa jakitate materialistazko sistima osoa da, eta 2. Sistima hau praksiak oinarritzen du. Argi dago.

Argi? Zehaztasuna maite duena berehalaxe ohartu-

(5) Marxismoaren sistimaketa, nabariki, ez da Marxena. Stalini zor zaio hura gehienbat. Ez da beti berdin egin, baina beti hain zuzen egindako huraxe sistimaketa zuzena izateko autoiriztearekin eta —egia esan— gaiaren aldakuntza funtsezkorik eragin gabe, Stalin ostean ere. ik. I.M. Bochenski, **Der Sowjetrussische Dialektische Materialismus,** 1962, or. 61-70.

ko da lehenengo zentzu nahasmendu batez: nola ulertu behar da hemen *materialista* izenlaguna? Esangura diferentetan erabil bait daiteke, filosofia modernoan aisa egiztatuko dugunez. Ezagupide teoriaren mailan, batik bat. Leninek zentzu honetan erabiltzen digu: ia pentsamenak izatea eratzen, moldatzen, sortzen ote duen (idealismo), ala pentsamenak beregandik aparte eta beregain esistitzen duen zer izana atzeman bakarrik egiten ote duen (*errealismo*). Errealista, berriz, Leninek haina badirudi —horribile dictu— San Tomasek, euskal irakurleak Orixek ederki adierazita dakikeenez (6). Errealista izanik ez dago oraindik materialista izan beharrik, hortakoz, asko deskuidatuz gero errealista omendakoa mistiko ere gerta bait daiteke, gure Orixe bera lekuko. Baina utz dezagun problema hau ere bazterrera: esanez, halare, materialismoa ezagupide teorikoki oinarritzeko saiakera leninistak eztabaida asko sortu duela, geroago ikusi beharko dugunez. Lenin baino lehenago idealismo/materialismo berezkundea ez zen ezagupide teoriaren mailan egiten, eta bion antinomia hori zentzu kosmologikoan erabiltzen zen: mundua, naturaleza, materia Jainkoak (*nous*, adimen) egina dela deritzana idealista (Leninen mailan aritzekotan, aldiz, izpiritualista esan beharko litzaioke), ezezkoa deritzana materialista. Maila honetan, agiri denez, ia berdin da materialista eta ateo. Nola ulertu behar ote da hemen filosofiaren erdigunea, filosofia ezberdinen berezkaia hortakoz, pentsatzearen eta izatearen arteko zerikusietan omen datzalako esapidea? Gaurko filosofia ateoak materialista ote?

---

(6) Cfr. **Jainkoaren billa**, 1971, or. 36/37: «Iru ezaguera-mota ditu gizonak. Begiz edo gorputzeko zentzuz ezagutzen degu olako edo alako zergauza. Mendi bat ikustean, mendi ori begietan errainutzen edo ixpillutzen zaigu.— Begiak itxita ere, errainu edo irudi ori, gure buru barruan gelditzen da: irudimenean. Orra gure bigarren ezaguera-mota: irudimenezkoa.— Irugarrenik, ba-degu oraindio barrurago beste ezagubide bat: adimena edo entendimentua. Au, naiz gorputzeko zentzuz baliaturik, eta gero irudimenez, naiz bi oien arrastorik utzi gabe, errainurik eta irudirik ez duten gauzak ezagutzeko ere gai da».

Konzeptuon zehaztasunik gabeko usadioaren egunoroko problema zera da: hau materialismo edo hura materialista dela entzutean ez dakigula zer arrazoi adierazi nahi zaigun xifra horrekin. Hau batez ere aldrebes gertatzen da: gure materialistek munduko erraztasunik handienarekin itzultzen dituzte beren kontrarioak idealista. Idealistak Engelsen esanahian, ordea, oso animalia arraroak bihurtu dira gure munduan; eta Leninen esanahia mugatu eta oinarritu artean (ez bait da batere erraza horixe) ia-ia norbaiti tomista esatea lain dirudi, eta holako piztiak ere egun bakan samar izan arren, honez gero Leninekiko beren hurbiltasunean babes lezazkete beren buruak. Ikusi ere ez bait da gutitan ikusten nola zenbait filosofo katolikok positibisten nahiz hizkuntza filosofoen aurka Leninen autoridadearekin argudiatzen duen.

Problema ez da, noski, San Tomas eta Lenin bereztea. Problema da harri bat beraren gainean bi jarri badira (uharteren batetan bi naufrago bezala), besteakin zerikusirik nahi ez duenari oinarri geroz eta hestuagoa, meharragoa gelditzen zaiola. Eta hirugarrenik etorriz gero, eta inorekin zerikusirik nahi ez, are tipiago bakoitzaren lurra. Hauxe gertatzeak ere kuidadurik gabe gaduzka, noski, San Tomas eta Leninen arteko gorabehera den artean. Materialismo konzeptuari, marxismoa aspaldion bere burua besteengandik berezi nahiz dabilkigularik, geroz eta oinarri gutiago gelditzen baldin bazaio, aldiz, problema ez da muntarik gabekoa, konzeptua alferrikako eta ezin erabilizko bilaka bait daiteke.

Eta hortxe kakotzen da gure duda guzia: positibismoa, etab. ez ote zaizkio ausaz Engelsen materialismo konzeptuari Leninena bera baino hobeto egokitzen? Eta, batez ere, ez ote da materialismo konzeptua, gauzak deskribatzeko eta argitzeko tresna izan ordez —hare-

tarako sortu izanik— honez gero beste ezer argitzeko baino bera argitu beharrezkoago bihurtu, zientziaren laguntza ez baino hesitura eta oztopo beraz?

Dena den, marxismoa jakitate materialistazko sistima betea dela esan dut. Eta praksia duela oinarri. Eta —gizona gizon— muga eta azken eta etengabe da praksia. Praksiak, ekintzak etengabeko aldakuntza suposatzen du bere gaiaren aldetik. Etengabeki aldatuko ote marxismoaren sistima guzi hori? Ez dago munduan ezetz esan lezakeen marxistarik, baina baietzezkoan jardun diharduen askorik ere ez da bazterretan ikusten. Ez bait dago argi aldakuntza hori zertaraino litekeen. Zientziaren idorokunde bakoitzak materialismoari aldaerazi behar liokeela esaten zuen Engelsek, eta hori gertatu izan balitz, ehun urte ta nork jakin non egon gindezkeen iadanik; baina *materialismoak* beti asmatu du aldakuntzarik ez egiteko esplikazioren bat. Harrigarririk asko bada zientziek beren konzeptu oinarrizkoenak irauli —espazioaren, materiaren konzeptuak e.a., erlatibidadearekin-eta— marxismoak halare berean jarraitu ahal izatea. Baina mundu honetan gauza harrigarririk bestela ere ez da falta ez, eta pronto gaude bat gehiago hartzeko. Eta ez da inor bere etorkizunaren igarletara behartzeagatik, marxismoari bere etorkizunaz galderaok jartzen bazaizkio, bere buruari norainoko mugikor eta aldakortasunik aitortzen dion ikusteagatik baino. Galdetu, bada, marxismoaren aldakuntzari zerk eragingo dion, eta praksiak egingo duela hori, duzu erantzuna. Baduzu zalantza, praksiak nahitaez marxismoaren bidea eraman beharra ote duen, baina berehalaxe ikusiko duzu baietz, kondairaren determinismo arrazoi edo zerbaitegatik. Aldakuntza horren moduaz oinarrizkoa izango ote litzakeen galdetuz gero, sarri entzuten da: ez, kapitalismoari gain hartuz gero, praksia kontradizio elkar ukatzailerik gabeko gizarte gauzan desarroilatuko bait da. Beraz, praksia marxismoaren arioan joateak

bere esplikazioa kondairaren determinismoan zuen bezala, hemen ere marxismoaren aldakortasun ez oinarrizkoak gizartearen iraultza bitartezko aldakuntza oinarrizkoan duela bere esplikazioa agiri da. Eta hau ere beti berriro gertatuko zaizu: gauzaren baten esplikazioa neurtzen eta probatzen hasi nahi duzunean ihes egiten dizu, eta esplikazioaren esplikazioa onartu behar duzu; eta hemen ere dudarik baldin baduzu, esplikazioaren esplikazioa ere esplikatu beharra gelditzen da. Ez dago marxismoaren aldakunta oinarrizkorik, gizarte sozialistako praksian joera diferentzia oinarrizkorik ez delako egongo; eta hau ez, gizarte harremanetan antinomia oinarrizkorik ez delako egongo; eta hau ez, jabegorik ez delako egongo, e.a., e.a. Hemen esplikazio bakoitzak hurrengoa esplikatzen du, baina gauzaren bat bere horretan ezerk esplikatzen ote duen ez duzu ongi ikusten.

Beharbada sistima guzia ikusi, eta betartea eskeptiko antzean zimurtuko zaizu, errealidadea bene-benetan bere esplikazio hori bezain logiko ote den dudatuz. Ez duzula sinesten noizpaiteko gizarte kontradizio gabeko horretan, edo-ta orduan pentsakera, oinarrizko aldakuntzarik gabe, gozo-gozo eta emeki desarroila daitekeenik? Ez dio axola, horrentzat ere pronto dago esplikazioa: ezpairik gabe burges koxkor bat zara, edo halakoaren mentalidadea duzu. Eta kostako zaizu ezetz probatzea. Baina demagun arte handiak dituzula eta lortzen duzula nolabait ezetz probatzea. Halere ez duzu salbaziorik: zientziari ez dio ezer egiten jendeak haretan sinestu ala ez. Honez gero zure zentzu arrunta errebelatu ere egingo zen —ia hori dena zientzia ote den, ala fede besterik ez, fede logikoa— baina zeuk asma zeure zentzu arrunt guziarekin nora joan. Gainera zure solaskideak badaki —dialektiko onak kaso bakoitzerako zita egokiren bat beti eduki behar du erreserban— Engelsek esanik dagoela zentzu

arrunta daitekeen filosoforik traketsena dela. Zu bat-batean oroitzen zara Leninek nonbait arras kontrarioa dioela, eta —eureka!— laguna maisuen kontradizio txiki batetan harrapatu duzula azkenean uste duzu. Baina bai zera: hori zein testuingurutan esaten den ikusi behar dela osteratuko zaizu, zein testuingurutan. Eta zer egingo duzu: halaxe da, izan ere. Gero, galdera guzientzat erantzuna pronto duen arrazoipide luzeari jarraitzen nekaturik amor eman diozunean, akordatuko zara, beharbada, zeuri ez zaizula inoiz ezeren testuingururik eman, dena arrazoipide formal hutsa zela, hemen aritmetikan xifrekin bezalaxe operatzen dela konzeptuekin.

Zientzia honek edozein problema eta galderarentzat erantzuna beti gertu edukitzea ez da zuretzat problemarik tipiena, baina bestetik, liluratu ere egiten zaituenik ezin uka. Tesi bakoitza aurrekoarekin esplikatzeak mareatu zaitu batez ere: marxismoak bere tesien kontrol bideak bere barrura sartu dituela ikusten duzu orain; marxismoa barrutik bakarrik kontrola daitekeela, eta ezin atera duzu burutik fedeak ez duela besterik egiten.

Iadanik harrigarri iruditzen bait zaizu, esaterako, praksiak oinarritzen omen duen teoria batek oraindik praksia harutzaino ailegatu ez den etorkizuneko gorabeherei buruz hain zehatz eta garbi jakitea. Etsi-etsian onar zenezake zientziak prognosiak ere egin ditzakeela, hori bai, horretarako kondaira determinismorik aski onartuz aurretik. Halare ez zaizu guziz argitu nahi, zergatik marxismoa mendebalean behintzat ez den aldatu, hemen antinomiak su eta gar aldatuz bait dabiltza. Klase antinomia ez dela aldatu erantzutea ez zaizu esplikaziorik iruditzen, bapore makina eta gurpila asmatzeak gizarte harremanak irauli baldin bazituzten (kapitalismo-feudalismo) ez bait duzu konprenitzen hilargiraino

ailegatzeko tresnak asmatu eta gizarte harremanek artean kapitalismoaren funtsezko aldakuntzarik ez ezagutzea. Gizarte harremanak produzio harremanen tankerakoak, eta harremanok produzio indarrei dagokienak ote diren dudatzen hasten zara orain, elkar esplikatuzko tesien tesi oinarrizkoaren bila, ia hura behintzat positibuki eta bere kanpotik kontrolatzerik, egiztatzerik ba ote duzun.

Geroxeago praksi eta konzientzia konzeptuak ere ez direla justuegiak ikusiko duzu. Vietnamgo gudua *praksi bait da, baina bihotz txertaketa ere bai*, eta haurraren jolasa ez gutiago; eta fisika edo matematika modernoak Mao tse-tungen suhar iraultzagilea bezain konzientzia. *Eskema honek gauza ezberdin gehiegi berdintzen ez ote duen susmoa ezin isildu duzu honez gero.* Hasieratik beretik zaude ohartuta burutapide guzi hori gizarte historikoaz osotasun edo totalidade batez bezalaxe mintzatzen dela. Ez osotasuna azterketa enpiriko ezberdinen buruan lortu balu bezala, osotasuna aldez aurretik presuposatuz baino, haren azterketarako konzeptuak osotasunari erreferituz beraz. *Praksi* dioenean edozein praksi dioela etb. (7). Hori bitxi da, eta ezin esan problema gabekorik denik, soziologiak, ekonomiak, dretxoak, etb. ez bait dute halako gizarte konzeptu gu-

---

(7) *Tankera sobietarreko marxismoak zientzia adaska bakanen emari* ondoko eta gainetiko «sintesi» bezala ulertu nahi du bere burua. Marxismoaren adierazle ez ortodoso guzien ustez, aitzitik, osotasuna logikoki ez dago marxismoarentzat azterketen azkenean, hasieran eta aurre-aurrean baino, **gizarte gauzaren ontologia gisa (Lukács).** Ekonomia, soziologia, etab, zientzia positibuen hesparru arteko hutsune eta zirrikituak beteaz ez baino banaketa hura sortu baino lehenagotik dago marxismoaren gaia **osoki** emanda, bizitzaren eta kondairaren batasuna, koherentzia alegia. Ik. Th. W. Adorno, **Drei Studien zu Hegel,** 1969, or. 16 ta hur.; J. Habermas, **Theorie und Praxis,** 1971, or. 238. Filosofia sobietarrak zientziazkotasuna azpimarkatzeko bere garramurarekin batez ere zientzia bakoitzaren emaitza zatikakoen koordinazioa eta osotasuna dagiela esaten badu, praksiaren eta konzientziaren arteko batasuna dependentziazko bezala ulertuz bakarrik egin dezake hori: konzientzia praksiarengandik erabat dependiente jarriz, hasiera-*hasierako bion batasun dialektikoa apurtuz beraz.*

zizkorik erabiltzen, gizartearen ikusalderen bat bakarrik ikertzera mugatuz, eta beren konzeptuak ikusgune honen arabera taiutuz.

Problemaok eskolastiko hutsak balira ez zu eta ez ni kezkatuko gintuzketen asko. Baina ez: gure egunoroko bizitza irakiten jarrita dadukate. Euskeraren batasunaz ala azkeneko hamar urte hontaz aritu, literatur interpretazioaz ala Goierriko industriaren gaitzaldiaz, beti irin berdina problema guzietatik. Edozer gauza esplikatzeko erreduzio mekanismo txit sinplea dago. Eta guzi hori marxismoaren izenarekin presentatu ohi da. Sartrek ere:

> El formalismo marxista es una empresa de eliminación. El método se identifica con el Terror por su inflexible negativa a **diferenciar**, su fin es la asimilación total con el menor esfuerzo. No se trata de realizar la integración de lo diverso como tal, manteniéndole su autonomía relativa, sino de suprimirlo; de esta manera el movimiento perpetuo **hacia la identificación** refleja la práctica unificadora de los burócratas. Las determinaciones específicas despiertan en la teoría las mismas sospechas que las personas en la realidad.

Orduan ez da harritzekoa zenbaitek marxismoari, marxismoa horixe delakoan, *kaka* esaten badio, norbaitek berriki euskal aldizkari batetan egin duen gisara. Baina zuk eta nik ez genuke marxismoa besterik gabe pikutara bidali nahi, hori marxismo ote den probatu gabe ez behintzat.

Dudak menderatzen zaitu (eta duda asko duen marxista dudarik batere gabekoa baino txarrago denik nork esan?): beharbada arras aldrebes ulertu diat guzia, esapide horiek soziologo positibuen arian ulertuz? Marxistak mintzo direnean beti baliogoen judizioak inplikatuz egiten dutela argitzen bait zaizu oraindik, norgaltzea, praksia, plusbalioa-ta aipatzen direnean, kon-

zeptu horietan ez dagoela soziologoek edo ekonomistek erabili ohi duten neutraltasun tekniko akademikorik, kontradizioa ez dela Aristotele edo Kanten hoztasunarekin esaten, klase banakuntza bikoitzak egiten duen milaka problemen erreduzioa ez dagoela gizarte-analitikoki bakarrik zilegiztatzerik, dialektika izendatzean logika-edo baino gehiago ia-ia borroka adierazten dela, etab. Marxismoaren hizkuntzak egiazki zuk ezagutzen dituzun zientzien eta filosofienak ez bezalako berotasun eta zera bereziren bat baduela ikusten duzu, erabiltzen diren konzeptuak ez direla zientzia bakanen emaitzarik (hauk eman ahal izan ere ezingo luketen esanahi mailaren batetakoak baino), zientzietan ebakitzen zaien zentzu mugaketa funtzional finkorik ere ez dutela. Argitze edo aditze ta konprenitzearen arteko Diltheyren berezkuntzarekin hurbildu behar ote gatzaizkio marxismoari? Beraz, bada itxuraz hain argi azaltzen den marxismoan problemarik. Marxismoa sistima osoa ta osokoia da: edozerentzat eduki uste du esplikazioren bat. Baina esplikazio hauk ez dira analitiko hutsak: azterkaiaren *balorazioa* ere ematen dute, inplikatzen dute. Plusbaliogoaren tesia bera, esaterako, analitiko bezain moral da, balio-emaile ta juzgatzaile alegia. Eta zerbait ontzat ala txartzat juzgatzeak zientzia soilari ihes egiten dio, mendebalean ohizkoa den zientzia bururapenean batik bat. Calvez-ek ongi erakusten du marxismoaren baitako zientziaren eta filosofiaren bateratasuna. Honetara, nahastu ere marxismoan erraz egiten dira zientzia eta ideologia. Edo, alderantziz, oso gaitz da biok bereztea eta banatzea. Nahasketa honi nola gain-hartuko zaion, denborak esango du. Nik oraingoz problemaren konzientzia biztu nahi nuke, besterik gabe. Problema hori zientzietan dabiltzanek sarri hautematen dute. Joan Robinson ekonomistak, adibidez, plusbaliogoaren arloan: «konbikzio metafisiko bat» dela uste du, ez teoria zientifikorik. Althusser ere nahasketa haren aurkako erreazioa

da, eta bere ahalegin guzia ideologia eta zientzia banatzeko izan da. Monod biologo Nobel-Saridunak honelaxe azaldu digu:

> En la ética del conocimiento, es la **elección ética de un valor primitivo, la que funda el conocimiento.** Por ello difiere radicalmente de las éticas animistas que en su totalidad se consideran fundadas sobre el «conocimiento» de leyes inmanentes, religiosas o «naturales», que se impondrían al hombre. La ética del conocimiento no se impone al hombre; **es él al contrario** quien se la impone, haciendo de ella **axiomáticamente** la condición de autenticidad de todo discurso o de toda acción... La ética del conocimiento... es, en mi opinión, la única actitud a la vez racional y deliberadamente idealista sobre la que podría ser edificado un verdadero socialismo. Este gran sueño del siglo XIX vive perennemente, en las almas jóvenes, con una dolorosa intensidad. Dolorosa a causa de las traiciones que este ideal ha sufrido y de los crímenes cometidos en su nombre. Es trágico, pero quizás inevitable, que esta profunda aspiración no haya encontrado su doctrina filosófica más que bajo la forma de una ideología animista. Es fácil ver que el profetismo historicista fundado sobre el materialismo dialéctico estaba, desde su nacimiento, cargado de todas las amenazas que han sido, en efecto, realizadas. Más aún, quizá, que los demás animismos, el materialismo histórico reposa sobre una **confusión total de las categorías de valor y de conocimiento.** Es esta confusión la que permite, con un discurso profundamente inauténtico, proclamar que ha establecido «científicamente» las leyes de la *historia, a las que el hombre no tiene otro recurso* ni otro deber que obedecer, si no quiere caer en la nada. Una vez por todas, es preciso renunciar a esta ilusión que no es más que pueril cuando no es mortal.

Guzi honekin hitzez-hitz konforme egon beharrik ez dago, —ni neu behintzat ez nengoke. Marxismoaren barneko ideologiaren eta zientziaren nahasketaren salakuntza bezala, nolanahi ere, guziz onartu beharrezkoa iruditzen zait.

Erantzunaren bideratzen

Orain, problema hauk guziok (lehen-lehenik behintzat) ez zaizkio marxismoari berari sortzen, marxismoaren sistimaketa klasikoari baino. Eta hau —zentzu historikoan, halare, sistimatikoan baino zihurkiago— eskierki marxista da, baina ez sistima hau eta marxismoa erabat berdintzeko haina. Heterodosoak ere bai bait daude. Problemaon erantzuna hemen —oraingoz— aidean utzi beharra dago. Izan ere, galdera horiek *marxismoa zein zentzutan hartu behar den* hauziaren hasiera dira. Eta esku artean duzun liburuak, irakurle, problema horren erantzun saio batzuk eskaintzen dizkizu, hasiera bat.

Nik, hitzaurre gisa, problema horren azalpen historiko eta sistimatikoren batzuk soilik eskaintzen dizkizut, Kolakowskiren baitaratzekoan haizeak nondik jotzen duen errazago antzeman dezaiozun. Asmo horrekin behinik behin.

Europa guziko marxismoa ari da lanotan. Are beharrezkoago dirudit eginkizun honek Euskal Herrian, bertan nabari den marxismoaren eskemaren eta bere osapenaren usadio praktikoa ez bait da problema horietaz nahiz herri honetan borrokan dabiltzanez axolatzen den inori zer pentsaturik franko ez sortzeko modukoa. Zenbait lekutan hitz esgrima bat bihurtzen ari da marxismoa. Beste batzuetan halakoxe sinplekeriarekin agiri da, ze pertsona serio batek ezin bait du txunditu besterik, nola jardun daitekeen hala seriotan (marxistei borondate txarra eta maneju ezkutu makurrak errezelatzeraino ere ez dira guti ailegatu). Althusserek Frantziako komunistez esanak ez du noski Euskal Herriko zenbait marxistentzat gutiago balio:

> Estábamos filosófica y políticamente convencidos de haber desembarcado en la única tierra firme en el mundo, pero no sabiendo demostrar filosóficamente su existencia ni su firmeza; de hecho, para la gente, no teníamos tierra firme bajo nuestros pies, sino sólo convicciones.

Beraz, luzarora marxismoaren etsairik okerrena marxismoa bera —edo bere deformazioa— gerta ez dadin, *marxismoa hestu-hestu besarkatuz ito ez dezagun* (Lenin), lan positibua nahi dutenek beste edonora jo eta pentsakera hau intelektualki ahulen indar huts bezala geldi ez dadin —*el fuerte de los débiles*— hitz harrigarriak esateko ezpada balio ez duelarik, pentsakeraren beraren amorez beraz, jokabide horiek gure herritik deserriratu beharra dago. Eta herriaren amorez gero, lau ideia sinpletan kabitzen ez den errealidadeari errea-

lidadea ukatuz gure aberastasun tipi guzia arruina ez dezagun. Adibidez, euskeraren alderako edo kulturaren onerako lan guziak alternatiba sinple batekin —proletario/burges— torpedea ez ditzagun.

Normalena eta —egoera normalean bageunde —bidezkoena, eginkizunotan gure aurretik doazenen urratsak ikertuz abiatzea genuke: zer deritzan Lukácsek, Althusserek, Garaudyk, Schaffek; Sweezy, Bettelheim, O. Sik eta beste hainbestek. Probatu diren bideak. Ez dut jokabide hori hautatu, halare. Eta arrazoi bigatik: lehenengo, zenbaitek izugarrizko habilezia duelako, traperoak zakuan bezala, nahi haina tesi berri zaharrekin batean «hartzeko», bere lehendiko sistima ezertarako aldatzeke. Ez dut uste, ordea, txatal pare bat eta bi petatxorekin hemen ezer konpontzen denik. Geure buruari berrikuntzaren premia ezkutatzeko eta dena ederki dagoen begitasuna sortzeko gehiago balio du horrek, apika, berriztapen sakonetarako baino. Gainera, jokabide horrek luzarora elkar porrokatu beharko duten tesiak elkarren alboan jartzera behartuko gintuzke. Bigarren arrazoia ere praktikoa da: marxismoaren egiazko interpretazioaz galdetzeari, egiazko interpretazio diferente asko onartuz hasiz gero behintzat, zenbait euskaldunek antimarxismo deritzalako, edo kaltegarri behintzat. Kaltegarri gertatzeko arriskua ez zait niri ere ezkutatzen. Baina marxismoaren zenbait interpretazio mila bider kaltegarriago iruditzen zait, halare. Ezin itzurizkoa izango dut, hortakoz, marxismoaren (ortodosoaren) kritika. Baina saiatuko naiz marxismoaren interpretazio berrien zilegitasuna ortodosoaren kritikarekin bakarrik baino zerbait gehiagorekin erakusten, horretarakoxe hautatu bait dugu Kolakowski, oinarriak lekutzeko eta mugatzeko hain zuzen.

Problema eta problemak

Marxismoak tesi guziz ezberdinak daduzka bere barruan. Hala nola: 1) Materiaren esistitzeko modua mugimendua da, — 2) materia betidaniko eta betirakoa da, betierekoa beraz, eta mugagabea orobat (zientziak besterik irakatsiaz gero marxismoa galduta legokeela pentsatzeraino ailegatu dira marxista ortodosoren batzuek), — 3) kondairaren ardatza klase burruka da, — 4) klaseak xedatzen dituena produzio tresnekiko jabego harremanak dira, — 5) ideologiak, etab., kultura hitz batetan, produzio prozesoaren gainegitura da, eta klase-taiuzkoa, — 6) gizonaren berezko naturaleza halako eta holako

da, funtsean langiletasuna, etab. Berenez prolemaok zientzia oso ezberdinen gai dira: fisikaren, soziologiaren, etnologiaren, sikologiaren, literatur zientzien eta estetikaren, filosofiaren, etab. gai hain zuzen. Beren balioa ere, tesi bakoitzarena bere zientzia adasken barruan alegia, oso ezberdina da; zenbait aldiz zientzientzat tesiok funts gabeko samarrak ere ba dira: Materiaren izaeraz eta materiaren esistitzeko moduaz esaten dena, adibidez. Edo baliagarritasun gutikoak: artearen interpretazioan, esaterako. Eta tesiren batzuek, zientzienik gabe, filosofiarenak dira: kondairaren izaera eta helburuei buruzko tesi eta presupostuak. (Ideologiarenak, esango luke Althusserek). Halare, marxismoa, dena batean, zientzia besterik ez dela entzuten da.

Bestalde zientzia ezberdinei dagozkien tesiok marxismoan teoria osotu baten parte dira. Tesiok marxismoaren baitan ere, zein beretzat hartuz gero behintzat, garrantzi ezberdinetakoak dira, noski. Baina —sistimaren guztian— elkarren osagarri direnez gero, sistimaren osotasunerako denek dirudite beharrezko, eta denen arteko joskerak moldatutako erakoa da hain zuzen marxismoa (edo «marxismoak»). Haietakoren baten faltak berainik beste guztien zentzua aldarazten du. Alderantziz, tesi bakoitzaren zentzu edo esanahi betea osotasunaren baitako testuinguruak ematen du. Horrela, tesi zientifiko batek, marxismoaren baitan, «zientifikorik» ez diren osagarri batzuen tankera eta eitea ere aisa daduka. Gizonari, buruzko zientzietan hau ezinbesteko dena, hein batetan batik bat, gauza garbia dirudi. Mendebalean behintzat hala pentsatzen ohituta gaude. Baina marxismo ortodosak nekez onar lezake hori, bere ondoriorik batez ere. Hau da, mendebalean hortik gaiotako zientziazkotasunaren mugak ateratzen dira: ideologia uneok ere zientzia deklaratu: horregatik filosofia marxista ere zientifikoa

da, eta filosofia-zientzia honetan tesi batek bakarrik ere ez omen daduka faltatzerik.

Hau dena zientzi-teoriaren problema bezala azterka diteke. Nik hemen ezagupide teoriaren problematara itzuliko dut. «Zientziatzat» zientzia positibo bakanduak eta metodo zientifikoaren eredutzat ere haixenak joaz gero, izan ere, zientziaren eta marxismoaren arteko hitzarmenen arazoak azkenburuan ezagupide teoriatan amaitzen du. «Kopiaren» ezagupide teoria leninistak, ordea, «mende erdi bat zehar materialismo dialektikoa filosofia prekritiko baten haur mailatara makurtu du» (Garaudy, *Pentsakera marxistaren gaurkotasuna)*. Sujetua eta objetua atzera banatu arazi bait dira, hain zuzen. Marxismo berriko joera ezberdinenak ere ezagupide teoria leninistaren kritikarakoan batera datoz.

Marxismo-leninismoak deritzanez, gure errealidadearen ezaguera espiluaren modukoa da: gure adimenak gauzak diren bezalaxe isladatzen ditu. Baina marxismoa ez da esakuneotara berezko desarroilo normalez heldu. Polemikak bultzatu du horretara, ez dago hori ahazterik:

— Tesi hau lehenengo idealismoari kontrajartzen zaio, eta «idealismoa klerikalismo da. Halaxe da» (Lenin) —— Benetan?

— Errealismoari, orobat: «*Errealistak* eta beren antzekoak, positibistak barne, machistak, etab. arazo partikular orotan joera materialista eta idealista nahasten dituztenen morokil miserablea besterik ez dira, erdibidekeria lotsagarri bat. Oinarrizko joera biotatik irtetzeko asmoak ez dira bitartekoarena egin nahiezko berritsukeria besterik» (Lenin). Bata ala bestea baizik ez dago, beraz, —— Benetan?

— Erlatibismoari, azkenik: egia objetibu oro ukatzen duena, alegia. «Erlatibismoaren ikusgunetik sofistika oro zuzen da» (Lenin). Pragmatismoa ere erlatibismoaren adaska bat da, —— Benetan?

Ezagun du hau dena ez dela hasarrerik gabe idatzi. Izan ere, guzti hau zientziatzat harrarazi nahi zaigu (Lenin ez zen zientifikorik) eta filosofiatzat orobat (Lenin ez zen filosoforik, halare, eta berak aitortzen dio Gorkiri barruti honetarako gaizki gertatua zegoela. Althusserrek: «un naif et un autodidacte en philosophie»). Baina hori dena idazten zuenean, ez zientziarik eta ez filosofiarik egiten ari zen Lenin: praksi molde bat defendatzen baino. Horregatik, A. Schmidten ustez tesiok interesgarriago dira Alderdi politikaren eta langile mogimenduaren historiorako, filosofiaren kondairarentzat baino.

Halabaina, testuingurua aldatu eta beren esanahi gertu-bertakoa galdu eta gero ere, tesi haietxek entzuten darraigu. Berenez ez zuten zentzu bat ematen zaie, bada, eta zentzun honetan, radikaltasunaren erraztasunik eta argitasunik franko eduki arren, problema gehiegi ezkutatzen dute. Hona oinarrizko bat:

— Metodo heinean, Marx —gaztea batik bat— «naturalezaren eta gizasemearen identidadea» postulatuz abiatzen da *(Die deutsche Ideologie)*, zientzia oro historiarekin berdinduz hortakoz. Identidade hura naturaleza gizonaren mende eta funtziotan pentsatzea bezala ulertuko bait da. Dialektika honen arabera, izadiaren eta gauzakien neurritzat gizona hartzen da. Honek geroagoko Engelsentzat ere ez du balio guztirik galdu, aldrebestarako joera asko indartu arren. «Las cosas reales que Engels

hace que se dibujen en la cabeza del hombre, no son ya de ningún modo la naturaleza, existente idependientemente como tal» (J. Hommes). Bestela esan: Feuerbachi buruzko 1-go tesiak dioenez, ezaguera praksiak badagi, marxismoarentzat pentsatzea eta izatea gauza bat-bera omen bait da, (izatea ere pentsatzearekin bat-bera den mailan begiratua denez gero) zer-izana ere praksiak egina eta dagien erakoa da. Ikuskera horretan munduak gizonaren produkto dirudi: gizonarentzat dadukan balioa du munduak, gauzen esistentzia beren gizonarentzako da, gizonarentzako dena da izadia.

— Zientziek jeneralean gizonarekin zerikusirik gabeko naturaleza abstrakto, autonomo batekin operatzen dute (hau fikzio bat izan arren), beren metodoekin. Marxismoa ere —Engels baitan iadanik, eta oraingo marxismo ortodoso guztian— ikuskera honi egokitzen saiatu da, eta ezagupide jarduna aldrebes bururatuko da: alegia, ezagupeneko kontraespilua ere materiaren beraren dohain bezala. Ezaguera, ikuskera honetan, materiaren egimen bat da, eta gizona lege naturalen marioneta bat. Abiaburu naturaleza da, ez gizona.

Bistan dago ikusmolde biotan praksiari kabi dakiokeen eginkizunak oso diferentea izan beharko duela, hitzez haren inportantzia bietan berdin goraipatzen bada ere. Problema hau azterkatu beharko da. Hauxe tinko utz dezagun, oraingoz: Marxen marxismoak, sistima bezala zatikazko edo fragmentario izanik, joera ezberdineko osapenak —edo jarraipenak— eduki dituela. Hortakoz, azkenean, problemen problema sistimaren tankerarena besterik ez da. Baina jarrai dezagun piska

bat sistimaren tankera hau agertarazteko bere osakairen batzu banan-banan ikertzen. Eta hau pontu askotan erakus bait daiteke (ik. adibidez, Marxismo Sobietarrari Marcusek egindako kritika), ezagupide teoriara mugatuz jardungo naiz.

Objetibukeria zientistaren kritika letorke lehenengo pontuan. Marxismoaren teoriko moderno ia guziak ikus daitezke, horregatik, «zientismo» marxistaren kontrako ahaleginetan, teoria marxista moderno bila: Lefèbre, Garaudy ala Althusser; neomarxista deiturakoak orobat, Adorno, Horkheimer ala Marcuse izan, eta Schmidt berrikiago; eta berrikienik baita filosofia sobietarra bera ere, Iljenkow adibidez, oso-oso polliki bakarrik ausartu arren. Hemen ez legoke saio guztion berri ematerik. Hanbatenaz gutiago, horretan hastekotan mugarik gabeko problema itsaso batetan murgildu beharra bait legoke, eta orduan biblioteka oso bat ere ez litzake aski. Nire asmoa, Euskal Herrian marxismoak hartu duen objetibukeriazko joeraren itxuragabekeria erakustea bakarrik da. Itxuragabe bait da guztiz, bestegatik ez balitz ere, berrogeitamar urte beranduegi datorrelako ere. Baina bada okerragorik: materiaren era guzizko lehentasunari —kontzientziaren aldean— atxikita tinko dagoena, nahi badu ta ez, metafisiko eta dogmakoi izateratu beharrean dago, oinarriaren premiaz beraz. Materia edo objetua sujetuari trazendente gelditzen bait litzaioke. Eta kondaira «perpetuum inmobile» hutsa bihurtuko luke, mogimendu alegiazko soilarekin. Saiakera honek ez du besterik esango: hauxe azaldu eta hauxe, bere zerikusiren batzuekin, xedarratu. Oinarrizko posturak hortxe finkatzen bait dira. Honetan ere ilusioak apurtu egin behar. Gorago Habermas eta laster Adorno aipatzen ditudan moduan, hemen Frankfurteko eskolako hirugarren neomarxista baten hitzak ekarriko ditut. Horkheimerenok, alegia:

> Sujetu/Objetu erlazioa (...) ez dago bata bestearen gainean egonik eta elkarrengana jotzen duten bi «zer» konstante, konzeptualki zeharo argitutakoren irudi bidez adierazterik. Ezpada faktore objetibu deritzatenetakoetan sujetibu asko dago eta sujetibuetan objetiburik asko; eta, hain zuzen, halaxe egon ere, ze guk (...) bion elkar-harmenak une gizakor eta estragizakor bezala istant gizabanakor eta klase arauko bezala, metodologiko nahiz gauzarena berarena bezala, errepresentatu beharko bait ditugu, uneotakoren bat besteetatik bere balioan zeharo banatu ahal ezinik **(Materialismus und Metaphysik).**

Sistimaren guztitasunaz hori, dialektiko izateko baldintza moduan. Guzti honekin lotuta, baina goragoko maila batetan, gainegituren arazoa dago, marxismoaren beste une flako bat. «Ideologia» ohi deritzaienok, basi sozial ekonomikoak sortzen ditu eta eratzen. Horretxen arioan, alderdikor eta klasista dira. Hau erabatean hartzerik ez dagoena laster ikusten da: klasista ote matematikak, etab.? Leninek, koska hau erreparatuz, «ideologia zientifikoak» —«egia objetibuaren» jabe— eta ez zientifikoak berezten ditu.. Logikak ere klaserik klase ezberdin izaterik ez dadukana, orobat, ortodosoek ere iadanik onartua dago: natur-jakintza eta matematikarekin batera, logikari ere, Stalinek hizkuntzarentzat asmatu zuen «linbo neutralera» sarrarazi zaio. Gizonaren eta gizartearen beste ezagupideak geratzen dira «ideologia» bezala, hots, alderdikor, etab.: erlijioa, Dretxoa, politika, artea, etab. «Toda superestructura creada por esta o aquella estructura social corresponde y *sirve* solamente a ella» (Kornejev). (Hau onarturik, eta iraultza osterako logika, matematika, etab. *berriak* postulatzen ez badira batik bat, haiek ideologien artetik atera beharra aisa ikus daiteke). Alderdikor izanik, ideologia guztiok errealidadea alderdikaritzaren arabera itxuragabetzen dute.

Ideologiak alderdikor, klase ginoko, etab. direna honez gero garbi dago. Ez dut uste honez gero hontaz

inork duda handirik eduki lezakeenik. Halabaina, duda franko bai, ideologien dependentzia honi ematen zaion azalpide determinista. Eta dudarik, orobat, ideologiok inplikatzen omen duten nor-galtzeaz, hots, naturagaltzeaz eta antinaturaltzeaz. Hau konprenitzea zail bait da, ezagupen oro naturalezak bere burua ezagutzea besterik ez baldin bada: gizona «norgalduta», bere naturaleza galduta, dagoela erantzuteak ez dio ezeri erantzuten, ez bait da ikusten nola naturalezak «naturalik» ez den izakera sor zezakeen. Esplikazio guzi honek ideologikoegi izateko susmoa uzten du, jatorrizko bekatuaren antza hain zuzen.

> Nahasketa bat arretaz ebitatu behar da hemen: teknologia, zientziak eta logika ere alderdikor juzga daitezke, haietaz klaseren bat besteak azpiratzeko eta beren interesetarako baliatzen den zentzuan: usadioko klasismoa. Baina zentzu honetan haien ariurri klasista estrinsekoa da, ez datxeko haien naturalezari berari. Teoria marxista ortodosoan, ordea, ideologiak beren naturalezaz beraz epaitzen dira klasista bezala: izatezko klasismoa. Horregatik ez legoke esaterik, adibidez, langileriak erlijioa bere eskuetaratuko duenik, zientziaz edo teknologiaz esan daitekeen moduan; edo-ta erlijioa proletargoaren alde jar daitekeenik baina beharbada zientziak eta teknologia bai. Ondo berezi klasismo tankera biok. Lehenengoa edozein siziologia modernok onartuko luke (arte-soziologia, erlijio-soziologia, etab.), bigarrena ez hain edozeinek.

Halare problemarik bihurriena azkeneko erizpidea-ena da, ezpairik gabe. Klase gizarteko gizarte-adierazkera denak alderdikor badira, materialismo dialektikoa ere bai. Hau lasai baitesten da:

> La nota característica del materialismo dialéctico es un partidismo rectilíneo, abierto y militante... La filosofía del marxismo-leninismo se presenta directa y claramente en nombre de la clase trabajadora, se llama concepción del universo del partido comunista. No oculta que expresa el mundo y sus fenómenos desde el punto de vista de la clase trabajadora, de los obreros (Aleksandrow).

Rozental-Judinek, horregatik: *arma ideal del partido comunista y de la clase trabajadora en la revolución y en la transformación de la sociedad* besterik ez dela materialismo dialektikoa (Ik. J. De Vries, *Teoria del Conocimiento del Materialismo Dialéctico.* 1960).

Baina nolatan «zientzia» hau alderdikor, matematika, fisika, etab. beste zientziak ez bezala? Eta areago, materialismo historikoak ere egia bere erara eta alderdikoiki desitxuraten ote du? Erizkera sujetibista ote da? Ezetz erantzuten da, eta erantzuna oinarritzeko: materialismo historikoa klase aurreragileenaren zerbitzuan dagoela, hau da, langileriaren interesak historiaren ibilkera objetibuarekin batera datozela (Leonov). Halabaina hori materialismo historikoak berak ondorio edo azkenburuetan baieztatzen duena da, eta problema, hain zuzen, horretantxe beste ezertan ez dago: hori baieztatzeko erizpide ta oinarri zuzenik ba ote duen. *Petitio principii* nabarmen bat dadukagu hemen, hortakoz. Hari mataza honek punta denak barruan ezkutatzen ditu.

Beste galdera bat ere jar dakioke alderdikaritza honi: klase aurreragileenaren arabera jardutea ez da objetibutasun gaudimenik. Ideologia burgesa ere bere garaian halaxe aritu zen. Haatik ere, mundu ikuskera erlatibu eta sujetibista omen zen. Ez objetibu eta ez definitiburik. Zergatik bai materialismo historikoa? Honi erantzuteko, marxismo ortodosoak berriz ere konklusio bezala bakarrik jakin behar lukeen zerbait, oina-

rrizko aksiometara ekartzen du: langileria proletarioa klase erlatiburik ez delako, historiaren azkeneko epea eraikiko duena baizik.

> ...Las ideologías no comunistas sólo conducen a una desfiguración de la verdadera imagen del mundo; porque tienen que servir a la subyugación o suplantación de otra clase; por consiguiente, donde, como en el comunismo, falta todo interés de suplantación y explotación, más aún, al contrario, toda su tendencia está dirigida sólo a la liberación del hombre de toda servidumbre, queda por lo mismo asentada también la **pura tendencia hacia la verdad objetiva.**

Bapo. Hiru ohar, hontaz:

1) De fakto aldrebes behar luke arrazoipideak: alderdikeriarik eduki ez dadukala erakutsiaz gero bakarrik ikusi ahal izango litzake, materialismo historikoa askatasun osoaren filosofia dela; bitartean ezin horixe egin *nahi* omen duela baino gehiagorik esan.

2), Hau, oraindik, erabateko objetibutasunaren kondizio negatibu besterik ez litzake. «Sólo la falta de todo interés en una desfiguración de la verdad no es, como se ve claramente, por sí sola, una demostración de la verdad. Sólo es una condición negativa... La exigencia, por tanto, de una prueba objetiva (positiva) permanece».

3) Hauxe guztia bai, zinez, abiaburu ideologikoa, halakorik egotekotan. J. De Vrisek zuzen: «Detrás de esta aspiración del materialismo dialéctico a una absoluta verdad está, por consiguiente, en último término, la fe en que con la sociedad sin clases, a la que sirve la ideología marxista, se consigue el último fin de la historia, más allá del cual no es posible ya esencialmente ningún grado superior» (aip. lib. or. 61).

Pontu bakoitza hurrengoak eta denak dena korroan esplikatzearen problema hau gaindiatzeko bide bi bakarrik dago: apriori ideologikoak zeharo baztertu, zientzia huts-hutsaren alde (Althusseren asmoa), — edo zientzia *hutsaren* haizeak utzi, eta apriori hau, beronekin baterako beste zenbait ponturekin, positibuki baloratzea lortu, eta zientziarekiko bere zereginak argitu. Lehenengo kasoan «marxista» izenlagunaren erabilkizunak ez luke esanahi berezirik batere, ta *pietas* historikoak bakarrik zilegiztatuko luke izen hura ez arras baztertzea. Marx, zientziaren aurrerapenak asko zor dion mila arteko bat gehiago izango litzake, bai; baina ez litzake, ez midizina flemingista edo astronomia keplerianorik baino gehiago, beste zientzia adaskaren bat Marxen izenarekin josita azalduko. Bigarren kasoan bai, izango luke agian zentzurik honek, onartzen diren presupostuen arabera. Irudi mitiko edo dekorazio funtzio ezezik, baita benetako balioa ere, alegia.

Marxismoaren sistimaketa ortodosoak daduzkan aporiak ikusi ditugu. Orain, eta hain zuzen aporia horiengatixe, ortodosia marxistak bentaja handia daduka kritikaren aurrez-aurre: egiten zaion kritika oro klase kondizionamenduak eragabetutako konzientziatik datorkiola osteratu ohi du. Kritiko denak burges edo burges koxkor dira. Noizpaiteko teologiak sinesgabezia oro Jainkoaren graziari zaputz egitea, edo itsukeria edo nolanahiko bekatu bezala esplikatzen zuen bezalaxe, erlijio kritika eta sinesgabezia ororen iturburuak «hasierako gaitz objetiburen» batetan ezarriz hortakoz. (Ideologia guztiek defentsa sistima berdina dute).

Hala ta guztiz eta haatik ere kritika egin beharra dago. Kritika asko. Adibidez, marxismoaren sistima bete-betetzen duten konzeptu ekiboko ugariena. Esaterako, zer da materialismo/idealismo bikondea? Nola har konzeptuok? Marxek idealismoa materialismoa bai-

no aurrerakoiagotzat eduki zezakeena bistan dago, esaterako (praksiaren muntaz ohartu dena, adibidez, idealismoa da), baina gaur egun zerbait idealismotzat akusatzeak atzerakoitzat ematea haina dirudi sarri. Gainera, mendebalean behintzat «materialismo» konzeptua gehienetan ontologiko bezala, «idealismoarena» aldiz ezagupide-teoriko edo gnoseologiko bezala erabili ohi izaten dira, bion egiazko kontradiziorik gabe. Engelsek biak tesi ontologikoen esanahiarekin erabiltzen ditu. Leninek, berriz, biak gnoseologiaren mailan. Eta holako asko dago. Ezagupide teoriari dagokionerako, J. De Vriesen aip. lib.-ra, or. 69/94, erremititzen dut irakurlea *(La criteriología del materialismo dialéctico a la luz de la lógica formal)*, han irakurtzen den erdiarekin baino gehiago ados egoteko esperantzarik emango ez diodan arren. Baina zentzu-korapilo haiek seinalatzen dituen liburu asko dagoenez gero, ideia marxisten historia piska-piska bat egitea komeniko da. Eta hau egitea Garatek aginduta dadukanez, ezagupide teoriako ponturen batzuetara mugatuko naiz.

> Saiakera hau hura agertu aurretik bukatuta zegoen arren, ezin neuretu gabe utzi dut X. Mendigurenek, *Europako Ezker Berria,* 1972, or. 72/73, trinko eta garbi adierazi duen konklusioa: «Non datza, beraz, sobietar marxismoaren hutsegite guztien sorburu eta gakoa? Dialektika sena galtzean, haren zentzua bihurritzean, gizartearen kritikarako analisibide behar zukeen metodoa ideologia huts bihurtzean. Zabal zabal aitor daiteke, oraingo sobietar sozialismoaren iriskizunak babesten eta zuribidetzen dituen ideologia bihurtu dela dialektika.
>
> Metodoan egin dituzten zenbait faltsikeria nabarmen da: Partiduaren eta herriaren artean

benetako antagonismorik ez daitekeela sor sinets erazteko, «kontraizate ez-antagonikoen» teoria asmatu dute.

Bestalde, ukazioaren ukazio printzipioa erauzi dute dialektikatik. Izan ere, printzipio hau onartzeak, sobietar sozialismoa ukatu ondoren, demokrazia sozialista bat sortuko dela aitortzea esan nahi bait du. Maneiaketa guztion ondoren, burjesiaren serbitzurako tresna intelektualtzat bazterturik zegoen logika formala berriro etxeratzea besterik ez dute egin sobietarrek.

Labur esateko, unean uneko lortukizunak baino aurrerago begiratzen duen dialektika zati oro ezeztatzea eta sozialismoa mugigaitz egitea lortu dute».

Alegia, materialismo absolutua metafisiko bihurtzen da, dialektikarik gabeko itzultzen da, eta azkenean, praksiaren zerikusirik ez duen antzean moldatzen da, moldaketa horixe bera ere praksi jakin batek eragina izan arren. Pontuok zerbait xehatu beharra dago.

Teoriaren krisi unea

Mogimendu komunistan ere bada arrunki praksiaren eta teoriaren batasun arazoan fenomenu franko ohargarri eta kezkagarri bat: mogimenduaren hasieretako buruzagi praktiko handiak, Marx, Engels, Kautsky, R. Luxemburg, Lenin, Stalin , Mao, aldi berean mogimenduaren teoriko eta filosoforik argienak izan dira. Gaurko egoerari begiratzen badiogu, aldiz, ez dugu ia inon —Mao ezpada— inportantziarik zerbaiteko teorikorik ikusiko Alderdi Komunisten buruzagitzan. Ho Txi-minh, Castro, Dubcek, eta abarrek komunismoaren teoriarentzat nahiko inportantzia badute, baina beren hitzaldi eta idazkietan ozta-ozta idoro daiteke gogoetaldi teoriko garrantzizkorik batere. Inportantzia hura xurgatzea eta agirian jartzea teoriko espezialistei uzten zaie. Mogimendu buruzagi politikoek politikaren arta, Alderdiko filosofoek teoriarena: eginkizunak banatu egin dira, bata ala bestea espezialisten, adituen esku geldituz. Hona bi dato.

Beraz, eginkizun teoriko eta praktikoetako batasun pertsonala batik bat galdu egin da.

Aintzin-oharra

Banakuntza pertsonal hau laster pertsonal baino gehiago ez bilakatzea mirari batek bakarrik ebita zezakeen. Miraria ez da gertatu. Intelektual asko beren buruzagi politiko teknikoen morroin eta monagilo inkondizional bihurtzea ere ezin ebitatu izan da. Ezta intelektualak sarri beren agintarien kontra itzultzea ere. Politikoek beren aiudante teorikoak —*Gortearen teologoak*— edukitzea ez da problemaon burubide atsegingarririk. Politikoak gustorago fidatzen dira habilezia politikoan, konzientiaren indarrean baino; burokraziaren efikazian, teoriaren arrakastan baino. Ezin ebitatu izan da politikoak eta *inteligentsia* elkarri mutur joka hastea (8). Azkenerako diziplina hertsi bat jarri zaio konzientziari.

Desestaliniazioarekin stalinismoak berak adierazten zuen teoriaren eta praksiaren arteko erabateko etenduraren sustraiak ikertzera bihurtu ziren filosofoak. Halare ezin uka zitekeen bion batasunen bat bazedukala stalinismoak, Stalin bera tradizio honetako filosoforik argienetakoa izan bait zen, marxismo-leninismoak egun dadukan taiu sistimatikoaren egile hain zuzen. Ez zela aski teoria eta praksia batera egotea, nolarebait batera, aitortu behar. Areago, ez zela jokabide marxistarik,

(8) «El marxismo se ha detenido; precisamente porque esta filosofía quiere cambiar al mundo..., porque es y quiere ser **práctica**, se ha hecho en ella una auténtica escisión, que ha dejado a la teoría por un lado y a la praxis por el otro (...). La separación de la doctrina y de la práctica tuvo por resultado que ésta se transformase en un empirismo sin principios, y aquella en un Saber puro y estancado», J. P. Sartre, **Crítica de la razón dialéctica**, I, 1970, or. 28.

epe stalinistako praksiaren kritikari garai bereko teoriarenak lagun egiten ez bazion. Beraz, desestalinizazioak ekintza marxista zuzenaren arloa mahain gainera botaz, teoria zuzenaren problema ere biztu zuen.

Harrez gero, Stalin kondenatuz bai, baina teoriarentzat ezer muntazkorik edo ia-ia ezer gertatu izan ez den antzean teoria marxista barreiatzeak eta zabaltzeak ez du barkaziorik. Eta horretantxe ari dira *politiko* marxistarik gehienak. Jakina, hori marxismoa lau tesitara sinpleztatuz bakarrik egin daiteke, haiek desarroilatuz gero problema galantekin enfrentatu beharra bait dago, eta *teorikoen* katramilak politikoei ez zaizkie eragozpen *besterik iruditzen (teoria/ekintza hautsiunearen seinale bat gehiago)*. Problemaokin, ondo ala gaizki, oraingoz derrigor ondo baino gehiago gaizki, sartzen direnei tiroa botatzeko apartak izan ohi dira halako «politikoak». Euskal Herrian, famak ohi dioenez herbestean hainbeste ohoratzen gaituen buru gogorkeriarekin eta seriotasunarekin eta perfekzioarekin egiten da hori ere. Ez da erraz zentsura hau bizirik pasatzea. Marxismoa zer den eta zer ez berek ongi jakin baldin badakite, hobeto dadukate beren jakituria ezkutuan halafede, orain artekoan ez bait dute asko erakutsi; problemarik gabeko marxismo sinplista zabaltzea inondik ere onesgarri, baina marxismoaren problemak azterkatzeko ahaleginak antimarxista juzgatzeko neurri eskasean ezpada.

Marxismoa, halare, mundu guzian berrikustaldi eta b e r e baitako berriztatze sutan dago. «Marxismoa» —soil-soilik— zabaltzea formalkeria inposible ta zentzugabekeria besterik ez bait da, eginkizun guzia iadanik gure herriari konkret bere egoera zuzen interpretatzeko eta bere ekintza burutzeko zein burutazio eta azterpide erabili erabakitzen laguntzea da. Ez herriarentzat marxismorik erabatean nahi ahal den ala ez, bai zein nolako marxismo nahi litzakeen. Eta hau ere,

mundu honetan beste edozer gauza bezalaxe, agertuz bakarrik agertzen da (9).

Problemak badaudela printzipalki onartu bai, baina gaur-egun hauk jendaurrean erabiltzea arrazoi praktiko-engatik kondenatzea, beharbada arrazoipide itxurazkoa date. Beste zerbait litzake zuhurtasun hori —Erromako Eliza katolikoak mendez mende birtutearen teologia bikain batez hornitua— eta arrazoipide hori —herria demokraziarako helduta inoiz sekula ikusten ez duten guzien tankera berdin-berdinekoa— marxistatzat edukitzerik ba ote dagoen. Arrazoipide horrek suposatzen duen teori konzeptuak sustrai-sustraitik ez-marxista bait dirudi: hona problemetan jarduteko dretxoa duen kasta pribilejiatua batetik eta teoria sinpleak aski zaizkion herri ttonttoa bestetik. Zein teoriaren konzeptu dabil hor? Horra, oraindik, teoriaren eta ekintzaren etenduraren seinale ezin argiago bat.

Deformazioren bat ezagutu uste duen azterkaria deformazioari eraso beharrean dago, deformazio hura gainditzeko bera bakarrik lanean aritzeak, teoria hutsean aritzeak bezalaxe, ez duela batere balio eta guziek batera elkar hartu eta arnasa batean ahalegin beharra dagoela sinesturik baldin badago behinik behin. Hala berbiztu da *gerra hotzaren* ondoren marxismoaren kritika marxista.

---

(9) Sartrek, aip. lib., or. 34: «Sin embargo, hay que comprendernos: esta esclerosis (marxismoarena) no corresponde a un envejecimiento normal. Ha sido producida por una coyuntura mundial de un tipo particular; el marxismo, lejos de estar agotado, es aún muy joven, casi está en la infancia, apenas si ha empezado a desarrollarse. Sigue siendo, pues, la filosofía de nuestro tiempo; es insuperable porque aún no han sido superadas las circunstancias que la engrendraron».

Teoriari buruzko praksi marxista

Teoriaren aldetik aurkitu da harrigarririk aski: *zientzia* hau benetan bitxia da: egiaren neurria bere mekanismoaren barruan sartu eta ezkutatu da. Eta hori gizonak ez bestek egin izan arren, berak egindakoaren azpian jartzen da gizona, edo egindakoa eskuetatik kentzen zaio behintzat: *la acción humana queda reducida a la da una fuerza física,* salatuko du Sartrek, eta Afanasievek —ortodoso onean— bihotzez gorrotatuko du Protagoraren esakunea: *gauza guzien neurria gizona da* (nolanahi ere dialektikoki ulertu beharrezkoa, zer esanik ez). Baina egiaren objetibutasun hori ez bait dago sujeturen bat gabe pentsatzerik, marxismo ortodosoak sujetu hura Alderdian ezarriz bukatu du (eta sekundarioki proletargoan). Alderdia sujetu, baina objetibutasuna erabateko, *zientzia* hau beste zientzia inork egiten ez duena egitera etorri da: beste zientziek ez dute beren buruaren eta metoduaren gainetik inolako Aginpiderik, egiaren instantziarik onartzen. Marxismoak, aldiz —ortodosoak— norberagandik (zientziatik bertatik, bere burua zientziatzat duenez gero) kanpora pasatzen du *gauza guzien neurria,* dagoen objetibutasun bakarrarena eta egiarena hortakoz: Alderdiaren eskuetara. Horrela sortzen da Kolakowskik hain kupida gabeki jorratzen duen erakundezko marxismoa; horrela, sujetibutasuna gainditu nahirik, sujetibutasunik itxuragabeena. Horrelaxe konprenitu behar da, baita ere, Kolakowskik stalinismoa fenomenu marxista —ez beharrezko, baina bidezko— deklaratzea, inork benetako problemarik ez aisa itzurtzeko. Problema jeneral hau xehapen askotan azaldu da marxismo *zientifikoan* (10).

---

(10) Ez dago esan beharrik marxismoaren **zientziazkotasun** ortodosoaz eta marxismo ortodosoaz bakarrik balio duela guzi honek. Marxismoaren zientziazkotasuna Althusserek egiten duen eran ulertuz adibidez, hauziok sobera leudeke denok. Zerek ez duen —ez dago esan beharrik, halare

— 1950-ean Stalinek berak klase fenomenuarekin zerikusirik gabeko faktore izpiritual-sozialik badela irakasten zuen, hizkuntzaren kaso konkretua eztabaidatuz. Baina hizkuntza zeharo formalki soilik hartu nahi ez bada, hizkuntzaren mamiaz ere ondoramenak atera beharra legoke: kultura, etc., gainegituraz erabatean. Ez bait dago pentsamenturik edo kulturarik gabeko hizkuntzarik.

— Logika 1957-an sartu zen Sobiet Batasuneko Unibertsidadeetan. Hurrengo urtean *kontradizio legearen* inguruan eztabaida gogor bat sortu zen, logiko-matematiko talde batek gauzetan kontradiziorik, zentzu klasikoan batik bat, egoterik ez dagoela bota zuelarik mahain gainera. Hori gizonaren adimenak jartzen du. Interpretazio kategoria horiek interpretazioaren funtzioan daudela, beraz. Fisikak lortu du, guti asko, bere legeei eta buruari jarraiki bakarrik ibili ahal izatea, baina filosofia marxistak beste zenbait zientziari (biologia, sikologia, soziologia) ez dio bere manupetik libre utzi nahi, Stalin haroan jokabideok filosofia marxistaren eta zientziaren arteko harremanen ikuspide arras faltsoarekin antolatu zirela edonork aitortu arren. *(Ikus azkenean 1-go eraskina).*

— 1958-an bertan kritikoek argitu zuten Stalin-haro guziko dialektikaren esplikazioetan ez zela inoiz aipatu ere egin *ukazioaren ukazio* legea, hau da, dialektikaren lekuan kontradizio sinplearekin operatzen duen eboluzionis-

---

berriro esateko—. Althusserek dadukan marxismoaren konzeptua zientziazkotasun besterik gabe baitesten denik esan nahi, ezpada bakar-bakarrik, oharrok haren konzeptuarekin arrazoirik gabezko bihurtuko lirakeela.

moa sortzea eragozteko legea. Eta, ondoriobidez, erraza zen susmoa kondairaren prozesoa ebolutibuki esplikatzen zela, ez dialektikoki (11).

— Stalin aginteratuz gero norgaltze edo alienazio hitza lehenengo aldiz 1958-an irakur omen daiteke Sobiet Batasuneko literatura filosofikoan berriro (12) eta orduan kakotx artean («norgaltze») eta Calvezen kontra, honek Marx konzeptu hau ardatz gisa harturik interpretatu zuen-eta. Egun, aldiz, Autore denak ados dira konzeptu horri Marxen interpretazioan erdi-erdiko unea aitortzen. Baina 1958 aurreko interpretazioekin jarraitzen da.

— Marxen burutapide ekonomikoetako kategoria ororen giltzarri eta beste lege ororen oinarrizko lege —kapitalismoaren kritikan— plusbalioaren legea omen da. Hori ere Stalinek zokoratuta eduki bide du, XX Alderdi Biltzarreak oi-

(11) Kontrario biren borrokan (a **versus** b) bitarik gerta daiteke: batak bestea zeharo birrintzea ta deuseztatzea. Orduan garaileak bestearen lekua jaten du eta bere eboluzioa jarraitu. Superbizitzen honek bakarrik darraienez gero, garaitua **historikoki** negatibu huts bezala agiri da: suntsitu egiten da. Honela dihardu naturalezan eboluzioak. Gerta daiteke, ordea, elkarren borrokan inork inor ez deuseztatzea, batak bestea ez baino biok elkarren arteko kontradizioa garaitzea, eta biok —maila berri honetan— bategitea (sintesia): hain zuzen elkarren ukazioa —kontradizioa— ukatu dute, biak beren buruak nolabait baieztatuz bukatu beraz, eta biok orobat lehenagoko egoera eta naturaleza gaindituz (eraberean ukatuz eta baieztatuz): kondaira honela bururatzeari kondaira-ikuskera dialektiko deritza. **Ukazioaren ukazio legeak** esan nahi du, bada, kondairan ez dela ezer alferrikaltzen, «iraganiko epe guzien positibua hartu eta gorde egiten den... eta funtsean eite progresistako desarroiloaren oinarri bait da». Kondaira-ikuskera honek aurrerapen sinismena inplikatzen du nabariki eta bere problema guziak orobat: irabaztea da historikoki positibu. Nolanahi ere iraultza osteko gizartea, esaterako, dialektikoki ez legoke gizarte proletario izendatzerik (ebolutibuki bai), gehienik ere postproletario-edo baino. Txit erraza da kondairaren burutapide ebolutibua eta dialektikoa nahastea.

(12) Cfr. I. M. Bochenski, **Der sowjetrussische dialektische Materialismus**, 1962, or. 132.

narri hori atzera balioberriztatu eta bere lekuratu arte (13).

Pentsamentuari, zientzien autonomiari, dialektikari, humanismoari eta ekonomiari buruzko bost printzipioen mailako adibideokin aski date, noski.

Printzipioen zentzu mugaketak nahiz haiekin ateratako emari klasikoak ere hauziperatu izanik, makina bat gauza jakingarri argitu da, orobat.

Marxen kondaira burutapide funtsean historizista, basiak gainegiturari eraginezko prozesoan, txit alde bakarki desarroilatu dela ikusten da. Gizarte diferentetako fenomenuak bakan hartuta nekez juzga daitezke batzuk besteak baino aurreratuago, halare, Lévi-Straussek erakutsi digunez. Aurrerapen konzeptua bera eta kondairaren determinazioena ere Lévi-Strauss berak oso indeterminatu eta zehazgabe agertarazi ditu (14). Gainegitura ororen

(13) Ik. pasarteak in **Folgen einer Theorie. Essays über «Das Kapital» von K. Marx**, 1967, or. 14/15. Hauzi honen gorabeheretarako ik. Ch. Bettel heimen idazkiak.

(14) Lévi-Straussek batzutan bere burua marxista edo deklaratzen du, baina oso bere moduko marxista inondik ere. Ik. E. Leach, **C Lévi-Strauss, antropólogo y filósofo**, in «Estructuralismo y antropología», 1969, or. 161: «Según el autor, hay que concebir los fenómenos sociales como las expresiones particulares de funciones matemáticas generales y constantes. Lo que se producirá no está predeterminado en detalle, pero sí fijado de antemano en su forma de conjunto, puesto que se trata simplemente de una transformación de lo que existe y de lo anteriormente producido. Cuanto más avanzamos, menos nos movemos: el último acto de Hamlet ya está prefigurado en la primera escena, aunque el espectador ignore lo que seguirá. Lo distintivo del evolucionismo del siglo XIX es su presunción de que a fuerza de razón y de cálculo el hombre no sólo terminaría por conocer su dirección, sino que también alcanzaría su objetivo en un tiempo extremadamente corto. Léxi-Strauss concibe el destino de una manera mucho más ambigua, pero no le faltan precedentes: Sófocles, los autores del Antiguo Testamento y el señor Buda de la leyenda hubieran comprendido muy bien su posición». Ez dago Lévi-Strauss baitan aurreparapen optimismo handirik: «mundua gizona gabe hasi zen eta gizona gabe akabatuko da».

erreduzioan basi ekonomikora, eta beronen desarroiloarentzat filosofia sobietarrak damaigun esplikazioan, lana —produzioa— sustantzia bere kontura esistente bezalakotsu bihurtzen da: aurrerapenaren eta, azken finean, kondairaren ardatza produzio indarren eta produzio harremanen arteko desegokitasun eta gatazkak burubidatzean omen dago, azken-azkeneko eragile produzio indarrak (ez gizona) omen direlarik. Hauk, ordea, komunzki ondasunetara eta tresneriara laburtu ohi dira, eta *azkeneko* beren eragile berberak badira, produzio ondasunek, indarrek beren burua sortzen dutela atera behar ondorio. P. Vranickik ongi ohartarazten du hemen gauza nabar-nabarmen baten ardura gutiegik gizona *makinaren eraskin* bezalatsu uzten duela. Produzio indarren eta bertako harremanen borroka gorabeherak ez bait dira bere gisa eta ez nolanahi zuzentzen. Gizonak egiten du hori, eta bere buruaren amorez. Horregatik ez balitz, piku bat inporta gizonari nolako harremanetan bizi. Eta arrunki, aspaldion batik bat, ez zer ahoratzeagatik, eta bai askatasunagatik lehiatzen omen da gizona (15). Produzio indarren azkeneko eragikortasuna beregaintasun horrekin bururatzekotan ez dago dialektika salbatzerik, gero nahi haina hotseginda ere, gizonak dagiela kondaira. Esaera retoriko huts bihurtzen da hau, ezin bait da honentzat azkeneko eragikor izateko lekurik erakutsi. *(Ikus azkenean 3-gn eraskina).*

Zalantzaotan ez da jakiten kondaira bere kau-

(15) Cfr. P. Vranicki, **Mensch und Geschichte**, 1969, or. 14. Ikus, hontaz nire **Marxismoa, etnia ta hizkuntzan**, 1971, or. 173-182.

> sen bidez ala helburuaren bidez azaldu, kausak ilunegiak bait dira eta helburuaz ezin bait daiteke inola zientifikoki mintza. Batetik helburu sujetibuak suntsitu eta desagertu balira b e z a l a esplikatzen da kondaira, helburuok kondairazko indarren legeak jarriko balituzte bezala, eta nahitaez haiek garamazkiten jomugara goazelarik. Bestetik, halare, kondaira gizonak egiten omen, eta legeak giza helburuei erreferituz determinatzen dira. «De aquí la vacilación tan fatigosa de las explicaciones marxistas: la empresa histórica queda definida implícitamente de una a otra frase por sus *fines* (que muchas veces sólo son resultados imprevistos) o queda reducida a la propagación de un movimiento físico a través de un medio inerte» (Sartre). Determinismo kausalistarik gabe, horregatik, Althusserek historian egiturak bilatu nahi ditu.

Kondaira konzeptua orokarki lausotan agiri den moduan, kondairaren banakuntza ere klase kondairako mailaz-maila, ez da erreparorik aurkitu gabe gelditu azken urteotan.

> Marxek ongi ikusi zuen iraultza burgesean gertatua. Klase nagusi bi zegoen elkarri buruz-buru —aitonseme feudalistak Errege absolutistarekin eta burgesia goraitean— gizarte bat beraren barruan. Bata gainean eta azpian bestea. Hemen benetakoa izan zen iraultza, dialektikoa, gizartearen kontradizio barrutik altxatutakoa: azpiko klaseak gainekoa jo eta irauli zuen, bera gora igoaz. Iraultza burgesean somatua ia-ia kondaira guziko nahitaezko lege orokortzat jotzeak, halare, aplikazio baino salbuespen gehiagoko arau dirudi. Fran-

tziaz gaindi, arau hori dudagarri da burgesiaren iraultzarako bertarako. J. Jaurèsek bere *Histoire Socialiste*-n bere duda-muda aitortzen duenez, esaterako, ekonomiazko mailaren eta indarren arrazoiarekin bakarrik ez omen dago esplikatzerik nola ia Frantziak hainakotsu industriadun beste herrietan —Alemania, adibidez— halakorik gertatu ez zen. Lege horrek prognosirik egiteko balio ez duena, batik bat, bistan dago, prognosi guziak gezurtatu izan dira-ta, Marxenak berarenak lehen-lehenik. Europako kondairatik mundu guzikoaren —kondaira ororen— eredutzat ateratako maila banakuntzak ez dirudi, areago, Europatik kanporako historia esplikatzeko laguntasun erosorik. Retrognosiak, halare, gustora egin ohi dira, ia beti teoriaren egiztapen bila, ta halakoxe batek bost mailatako kondaira azalpen txit klasikoa eskaintzen digu: lehen gizarte, esklabu jabezaro, etc. (16). Baina lehen gizartetik hurrengorako iragapidea nolakoa izan zen eta zergatik gertatu zen historikoki esplikatzeko hipotesi hutsetan haztamuka ta asmaka bakarrik ibil daiteke. Kapitalismotik komunismora nola pasa, orobat, inor pasatuta ikusi arte behintzat hau ere zientzia historikoarentzat hipotesi egiztatu gabekotzat egongo da, eta bera egiztatu gabeko hipotesia nekez izan daiteke beste inoren egiztapenik. Beraz, feudalismotik kapitalismora pasatzeko era lege historiko bati zegokiola egiztatzeko esklabu jabezarotik feudalismorako iragaitza bakarrik gelditzen da: hipotesi bat egiztatzeko ez beste hipotesi batek eta ez bik

(16) Cfr. G. M. Gárate, **Marxen marxismoa**, 1971, or. 106-108.

bait du ezer balio. Lege batentzat, eskierki, egiztapen oinarri argal samarra. Baina oinarri argal eta bakar hauxe bera ere duda-mudazkoa da. Mundu greko-romanoaren produzio harremanak esklabu jabezaro bezala ezaguarazterik ba ote dago zentzu hertsian? (17). Ta gero —batez ere— feudalismoa gizarte esklabistaren barrutik, hots, gizarte honetako klase arteko kontradizioek eta borrokak, ala aldemenean bizi ziren germanoen uholdeak eta erasoak (kanpotiko eragindurak, hortakoz) da sortua? (18).

Eta abar, hamaika abar eta mila.

Baina, funtsean, eta honez gero antzeman dakiokeela uste dut, problema ez da pondu bat ala beste koloka abiatzea. Guzia nola ulertu da benetako problema. Horregatixe ez dago pentsatzerik marxismoaren muina, nukleoa hauziotatik libre legokeela —eta, periferiako hauziok bazterrera utzirik— oraingoz herriari muin eta gune seguru hura bakarrik ezaguarazi behar zaiola, problemaok —apainduria arazo balira bezala, ez muinari berari dagozkionak— erdiune hura finkatu eta *gero* bakarrik eztabaidara ateratzeko.

(17) Ez Grezian eta ez Erroman dirudi lurlangintzan —produzio sail nagusian; gizarte haretako produzio indar nagusiak beren esku izaki, beraz— esklaberia produzitzaile nagusitaraino inoiz heldu zenik. Garraioan, itsaspidezko garraioan batez ere, zerbitzuetan, etab esklabu asko zegoen eta laborantzan ez guti. Baina nekazaritzan produzio talde handiagoa zen, antza, beterano, liberto ta beste nolanahiko libre ta erdi libreena (perioikoak Espartan, plebeioak eta kolonoak etab. Erroman) gaurko historiagileen ustez.

(18) Cfr. G. M. Gárate, aip. lib., or. 110-113. K. Kautsky, **Die materialistische Geschichtsauffassung**, 1927, II, or. 620, sozialki oinarrituriko ta beraz **ezinbestean** gertaturiko erreboluzio bat bakarrik egon den ondoriora ailegatuko da: iraultza burgesa.

Problema astunegi eta larregi da, izan ere, petatxo eta adabakiekin askiesteko (19).

Ezin itzurizko eta iadanik ezin gerora luzatuzko da, marxismoak sinesgarri, eta sinesturik baliagarri jarraituko badu, problema guziok sakon-sakon berpentsatzea. (Ala beste mundu guzian agiri-agirian eztabaidatzen diren ideiak isildu eta ipuinak iruntsi arazi behar zaizkio gure herriari, ipuinok zientifiko direla sinestaraziz?). Hau ez da buru bat edo biren lana: *el estancamiento y el retraso del movimiento en los países desarrollados, el doctrinarismo sectario,* eta beste aldetik (bainan honexen ondorio) *el escepticismo sobre las posibilidades reales del socialismo; el eclipse de la perspectiva revolucionaria* gainditu behar dira.

> El problema es tan hondo que no bastan los esfuerzos aislados de tal o cual Partido para hallarles solución. Es un problema que coincierne a todo el movimiento y que todo el movimiento debería abordar seriamente. La afirmación repetida de que los Partidos Comunistas [eta berdin esan zezakeen: marxismoa] son la vanguardia no lo ha resuelto ni lo resolverá (20).

Ezin jasan daiteke gure herrian nolakoxea eta hain zuzen irteerarik ez duela ikusita dagoen tankerako marxismoa sartzea. Marxismoaren karlista bihurtu behar dugu orain!

M. Harnecker, Althusseren gaztelerara itzultzaileak,

---

(19) Ik., areago: Igara, **Marxismoa modan egon zan,** Jakin 26 (1967) or. 3-21; R. Arregi, **Eguzkialdeko haize hoiek,** Jakin 35 (1968) or. 25-51; R. Arregik badu besterik ere. J. R. Beloki, **Komunismoa 50 urtez gero,** Jakin 23 (1966) or. 11-17; X. Mendiguren, **Sozialismua ta agintaritza,** Jakin 20 (1965) or. 51-58 eta **Lenin, kondaira ta mito,** Jakin 22 (1966) or. 44-51. Problema zerrenda hau aisa luza daiteke, baina horretarako enpeinua duenari ez zaio literaturarik faltako.

(20) S. C., **Libertad y Socialismo,** 1971, or. 82-84.

honela adierazten dizkigu, bide batez, gaurko premia nahiz Althusseren jokabideen arrazoia:

> Las «Citas célebres» ya no son suficientes, es necesario realizar una lectura crítica a partir de las fuentes mismas. Volver a Marx es la única manera de combatir el marxismo «religioso», aquel que se impone como un dogma y que se cree poseedor de toda la verdad.

Jakina, inork ez luke hori norberetzat hartuko. Zein da, beraz, marxista erlijioso hori? Althusserek berak deskribizio honekin salatzen du: *dividía el mundo (artes, literaturas, filosofías y ciencias), utilizando un sólo corte: el despiadado corte de clases.* Hori Frantzian pasata omen dago: *Tiempo cuya caricatura puede resumirse en una frase: bandera izada que flamea en el vacío: 'ciencia burguesa', 'ciencia proletaria'.* (Hori karikatura baldin bada gure arteko marxista zenbaitek ez du marxismoaren karikatura txarrik egiten!). Geroxeago *monstruosidad teórica de las dos ciencias* (21) deritza horrixe berari. Eta pentsa, hau idazten ari naizen unean Euskal Herrian eztabaida bizi-bizian omen daudela euskal jaien burgeskeria, ikastolen burgeskeria, euskera ikasteko Altunaren metoduaren burgeskeria, euskal kultura burges ala proletario ahal den, hizkuntzak *karakter* sozialik ezartzen ahal duen, elizatik ezkontzea eta —elizatik pasa gabe ere— haurrik izatea, goi mailako karrerarik egitea etab. bur-

---

(21) Cfr. **La Revolución Teórica de Marx**, 1967, or. 3, 16 eta 24. Klase sinplismo horri lehenengo kolpea Stalinek berak eman ziola nire **Marxismoa. Etnia ta Hizkuntza**-n nahiko garbi dagoela uste dut. Althusserek (aip. lib., or. 16): «Entre las líneas de algunas páginas simples donde [Stalin] condenaba el celo de aquellos que pretendían a toda fuerza hacer de la lengua una superestructura, entrevimos que el uso del criterio de clase no era un criterio sin límites y que se nos hacía tratar la ciencia, cuya rúbrica cubría las obras mismas de Marx, como una ideología cualquiera. **Era necesario retroceder y, en una semiconfusión, volver a los rudimentos**» (nire azpim.). Hauxe besterik ez da niri Euskal Herrirako ere ezinbestezko iruditzen zaidana.

geskeria ahal den, etc. etc.! Humorea behintzat ez dezagula inoiz gal...

Hauziok beti berdin sortzen dira: edozertaz aritu, beti ikusalde bera hartzen da. Eta zein jokabide eta arrazoipide erabiltzen den, esan beharrik ere ez dago: «conceptualizando los hechos *antes* de haberlos estudiado» (Sartre). «Ya no se trata de estudiar los hechos con la perspectiva general del marxismo para enriquecer el conocimiento y para aclarar la acción; el análisis consiste únicamente en desembarazarse del detalle, en forzar el significado de algunos sucesos, en desnaturalizar hechos o hasta en inventarlos para volver a encontrar, por debajo, y como sustancia suya, unas 'nociones sintéticas' inmutables y fetichizadas». Azterketaokin agian ederki jakinen dugu gure problemak azken-finean zer diren, baina azken finerainoko guzia ponttuz-ponttu jakiteko axolarik ez badugu, zertarako demonio dugu sintesia, zerena den eta nolakoa den ez jakitekotan?

Beraz, krisia badago. Eta badago iadanik krisiari gain hartzeko makina bat entsegurik ere.

Marxismoa berrikustera eta berpentsatzera behartu duena ez dira teoriazko hutsune eta sasarteok bakarrik, bistan dago hori. Sozialismoaren hautsidura (Sobiet Batasuna, Jugoslabia, Txina, e.a.) eta lurralde sozialistetako esperentzia garrantzizkoago dira, noski. Hemen alde —praktiko eta politiko— honi jaramonik egiten ez bazaio gaia ahalik gehien teoriaren partera mugatzeagatik bakarrik da: ekintzan ez gabiltzenok ez dugu ekintzaleei leziorik eman nahita hasteko arrazoirik.

Teoriaren balio-oinarria: ezagutza teoria

Teoria edo konzientziaren eta praksiaren arteko batasunaren hauzia, egoera honetan batez ere, marxismoaren bihotz-bihotzeko da. Afanasievek *es el principio superior del marxismo-leninismo* deritza. Eta areago, *el rasgo distintivo de la teoría marxista del conocimiento consiste en que el proceso del conocimiento se asienta en la práctica, en la actividad material, productiva, de los hombres, que conocen los objetos y fenómenos en el curso de esa actividad.* Barnera gakizkion, bada, problema honi, tesi horretxen adierazpen ezberdinetan sustraitzen bait dira gerorako diferentzia handienak, zein taiutako marxismoa jasotzeari buruz.

Tankera sobietarreko marxismoak —ortodosoak, klasikoak— objetibukeriara jotzen duela salatu ohi da. Burokrazian, agintaritzaren eta Alderdiaren antolamenduetan, plangintza ekonomikoen eitean, etab. erakus daiteke hori. Muga gaitezen filosofiara. Pentsatzearen eta izatearen arteko harremanen argibidean datzala filosofiaren zeregina, esaten nuen gorago, eta argibide haren moldean filosofia bakoitzaren ariurria. Harreman arazo hau

1. — *lehentasun arazo moduan har daiteke:* pentsatzea ala izatea da lehenago? Alegia, hemen ez digu problemak berez inporta, problema horri buruzko marxismoaren posizioak baino. Beste honetara ere uler daiteke arazo hura:

2. — *zein harreman tipo da bakunena,* sinpleena, pentsatzearen eta izatearen artean? Bigarren honetan, bada, ez da galdetzen biotako zein (gauza) den lehenengoa, bion arteko zein erlazio modu baizik. Galde-

tzeko mota bion diferentzia ulergarri samar adieraztea lortu dudala itxaro dut, guziz inportantea bait da. Galdera bata lehen ekaiaren (sustantziaren) bila doan artean, bigarrenari holakorik bururatzerik ere ez dago, erlazioengatik bakarrik inporta bait zaizkio gauzak, hots, hemen gizonarekiko harremanengatik soilik.

Marxengandik beragandik ez dadukagu hontaz gauza handirik, eta dadukaguna era bietara adieraz daitekeela —edo nahi dela horixe egin— aitortu behar: basi edo oinarri ekonomikoak *erabakitzen* duela gainegituraren zer-nolakoa. Engels, naturalezaren dialektikarekin-eta, lehenengo galdera egileen artean sartu behar da, beren galderekin azkenerako nahitaez ontologiara —lehen Izanaren hauzira— doazenekin. Gerozkoan —Lenin, e.a.— Engelsi segitu izan zaio behienbat, 1920 aldera batzuek —orduan kontrarioek esaten zuten moduan— Marx *hegeldiartzen* hasi arte: Lukács da ezpairik gabe azkeneko joera honetako sonatuena. Orain, eta problemaren zentzua argitzeko bakarrik, Th. W. Adornoren hau aldatuko dizut:

> Haatik izpiritua [pentsamendua] datotik, hau harengandik bezain guti ebaki eta aparta daiteke. Ez bata eta ez bestea da Lehenengorik. Bata nahiz bestea esentzialki [bata bestearekikoak dituzu] (eta) bestearekin batera, bestearen bidez mediatua eta bitartekatua izateak biak ezgaitzen ditu Lehen Printzipiotarako.

Baina, zer da praksia ta zer ezagupena? (Astiro-astiro, hasieran parentesi artean utzitako zenbait pondutara itzuli beharko dugu hemendik aurrera).

Aurrenik, ez da ekintzaren eta konzientziaren batasuna gauza arras diferente birena bezala imajinatu behar. Eta hori ez egiteko: gogara gizonak bere ingurune soziala ta materiala, naturala aldatuz batera bere burua aldatzen duela. Praksia, hortakoz, *bizitza* konzep-

tuaren osagarri beharrezko da, eta haren modalidade bat dela ere esan daiteke. Abereak ere aldatzen du, ordea, bere ingurunea. Ez, noski, gizonak bezala, baina bai harek ere bere premien egitamu edo estrukturaren arabera. Eta gizonak ere horixe bera egiten bait du, gizonaren irudipenen batek, gizakeraren batek, gizonaren propio diren premiren batzuk, gizona abereengandik berezten duen zerbaitek, presuposatu beharrezko dirudi praksiaz inola mintzatzeko. Hau da, kondairaz. Marxen *Das Kapital*-en, horregatik, armiarma eta ehulea, erlea eta hargina konparatzen dira. Baina gizonak bere ingurumaria berbere barne egitamuaren arioan aldatuz bere barne egitamua bera ere ez daduka aldakaitz, beti berdin. Hitz batetan, gizona bere lanaren obra da. Eta produzio, politika, arte, jakintza nahiz jolas ala familia, ekintza da, hitzaren zentzurik garbienean. Zabalero eta arruntasun hauekin hartu behar da lehenik praksi konzeptua, ezkutuan ekintza oro hasieratik beretik ekintza mota hobetsiren batetara laburtu gabe: ondasun produziora, adibidez, gero beste praksi hesparru denak haren mende jartzeko. Edo esperentzia tiporen batetara, iraultza sobietar edo txinora, adibidez, gero iraultza oro tipo harekin neurtzeko eta hari berdintzen lehiatzeko (22).

Hori horrela, praksi orok inplikatzen du, berdin-berdin sinpleenak eta konplikatuenak *teoria*ren bat. Jarduariak, bada, hiru alde ezberdin agiri du: 1) zentzuena,

---

(22) Praksi sozial mota determinante bat onetsi arren praksi konzeptuari bere zabalgoa ez kaskartzeko lehien adibide bat Althusseren praksi definizio honetan ikus daiteke: «Por **práctica** en general entenderemos todo proceso de **transformación** de una materia prima dada determinada en un producto determinado, transformación efectuada por un trabajo humano determinado, utilizando medios (de «producción») determinados», cfr. aip. lib. or. 136. Autore berak honela azaltzen du teoria praksi ginoan: «La teoría es una práctica específica que se ejerce sobre un objeto propio y desemboca en un **producto** propio: un conocimiento» (or. 142).

konkretu, 2) teorikoa, abstraktu, 3) sentimentuarena, esperentzia heinekoa (23).

Teorian, ezagupidean, guziok izanen bait dute nolabaiteko hartukizunik, *arrazoimen hutsaren zientziazko* filosofiarik eduki uste duenak horren kontu ematen jakin beharko du.

Marxistek sentimenari arrunki jaramon hain guti egiteak merezi luke gogoetaldi bat, baina hemen ezin horretan geldi gintezke (24).

Lehenengo bi alderdiak gelditzen zaizkigu: zentzuen bidezkoaren eta abstrahikuntzaren batasuna nola bururatzeak jartzen digu, bada, lehenengo arazo maila, ekintzaren eta konzientziaren batasuna zuzen ulertzerakoan. Marxista klasiko gehienek honelatsu azaldu ohi dute hau (25): abia-abiaburu zentzuen bidezko ezagupena besterik ez da, abstrahikuntzarik ez da hasierako fenomenu bezala ezertarako aipatzen. Ezagupena zergauza banakoarekin, izakari determinatuaren dohain berezkaien, propiedade partikularren hautemanez hasten da: zer ilun, zer nabar, zer latz, leun, bero, guri, e.a. den hautemanez (sentsazioa). Zentzuen bidezko ezagupen hau (hautemaldia) gauza osoaren oharpenak (percepción: *refleja el objeto en toda su integridad sensitiva, con el conjunto de sus aspectos y particularidades exteriores*) eta irudipenak (representación: *reproducción en la conciencia del hombre de lo percibido anteriormente*) osatzen dute. Adibide batekin: lehen epean begiak tantai berde zerbait hauteman du hegian; geroxea-

(23) Cfr. P. Vranicki, **Zum Problem der Praxis**, in op. cit., or. 107.

(24) Txillardegiren idazkietan sarri aurkitzen da kritika hau.

(25) Gorago aipaturiko errealismoaren arazora itzultzen gara. Azalpen honetan Afanasieven **Fundamentos de filosofía**-z baliatzen naiz, or. 170-191. Ondokoan darraien aipaldi oro liburu honetako pasarte da, orria parentesi artean duela.

go bakanka hautemandako dohainen bilduma bat lortzen dugu, ta harkaitza-edo ez bezala, mendiaren edo hegiaren esistentziatik aparteko esistentziarekin oharrematen dugu zerki eta dohain sorta hura: arbola bat oharrematen dugu. Azkenerako badugu arbolaren irudipen bat ere eta lehorteren baten aurrean, esaterako, ederki imajina genezake arbolak landatuko balira lehorteak zuhaitzekin zein itxura hartuko lukeen.

Honetarako badu gizonak aparamen fisiologiko bat, eta haren araberakoak dira hautemaldi soilak:

> Lenin definió la sensación como la **imagen subjetiva del mundo objetivo.** La sensación, reflejo de los objetos existentes objetivamente, no es una impresión mecánica de ellos en el cerebro humano, sino una imagen **ideal.** Esta imagen es subjetiva, por cuanto no pertenece al mundo exterior, sino al hombre (sujeto) y a la humanidad (176).

Haatik ere Afanasievek ez dio *subjetivismo de las sensaciones* horri ezagupen objetibuaren etsai bihurtzen utzi nahi. Baina baitets dezakeen objetibutasuna ez da objetibutasunaren neurri praksia jartzearen araberakoa baino gehiago (26). Ta praksiak, esan bezala, esandako zentzuan behintzat, sujetibutasuna zeharo inplikatzen du (27). Afanasievek, halare, objetibutasun askoz irmoagoa nahi luke: «*La verdad objetiva* —escribió Lenin— es un contenido de nuestros conocimientos, que *no depende ni del hombre ni de la humanidad*»

---

(26) «Si las indicaciones de un órgano de los sentidos mueven a dudas, recurrimos a la ayuda de otro. Por algo, si el hombre no da crédito a sus ojos, recurre al concurso de las manos, y si ello es insuficiente, tiene a su disposición los ojos y manos de otras personas. Si, por último, tampoco basta con ello, el hombre recaba la ayuda de aparatos, del experimento, de la práctica» (or. 177).

(27) Oroit Engelsen «the proof of the pudding is in the eating», euskeraz, txuletaren esistentzia janez demostratzen da. Baina, jale eta jangale diferente asko egon!

(184/185). Hori hala bada, berriz, *el único criterio de la verdad es la práctica* (190) borobil-borobil esateak ezin eman digu zurrunbilo horretatik irtetzeko laguntzarik batere. *La verdad objetiva... un contenido de nuestros conocimientos, que no depende ni del hombre ni de la humanidad* izanik eta gure zentzuak *la puerta por la que el mundo exterior 'penetra' en la conciencia humana* (176), hemen ez dator ezertara praksia aipatzea (eta gutien-gutienik egiaren neurri bezala), engainatzera ezpada, *praksi pasibua* bakar-bakarrik bait litzake orduan posible. Eta hau metafora bat ala absurdo bat izan daiteke, baina beste ezer ez. Ikusiko denez, korapilo hau dela-ta praksia gizonarena bezala ez baino naturalezaren beraren gizona baitako praksi bezala adierazteko joera hartuko da Leninez geroztik: natur ontologia. (Ikus azkenean 3-gn eraskina).

Ikuskera honi behin eta berriro mekanizismo akusazioa egin izana ez da, ausaz, gehiegi harritzekoa. Gutien-gutienez arrisku tendenzial bezala franko nabarmen bait dago. Afanasievek Lenin erruz aipatzen digu, baina hain zuzen *kopiaren* teoria leninista isilpean pasatzea ezin izan daiteke oharkabeziarik eta deskuidorik. Baina, honetara hurrengo atalean itzuli beharko dugu.

Aitortu beharrean nago hurrengorako: nik ez dakit geroxeago dialektika aipatzea zertara datorren, itxurak salbatzera ez baldin bada:

> El tránsito de lo sensual a lo abstracto es un salto **dialéctico** operado en el proceso del conocimiento, en el movimiento que éste recorre de lo inferior a lo superior [**behetik goratze oro dialektiko dela esan nahi ote?**]. La esencia de este salto estriba en que la razón humana efectúa un tránsito del conocimiento del fenómeno —exterior y superficial de las cosas— al descubrimiento de su esencia, de su naturaleza interna (180).

Horra, bada, dialektika marxista ez dela San Tomasena eta Orixerena baino dialektikoago... Eta hauxe da, mekanizismoarenarekin batera, marxismo klasikoaren ezagupide teoriari gaurko marxista asko eta askok dagion kritikan bigarren pondua.

Hirugarrena sintesiaren burutapenari dagokio. Zentzuen bidezko ezagupena oso laburra da.

> El conocimiento sensitivo nos da una impresión sólo de algunos aspectos exteriores de las cosas... En suma, el conocimiento sensual no puede dar a conocer la naturaleza interna de las cosas, su esencia, las leyes de su desarrollo, (178).

Azkeneko honetara pentsamentu —ezagupen— logiko edo abstraktua dator. Eta pentsamentu logikoaren erarik errazena eta bakunena konzeptua duzu.

> El **concepto** no refleja en las objetos todos los aspectos, sino los **esenciales, generales,** nada más, rechazando todos los secundarios, abstrayéndose de ellos.

Har dezagun *gizaseme* konzeptua: zure edo nire berezitasunik ez dago; ez adin, ez sekso, ez lanbide, eskola, gorpuzkera, naziotasuni begiratzen bait zaio. Edozein eta edonoizko kristau da gizaseme. Konzeptu hori, bada, gutako bakoitzak norbere erara betetzen duen eredu hutsaren antzeko da. Berdin *abere,* etc. konzeptuak. (Konzeptuok ez dira hizkuntza guzietan berdin ebakitakoak: hermana ahizpa/arreba). Konzeptuen joskerak judizioa ematen du: gizona (abstraktu) abere (abstraktu) da, judikatzen dugu, nahiz-eta gure zentzuek ezin bertatik bertara holakorik erakutsi. Konzeptua eta judizioa hertsi-hertsi loturik daude. Zenbait judizioren joskera logikok ondoramena permititzen du. eta halako judizioei premisa ohi deritzaie: gizona abere da (1. premisa) — Sokrates gizon da (2. premisa): Sokrates abere da (ondoramen), e.a.

Dela konzeptua, dela judizioa, praksiarekin sortzen dira. Alderantziz haien sorkura praksi dela ere esan genezake, besterik gabe. Eta nabari denez konzeptutik judiziora, eta hau zehar ondoramenera, ondoriora, sintesi batetarantz jotzen da.

> Sobre la base de la práctica se realiza la actividad sintetizadora de la razón y se interpretan los datos del conocimiento sensual (179).

Oharpenak edo konzeptuak bezalaxe, azterketak (analisiak) ere gauzak banaka ikertzen ditu: adibidez, gizateria sail bakoitza, produzio teknika bakoitza, ondasunen partiketa, kapitalaren joanetorri mota bakoitza, etab., eta zatiok bateginaz lehen osotasun batzuek lortzen ditu: klaseak, produzio indarren maila, jabego edo kontsumo kondizioak, kapitalaren ibilera. Osotasunok goragoko sintesi batetan ere bil daitezke. *Sintesi* hitza grekotik dator eta elkar biltzea, lotzea, bateratzea, berdintzea esan nahi du; *analisiak* gaia ebakitzea, banatzea, zatikatzea, bakantzea, zehaztea, bereztea. Afanasiev-eta gure zentzu arrunta bezalaxe mintzo dira: lehenengo gai bakanak agiri zaizkigu eta astiro-astiro, gaion arteko harremanak eta funtzioak edirenez, gai sorta bakoitzaren sail sintesira heltzen gara. Esplikatu gabe gelditzen zaiguna —zentzu arruntaren bidez izan ezik— zera da: nondik nora gai bakanak bakan *diren*, hau da, gu gaiok bakanka oharrematen hasi ote garen. Sintesia nolabait analisiaren atzetik bezalaxe aurretik ez ote dagoen. Zer-banakoaz mintzatzeak aldi berean osotasuna inplikatzen ez ote duen. Adibide merke batekin azaltzeko: etxe bat ikusten duzunean etxea ala bere parteak ikusten dituzun lehenago.

Sinplekeria hau, lehenengo osotasuna ala zer-banakoa ote dagoen, abstraktua ala konkretua, filosofiaren buruhausterik gaitzenetakoa da, filosofia modernoarena

bereziki. Hemen axal gainetik bederen argitzeko arrazoia marxismoaren eite orokor edo naturalezarena da (ik. 7-gn oin-oharra). Marxismoa, izan ere, gizarte osoaz eta edozeinez, gizarte unibertsalaz mintzo da. Marxismo klasikoak deritzanez, gizarte unibertsalaren konzeptu abstraktua, halare, zientzia positibuen ekarriak elkartuz, jeneraltze edo orokartze hutsez, analisi bidez lortzen da. Beste marxista kritiko askoren ustez kondairaren batasuna, beti bat bera den kondairaren sujetu enpirikoaren suposizioa, horixe da, presupostu bat. Horra marxismoak bere burua bururatzeko mota biren beste seinale bat. Problema hau batez ere Marxen eta Hegelen arteko zerikusiena da (28). Oraingoz bi frase aipatzearekin konformatuko naiz:

> el acto de **abstracción** que extraería de los individuos concretos su esencia pura es un **mito ideológico** (Althusser) eta Marxen beraren hurrengo esaldi zail hau: Ba dirudi [**azterketan**] zerbait bakun eta konkretutatik hasi behar dela... Baina, sakonagora joz gero, (irudipen) honen gezur ponduaz jabetzen gara (...); azken aipaturiko metodu hauxe (ekonomia alorretan erabili ohi dena, konzeptu edo burutapen orokorretatik kontzeptu bakunetara iristen dena alegia) dugu egiazki zientziako metodu zuzena. Ezer konkretu baldin bada, mugaketa askoren sintesi delakoxe da konkretu: konkretu izatea ugaritasuneko bakuna izatean datza... Abstrahinkuntzatik konkreturako igaropidean oinarritzen den metodua, pentsamenak konkretua bereganatzeko berea egiteko bidea besterik ez da, hau da, zerki konkretua bereganatzeko konkretuaren itxuran birsortzeko bidea.

Guzi hontan arrunkeria eta zentzu-nahastura gehiegitxo dago. Adibidez: egia da, XVIII-gn mendeko enpirista handien bidetik marxismoak ere uste duenez (baina beste edozein filosofiak ere bai), ezagupena espe-

---

(28) Ik. I. Fetscher, «K. Marx und der Marxismus» liburuan —1967, or. 44-122— kapitulu oso bat hontaz: **Das Verhältnis des Marxismus zu Hegel.**

rentziari edo praksiari dariola. Baina ez gizonaren beraren egimen-esperentziari, ezta gizadiaren esperentzia multzokatuari bakarrik ere.

> Es perfectamente verdadero que todo, en los seres vivos, viene de la experiencia, comprendida la innatividad genética, sea ésta la del comportamiento estereotípico de las abejas o la de los cuadros innatos del conocimiento humano. Pero no de la experiencia actual, renovada par cada individuo, en cada generación: de la acumulada por la ascendencia entera de la eespecie en el curso de la evolución (Monod).

Esan nahi bait da, gure barruan gure leinuko animalia guztiak bizirik daudela oraino. Honek tradizionalki «ideia innatoen» edo jatorrizko ezagupide-egitamu eta eskemen problema jartzen du. Kategoriena. Marxistek ez dute holakoen aipamenik gogoko: idealismoaren susmoa hartzen diote. *Tabula rasa* antzean nahi lukete gizonaren adimena, praksiak bere erara bete arte. Euskaldun marxista bat —Ereño— Larresoro solipsistatzat edukitzeraino ailegatu da, pentsakerak hizkuntzazko egitamuen tankera hartzen duela esan duelako. Halabaina, hizkuntza bera egitamu sakonagoen araberakoa dela ere lasai samar esan daiteke iadanik. Eta idealismotik askoz hurbilago agiri da, honez gero, *tabula rasa*-ren ametsa, pentsakera hizkuntzak taiutua delako eritzia baino. Gizadia, abere espezie gisa, bere horretan finkatuz gero, bere izakeraren egitura barruan dago, ta horren araberakoak ditu bai hautemaldiak eta bai irudipenak. Hots, bere premien arabera oharrematean datza ezagueraren objetibotasuna; ez, ordea, gauzei berei legokiekean neurriko oharrematean, gauzei gizonaren oharkera bezain egoki bait zaie katuarena edo euliarena. (Honetara berriro itzuliko naiz). Enpiristek bezalaxe marxistek ere, ez dute jatorrizko «ideia» kartesianorik eta ez «kategoria» kantianorik onartu nahi izan, ezagupenak aldez aurretiko eredu edo moldeen

formarik ez baino praksiak ezarritakoa bakarrik hartzen duela azpimarkatuz. Gaur zientziek antinomia hura gainditzeko haina dato eskuratzen digute: «jatorrizko ideia» haiek ba daude, baina berak ere gizonaren eta pregizonaren esperentziarekin sortu dira, ez noski deusezetik. Descartesek eta Kantek haien nondik-norakoen berri ematen ez bazekiten ere, ongi asmatu zituzten, zuzen igarri. Ez enpirismo radikalak eta ez idealismo radikalak dirudite iadanik, haatik ere, arrazoizko.

> Aún en nuestros días ciertos etólogos parecen ligados a la idea de que los elementos del comportamiento, en el animal, son o bien innatos o bien aprendidos, excluyendo cada modelo al otro. Esta concepción es enteramente errónea, como Lorenz ha demostrado enérgicamente. Cuando el comportamiento implica elementos adquiridos por la experiencia, lo son según un **programa** que es innato, es decir, genéticamente determinado. La estructura del programa convoca y guía el aprendizaje, que se inscribirá pues en una cierta **forma** preestablecida, definida en el patrimonio genético de la especie (Monod).

Hau dena bi problema sailekin loturik dago: 1) ezagupidean osotasuna ala partea den lehenago, eta 2) materia ala izpiritua den lehenago, edo-ta, problema hori horrela jartzea zilegi ote den; hots, ez ote den bion arteko lehen-harremanez galdetu behar, eta ez biotako zeinen lehenagoko esistentziaz, lehen-izakiaz. Edo oraindik: bataz ala besteaz galdetzeko presuposatzen den bion bestetasun forma gainditurik ez ote dagoen gaurko zientzia ta filosofientzat.

Materialismo metafisiko?

Begiratu atzera eta gure egunean eguneango hauziek sotil eta lau dirudite 1910/1930 urteetakoen aldean. Ahazpenak janda daude gehienbat. Ezker berria ari da gaurko gazteriari orduko zenbait idazki baliotsu berriro ezagu-arazten. Izan ere, gaur berton idatziak dirudite. Bestelakoxe argitan agertzen da orduan, esaterako, R. Luxemburg, K. Kautsky eta besteen artean Lenin. Guzi hauk —gehienetan haren kontrario— ingurutik kenduz, Leninen irudiak beharbada maiestate paregabean irabaziko du, baina ez nortasun bizitan gehiegi galdu gabe. Baina batez ere marxismoaren tradizioak galtzen du, praksiarekin

bat-bateginda zegoen artean uneoro eta behin eta berriro eta norbaitek nolabait askatu ostean marxismo bizia berrien berri askatu beharrean zegoen, dagoen eta egongo den arazoek: iraultzaren sujetua. Alderdiak sujetu gisa dituen ongaitzak; zertan datzan kontzientzia, ulertzerik ote dagoen hau teoria sistimatiko formal gisa; zein zientziazkotasun den marxismoarena eta zein haritan dagoen hau beste zientzia guziekin (horixe egia bait da: zientzia berdin/ezberdin birik ez dago: ekonomia zientifiko marxista/ekonomia orobat zientifiko baina ez marxista); zer den materialismoa, e.a. (29). Azkeneko honek eta zer den dialektikak batez ere marxismoaren buruzko ia problema guziak daduzkate barne. Garai batetako mila joera eta haritatik bat bakarrik gelditu dela dirudi —leninismoa— garaitzapenera ere bera bakarrik heldu bait da. Baina joera ugaritasun honetan —elkar borroka beroa izaki— bakoitzak bere partea gogotik indartu duelarik, erraz itzultzen da parte hau atzera osotasuna bere erara moldatzera. Horrela marxismoaren interpretazio tankera osoa joera aldian-aldiko bakoitzaren berezitasunek beren itxurarekin itxuratuta ageri da. Praksiak leku diferentea hartzen du osotasunaren barruan, segun de fakto —Kosikek dioen bezala— materiatik ala praksiatik bertatik abiatu; teo-

(29) Cfr. K. Kosikek, **Gramsci et la philosophie de la praxis,** in Praxis-3 (Zagreb) 1967, or. 328, honelaxe deskribatzen du hauzi sorta hau: «Les questions autour desquelle tournait cette discussion étaint, en résumé, les suivantes: est-ce la **matière** ou la **praxis** qui est le point de départ du marxisme?». Oinarrizko problema honi marxismoaren ikuskera orokorrarena hertsi-hertsi datxeko: «La pensée de Marx est-elle une philosophie ou bien une théorie critique de la societé?». Filosofia eta teoria kritikoa elkarren buruz-buru eta hautabeharkizun antzean jartzeak berak erakusten du hemen filosofia esanahi espezifiko zehatz batekin hartzen dena. Ez dut dudarik halaxe egin beharra dagoela ere, baina oraingoz nahaste gehiegi sortuko lukeen beldurrez (gure artean ortodoso askok hautabeharra filosofiaren eta zientziaren terminotan jartzen bait du) mail apalago eta guri hurbilago batetan gelditzen da saiakera hau. Kosikek honela bukatzen du: «Ni le sens, ni le déroulement de cette polémique n'a été, jusqu'à présent, suffisamment éclairci et c'est pourquoi on n'a pas pu apprécier à leur juste valeur l'apport et le caractère spécifique des discutants, qu'il s'agisse de Lukács, Korsch, Bucharin, Deborin, Marcuse, Horkheimer, Gramsci».

riak egikera eta eginkizun diferenteak ditu, orobat. Eta osagarrion moldaketa diferenteekin kontenidua ere aldatu egiten da.

Ez dago zer esanik horrekin osotasuna —bizi eta higikor, aldakor eta aldikor— bere parte baten gatibu gelditzen dela, beste aldetik osotasuna bere atal baten dinamikak bizirik ateratzen badu ere. Oinarrien luizi-irauli bat gertatzen bait da.

Honetara, bada, marxismoak arian-arian —filosofikoki batik bat— mila modutako erreduzio eta mehardura sofritu behar izan du. Gerora erreduzio horrek atzera marxismoaren hedapen bat sortzeak ez du esandakoa gezurtatzen, hedapen honek eta jatorrizkoak unibertsaltasun kontenido ezberdintsua baldin badute batez ere. Gogartu beharrezkoa dirudit guzi honek gaurko eta atzoko marxismo tankera ezberdinen artean —leninismo, kautskysmo, luxemburgismo, gramscismo; Sobiet Batasuneko, Jugoslabiako, Txinako modeloak— garbi berezi nahi bada. Guzietan ezberdinki desarroilatu bait da Marx, segun zein ikusalderi inportantzia gehiago eman eta marxismoa zentzu haretan desarroilatu.

Ez dut uste marxismoaren jatorrizko gunea praksia den eztabaidarik dagoenik. Baina hauzia, eta oker ez banago egunotako hauzi zentrala, Marxek *errealidade historiko-sozialaren* ezagupide iturburu eta oinarritzat hartutako praksia edozein ezagupiderena ez ote den dago. Ez ote den teoria oro, ez historiko-soziala bakarrik, praksiak eragindako. Matematika edo fisika ere praksiarekin sortzen direla erantzutea ez da ezer erantzutea, eta bai truko bat. Ez bait du, astiro begiratuz gero, problema zailagotu besterik egiten. Gramscik ohartarazten duenez, izan ere, gainegituren problemare-

kin birrazterkatu beharrezkoa da buru hau (30), ta fisika, adibidez, dretxoarekin batera gainegituren artera botatzeak arrunkeria lazo handiegia dirudi ezer argitzen laguntzeko. Marxismoa materialismo ontologiko, metafisiko den, da problema.

Hau da, Marxena eta Engelsena materialismo bat ala bi diferente diren. Gaia inportante da, bertan finkatuko bait da gero objetuaren ala sujetuaren aldea azpimarkatzen dituzten joeren sustraietako ezberdintasuna. Marxismoari buruzko literatura filosofikorik gehiena gaur pondu hontaz enplegatua dela uste dut (31).

Filosofia sobietarraren joera objetibista

Kolakowski zuzen ulertzeko oinarrizko iruditzen zait guzi hau, eta zerbait xehatzea komeniko da. XIX mendeen itzuleran marxismoaren *objetibapen* joera izugarria nabari da. Joera honetan bai Kautsky eta bai Lenin bidaide eta gogaide dira. *Kondaira burutapide materialista* oso bat eraikitzen lehiatuko dira, hots, marxis-

(30) Cfr. J. Rodríguez-Lores, **Die Grundstruktur des Marxismus**, 1971, or. 58/59 eta 85 eta hur.

(31) Guziz interesgarri A. Schmidt, **Der Begriff der Natur in der Lehre** von K. Marx, 1962. Ik., batez ere, «Engelsen Natur-dialektika formaren kritikaz», or. 41-50. Aipagarri, orobat, J. Rodríguez-Loresen goiko liburua. Batetik naturaleza dago, kondaira bestetik. Bion hartuemanak argitzeko eta bi munduon batasunik lortzeko era bitara joka daiteke: 1) pixua batez ere gizonaren aldetik jarriz, naturalezari kondairara sarrarazi (Marx) eta dena praksiaren kategoria azpian biltzen da, edo 2) naturalezaren gainean jarri azentoa eta kondaira naturalezara itzuli: gizasemea zein izaki biologiko natural (Monod), zein abere den (Lorenz, etc. hain modan dagoen abereen instintoak, **gizarte** antolaketak eta azterkatzen dituztenek) erakusten da, kondaira naturalezan galtzen da. Zientziek egunotan bigarren joera daramate, gizona natur-izaki antzean azterkatzen digutelarik, bere historikotasuna haretara (instintoetara, etc.) itzuliz. Engels eta Leninek zentzu honetan desarroilatu zuten materialismoa. Cfr. beharbada lagungarri izan daitekeen nire **Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa**, 1971, or. 173-182.

moa *Weltanschauung* edo mundu-begiespen bihurtzen. Baina Kautskyren burubideari *positibismo historiko* ohi deritzan artean, Leninenak materialismo metafisikora isuriago dirudi (32). Hemen biotatik Lenini bakarrik begiratuko zaio. Engels isilpean pasatzerik ez dagoena berez agertuko da.

1850 aldera (bai Korsch eta bai A. Schmidt ados dira fetxaren hurbil-ingururako susmo honetan) filosofia sistima klasikoek lur jotzen dute, eta produzioa epe berri batetan sartzen da. Aldi berean dialektikaren konprentsioa galtzen da, idealismoaren problematika galduz batera, eta langile mogimendua biziki handitzen da. Natur jakintzen eta filosofiaren etendura konpliturik gelditzen da, eta natur zientzietako materialismoa, estrafilosofikoa, mekanikoa, nagusitzen da baztarretan. Langile mogimenduko gizateriek *beren* pentsamentua behar dute. Engels zientzien natur bururapena dialektikarekin egokitzen saiatu zen, entsegu horrekin proletargoarentzat beharrezko mundu ikuskera ere oratu nahiz. Gogoan eduki behar da bai Marx eta bai Engels filosofiatik datozela. *Ideologia alemana* eta *Feuerbachi buruzko tesiak* burutu arte ez da bion artean diferentziarik agiri. Gero biak murgilduko dira zientzia positibuetan: ekonomian Marx, natur jakintzetan Engels. Baina Engelsen dialektika —kritikoek uste dutenez (33)—

(32) Ez da Lenin metafisika materialistarik gabe «salbatu» ahal uste duen Autorerik falta. Guretzat bat eta bera da, halare, hori funtsean, ez bait gabiltza Leninen interpretazio zuzen bila, bere jarraikileek ikusi eta interpretatu bezalakoa, hots, bizirik dagoen leninismoa ikertzen baizik. Kautskyren ustez hondaira burutapide materialista **(Die materialistische Geschichtsauffassung,** 1927) zientziazko hutsa da, eta halakoxe izaki, berez proletargoari ez beste edozein klaseri baino atxikiagoa. Proletargoari **sinpatiko** eta atsegin zaio hau gaur-egun, bere interesen aldezko suertatzen omen bait da zientzia. Zentzu berri hau hartzen du, beraz, marxismoak proletargoaren pentsakera legez. Kautsky guzi hontan R. Hilferdingen ondotik doa, ekonomia marxista) **zientziazko, objetibu eta baliogo judiziotatik librea** nahi bait zuen honek ere bulkatu.

(33) Cfr. A. Schmidt, op. cit., or. 42.

bere gaiari kanpotiko, estrinseko gelditzen zaio. Gerora bide honetatik gaurko filosofia sobietarreraino ibilitako prozesoa Leninen izenarekin loturik gelditu da (leninismo). Prozeso honetarako faktore ugariek hemen egin daitekeena baino azterketa sakonagoa eskatzen dute (34), beraz, hemen guzi honi marxismoaren ulerpenerako dadukan esanahi aldetik bakarrik begira dakioke. Aldez aurretik laburki esan, desarroilo harek pentsatzearen eta praksiaren berezketarako eragin du, marxismoaren ideiak, ideia huts heinean behintzat, erabagimendu praktikoaren premiarik gabe, neutralki ikas daitezkeen katezismo bihurtuz. Hau da, ikasteko marxismoa, midizina edo geologia bezalaxe, Mongolian ala Kongon ezberdin ez delarik. Marxismoa, bada, langile mogimendutik independente bilakatu da. Fenomenu hau erakusteko adibideak milaka bil daitezke. Halako bat ik. G. Kursánow, *Problemas fundamentales del materialismo dialéctico* (Moscú) 1967, or. 12 eta 15/16:

> La filosofía del marxismo como sistema científico representa la unidad lógica de la concepción del mundo materialista, científica, y del método dialéctico, científico (...) La filosofía del marxismo-leninismo... arma a la clase obrera y a su partido con una concepción científica del mundo.

---

(34) **Etor** argitaldarian bai langileriaren (M. Ugalde) eta bai marxismoaren Marxez gerozko kondaira (G. M. Garate) aginduta daudelarik, desarroilo honen gibelalde sozial eta politikoak han agertuko dira noski. Engelsek marxismoari harrarazitako joera —Engelsek bere **Anti-Dühring** liburuagatik dioenarekin esateko— **en modo alguno es fruto de una «necesidad interior» cualquiera: al contrario.** Premia alderdi-politikoek bortizki eragin zioten, une haretakoxe premiek, noski: saio hura zen «absolutamente necesario para no dar de nuevo ocasión —en el partido, todavía tan joven y que acaba de llegar al fin a su unificación definitiva— a una división y confusión sectaria». Halare Engelsen natur-dialektika ez zaio Alderdiaren premia horri bakarrik zor, Schmidtek I. Fetscheren kritikaz (op. cit., or. 41/42) erakusten duenez. Materialismo natur-dialektikoaz ik. R. Havemann, **Dialektik ohne Dogma?**, 1964 (badago gaztelerazko itzulpena) natur zientifiko marxista kritiko baten lan guziz irakurgarria.

Eta teoria hori nonbait borobil-borobildurik dagoenez gero:

> ...Una de las tareas más importantes de los partidos comunistas consiste en estudiar a fondo y de manera sistemática la filosofía del marxismo-leninismo, unida inseparablemente a toda lucha práctica de la clase obrera.

Alde bitatik joan da prozeso hau.

I.—Sujetua galduz.

Desarroilo honen *lehenengo aldea ezagupide teoria* leninistan burutu da (errealismo ezagupide teorikoarekin) (36). Marxek materialismoa nahiz idealismoa gainditu nahi zituen, eta bere ezagupide teoria postkantiano garbi da: konzientziaren eta ezagugaiaren (ekai, errealidade, objetu) ebakidurarik, ontologia prekantianoaren moduan ez du onartzen (ezta dualismo kantiano ezagupide-teorikorik ere: noumeno-/fenomeno) eta adimen/errealidade dualismoari ez gain hartzeagatixe gaitzirizten dio hain zuzen Feuerbachi. Bere ikuspidearekin, bada, (onto-praksio-logia deritza J. Zelenyk), izatea eta pentsatzea ez dira zein baino zein lehenagoko, biak elkarrekin baterazko baizik.

Batasun hau atzera hautsi da marxismoaren desarroilo klasikoan. Eta etendura honek, zuzenez ala okerrez, Lenin baitan oinarritu nahi du, askotan Engels baitan ere, eta baditu haiei heltzeko arrazoi onak (biok bestela ere interpretatzerik ez ote legokeen ez da hemengo gure arazo, esan bezala). XIX mendetik filosofiak irakatsi edo, hobe, postulaturik zetorren materiaren eta

(36) Cfr. De Vries, **Die Erkenntnistheorie des Dialektischen Materialismus**, 1958.

izpirituaren batasuna positibuki erakusten eta sistimatikoki desarroilatzen (materialismo filosofikoa eta naturalista elkartzen hortakoz) biziki saiatu zen XX mendeko lehen belaunaldia. Materialismo zaharrak (Marxek burges zerizkionak) Kant aurretiko filosofia orok bezalaxe, naturaleza zerbait berezko eta objetibu, adimenetik at bere kontura esistituz bezala bururatzen zuen. Errealidadea eta adimena, hortakoz, elkarren begiz-begi kontrajarrita ikusten ziren. Maila honetan idealismoaren eta materialismoaren arteko alde behingoena errealidade materialaren kausa arazoari zegokion: Jainkoak (Adimenak) egina ote zen ala ez materia (esan legez, diferentzia honixe begira sortu zen idealismo/materialismo izendapen berezkuntza. Berriro ere itzuliko naiz honetara (37). Baina zientziak aurrera zegien, materialismo naturalistaren jokabidez aurreratu ere, eta materia/adimen arteko batasunari argi enpiriko berri eginaz. Darwinismoarekin eta genetikarekin, biologiarekin, gizona abereari, aberea izadi inorganikoari zeriola ikusten zen. Sikologiak pentsamentuaren *naturtasuna* aztertzeko ustegabeko bideak urratzen zituen. Zientzien aitzinamenduarekin batera *zientzien filosofia* bat ere sortu zen (Mach, etc.). Eta mundu ikuskeraok ere ateista ziren (erlijioa zientzien barrutitik kanporako *esfera*

(37) «El problema de la relación entre el pensar y el ser, problema que, por lo demás, tuvo también gran importancia en la escolástica de la Edad Media; el problema de saber qué es lo primario, si el espíritu o la naturaleza, este problema revestía, frente a la Iglesia, la forma agudizada siguiente: el mundo fue creado por Dios, o existe desde toda una eternidad? Los filósofos se dividían en dos grandes campos, según la contestación que diesen a esta pregunta. Los que afirmaban el carácter primario del espíritu frente a la naturaleza, y por todo, admitían, en última instancia, una creación del mundo bajo una u otra forma (y en muchos filósofos, por ejemplo en Hegel, el génesis es bastante más embrollado e imposible que en la religión cristiana) formaban en el campo del idealismo. Los otros, los que reputaban la naturaleza como lo primario, figuran en las diversas escuelas del materialismo. Las expresiones idealismo y materialismo no tuvieron, en un principio, otro significado...» (Engels). Gaurko zientziak ez du erreparorik munduaren sorkuraz haslera batekin denboran, baina Jainkoaren eskurik ezertarako aduzitu gabe, mintzatzeko.

berezi batetarako uzten zen). Baina XIX mendeko materialismo naturalistarik gehiena —zientzien mundu ikuskera— positibismo tankerarekin, marxismoaren axolarik gabe, sarri marxismoaren kontra, desarroilatzen zen (38).

Materialismo/idealismoen kontradizio modu zaharra atzera gelditu zen, beraz. Munduaren sorkuran Jainkoarekin ez kontatzea ez zen iadanik aski materialista izateko, XIX mende azkenetako ia filosofia guzia materialistatzat onartu nahi ez bazen behinik behin. Eta hau egitekotan materialismo tankera ez marxistak ere onartu beharra legoke: marxismoaren lehiakide eta kontrario ez litzake idealismoa bakarrik, beste taiuko zenbait burutapide materialista (zientifiko) ere bai baino. Eta hauxe ezin zuen Leninek onartu, Errusiako egoeragatik ezpairik gabe. Erlijioaren kontrako borroka eta proletargoarena bana ez zitezen.

Materialismo burges goiztiarrak (lehen burgesiarenak) errealidadea materia hotz, mekanikoaren moduan bururatzen zuen, eta zentzuen oharrematearen eta handik ateratako burutazioen bidez errealidade fisikoaren ezagupide osoki baliozko eta fidagarria eskura litekeela baieztatzen zuen (dualistikoki —mundu/gizon— beraz). Ikuskera honekin ezagupena ezagutzailearen eta ezagutuaren erako ote den sortzen da problema, noraino ezagutzen den objetua egiazki berari legokion heinean, noraino eratzen duen sujetuak objetua bere erara. E. Mach, Avenarius eta lehen positibistek dualismo hau sujetuaren, pentsamentu prozesoaren aldetik gainditzea entseiatu zuten: materiaren errealidade objetibuaz ahaztu (Kanten ondoren) eta irudipen fisikoak zentzuen oharremate sujetibuaren ariokoak zirela esaten zuten.

(38) Hain zuzen natur zientifikoen artean materialismo marxistak erakarmen bereziki guti dadukala dirudi.

Zentzuen erako *dela* izadia, izadiak *dituen* taiu-egikerak harenak ez baino zentzuenak direla. Marxismoaz ari gara eta hontaz aski. Materialismoaren *idealista bihurtze* honekin (sujetibismoa idealismoarekin berdintzen da, hortakoz) Lenin txit kezkatu zen, filosofia honek Errusian zedukan eragindurarekin. Baina bere erasoa, in *Materialismo eta Enpiriokritizismo,* —erlatibismo ororen kontra, kontraespiluaren edo ezagupidearen objetibutasun alde— dualismoa tipiagotzera edo gainditzera ordez, idealismoaren eta materialismoaren artean leizea sakontzera etorri zen. (Zeren-eta ez bait dago pentsatzerik dualismoa behin betiko gaindi daitekeenik).

Leninek, bada, bere lehiakide enpiriokritizistak idealista deklaratu bazituen deklaratu, hori egiteko materialismoaren konzeptua bere eraratu beharra izan zuen: materialismo/idealismo hauzia Jainkoaren ponduan ez baino ezagupide teoriaren inguruan erabakitzen zuen (Engelsek ez bezala, honek «ismo» bien berezgunea jatorrizko zentzuan ikusi nahi bait zuen, *la confusión que se origina cuando se les atribuye otra acepción* itzurtzeko). Hau, halare, Engelsen irakaspenen aplikazio konkretu soila besterik ez dela esatea ez da asko esatea, aplikazioak —nola egin— irakaspena aldatu ere egin bait dezake.

Fisika modernuak materiarik, heronen zentzu klasikoan, doi-doi edo batere ez duela ezagutzen somatzen du Leninek eta materiaren burutazio filosofikoa eta fisikoa berezten ditu. Fisikoaren arabera materia aldian aldiko zientziak ezagun dizkion dohainez horniturik legoke, materiaren bururapena aldakor litzake hortakoz, materia bera ere aldatuz doala esatea haina bait litzake. Materia filosofikoa, aldiz, *errealidade objetibua* da. Agiri denez hemen konzeptuaren definizioak berak gainditzen ditu problema guziak. Definizioz berez bait da

egon dagoen oro (=errealidade oro) materia bihurtzen. Problema gaindikuntza aksiomatiko eta hitzezko, literario hutsa dadukagu, beraz (39).

Geroxeago, halare, materia *zentzuen bidez* bakarrik atzeman daitekeela esango du Leninek («Materia kategoria *filosofiko* bat da, [gure *zentzuen bidezko*] hautemaldian ematen zaigun eta gure hautemaldiak kopiatzen, erretratatzen, irudikatzen duen eta hautemaldietatik independente esistitzen duen errealidade objetibuaren izendapenerako») eta hori baitesteko nahitaez materiaren konzeptua hersten du: errealidade objetibu edozeinetatik zentzuen bidez bakarrik ezagun daitekeen errealidade objetibura. Ez bait dago esaterik errealidade objetibu oro zentzuen bidez, sentsazio bidez gureganatzen eta ezagutzen denik. Isil-isilik materiaren zentzu batetatik bestetara (filosofikotik: errealidade objetibu oro, fisikora: zentzuen gaia) pasatzen da Lenin, bere jarraikileei errealismoa eta materialismoa, materialismoa eta ateismoa berdintzeko eta, areago, objetibutasuna sujetutasunaren parte aktiburik batere gabe aditzeko bide emanez: Objetibuak berez esistitzen du, gure hartukizunik gabe; objetibu materia da.

Honela, polemikaren suan, materiaren eta sujetuaren (izpirituaren) artean berriro dualismoa sortzen da, hauxe gainditzeko lehian materia sujetuaren baitaratzen bait da (Mach) eta *viceversa* (Lenin), baina ez batak eta ez besteak dihardu dialektikoki. Materialismoa eta idealismoa Leibniz edo Engelsena baino maila berriago eta zailago batetan berezi beharra zegoelarik, beraz, Leninek materialismoa atzeraka «desarroilatuz»

(39) Hona Leninen pasarte pare bat: «Materialismo filosofikoak nahitaez baitetsi beharrezko materiaren propietate bakarra, errealidade objetibu izateko propietatea da». «Ezagupide-teorikoki materiaren konzeptua... ez da zera besterik: errealidade objetibua, giza konzientziatik independente esistituz eta honek irudikatua, kopiatua».

lortzen du haren idealismoarekin berezkuntza (40). Oraindik erreboluzio burgesa egin gabeko Errusian, Lenin atzera materialismo premaxistaren ikuspideetara itzuli zen. Zeren-eta, hemendik aurrera, materiaren eta izpirituaren batasuna praksian, ekintzan ez baino materiaren beraren mogimendu etengabean ikusiko bait da: materia etengabeki mogitzen ari da, eta mogimendu honetan, zentzuen bidezko atzematean, materiak bere burua kontraespilatzen du; zentzuen bidezko atzemate honek, Leninen arabera, errealidadea *kopiatu, erretratatu, irudikatu* egiten omen duelarik. Edo, agian hobeki, ezagupidea materiaren mogimendu mota bat ez baino materiaren dohain, ahalmen dela zentzumena esan beharko litzake, Lenini atseginago litzaiokeenez. Mach eta Avenariusen kontrako erreazioz Lenin baitan sujetutasuna arras suntsiturik dago, beraz, eta materiaren beraren mekanizismo hutsetan gelditzen da ezagupide jardun guzia. Teoria honi *errealismo sinple* ere baderitza, horregatik.

Abio honek —ez zedukan, ausaz, derrigor horixe ekarri beharrik, baina batez ere gerora Stalinek eman dion moldearekin— batetik teoriaren objetibismorik gogorrena, eta bestetik, errealidadeak bere burua aparatxuko *intelligentsian* kontraesplikatzen duela egin bait da kontu, Alderdiaren indartze guzizkoa eta burokrazia teknikoaren nagusitzea ekarri du herri oldeen buruz-buru (41). Eta, nolanahi ere, dialektika arrisku handian jartzen du; areago *teknika* antzean ulertzeko bide eman.

---

(40) Cfr. A. Pannekoek, **Lenin als Philosoph** (fotomekanikaz, urterik gabe) eta I. Fetscher, **Karl Marx und der Marxismus**, 1967, or. »39 eta hur.

(41) Ez dago problemaok aldian aldiko egoeraren begirunerik gabe juzgatzerik, eta marxismoaren bide leninistak mendebaleko Europarako balio zuen ala ez adierazi nahiz eztabaidatu izan da gehienetan leninismoa. Eztabaida honetxen arioan doaz nire hemengo gogoetak ere. Horrez beste, Alderdiaren indartzea eta diziplina edo legepetasun zorrotzak betekizun eta esanahi ezberdinak daduzka isilpeko lanean ala demokrazia liberaletako askatasunean aritu, iraultza egin artean ala egin eta gero, etc. Beraz,

Bistan dago —baina ez nuke esan gabe utzi nahi— ez dagoela inolaz ere ezagupide teoria hau eta Iraultzak Sobiet Batasunean ezagututako patua bata bestearen kausa eta ondorio gisa hartzerik noski. Kausen eta ondorioren desproportzio handitxoa litzake hori, ez itsuak ere ikusteko. Bata ala bestea dira kausa sakonagoen ondorio eta agerpen, baina ez da hau Iraultza Sobietarraren azterketarako lekua. Guzi honen berebiziko inportantzia zeran datza, ezpairik gabe: objetibukeriazko joeren sakontasuna, joera hura estrategiako eta aldikor baino hagitz errotikoago dela erakustean. Problemaok praksitik urrun samar daudela badirudi ere, funtseak ekintzaren, iraultzaren, gizartearen, gizarte antolaketaren, etab. konzeptu denak konprometaturik gelditzen dira ikuskeraokin.

Joera honen kontra sortu zen oposizioan mendebaleko intelektual eta buruzagi komunistarik argienak zeuden: R. Luxemburg, K. Korsch, Lukács, Bloch, Gramsci, etab. Tamalez, gazteriak ez ditu ia ezagutzen (42)). Hoek bezalaxe egunotako *Frankfurteko eskolak* ere

---

Leninek praksiaren eta konzientziaren etendura sortu duela esatea, kondizio askoren zehaztasunekin ulertzen ez baldin bada, printzipiokeria baizik ez litzake (erabateko batasuna helburu eta xede bezala bakarrik aitor bait daiteke) eta obrek gezurtaturik gelditu da. 50 urte iraganen ikusgunetik ari gara gu, ordea —ezinbestean!— eta **gure** ikusgunetik bakarrik (ez da euskeraz errusoentzat idazten!). Gerora zer gerta zitekeen igarri gabe, noski, Leninek bere estrategia **ezkertiar radikalen** kontra zuzenets zezakeen, iraultza aldirako behinik behin: ik. **Ezker radikalismoa, komunismoaren haur gaitza.** Liburu honetan aipatzen diren tribunista holandesetakoa da Pannekoek, Horne izenarekin aipatzen dena hain zuzen.

(42) R. Luxemburg deliberatuki kontrajarri zitzaion beti Lenini, proletargo osoaren borondatearekin eta konzientziarekin oso-osorik kontatuz bakarrik lortuko zuela-ta mogimendu iraultzagileak bere helburua. Eta Alderdiaren diktadura eta langileria maneiatzeko, manipulatzeko, estrategia ezkutu nahiz infiltrazio ziraun eta joko bihurri oro arras arbuiatuz. «Biek eduki zuten arrazoi, Leninek iraultza (sobietarraren) berehalaxeko arrakastari, Luxemburgek luzazkoari begira» (Habermas, op. cit., or. 452). Azken aldian mendebaleko A.K.-k Autoreok polliki-polliki balioberritzen hasi direla ikusten da, Rosa Luxemburg batez ere. Hala Italiako AK-k, 1968-ko Unibertsitadeetako gorabeheretan ere Lenin baino gehiago aipatzen zen R. Luxemburg edo Marcuse. (Ik. Marcuserentzat 29-gn oin-oharra).

(Adorno, Habermas, Horkheimer, Marcuse, beharbada E. Fromm) praksiaren eta kontzientziaren etendura salatzen diote marxismo sobietarrari —yugoeslaboek ez besterik— batasun berri bila saiatzen direlarik, ez dut esaten hobeto dabiltzanik. Kultur-errebolu zio maoista ere —ekonomiakeriaren, doktrinakeriaren, burokraziaren kontra— buruhauste horrixe zor zaio. Badirudi, bada, Leninek marxismoa batetik iraultza (egikari gisa) Errusian batik bat aurrera ateratzeko gaitu bazuen ere, bestetik andeatu eta murriztu ere egin zuela. Bestela esan, Leninen kritikoen susmoak guziz bete direnez, marxismoa iraultza aldirako moduan moldatuz, ideia marxistei iraultzak bere lehen unea gainditzeko eta ez degeneratzeko behar lituzketen hegoak moztu zaizkiela. Leninen alde, harek iraultza egin zuela dago; eta haren kontra, haren iraultzak helburua failatu duela, eta failo hori —erabilitako premisekin— guziz bidezko eta logiko izan dela (ez da esaten nahitaezko) (43). Ikusgune diferentzia honek Euskal Herrian ere bi sailetan banatzen ditu irizkerak. Ezberdintasun horiek aztertzea behar-beharrezko da, baina ez da hau horretarako lekua ere. Irakurleak ez du ahaztu behar hemen Kolakowskiz ari garela funtsean, eta Autore honek gaurko Polonian idazten zituela bere saiakerak. Gaurko ezbeharren sustrai bila, hortakoz, eta iraultzari —sozialismoari— ukorik egiteke, haren deformazioen kontra bakarrik (44).

---

(43) Ikus ohar hau lehenen parte honen azkenean.

(44) Iraultza aurreko egoera juzgatzen iraultza ondorengo ikuspegiz aritzeak, ikusgune biren ezberdintasunari adi ez egonez gero erraz desanima lezake ekintzalea. Horren ordez, Autore marxisten marxismo kritika ikusgune haiek biak gogoan izanik irakurtzea beharrezko da gure egoeran, bestela —mogimendu sozialak eta ideiak ere hauzi sozialez gainera belaunaldi arazoz, informazio eskasiaz eta bestelako mila buruhaustez josita daduzkagularik— aisa zabal daitezkeen errazkeria eta sinplekeriak itzurtzeko. Leninen arrisku edo deformazio horiez, ik. areago: K. Korsch, **Zur Philosophie Lenins** eta Autore beronen **Marxismus und Philosophie** liburuarentzako E. Gerlachen hitzaurrea. M. Horkheimer, **Materialismus und Metaphysik,** in «Traditionelle und kritische Theorie», 1970, or. 65-94. Egungo literaturan

2.—Posizio burgesa marxismoaren baitaraturik

Ondorioa berez etorri zen: ezagupidearen teoria honekin ezagututako guziari ere, hots, teoria marxista guziari ere, taiu objetibista bera eman behar. Teoria marxista = zientzia huts, alegia, *da* bezala ulertuta, ez *izan behar luke* bezala. *(Ikus azkenean 1-go. eraskina).*

Marxismoaren desarroiloaren alde teorikoa mehartu eta erraztuz, eta borrokaren espresio izan ordez haren tresna zihoan artean, *bigarren aldea, alde praktikoa,* geroz eta konplikatuago agiri zen XX mendearen hasieran. Leninen trebezia batez ere hemen agertu da. Eta bere borroka asmoen arabera —sujetua, konzientziaren eginkizuna kaskartuz— banatu zuela teoria esan dut. Marxentzat «marxismoa» ez zen proletargoa-*rentzat* bakarrik, batez ere proletargoa-*rena* baizik, hots, konzientziak eta ekintza edo praksiak proletargoan bategiten zuten. Leninek bion bategintza hori Alderdian jarriko du. Alderdiaren teoriak, horregatik, jazargo handia aurkitu zuen mendebaleko komunisten aldetik, eta bloke komunistaren barruan ere beti oso problema zail agertu da. Txekoslobakiaren ondoren Polonia aipatu beharra dago, eta hemen —Ungariako moduan— egunotan entseiatzen ari diren esperimentu interesgarriak: Alderdia baino langileria bera indartuagotzeko. Herriaren espresio-tresna bakarrarekin (Alderdiarekin) segitzerik ez dagoela argi dago. Baina utzi hau, eta itzul gaitezen Iraultza Sobietarrera.

Iraultza Sobietarrak mundu guziko iraultzagile deliberatuenak liluratu zituen, eta —Espainia salbu, agian— iraultzagile guzientzako *errealismo iraultzagilearen* eredu zirudien. Dogmatismoa ezabatu zuen, batik bat (sozialismora iragateko ia-ia horario bat prestu zeduka-

---

bereziki irakurgarri S. Stojanovic, **Kritik und Zukunft des Sozialismus** (Sozialismoaren kritika eta etorkizuna) 1970. (Badago frantzesez).

tenena) eta dogmakoion eurozentrismoa ankaz gora bota orobat. Iraultza gizonek dagitela erakusten zuen, ez prozesoren batzuen mekanikak, Erdi-Europako marxistek itxaro zutenez. Nola eror zitekeen Iraultza hau berak borrokaturikoa bera baino dogmakeria askoz gogorraggoan? Nola sozialismoa iraultza burgesaren aurreko aginte forma absolutuaz antolatu?

Ezin geldi gindezke, irakurle, Iraultza Sobietarraren aurre-baldintza sozial, ekonomiko, kultural, politiko eta besteri arretaz begira. Horrek bere lan monografikoa eskatzen du. Batekoz, Alderdiaren teoriak baduela inportantzia ohartaraz nezake, halare, gero gainontzeko teoria marxista guzia bere erara jartzeko, eta Alderdiaren teoria sortarazi zuten premia eta esperentzia konkretu bereziak zeudela Errusian (45): Leninek apropos formulatu zuen hau modu esajeratuan (geroago) berak aitortuko duenez, baina jarraikileek hitzez hitz hartu dituzte sarri esajerazio haiek. Sortu zen erreazioa ezaguna da. Mentxebikiek

> acussèrent Lènine de rompre avec le marxisme: il proposait des modèles d'organisation et d'action empruntès au jacobinisme ou au blanquisme [Ik. Blanquiri buruz G. M. Garate, **Marxen marxismoa**, 1971, or 67/68] qui seraient forcièrement inadaptès á la lutte pour le socialisme. Trotsky dènoçait Lènine comme un radical-bourgeois qui, plein de mèfiance pour la classe ouvrière, se prèparait á instituer la dictature d'une minorité jacobine et á endosser le rôle terroriste d'un Robespierre. Rosa Luxemburg partageait ces apprèhensions: elle redoutait que l'opposition trop tranchèe que Lènine instituait entre la classe et le Parti ne conduise celui-ci á se fermer aux innovations qui produirait la practique proletarienne et á se penser comme détenteur des certitudes qu'il aurait tendence à imposer au prolétariat,

irakurtzen da Souyriren aipaturiko liburuskan.

(45) Ohar hau. ikus lehenen parte honen azkenean.

Eta gero jenderia iraultzagileen konposizioa eta iraultzaren helburu hurbilen eitea dago: Iraultza Sobietarra geldiunerik gabe, pausaldirik gabe sozialismoraino desarroilatuko zen iraultza burges antzean hasi zen, burgesia liberal, proletargo, nekazalgo eta intelektualen hartukizunarekin. Leninek maiz adierazi zuen iraultzak xede burgesak zituela Errusian, baina laboriariek eta proletarioek eutsirik *proletarioen eta laborarien diaktadura demokratikora* heltzeko. Buru honetan batez ere Trotzkiren *iraultza etengabea*ren teoria da ezaguna: iraultza sobietarrak bere partetik behinenik betekizun demokratiko burgesak burutu behar zituen, segidan nazio arteko proletargoarekin batera sozialismorako iragapidea preestatzeko. Berehalaxerako itxaroten bait zen Europan iraultza. Nazioarteko proletargoarekin batera garaitu ala lur jo eta porrot egin: Trotzkik ez zion iraultza sobietarrari beste irterarik ikusten. Leninek ere iraultza europear orokorrarekin batera ulertzen zuen berea. Iraultza sobietarraren osagarri «burges» ugariok dagite, beraz, txit gogoan edukitzeko bigarren oharra (46).

Era berean Leninen aburu filosofiko askotan ere ez da lehen-burgesia aroko pentsamolderik eta aldi haretako kutsurik falta, bere objetibukeria batez ere.

Filosofia modernuak marxismoari jartzen dizkion ara-

---

(46) Problemaok (blokeoarekin-eta astundurik) laster kinka tzar batetara eramango dute Iraultza Sobietarra. Gudu osteko ekonomia **Erresuma kapitalismo** edo **Erresuma sozialismo** antzean antolatu zen (Alemaniako gudu ekonomiaren tankeran) eta iadanik 1918-an berton hasi zen «ezkerreko» oposizioa —Trotski, Radek, Ossinski, Smirnov, Sopranov, etc.— erdikoikeria burokratikoa salatzen. Alderdiaren IX Biltzarreko zenbait batzarkide kexu da Sobietetan ez dagoela askatasunik, Alderdiak eragotzita, eta Alderdian bertan ere ia ez dela asko gelditzen, burokraziak itota. Erresuma, entzuten da Biltzarre honetantxe, burokrazia piramide bat bihurtu da. Eta Biltzarre honetantxe berton lantegien, hauzoen, e.a. autojestioa eskatzen da. Baina problemaok Lenin hiltzean bakarrik ailegatzen dira Iraultza bai ala ezko bidegurutzean jartzera. Stalinismoaren hogeitabost urtek zein aukera finkatu zuen jakina dago.

zoak idealismoak materialismoari betidanik jarritakoen tankera berberekoak direla uste du Leninek. Areago,t materialismo marxista burgesaren hobekuntza bai, baina jarraitzapen iruditzen zaio batez ere, eta ez haren kontrario eta ukazio. Gradual besterik ez, hortakoz, materialismo burgesaren eta marxistaren arteko aldea, marxismoa besteren gaindikuntza ebolutibu; beraz ez dialektiko. *Su* (Marxen) *doctrina apareció como continuación directa e inmediata de las doctrinas de los más grandes representantes de la filosofía, la economía política y el socialismo,* dio garbi aski Leninek *(Las tres fuentes y las tres partes integrantes del marxismo).* Beste esaldi batetan, oraindik: XVIII mendeko materialismoaren eta Marxenaren artean hiru diferentzia hauk *bakar bakarrik* dagoela (Leninen azpim.), alegia, XVIII-ekoa 1) mekanizista zela, 2) gizarte jakintzetan idealista zela, natur jakintzen alorrerako soilik materialista, beraz, 3) ez zuela materialismo historikoa konprenitu. Guzi honek Leninen ezagupide teoria eta filosofia tankera materialismo burgesaren kide direla sinestarazten die Pannekoek eta Korschi (47). Kolakowskik ere irizkera horri dagokion materia konzeptuarekin sortzen den ezagupide teoria gogor kritikatzen du (A. Schaffek gauza bera egiten duela aipaturik nago beste nonbait). Kolakowskiri segitzekotan teoria horrek filosofia antzutasun erabatekora kondenatzen du, natur jakintzen bulgarizazio hutsera. Hau da, oinarri horiekin konsekuente izango litzakeen filosofia. Zeren-eta filosofia harek berak erraz deklaratzen bait du materiaren, errealidadearen *kopia* bere burua, behar izanez gero natur jakintzak hertsatuz eta persegituz ere. Horrela egin ahal izan da holako jakintza persegiziorik Sobiet Batasunean, hain zuzen marxismoaren/materialismoaren izenean. Orobat, ezagupide jardunean materiak sujetua men-

(47) Cfr. Pannekoek, **Lenin als Philosoph** (urterik gabe) or. 101/102 eta 132.

deratzearen analogian, Alderdiak (objetibutasunak) *gidatu, harmatu e. a.* egiten du prolertargoa: ekintza batasunari hierarkia lege-lotu hertsi bat ezarri eta ekintza /konzientzia batasunaren ordez fede batasuna sortaraziz,denborarekin Alderdi *mistika* bat...

Prozeso hau ez dago bere gizarte gauza konkretua gogoan hartzeke ulertzerik. Iraultza Sobietarraren eta jarraiko Aginte antolaketen gogorra esplikatzeko aspalditxo norbaitek arrazoiez ohartarazi zuen:

> Mendebaleko mentalidade demokraziazalearekin ezin dateke sobietikoen egintzak eta mentalidadea neurtu. Erreboluzio sobietikoa, tradizino demokratikorik ez zuen herri batek egin zuen, eta orduko erreboluziogileek demokraziarena baino prolema handi eta zailagoekin egin zuten topo hasieran. Halaber, orok kondenatzen du Stalinen *diktadura, baina stalinismoaren gogortasuna ezin daiteke* esplika agintzeko gose handi bat zuen gizon batez soilik, ez da ere sozialismoaren edo komunismoaren *nahi-ta-nahiezko ondorio bat bezala. Ez dezagun* ahantz Sobieten Batasuna zela bere hazieran molde sozialistak enplegatzen ari zen munduko estatu bakarra, *eta industrializazioa edozein prezioz iritxi behar zen* xede bat zela (48).

Eta hori, bakoitzak eman nahi dion inportantzia orain alde batera utzirik (49) bene-benetan ezin ahaztuzko *datu primario da*. Nik uste, *halare, honez gero* euskal irakurleagan presuposa daitekeela hori. Esaldi batekin adierazteko, bada: Errusiako marxistek iraultza burgesaren betekizunak berek egin beharra, borroka sozialista ksarismoaren eta honen hondakinen aurka *egin beharra, beti garbiki aitortu dute.*

Presupostuokin irakurleari konprenigarri egingo zaio

(48) Cfr. **Moscou-ko judizioa dala-ta,** Jakin 29 (1968) or. 44.

(49) Ikus ohar hau lehen parte honen azkenean.

Leninen marxismoa Europako ezkertiarren artean beti eztabaidarik gartsuenen gai izana. Bere kontrarioek beti aurkitu dute haren filosofian (hemen hortaz ari bait gara lehen-lehenik) materialismo premarxista burges gehiegi ezezik, iraultza burgesaren problematika eta kutsu larregi ere (50). Haren iraultzak iraultza burges ere izan beharra zedukanez, harritzekoa —eta, Leninen ezagupide teoriarekin berarekin batik bat ezin esplikatuzkoa— halakorik ez egotea izango litzake. Pannekoekek somatu uste duen leninismoaren beste ezaugarri burges bat haren erlijioaren aurkako berotasuna da (aip. lib., or. 102/103). Iraultza burgesaren temarik behingoenetakoa bait zen hori (kasu: honekin nire fraile belarri klerikala erakusten dut!...). Problema, dena den, hor dago: marxismoaren adierazpen leninistak marxismoa, honi jatorriz nahiz izakeraz egiazki zegokion gizarte-gauza eta egoeratik ez baino teoria harena baino aurrerapen sozialaren lehenagoko, beheragoko maila batetatik hartzen eta adierazten duenez, atzera behe eta lehenago haietara erreduzitu ez ote duen.

Bada makina bat problema, beraz. Eta pozgarri da: zereginik gabe behintzat ez gaude!

---

(50) Eztabaida hau Iraultza Sobietar osoaren gainera ere sarri zabaldu izan da: iraultza sozialista izan ahal da, Erresuma eta gizarte sozialista ahal da Sobiet Batasuna? K. Korschi beranduko iraultza burges dirudio, Frantziakoaren berantume. Azken aldian geroz eta sarriago entzun daiteke Sobiet Batasuna sozialistarik ez dela. Aurreko 48-an. notan jartzen den problemak zentral dirudit (notatxo batetan problema hori bere sakontasun guziarekin jartzerik ez bazegoen ere): mintza ahal daiteke sozialismoaz demokraziarik ez dagoen artean? Han etorkizuneko (omenezko) demokratizazio baten funtzioan erabakitzen da hauzia, itxurak engainatzen ez banau, Trotzkik egin zezakeen moduan-edo (beraz, intenzionalki sozialista). Baina, kondizio hori bete artean, zertan gara? Herri oro nahitaez sozialismora doala eta bide parlamentarioz sozialismoraino ailega daitekeela onartuz gero behintzat, noiz hasten da demokrazia eduki bai, baina produzio indarren jabego pribatua zeharo deuseztatu ez den artean sozialismoa (Suezia, Txile, etc.). Ala jabegoaren pontuan erabakitzen ote da funtsean sozialismoa? Baina Txinak kapitalista deritza Jugoslabiari, ea., ea.

Azalpen bi

Guzi hau oraindik —eta egun sekula baino gehiago— eztabaidan dagoenez, ez dut azkeneko epaikari jokatzeko txorakeriarik probatuko. Bego dagoenean. Bi argibiderekin bukatuko dizut atal hau:

Lehenengoa: marxismoaren interpretazio hauziok *egun* bi sorkura nagusi dutela, eztabaidaok isilaldi luze baten buruan atzera berbiztu bait dira. Leninen Erresumako eta inguru herrietako sozialismoaren esperentzia, lehenik (51). Sobiet. Batasunak aspaldi utzi zion *iraultzagile ororen bihotz aberria izateari.* Bigarrena: 1932-an aurkitu ziren ekonomia eta filosofiari buruzko Marxen *Pariseko eskuidazkiak*, marxismoaren interpretazio eztabaidan ikuspegi guziz berriak argitu dituzte. Eskuidazkiok faxismoaren goraldiarekin batera agertarazi ziren eta berez zegokien baino arrakasta askoz apalagoa eduki zuten lehenengotan. Halare, Frantzian behintzat, 1933-an Cornuk bere tesiak zabaldu ahal izan zituen Marx gazteari buruz, eta A. Kojève irakastaldiak Pariseko *Ecole des Hautes Etudes-en* 1933 eta 1938 artean ez ziren fruturik eman gabe gelditu. 1945-ean, faxismoaren harma indarra hautsirik, erresistentziatik zetorren ezker berriak Alderdiak eztako Marx interpretazioa zerabilen: Marxen eskuidazkion antz izugarrizko iraultza-filosofia esistentziala (nolabait esan beharko dut), —edo esistentzialista— Alderdiaren objetibukeriaren kontra. Marxen adierazpen esistentzialak ez zedukan geroagoko humanista urruti. Eskuidazkion eragindura Sobiet Batasunean oso axalekoa besterik ez da gaur arte izan: txostenen batzuek, iadanik zeharo eraikitako dotrina sistimaren korolario eta apainduria antzean, eta kitto. Polonian eta Txekoslobakian marxis-

(51) Cfr. H. Marcuse, **Sowjet Marxism**, 1961.

moaren kritika inmanente deritzanak haize handia hartu du, aldiz.

Eta gero: marxista ez ortodoso eta ez dogmakoien artean onarturik dago iadanik, egiteko moduan diferentzia handiak nabari badira ere (52), Marx-Engels-Lenin (Stalin) ez dagoela inolaz progresio sinplearen lerro xuxen-xuxen antzean soilik hartzerik. Horiek ez dute bata bestea *desarroilatu* bakarrik egin, maiz sinestarazi nahi den bezala. Beren arteko diferentzia eta antz nabarmenak aparte, bata bestearen desarroilo huts zirudienak bata bestea biziki aldarazi ere egiten du, dialektikoki pentsatzekotan aisa uler daitekeenez.

Labur-bilduma historiko-logiko

Esandakoaren eta problemaon presupostu filosofi-historikoen laburtzapen edo *bilduma* gisa adierazteko honelatsu azal daitezke diferentziaok:

---

(52) Autore gehienek, Larresorok neuri ere salatzen didan moduan (Z. Argia 466, 1971, irailaren 19), gehienbat Marx ondoko *desarroiloa* Marxekin neurtuz dihardute, Marxen beraren azterketa kritikorik gabe edo gutirekin. Hau, beharbada Marxen liluraren kalte ere bai, izan arren, ez da guziz bidegabezko, eta inola ere ez guziaren gainetik Marx inola edo hala salbatzeko garramura bakarrik: marxismoaren inguruko eztabaida nahasketa inposible bihurtzen da problema hesparrua eta erabiltzeko ikuspideak aldez aurretik zehatz mugatzen ez badira. Azterketan ez da metoduak eta gaiak permititzen dutena baino radikaltasun handiagorik kabitzen. Eta hemen azterkizun ororen lehenengo premisa da, ez dagoela garbi, ezta gutiagorik ere, Marxen interpretazioa bera (dogmakoikeriaren barruan ezik). Halare marxismoa obratu, egikaritu duela esanez eta hori esanez bere burua zuzenetsi duen marxismoaren mota bat badago, egon, eta nagusi egon ere. Premia praktikoak hortik abiatzeko agintzen du. Nik neure lana orain *artean horrela mugatuz Autore gehienen jardupideari segitzen diodala aitortzen* badut, ez nuke hori aitzakia bezala uler dadin nahiko, printzipiozko premia metodologiko baten azalpen soil bezala baizik. Marxismoaz erabat orokarki eta abstrakt mintzatzerik ez dago iadanik, edo oraindik. Areago, marxismoaren erabateko eta kondiziorik gabeko baieztapenari —sarri hausitzen da hau, gainera— haren ezeztapen erabatekoa eta itsua dagokio beste muturrean, ez gutiago ezaguna. Polarizazio absurdu eta biziki kalte-

MARX-en beraren materialismoa, hertsi hartuta, ez da XVIII mendeko enziklopedisten tankeran naturalista, ezta XIX mende azkentsukoen antzera monista ere. Hots, ez da naturalezari buruz sortu eta ez da hari buruz dagokiena, hartaz ez da (oso berandu arte behintzat) ia batere arduratu. Aitzitik, Marxek beti kondairari (gizarteari) begiratu dio eta honen primutasun, lehentasunak oinarritzen du materialismo marxista guzia. Eraberean, kondairaren edo gizartearen esplikabideak bilatu ditu, ez du mundu ikuskeraren bat (erlijioaren ordezko gisa edo) muntatu nahi izan. Hau lehenik. Eta honi zindo eutsi beharra dago, Marxek naturalezaz edo mundu ikuskeraz zer pentsa *zezakeen* aberiguatzera iraganez gero interpretazio oso diferenteekin topo egiten da-ta. Gero, Marxen marxismoan bat-batera hartu behar dira *kondaira*-filosofia eta *iraultza*-teoria (53): eta biok bat-batera hartu, abiagunearen aldetik *humanismo iraultzagile* ohi deritzanaren, hau da, norgaltzearen azterketan oinarrituz egiten du Marxek berak; helburuaren aldetik, berriz, gizarte-gauzako harremanak iraultzean, harekin batera norgaltze oro gainditzeko. Ez bata eta ez bestea eduki daitezke zientzia positibuaren emari garbitzat. Naturalezaren eta gizonaren arteko lotura, Marxen arabera, lanean datza, ez gizonaren eta izadiaren ekai berdintasunean-edo (jatorrizko maila honetako marxismoak ez du gizonaren naturalezagandiko, *tximuagandiko* jatorriarekin ezertarako kontatzen, nahiz-eta Marxek, nabariki, gizona naturaleza bezala ikusi beti, Hegelek bezalaxe). Engelsek:

> Así como Darwin descubrió la ley del desarrollo de la naturaleza orgánica, Marx descubrió la ley del desarrollo de la **historia humana** (nire azpim.)... Pero no es

---

garri hau gaindituko bada ere, apal-apal eta polliki zati-lan zehatzean aritu beharra dagoela iruditzen zait, marxismoaren pondu hontaz eta hartaz, eta ez sistima osoaz erabat.

(53) «Pues Marx era, ante todo, un revolucionario» (Engels).

> *esto sólo. Marx descubrió también la ley específica* que mueve el actual modo de producción capitalista y la sociedad burguesa creada por él... Dos descubrimientos como éstos debían bastar para una vida **(Discurso ante la tumba de Marx).**

(Marxek gehiago ere egin zuela gogoratzen du ondoren Engelsek). Beraz, buru bi horietan biltzen du Engelsek lagunaren ekarri teoriko nagusia.

Ohar inportante bat, bide nabar: derrefente eta erabat kontraesango zaizkidala jakinez idazten ditut esaldiok eta apropos horrelaxe formulatuta. Marxismoaren interpretazio kondaira guzia mogitzen da bi ertzen artean. **Batetik,** marxismoa ontologia hutsera bihurtzeraino ailegatzen da, J. Hommes adibidez, eta marxismoa eskatologia judegu-kristauaren argitara esplikatzen edo marxismoaren azalpen funtsean teologikoa egiten da. Marx baitan horretarako oinarri badagoenik ezin uka daiteke (eta ezin daitekeelakoxe sortzen da bigarren joera), marxismo guzia horretaraxe laburtzeak marxismoa bere parte batetatik zintzilik esegitzea badirudi ere. Marxismoari (historikoari) utopia, eskatologia, premisa **ideologikoak** edo egitamu teologikoak derrigor ukatzen setatzeak ez du ezer laguntzen eta kritikoki inposible da. Baina marxismoa **teologizatzeak** eta hura halaxe azaltzeak tranpa bat ezkuta lezake, eta sarri, somatzen da truko hori jokatu nahia: marxismoa teologiaren edo mitologiaren sekularizazio dela erakutsi bai (eta Popitz, Löwith etabarrek eginaz probatu dute hori egin ditekeena) eta marxismoa besterik gabe deskalifikaturik gelditzen dela pentsatzeko, aldez aurretik sekularizazioa ere deskalifikaturik eduki behar da, kasu honetarako gutienez. (Larresorok ere piska bat hauxe dagigun susmoa dadukat). Sekularizazio prozesoa ontzat hartuz gero, *aldiz, marxismoa haren barruan ikustea bidezko* besterik ez litzake eta ez du korapilo berezirik sortzen, prozesoa Marxekin bukatu edo gelditu egin dela sinesten ez duenarentzat alegia. (Fisika ere mitologiatik adaskatu zen). Hau da, Marx prozeso baten barruan ikusten duenarentzat. Sekularizazio prozeso hori gaur aurrerago dabilela erakutsi beharko litzake. **Beste ertzean** marxismoan zientzia hutsa ikusi nahi dutenak agiri dira: Hilferding, etab. Marxismo klasikoa ere bere erara baino berton. Halare marxismoaren zientziazkotasuna ulertzeko modu *guztiz ezberdinekin. Gaur batez ere Althusser eta bere eskola* (Poulantzas, etab.) dira marxismoaren zientziazkotasunaren lantzaile lehiatuenak. Azkeneko hauk bi Marx berezi dute: **gaztea,** oraino ideologiko, eta Marz **heldua,** zientifiko huts. Althusserek frente bitan borrokatzen du: batetik marxismo antropozentristaren (esis-

tentzialaren, etab.) kontra erreazionatzen bait du, bere xede marxismo **objetibua** delarik. Marx helduak **gizonaren esentzia, norgaltze, lan, praksi** etab. bezalako ketegoria espekulatibu, ideologikoak arras abandonatu dituela deritza eta Marx konzeptu horiek gabe interpretatu behar dela. Sujetua, halare —guretzat oso inportante hemen— ez da suntsitu egiten (marxismo dogmakoiarekin beldur izan daitekeenez) estrukturetako inter-sujetutara pasa baino. Beste aldetik Althusseren marxismo zientifikoa —honetan humanista bezalaxe— bere burua zientifiko deklaratu eta zientziazkorik izena beste ezer ez zedukan (dadukan) marxismo **Alderdi-komunisteroaren** (Althusser) kontra altxatu da, positibismoari biziki hurbilduz egin ere (agian «historikotasuna» oso arriskatuz) eta bere modura bururatzen eta adierazten du marxismoaren zientziazkotasuna. Gure arloa, halare, marxismo dogmakoiari buruz-buru pentsatuta dago; beraz Althusseren galgan gertatzen den marxismo humanistaren eta zientifikoaren arteko kontradizioarena baino maila askoz apalagoan, nik uste. Borondatea banuen behintzat, marxismo humanista/zientifiko antinomiak hemen arduratzen gaituen eran, adibidez, Althusseren eta Garaudyren artean dadukan zentzua har ez dezan. Bistan dago, halare, problema hari zeharo ihes egiterik ez nedukana. Nire enpeinuak —Althusser zaleentzat, batez ere— nahitaez sortzen dituen nahasmenduentzat kontsiderazio horixe eskatuko nioke irakurleari. Zer egiten da, izan ere, Althusserekin marxismoaren zientziazkotasunaz mintzatuz, hain zuzen Althusserek berak borrokatzen duen marxismoaren zientziazkotasunaren bururapen faltso bat errazegi konfirmatu baizik? Sarri eta sarriegi behinik behin. Beste jokabidea praktikoago iruditu zait, eta praktikoagogatik hautatu dut batez ere.

Itzul orain ENGELS-en azkeneko pasartera, Marxen eta Darwinen paraleloa guziz karakteristiko bait da Engelsentzat. Bera ahalegindu zen darwinismoaren ekarria marxismoarekin bilbatzen. Marxentzat dialektikaren azentoa lanean, proletargoaren ekintzan bazegoen, orain naturalezaren mogimendu gainera lerratuko da, jarraiki erreboluzio kategoriaren parean eboluzionarenak burua altxatuko duelarik. Kondairaren martxak *natural* dirudi (54) eta iraultza mekanika horren zati bihurtzen da.

---

(54) Engelsek bere pentsamentuari zeragion aldakuntza hau ikusirik Marx zaharra isilik gelditzea, inoiz hartaz onginahiezko-edo azaltzea ere (1867-ko ekainaren 22-ko gutunean, Engelsen 16-koari erantzunez) azterkariak irabiltzen dituen arazoa da.

Ikuskera honekin konzientziaren eta ekintzaren batasuna hausteko (bata bestea baitan suntsitzeko) zorian jartzen dela, gorago esanik dago. Baina konzientziaren betekizuna murriztu, alegia, marxismoa hestutu egin baldin bada, zabalagotu ere egiten da beste alde batetatik: dialektika kondairarena ezezik izante ororen legetara hedatzen da, lege ontologikora, —hori bai, seguraski dialektika izateari utziz—. Kondairaren dialektika izadiarenaren mende jarri delarik, azkenekoz, natur jakintzen edo haien antzeko ezagupen teknikoak proletario oldeen konzientziaren aldean garrantzi asko irabazten du.

LENIN-ek eta STALIN-ek —Rosa Luxemburgen aurka, adibidez— joera hau desarroilatuko dute, Alderdia teoriarekin batekoz eta ezagupide teoria *errealistaz* gero. Ez du praksi iraultzagileak erabakiko ezagupidea, ezpada materiak berak, jakitateak hortakoz. Praksi iraultzagilearen inportantzia, e.a. asko erabiliko du ahotan, baina logikoki sistima-bazterreratuta dago. Zenbat-eta haiek gehiago ahotan erabili, gehienetan kontestu sistimakorik batere gabe, esaldi bakan legez eta oinarrizko diruditelakoxe beste esplikaziorik behar ez duten itxurarekin (posizio hori aspaldi kendu ez balitzaie bezala!), jakituria salomonikorik galantenarekin, eta are tristeki baztertuagorik konzeptuok de fakto. Horregatik dago marxismo ortodosoa, katixima bezala eraikidura harrigarri oso eta itxuraz logikoarekin, baina berak aitortzen dituen oinarriekin eraikidura guzi horrek zein joskera duen ezin igarri zaiola. Eta marxismoa atzera bere oinarriak eztabaidatzera itzuli da. Atzera Marx gaztearen eskuidazkien azterketara (55).

Dotrina eraikidura guzia hain bikaina da ta justua,

---

(55) Cfr. J. Habermas, **Literaturbericht zur philosophischen Diskusion um Marx und den Marxismus**, in «Theorie und Praxis», 1971, or. 387-463.

ze arriskua bait dago problema, oinarrion azpian ezkutaturik, ikusten ez uztea. Irakurleak, bada, marxistak batez ere, ongi egingo du Kolakowski irakurtzerakoan hortaz ahazten ez bada. Izan ere, marxismoaren irakaspenen kontrol pondua marxismotik kanpora hartzen bada gauza erlatibuki erraz da. Baina barrutik hartuz gero, hasieran esan bezala, kontrolatu nahi den unean beti ihes egiten duela ikusten da: zientzia marxismoaren neurri ez baino aldrebes egonen dira.

Bukatzeko, sujetuaren aldeari buruz: Marxek berak kondairaren sujetu edo burua klaseetara erreduzitu, bildu du. Baina klaseok izugarrizko dinamikan eta jarduari dialektikoan ikusten dira. Engelsek eta Leninek, beren jarraipenak batez ere, prozesoan dinamika hau epeltzen dute eta azkenerako lehen sujetutasuna materiaren alderantz lerrarazi dute.

Krisia eta kritika

Agirikoa da marxistak *(bere)* teoria, marxismoa zertzat edukitzearen inportantzia; beste edonork berea zertzat edukitzearena baino hagitz handiagoa noski: gizartearen teoria bait da berea, juridiko-politikoa eta praktikoa, hots, iraultzaren eta gizarte antolaketa berriaren teoria.

Batzuentzat, esan legez, filosofia zientifikoa da marxismoa. Zientziazkotasunaren adierazkera txit ezberdinekin egiten da, halare, baitespen hau: ortodosia sobietarrak eta Althusserek, adibidez, azkeneko honek hain zuzen

zientziaren izenean ezesten bait du marxismo zientifiko sobietarra (zientziazko ez baino ideologikeriazko juzgaturik).

Beste zenbaitek marxismoa zientzia bakarrik dela baiezten du, ez filosofiarik, eta iritzi honetakoren batzuek ere Althusseren babespean jarri izaten dituzte beren buruak edo aburuak: Autore hau zeharo faltseatuz, nire irudiz.

Kolakowskik, ikusiko denez, marxismoari, beronen filosofia galgan, oinarri zientziazko hutsik ez dio onartuko, inoiz filosofia ororen eta erlijioaren kidetasuna ere aitortuz (56).

Marxismoaren adierazkera gehiago ere badago, noski; Lukács aipatu ahal izango litzake oraindik adibidez, baina utzi hori eta hainbeste diferentziari buruz has gaitezen pondu bi finkatuz:

a) Kolakowski erreazio bat da, marxismo *zientifikoaren* buruzko kontrajoera, eta geroago langileria poloniarrak sortutako erreboltek ere haren interesa azpimarkatzen du.

b) Marxismoaren zientifiko izatea eta izan beharra hotseginaz eskierki bere buruaren zientziazkotasuna bermatu uste zuen marxismoa Europa osoan krisian

(56) «Zeren-eta... filosofiak, nola-halabaiteko **idekotasuna bait du erlijioarekin.** Pentsakera filosofikoaren funtsezko iturburua, haren eragilea, errealidadearen **zentzuaren galdera** barruan duen mundu bururapen orokorraren irrika bait da, izan ere, hau da, inolako metodu kontrolagarriren bidez erantzun ezin daitekeen galdera, ondoriobidez ezein teoria zientifikoren oinarritan finkaturik eraiki ezinezkoa, eta bai soil-soilik premia edo irrika, sen praktiko baten espresio ezkutu; manera bat, erabaki praktiko bat aurrez eskatzen duen egoera bati buruzko sentikera adierazteko manera, mundua baloratzeko manera jakin baten bidez bakarrik nagusi gintzaizkiokeen egoera baten adierazteko manera», cfr. **Traktat über die Sterblichkeit der Vernunft,** 1967, or. 30. Honek berdin-berdin balio du erlijio dogmen **egia objetibu** pretenituentzako ere.

dago; iruditzen zaidanez, tradizioaren indarrak eusten *dionetik gora batik bat iadanik arras abandonaturik ere* bai. Esango nuke, nolabait espresatzeko, Eliza marxistan praktikanteak zintzo iraun dutela beren praktikan, borrokan; baina beren filosofian fedea galduta.

Marxistak (ofizialki), horregatik, mundu ikuskera eta filosofia mailako arazoei buruz geroz eta gutiagotan sartzen dira. Ia noiz ez, joera berriren bat heresia bezala kondenatzeko izan ezik. Zenbait jende bildur da hori azerikeria besterik ez ote den. Politiko marxistei dagokionerako ez dakit zer izango den, baina intelektual marxistei begira nik uste marxistak beren *sistiman* fedea galdu ala eskeptikoago eta zuhurrago bihurtu direla gaiotan. Eta hori halaxe gertatzen ari dela badirudit iruditu bakarrik, halaxe izan bear duela oso-ososrik nago sinestuta. Gaurko marxismoak ez bakarrik ez daduka, ezpada ez daduka edukitzerik ere, baina ezta edukitzeko premiarik ere batere, sistima osokoirik (joeraz izan ezik). Behar duena iraultzaren teoria da, ez zeru eta lurren esplikaziorik. Eta hain zuzen filosofikeriekin nahastu gabeko teoria —azterketa— zientifikoa. Marxismoa ez da osotasuna ikuskatzeko eta juzgatzeko *manera osoa eta bakarra, metafisikoa* (edo halakoen ordezkoa), bai osotasunari dagokion ikuskera parzial baina beharrezkoa. Neure egokierara moztutako Althusseren hitzokin adieraz daiteke: *Le marxisme n'est pas une (nouvelle) philosophie (...), mais une pratique (nouvelle) de la philosophie* (57).

---

(57) Cfr. **Lénine et la Philosophie,** 1969, or. 57. Esaldi osoa berez honela da: «Le marxisme n'est pas une nouvelle philosophie **de la praxis»,** etc., nabariki Gramsciren kontra esanda, baina beste askoren ezberdin orobat. Diferentziaon sustraia (Gramsci, Adorno, Marcuse, etabarri buruzko Althusseren diferentzia alegia) deritzadanez aip. liburuska honetako or. 45/46-etako Leninen materia/izpiritu-ri buruzko pasarteetan finkatzen da, nik uste: «La moindre réflexion leur prouverait pourtant qu'on ne peut, au fond, définir les deux notions ultimes de la théorie de la connaissance qu'en indiquant celle d'entre elles qu'on considère comme primaire»...

Guzi honekin iraultza teoriaren —*filosofia* marxistaren— eta zientziaren arteko harremanen problema nahasia jartzen da. Ezpairik gabe hauxe da problema guzion azpian dagoen oinarrizko eta marxismoaren kondaira guzia barna luzatuzko problema. Eta horregatixe da marxismoak, Lefébvrek dioen bezala, bere burua zientzia, filosofia, ideologia ala zer den ez baldin badaki:

> Cette difficulté a donné lieu à des dèbats célèbres, qui durent encore aujourd'hui. Nous pouvons en signaler l'existence à travers les titres les plus communs de ces débats: quel est le fond de la théorie marxiste? une science ou une philosophie? Le marxisme est-il en sond fond une philosophie, **philosophie de la praxis,** mais alors qu'en est-il des prétentions scientifiques proclamées par Marx? Le marxisme est-il au contraire en son fond une science, le materialisme historique, science de l'histoire, mais alors qu'en est-il de sa philosophie, le matérialisme dialectique? Ou encore si on accepte la distinction classique entre le matérialisme historique (science) et le materialisme dialectique (philosophie), comment penser cette distinction: en termes traditionnels, en termes nouveaux? Ou encore: quels sont les rapports entre le matérialisme et la dialectique dans le matérialisme dialectique? Ou encore: qu' est-ce que la dialectique: une simple methode? ou la philosophie tout entière? **(Lenine et la Philosophie,** 19/20).

Guziaren zentzua dago hauzitan, beraz. Honelako problemarik ez balego bezalaxe jasotako marxismo sis-

---

«l'une ou l'autre est considèrèe comme primaire». Althusserek bere aldetik bion artean «un ordre de domination» beharrezkotzat jotzen du ta ezinbestezkotzat. Honekin Althusser —dogmakeriari gain hartzeko eta marxismo **humanistaren** arriskuak salatzeko bere merezimendu guziekin ere— marxismoa itxuragaiztatzeko arriskurik gabe ez dagoela ohartarazi nahi nuke, dialektikarik gabe gelditzekoa hementxe konkret, eta beharbada kondairazkotasunik gabe gelditzekoa ere. Althusseren iritzian ordua omen bait da, «behin betiko **hasiera eta sujetu** edozein aienatu eta esateko: absolutu prozesoa da sujeturik gabe, errealidadean nahiz ezagupen zientziazkoan». Althusseren kritikarako ik. A. Schmidt, **Geschichte und Struktur,** 1971, eta **Der strukturalistische Angriff auf die Geschichte,** 1969.

tima —luzarora dogmakoi, beharrez— metafisikatara pasatu da. Eta marxismoaren joera honek marxismoa ankilosatuz, itoaz, Txilardegik dioenez *sinplekeria* bihurtuz bukatu duenez gero, marxismoa bizirik nahi duenak ez daduka dogmakoi eta problema gabe haren kritika egin beste erremediorik. Marxismoa bere sistimagintza osokoiaren katibutzatik askatzeko.

Sistima tradizionalarekin darraienak marxismoa aisa tesi mordoska batekin berdintzen du, marxismoa doktrina edo gnosi antzean harturik. Eta gero praksiaren inportantzia ezagupiderako —teoriarako— gogotik azpimarkatzen bada ere, praksiari de fakto doktrina iadanik osatuaren aplikaziorako bakarrik begiratzen zaiola ematen du. Marxismoa zer den —zentzu honetan— kurso edo liburutan ikas daiteke ongienik, guziek aitortu arren (ez edozein pragmatistak ez bezala) jakitate teoriko hutsak ez duela fitsik balio, nahiz-eta marxismoaren kasuan esakera hori kontradizio bat izan bere baitako in terminis. Halako edo holako talde edo ekintza bidek ezin garai lezake, esaten da munduko idealistarik idealistenak baino idealistago, pentsamentu marxistaren harmak falta zaizkionez gero. Edo beste halakotan ez bide zen irakaspenaren aplikazio zuzena egin, horregatik porrot egin omen zen. Marxismoa, aritmetika bezalaxe, eskolan ikas daiteke nonbait. Eta batuketak nahiz kenketak ondo ala agizki egin daitezke. Eta halaxe da Marxen marxismoa denbora batetako eta bere neurriekin formulaturiko den heinean, ideien historiara pasaturik dagoen neurrian. Gisa horretan behintzat Plotinoren ontologia edo Konfuzioren morala bezalaxe estudioz ezagun daiteke. Marxismoa teoria osatutzat dadukatenen artean eskola-zientzien eredua nagusitu da: lehenengo estudioa eta gero —ikasitakoaren— praksia dator.

Sistima eta dogmakeria

Azkenean Engelsen hitzek marxismoa bera ere harrapatu egin dute:

> ... un sistema filosófico tiene que tener siempre, según las exigencias tradicionales, su remate en un tipo cualquiera de verdad absoluta.

Alfer-alferrik nahi zaio honi, marxismoa *zientziazko* deklaratuz-eta, ihespiderik bilatu.

Honen ondorioak —eta agerpen, orobat— ugari bezain ezberdinak dira. Arrunki edozein praksi eta egoerari teoria bat eta bera ezarri nahi izaten zaio. Gure artean darabilzkigun azterpideetako jokabideek, esaterako, ongitxo erakusten dute fenomenu hori. Kondaira osoa azken-finean halakoxe kontradiziotan banatzen dela eta edozein gertaera partikularren azterketa ere kontradizio haietxen —burges, proletario— azterketarekin hasten da, kondaira osoaren azken fineko ezaugarriak edozer konkreturen bertatik bertarako azalpenerako balioko lukeen itxuraz. Gauzak lehen-lehenik beren baitan azterkatu eta kontradizio unibertsal haiek azken finean bakarrik aduzitu, kontradizio ororen harreman sistima orokor eta osokoi gisa, marko bezala, egin ordez. Ideologikeria honekin problema denak berdinak agiri dira. Azkenerako kondairan problema bat bakarrik dago. Kondairarik ere ez dago iadanik. Eta orduan oraindik praksia aipatzea ez da praksiaren burlarik gorriena baizik. Eta zer esanik ez, gauzak konkretu azterkatu behar direla, e.a., arrunkeria salomonikoren batzuekin, daitekeen jardupide abstraktuen horri konkretutasun itxurak eman nahi izateaz. Lantegien ala ikastolen arazoaz jardun, nazio arazoaz ala emakumearen emanzipazioaz, beti azter kategoria eta eskema berdinak aurkitzen dira. Beti epai edo sententzia berbera. Eskema teoriko ba-

tzuen egiztapena bilatzen bait da edozein problematan. Gure kulturari txirotasun botoa egin arazi diogu, lehenago kastidadearena bezala (58).

Guzi horretan ez du ezer aldatzen gero nahi haina errepikatzeak, praksiak erakutsi behar duela teoria nola arakatu, marxismoa ez dela liburuetatik ikasten, etc., etc., etc. Hori esan egitea erraza da. Baina ez du ezer erremediatzen, egin besterik egiten den artean. Eta hori gehiegi ikusten da. Ez du merezi gertakaria honen deskribizio fenomenologikoan luzatzerik. Ezagutzen dudan azalpenik argienetako eta irakurgarrienetako bat Sartrerena da, *Crítica de la razón dialéctica*-n. Gazteleraz nahiz frantzesez irakur daitekeenez, ezin dut irakurleari liburu hau bizi-biziki gomendatu besterik, batez ere sarpide gisa doan *metodu hauzia (Cuestiones de método):* marxista klasikoak, marxismoaren etsaiak eta marxismo forma berriez arduratuak, marxismoaz axolatzen den edozeinek irakurri behar lituzke orrialdeok, gizarte azterketa kritikoan nahiz kulturalean (literarioan, adibidez) enplegatu aurretik. Eta zihur nago —zeharo ados ez dagoenaren salbuespenik gabe— sarrera hau irakurriz gero ez duela liburua inork eskuetatik burua kezkaz bete gabe utziko, ezta liburua aldenik alde irakurri gabe ere seguraski.

Sasimarxistaon jokabidea, izan ere, zeran datza: *reemplazar la particularidad por un universal; es pretender llevarnos a lo concreto y presentarnos a este título unas determinaciones que son fundamentalmen-*

---

(58) Jokabide honen kritika eder bat jasotzen dut hauxe kopiatzen ari naizenean: Aurtiz-en **Politika ala metafisika?**, Anaitasuna 223, 1971, or. 1 eta 4. Hemen politikaz esandakoa azterketara eta teoriara hedakor iruditzen zait: «Euskal Herrian egiten ari den politika ere, metafisika bihurtu da. Problema errealak baztertu ditu, eta hodeietan (...) finkatu da». Eta «sasimarxista» askoren jokabideak esenplarren batzuen bidez erakutsi ondoren («Hauen antzeko exenpluak milaka jar genitzake»): «Gure politika metafisika hutsa da».

te abstractas. Flaubert, Valéry, Beaudelaire, Sade; Gironda ala sikoanalisia, dena biltzen da eskema berdinera eta, azkenean, denari ematen zaio judizio berdina. Azterkari marxistak, edozein ala edozer azterkatu, beti konklusio berdinera iristen dira: Valéry burges koxkor bat da; Flaubert burges koxkor bat da; Robespierre id. de id. Baina: «Valéry es un intelectual pequeño-burgués, no cabe la menor duda. Pero todo intelectual pequeño-burgués no es Valéry. La insuficiencia heurística del marxismo contemporáneo entra en estas dos frases». «El marxismo sitúa, pero ya no hace descubrir nada». Gauzak ez dira gauza, beren lekua eta beren oinarriekiko (oinarri sozialekiko) erreferentzia soila baino. «De hecho, el materialismo dialéctico no puede privarse durante más tiempo de la mediación privilegiada que le permite pasar de las determinaciones generales y abstractas a ciertos rasgos del individuo singular». Sikoanalisiarekin, soziologiarekin, antropologiarekin konkretatuz alegia. «Y el segundo reproche que puede hacerse al marxismo es que nunca se ha preocupado por estudiar a los objetos en sí mismos, es decir, en todos los niveles de la vida social». «Se trata, pues, de constituir síntesis horizontales, en las que los objetos considerados desarrollen libremente sus estructuras y leyes».

Marxisten batek, orain, salaketa guzi hori *antimarxismo* dela-ta, edo Sartre bera ere burges koxkor dela-ta erantzutea, ez da iadanik norbere burua oso gaizki salbatu nahi izate desesperatua besterik. Teoriaren egoera triste honek ez du, halare, langile mogimendua baratu, eta herrien eta proletargoaren askatasun borrokak —zorionean— teoriak baino burubide hobeak daramazki. Baina teoria hori honez gero eragozpen bat bihurtzen ari zaio mogimendu proletarioari. Langile mogimenduaren soziologo guziek salatzen dute langileriaren *leaderak* langileen gain-gainetiko hodeietan dabil-

tzala, iniziatuek bakarrik ulertzen eta gehien-gehienak gehienez ere liluratu bakarrik egiten dituen erdera-merderarekin. Langileriaren eta bere aitzindarien artean leize izugarria sortu dela horixe medio, eta proletargoaren Alderdietan ere burokrazia sortu behar izan dela. Hor gertuko batek garbi salatu du horren ondorioa: «que, salvo algunas excepciones, la mayoría de los Partidos Comunistas, en Europa, no están todavía en condiciones de proponerse una perspectiva revolucionaria concreta» «59). Arrazoia nabari dago:

> Es una situación que arrastran (Alderdi Komunistek) prácticamente desde que se fundaron, hace 50 años. En tan largo período de tiempo esos partidos no han conseguido que la clase obrera, las masas trabajadoras de su país se identifiquen con ellos, les consideren sus intérpretes.

Eta «doctrinarismo sectario»-a aipatzen da honen iturburu bezala. Hauxe da, doktrinarismoa, gure artean indar hartzen uzterik ez dadukaguna (gurean dagoen hainbeste norkeriarekin gainera!). Kolakowskik, Schaffek, Pannekoekek asko lagun dezaigukete horretan.

Zeren-eta marxismoa, bizirik baldin badago eta dialektiko izaten jarraitzekotan areago, zerbait aldakor izan beharrean bait dago, ez abarretan bakarrik, bere sustrai sustraitik eta egitamu osoarekin ere baizik. Aldakor, areago, ez denborarekin batera bakarrik, nondik begiratzearekin eta noiz nongo praksiarekin batera ere baizik. Ezin izan daitezke berdinak atzoko eta biharko marxismoak, eta bien tartean zerbaitetarako gaude apika gu. Ekonomistarentzat, soziologoarentzat, filosofoarentzat, iraultzagile ekintzalearentzat eta teoria zalearentzat ez da gauza bera marxismoa. Gainera, bilakadu-

(59) Cfr. **Libertad y Socialismo**, 1971, or. 82.

ra pluriforme, ugari eta etengabean bakarrik imajina daiteke marxismoa, hegeldiar da-ta. Bere osakaiak bi aldiz berdin konbinatu, sistimazkotu ezingo lirakeela. Hori guzia gauza artxijakina da, baina gogarazteak ez du kalterik egingo.

Kolakowskik marxismoa —egun— zer den adierazten diharduenean, bada, ez dio galderari erantzunik ematen. Ez dio marxismoa zer izan den (nolako tesitan bil zitekeen), zer denik ere ez agian, zer —tankera— izan behar lukeen baizik. Eta honek nola halabait zer izan den uste eta izango dela itxaroten den ere inplikatzen du. Kolakowskik filosofiaren ikuspegitik egingo du hori. Hobeki, filosofian ere posible diren makina bat ikuspegitako batetatik. Marxismoaz aritzekotan ere, hain zuzen, askoz gehiago bait da zerbait esanez esan gaberik uzten dena, esandako guzia baino. (Ia inoiz ez da ezer inportanteenik esaten, segun zeinentzat batez ere).

Marxismoan badago ikasi eta estudiatu beharrezkorik. Beharbada zenbaitek estudiatu egiten duena baino askoz gehiago ere. Eta badago geuk burutu beharrezkorik. Poesia edo pintura bati begira, esaterako, irakurri edo ikusitakoari norbere *zentzua* birkreatu ez dionaz denok dakigu ez irakurri eta ez ikusi egin duela funtsean. Marxismoaren filosofiarekin ez da bestela. Baina, horra bada koxka, jende asko eta askorentzat marxismoa ez bait da filosofiarik... eta bai zientzia hutsa. Zientzietan sinesten delakoxe egiten da, besteren artean, folosofiaren ezeztapen hori, filosofia espekulazio eta zientzia gabekotzat harturik. Marxista arrunten artean aurkitzen da, batez ere, formulaturik behintzat. Uste horretan dabiltzenak ibili askoz gehiago dira noski, baina eman ez dute egiten. Kolakowskik marxismo po-

tibista deritza horri. Edo-ta filosofiaren burutazio *zientista* ere bai (60).

Marxismoa=zientzia hutsa?

Zientistaok deritzatenez ezagupide egoki eta irmo bakarra eredu esperimentalari edo deduktibuari dagokiona baizik ez da, beraz, ezagupiderako jarduaria gorago ikusi bait dugu, ezagutzeko modua berdin-berdina da zientzietan eta filosofian, alegia, ez da filosofia bat bakarra besterik posible. Filosofia tradizionala ezagupen positibuak jazarri eta atzera eraginda zientzia adaska positibu bihurturik edo hilda legoke. Filosofiari geldituko litzaiokeen guzia ezagupide edo zientzia teoria litzake, zientzia metoduen arazoa bereziki.

Ustari hau, nabariki, positibismoarena bera edo guziz antzekoa da. Filosofiaren herio ondoko *filosofia* bat itxaroten da bertan. Baina, darrai Kolakowskik, postura zientista honek marxismoaren barruraino ere iragazi ahal izan du, eta ez da marxismoak atzera bermagailu eta euskarririk eman gabe gelditu. Irizkera honi darraioten marxistak Engelsen *Anti-Dühring* (1878) eta *Naturalezaren dialektikan* (1883) finkatzen dira. Zientifikoek sekula aintzat hartu gabeko zientzia liburu bi (61). Ikuspide honen arabera filosofia puska pusketaka dena erori, zati bakoitza zientzia adaska berezi bihurtzen zelarik, eta iadanik filosofiari gelditzen zaion guzia logikan eta dialektikan sartzen da. Hau da, filo-

(60) Cfr. **Die Philosophie als Disziplin und Funktion, in Traktat** über die Sterblichkei der Vernunft, ik. gor., or. 8.

(61) Engels zientzietan poliki jantzia zen, baina ez dago hura zientifikotzat edukitzerik. Ik. R. Havemann, **Dialektik ohne Dogma?,** 1964, or. 11 eta hur. Havemannen esanean —atom-fisikoa da bera— Engelsen liburuok doi-doi irakur ditzake zientifiko batek, hain sinple omen bait dira.

sofia arrazional guzia zientzien metodologia hutsetara mugatu da.

Ludwig Feuerbach y el fin de la filosofía clásica alemana (1888) saiakeran erraz eta garbi formulaturik dadukagu uste hori:

> Pero esta interpretación pone fin a la filosofía en el campo de la historia, exactamente lo mismo que la concepción dialéctica de la naturaleza hace la filosofía de la naturaleza imposible. Ahora, ya no se trata de sacar de la cabeza las concatenaciones de las cosas, sino de descubrirlas en los mismos hechos. A la filosofía desahuciada de la naturaleza y de la historia no le queda más remedio que el reino del pensamiento puro, en lo que aún queda en pie de él: la teoría de las leyes del mismo proceso del pensar, la lógica y la dialéctica.

Engelsen idazkiok guziok oso berandukoak dira. Irakurleak dakikeenez XIX mendearen azken aldera natur zientzia positibuek, darwinismoak bereziki, izugarrizko abaila hartu zuten, ez laboratorioetan bakarrik, jende ikasiaren eta xehearen mundu begiespenaren moldaketan ere baino. Langile mogimenduaren intelektual asko lehiatu zen gizarte jakintza eta natur jakintzak, batez ere marxismoa eta darwinismoa, elkarri ahokatzen. A. Pannekoek, astronomo eta matematiko holandes marxistaren lehia adibide bat: *Marxismoa eta darwinismoa, Antropogenesis*, etab. bere obrekin. Natur jakintzen erakarmen honek Errusian sortzen zituen bidegabekerien kontra sortu zuen Leninek *Materialismo eta Enpiriokritizismo* ere, baina ez zen konbatitu nahi zuenak bera kutsatu gabe gelditu: Leninen materia konzeptuarekin (hau sustantzia gisa bururatuz) marxismoa prekantiano bihurtzen bait zen. Engels, ikusi dugunez, *sozialismoaren* teoria natur zientziari egokitzen biziki lehiatu zen. Marxek —gaztetan bederik— naturaleza eta

kondaira sustantzia guziz ezberdintzat zeduzkan, gutien-gutienez naturalezari dialektikarik bilatzen ezin enpeinatzerainoko diferentziarekin, nahiz-eta berak ere natur zientzietako jardupide zehatza eta enpirikoa kondairari aplikatzen eginahalak egin. Zer esanik ez Marxen pentsamentua ez dagoela bukaturik, desarroiloa behar duela, baina ez da edozein desarroilo jatorrizko oinarriekin egokior. Dena den, Marx ez zen metodu dialektikoa naturalezaraino hedatzeaz inoiz arduratu. Engels, ordea, metodu hori kondairan haina naturalezan (natur jakintzen emaitzetara) zabalduz, mundu ikuskera osoko eta monista baten sortzaile bezala jartzen zen: materialismo dialektikoa (62). Urteotan Engels sozialismoa zientziarekin bategiten oso lehiaturik agiri da. Zer idatzi zuen ikusi besterik ez dago: *Eugenio Dühringen zientzia iraultza* (1878), *Sozialismoaren desarroiloa utopiatik zientzietara* (1880), *Naturalezaren dialektika* (1883), *Familiaren, jabego pribatuaren eta Erresumaren jatorria* (1884) eta aipaturiko *L. Feuerbach eta filosofia klasiko alemanaren akabera* (1886). Ikusten denez, filosofiatik zetozen Marx eta Engels biziki saiatu ziren beren zahartzaroan sozialismoaren teoria zientziarekin bermatzen, hain zuzen zientziak berak zabaltzen ari ziren mundu ikuskeraren kontra, arrakasta handia hartu bait zuten hoek gizartean. Ekonomiarekin Marxek, natur-zientziekin Engelsek.

---

(62) **Materialismo dialektiko** izendapena Marxek ez du sekula erabili. Halare, Lefèbvrek arrazoiez ohartarazten du Marxek Hegelen logika enpirismoaren izenean, arbuiatzen zuela, gizon naturala eta materiala ideiapetik bere leku errealeratuz (ik. **Le Matérialisme dialectique**). Joera badago, beraz, Engelsek emanen dion desarroiloa posibilitatzeko. Problema da, ordea, ea gerorako desarroiloak lehenagoko oinarriak abandonatzen ez ote dituen eta marxismo guzia bestelakotzen. Lefèbvrek deritzanez **Das Kapital**-en nabari omen daiteke dialektika materialista natur azterketan erabiltzeko saioren bat-edo. Baina Lefèbvrek berak ere dialektika materialistari (eta berak batekoz bestetsu darabilzki **«dialektika materialista** eta **materialismo dialektiko** izenak) **objetu historiko eta soziologikoa** ikusten dio beti, metodu horren baliagarritasuna natur zientzietarako beieztatu besterik egin gabe. Giza-jakintzen eta natur-jakintzen izaera ezberdina aitortuz-edo, hortakoz.

Hain zuzen ohargarri da Engelsen obraok egun irakurriagoak direla gehienbat Marxen beraren lanak baino. Eta halere Marxen ezagutzaile askok uste du marxismoaren natur-zientziekiko egokiazio honek (Engelsenak), berak abiatzen duen desarroiloak behintzat, post factum ikusita, tirandura inposible bat sortzen duela sistimaren barruan. Batez ere marxismoaren jatorrizko ariurria zeharo aldarazten duela, pentsakera hau positibismo alderuntz irauliz (63). Stalinen eta beronen ordezkari filosofiko ofizial Schdanowen girizapean egindako desarroiloak, Hegelen erabateko kondenarekin, joera positibista hauxe adoretu zuen, eta harrez gero, marxismo propagandarako xehatuan batez ere, positibismo antzeko marxismoarekin nonahi topo egin daiteke. K. Korschek erdi farrez esan zezakeenez, Izpirituaren lekuan Materia absolutua jarri besterik ez da egin, Hegelen espekulazioak izpirituari aitor lezaizkiokeen dohainak zientziak materiari kausitzerik ez dadukala ohartu gabe (64). Modu honetan teoria zientziaren gainean eraikitzeko itxura egiten da. Itxurarik ere ez, ordea, teoria marxista *ekintza iraultzagilearekin* batera hazitzen den itxurarik ere.

Hori horrela, konzientzia eta zientziazko jakitatea gauza bat eta bera bilakatzen dira, Hegel baitan bezalaxe. Zenbait eta gogorrago kondenatu Hegel eta are sasihegeldiarrago bilakatu da Sobiet Batasuneko marxismo ofiziala (65). Konzientzia sozialista, bada, ez dute ekintzaren poderioan proletarioek berez irabazi ahal izango, ezpada kanpotik sartu egin beharko zaie. Zeinek, eta jakintsuek ez bestek. Kautskyk 1901-ean azaldutako uste hau, eliteen teoria, hurrengo urtean

(63) Cfr. I. Fetscher, **K. Marx und der Marxismus**, 1967, 85 eta hur.

(64) K. Korsch, **Marxismus und Philosophie**, 1966. Engelsen kritikarako ik. orobat Lukács, **Kondaira ta klase-konzientzia.**

(65) I. Fetscher, op. cit., or. 60 eta hur.

Leninek bereganaturik agiri du. *Zer egin?* idazkian jakintsuen lekuan Alderdia jarriko du, konzientzia eta ekintza paralerro bai, baina ez bertatatik bertara lotu eta bat-eginik doazelarik. Dialektikak berriz ere arrazoiarekin irten du, beraz, hain zuzen dialektikoen beren kontra oraingoan. Kautsky, Marxen eta Engelsen ondarea dogmakoiki garbi gordetzeko enpeinuaren enpeinuz errebixionismoan amildu da. Lenin, errebixionisten aurka ahalegin guziekin dogmakoien aurka bezalaxe enplegaturik, Europan Eliza Katolikoan ezpada inon ezagutu ez den bezalako dogmakeriarik gogorrenari bide emanez. Eta bata ala bestea, elkarren arerio sutsuok, marxismoari zientzia objetibukeriazko bidetan sarraraziz, luzarora behintzat, *errebixionismo* dialektikarik gabeko eta zinez baino gehiago itxuraz ezberdinen piztaile. Objetibukeriarako prozeso honen kontra Lukács, K. Korsch, Bloch, Marcuse, etc. nahiko alferrik ahalegindu dira. Haien ideiak egun atzera berbiztu badira nazioarteko sozialismoaren krisiagatik da, marxismoa *zientziarik* eta *mundu ikuskerarik* ez baino —zabartu izan den— praksi jakin bat dela onartu behar izan denean. Hemen, gauzak beren oinarrietan eztabaidatzekoan batik bat, ikuspide ezberdinen arteko diferentziak xehetasun tipienetan daude eta lehenengotik ez dirudite garrantzizko. Baina abiaguneon haria azkeneraino ateratakoan somatzen da zein alde izugarriak ezkutatzen ziren esaldi bi ia berdinen barruan. Zeren-eta postura zientistak aisa adieraz bait dezake ekintzaren eta teoriaren batasun arazoa ebolutibuki, errebolutibuki onenean ere, ez erreboluzionarioki eta dialektikoki.

Diodaneko zenbait problema sistima osatu eta hitsi nahi izatean bertan datza, marxismoan bezalaxe beste edonon. Hona Engelsek, berarekin laster zer gerta zitekeen asko uste gabe noski:

> El «sistema» es, cabalmente, lo efímero en todos los filósofos, y lo es precisamente porque brota de una necesidad imperecedera del espíritu humano: la necesidad de superar todas las contradicciones. Pero superadas todas las contradicciones de una vez y para siempre, hemos llegado a la llamada verdad absoluta, la historia del mundo se ha terminado y, sin embargo, tiene que seguir existiendo, aunque ya no tenga nada que hacer, lo que representa, como se ve, una nueva e insoluble contradicción. Tan pronto como descubrimos —y en fin de cuentas, nadie nos ha ayudado más que Hegel a descubrirlo— que planteada así la teoría de la filosofía, no significa otra cosa que pretender que un filósofo nos dé lo que sólo puede darnos la humanidad entera en su trayectoria de progreso; tan pronto como descubrimos esto, se acaba toda filosofía, en el sentido tradicional de esta palabra.

Etorkizunean filosofia suntsitu egingo den itxaropenak, aldiz, Marx baitan ez zedukan zientziek iruntsi egingo zuten zentzua; uste hori ez zetorren filosofia zientziekin alderatzetik; ezpada, filosofia ekintza sozialean egikaritu eta burutu eginez gero bakarrik galduko zela. Hori egin ez den artean, berriz, eta ez da inon egin, etorkizunari antz emateko *jakintza* oro antizipatorio da, jakitate profetiko soil (Bloch), ez zientzia positibu esperimental edo enpiriko, eta ekintza iraultzagilerik gabe amets eta utopia abstraktu huts hortakoz.

Izan ere Blochek ongi ikusi du marxismoa eta zientzia positibu enpirikoak arras berdinduz gero, giza jakintzak eta natur jakintzak nahastuz alegia, kondairari zentzurik eman nahi izatezko zientziarik gabe gelditzen garela, edo-ta natur jakintzen konzeptua aldatu beharra legokeela, zientzien beren autokonprentsioa aldaraziz, eta zientzia oro —atzera bizitzaren, kondairaren *zentzuaz*, etc. jardun beharrik— berriro filosofia bihurtuz beraz. Problema honen adibide franko sonatua Monodek eskaini digu egunotantxe, *badaezpadakoa* eta *ezinbestezkoa* pentsatu dituelarik. Biologo jakintsu honek, bere

azterketan materiak itsuki diharduela, eboluzioa badaezpadakoa dela, etab. oharremanik, natur azterketatik kondaira filosofiara eraman ditu ohartzapenok, kondaira burutapen ukaor, pesimista bat osatzeko. Kondaira filosofoak datu haiekin kontatu beharraz ez dago dudarik, kondairaren zentzua inplikatzen duten arloetan aritzekoan. Aitzitik, duda asko adgo zientifiko harek bere datuekin kondairaren zentzua erabakitzerik ote dadukan. Eta ez besterik, kondaira filosofia marxista natur zientziarekin batu —edo nahastu— nahi izanez gero.

Zientziak egiazki neutral eta baliogorik inplikatu gabeko baldin badira haien gainetiko zerbait egon beharra dago, zentzuaz galdetzen duelakoxe etorkizuna —hipotesia, hortakoz— inplikatuz, eta marxismoak ere esfera honetan daduka bere leku propioa. Barruti honetan gizonaren irudi normatibu batekin operatzen du adimenak. Gizakumearen irudi hori da, azken finean, marxismoaren egitamua eta oinarriak eratzen dituena, ez —dio Blochek— Stalinek mila konzepturen nahasketa izugarriarekin irakasten zuen *produzio materialen desarroilo premiak.*

Marxismo *humanistaren* eskabideak filosofian honela sortu ziren, politikan baino —gutienez— berrogeitamar urte inguru lehenago. Gudu Mundialak marxismoaren herste prozesoa garaile aterako zuen, bere garaitzapenarekin irteerarik gabeko zuloan sarraraziz. Joera honek bere ahaltasun guziak agortu dituela dirudi, sortu zaizkion korapiloak askatzeko metodurik ez daduka-ta. Kontradizioak larri-larrian dialektiko izendatzeak ez dio ezeri laguntzen.

— Marxismoa zientzia positibuarekin identiko baldin bada iraultzagileen ez baino teknikoen eskuetan jarri behar da, eta badugu burokrazia.

— Marxismoa zientzia positibuarekin —edo halako guzien bilduma, kopuruarekin— identiko baldin bada interpretazio zuzen bat bakarra da aldian aldiko posible, eta badugu zentsura. Dirijismoa.

— Eta horixe baldin bada, marxismoa ez da gizarte *marxistan* kritiko, ezagupen biltzaile eta integratzaile baizik, teknikoen legitimaziorako zerbitzatuko du eta Erresumaren heriotzari baino gehiago lagunduko dio aparamen estatalen bermatzeari.

— Marxismoa zientzia positibu besterik ez baldin bada ez da ekintzaren memento edo une tipi bat besterik ere, eta iadanik zientzia besterik egoteko arrazoirik ez legoke, marxismoaren izena erabiltzea bera kondairako beste edozein jakintsurena erabiltzea baino esanahitsuago ezin izanik.

Marxismo zientista antifilosofia bezala

Senti eta adierazkera honetako *materialismoa ez da filosofia, antifilosofia baizik,* ebazten du Kolakowskik. Orain, konsekuent azkeneraino hedatutako zientismoa pragmatismoan erortzen da, eta pragmatismoa —paradosalki— fatalismoan. Galdetu nondik nora egiaren neurririk dadukagun, eta *egiaren* balio praktikoa dela neurri hori osteratuko du zientistak. Ederki, jarraituko du kontrakarrak, baina gezurraren, erlijioaren, liluren, mitologien, etab. balio praktikoa nabarmenegia da mila kasutan, egiazko eta ontzat eman behar ote guzi horiek ere, praktiko agertzen diren heinean? Eta bere oinarria eragozpen sinple konetatik salbatzeko lain argitu nahi duen orduko hegalduko da zientista balio

praktikoaren konzeptu ez praktiko, bai teoriko batetarantz. Zientifikoa ez, galderaok arrazoi praktikoen beharrez apropos bazterrera utziz bait dabil. Balioaz edo probetxuaz, onuraz natur jakintsua eta filosofoa mintzo direnean, bada, itxuraz bakarrik adierazten dute hitz berarekin burutapen bera.

> Labur esan, bere oinarrien jarraiki azken bururaino buruturiko zientismoak pragmatismoan akabatzen du. Ezagupidearen adierazpen pragmatikoa, horrela, bere erizpideekin hain zuzen gizadia bere funtseko asmoen arabera askatu egin nahi zuen erabaki metafisikoak balioberritzera itzultzen da bueltan (66).

Filosofiarik izan nahi ez duen marxismoa ere zientismoarekin berdintzen da. Honek esan nahi du ez dagoela ezeri enpirikoki egiazta daitekeen baino dohain, zertasun gehiago aitortzerik. Holakoetan, ordea, ez marxismo eta ez ezer dadukagu, zientzien maila konkreturen bat besterik. Materiaren *betikotasunak* edo *neurrigabetasunak* ez daduka esperimentalki agertu den bere iraupen edo hedadura fisikoarena beste esanahirik, eta mikro-izakien lekugunea edo zabalpena oharremateko ere ez dago jardupide fisikoak besterik. Honela ulertutako filosofiak ez daduka positibuki zientzien kopia soil izatera baino gehiagotaratzerik; negatibuki, naturalezari mitologiak-edo itsatsitako kalitateen gezurtatzen zerbait egin lezake. Hori haino gehiagorik nahi duen materialismoak, berriz, fisikaren emariak herrikoiki edo lausoturik esanberrituz gaindi, zuzen-zuzen fakto enpirikoetan oinarritzen ez diren epaiak, judizioak ematen ditu munduaz: zein eskubiderekin? Halakoen ustez materialismoa eskierki oso-osorik zientzietan oinarritzen da, baina munduari buruz zientzia huts haiek baino zerbait gehiago ere esan lezakeela uste du filosofia materialistak. Eta beren esaldiak hertsiki *zien-*

(66) Cfr. **Ist der Verstehende Materialismus möglich?** (TüSV, or. 169).

tziazko omen dira, diziplina positibuen emarietatik haruntzago pasatu arren, beraz, beste diziplinen kopia huts izan gabe. Berehalaxe bilatzen dute beren esakune ororen egiztapena zientzietan, zer esanik ez. Baina zientzia zientziek berek egiten dutena baino areago interpretatuz.

Problema bihurri hau (67) ez da euskal giroan arrotz. Esanak esan, esandakoa Marxena edo marxista baldin bada zientziazko haina dirudi eritziak (zientziazkotasunaren neurri bilakatu da marxismoa, beraz, alderantziz marxismoa zientziarekin neurtu ordez): familiaren etorpideaz, gainegituren naturalezaz, kondairaren ardatz ekonomikoaz, filosofia edo mundu ikuskera materialista ala idealista bikoitzaz, determinismoaz eta askatasunaz, sozialismoaren ezinbestezkoaz, edozertaz. Beraz, problema ekonomikoen, filosofikoen, historikoen funtsa ezagutzeko ausaz ez dago ia ekonomiarik, filosofiarik edo historiarik ikasten zergatik ahalegindu. Zailtasunik ez aurkitzeko ez bait dago gauzak erraz deklaratu baino hoberik. Marxismoaren zientziazkotasun neurrien interpretazioan denetik ezagutzen da, aldiz: marxismoa matematika bezain zientziazkotzat dadukatenetik hasi (zientziazkotasun oro taiu berdinekotzat hartuz, beraz) ta marxismoa burgesiaren *azterketa esistentzial* soiltzat dadukateneraino (hala, esaterako, Hyppolitek, Bigok, eta ez azkenik, L. Sebag estruktturalista marxistak ere) eta diferentzia hauk ez dira mendebalekoak bakarrik.

(Ikus azkenean 2-gn eraskina. — Ez dago esan beharrik nik ideologia —pentsakera mitologikoa— berez eta erabat gaitzerizgarritzat ez dadukadanik. Gizadian eta kondairan ideologiak bere betebeharrak daramazkiela

(67) Leninek: «Hegelen Logika osoa aldenik alde aztertu eta ulertu gabe ez dago Marxen **Kapitala**, hango lehen kapitulua batez ere, guziz ulertzerik. Beraz, mende erdi baten buruan hona non marxista bakar batek ere Marx ulertu ez duen».

> dirudi. Zientziaren lekuan sartzen denean halare, bere eginkizunen mugaz kanpora dabilela eta kritikak atzera bere lekuratu behar duela uste dut.)

Zail da, bada, marxismoa zer den jakitea.

> Zer da marxismoa? Gainegitura bat? Ideología bat? (Proletargoarena izanda ere). Ala zientziaren bat? Eta baiezkoan, nola erantz lezake zientzia honek ideología? (Lefèbvre) (68).

Baina badago besterik ere: zientzia zer den. Eta lehen-lehenik, hori nork esan behar duen. Azken finean ez bait luke ezer erremediatuko marxismoak, bere burua zientifiko azaltzeko, bere neurrira moztutako zientzia konzeptua sortuko balu. Ez dago dudarik Marxek marxismoa eta edozein zientzia, aurrera eta aldakortzat zeduzkana, ezagupena ekintzaren parte bezala aditu bait du, (buru) lan gisa alegia. Baina ez hala *bakarrik, ad Feuerbach* lehenengo tesian (*bakarrik... eta ez...* hitzekin) adierazirik dadukagunez (69). Zientzia guzia eta osoa ekintzara biltzeko arrazoirik ez dago —ausaz Lukácsek *Kondaira eta klase konzientzian* egin duenez— sujetibutasuna neurriz gora azpimarkatu nahi ez bada. Marxi konzientziaren eta objetu, gai edo ekaiaren kontrajarpena desegoki iruditzen zaio, idealismoa-

---

(68) Althusserek uste du Marxek hondaira zientzia sortu duela: «Marx fonde une science nouvelle, c'est-à-dire èlabore un système de concepts scientifiques nouveaux, là où ne régnait auparavant que l'agendement de notions idéologiques. Marx fonde la science de l'histoire, là aù n'existaient que des philosophies de l'histoire» **(Lénine et la Philosophie**, or. 24). Grekoek matematikaren kontinentea, Galileok fisikarena bezala aurkitu du Marxek historiaren kontinentea jakintza munduan. Bere oinarriekin logiko, Althusserek alferrikako bihurtzen du marxismoaz ezer bereziz bezala mintzatzea: «Matérialisme historique veut alors dire: science de l'histoire» (or. 26). Eta: «Le matérialisme, c'est alors tout simplement l'attitude stricte du savant devant la réalité de son objet, qui lui permet de saisir comme le dira Engels «la nature sans aucune addition étrangère» (Ibid!).

(69) Cfr. in A. Schmidt, **Beiträge zur marxistischen Erkenntnistheorie**, J. Zelenyren **Zum Wissenschaftsbegriff des dialektischen Materialismus**, or. 79/80.

ren antitesi sinplea ere bai, hortakoz, materialismoa besterik gabe zientziarekin berdindu nahi luketenek oraindik ere egiten darraitenez. Antinomia hori gainditzeko Marxek pentsatzea ere Izanaren (Sein) une legez ulertzen du, ekaiaren (ezagugaiaren) modu berean, eta horrekin antinomiaren eskabidea hitzaren aldetik bertatik ere zientzia positibuek inola ezindako eremu batetan bilatuz. (Pentsatzea *Izanaren* parte bezala, ez ekaiarena bezala, eta ekaia ere Izanaren parte bezala, ez Izana eta ekaia, objetua berdinduz). Ez bait da ahaztu behar, zientzia positibuetan sarpiderik ere ez dadukan hiztegi guzi bat dagoela edozein gizasemeren ahotan, pentsamentuarekin zerikusiren batekin derrigor: Izan absolutua, zerbait in se, Izana eta zer-izana, etab.. Horiek denak *sasihizkuntza* deklara daitezke apika, neopositibismoaren bidetik batzuek egin duten eran, baina jokabide horrek horixe dirudi, neopositibista alegia, eta ez marxista. Abstrahikuntzek, bere oinarri historikoetatik etenda, balio guzia gal lezakete; baina lotura hura gordezko abstrahikuntzak beharrezko dira ezagupiderako, ez da abstrahikuntzari renunziatuzko positibismo radikalik posible, Marxek Stirnēren kontra bere iritzia azaldu digunez.

Marxismoa zientziazko —eta sekretoan zientzien gainetiko bezala adituz— iruditzen zaion teoriak errealismo ezagupide-teorikoan (leninistan) oinarritzen dela esan ohi du. Baina teoria hau —dio Kolakowskik— txit sasia da formulatzeko. Errealidadea gugandik *kanpora* dagoela esaten bait da. Norbere egolekua horrela deskribatu duen materialistak erizketa kontrarioren bati erasotzekoan hasten dira nekeak. Diote materialistek: errealidadea edo izakaria sujetua baitan eta ez sujetuagandik kanpora daudela deritzate idealistek, hau da, gauzaki fisikoak zentzu espazialean organismo sentikorreko nerbio sarean jazotzen diren prozesoen atal di-

rela. Ongi, horrela muga-hesituriko idealismoa birrintzea erraza da. Zail, horrelako idealista bat bakarrik bilatzea da.

Baina *kanpoan* ala *barruan* bezalako konzeptuen erabilkizuna utziz gero errealismoaren teoria zertara mugatzen da: hain zuzen, munduaz esperimentalki atzematen duguna gauzak berak in se, gure situazioekin zerikusirik gabe, berez direnaren irudi edo kontraespiladura dela. Hau da, mundua ezagupideko ateka edo situazio ororen aurretik, kanpotik den bezalaxe ezagutu ahal izateko ezagupide situazioen posibilidadea baieztatzera mugatzen da errealismoa. Edo-ta, oraindik: zenbait ezagupide atekatan mundua ateka haiek erlatibatu gabeko eran azaltzen zaigula. Horregatik ez dute onartu nahi izan *errealistek* hizkuntzak ezagupidea *eratzen* omen duen teoria erlatibistarik... Objetibutasun printzipialki erabatekoa nahi lukete (eta klase banakuntzari zortako mugadurekin bakarrik). Gizonari absolutuki (absolututasun historikoaren zentzuan) berezko zaizkion beste erlatibapenak ez dira aintzat hartzen: istintoak, erlijioa beharbada, etc.

Honi errealismo mistiko deritza Kolakowskik: filosofiarik nahi ez zuen materialismo (mistiko) horren oinarriak, izan ere, egiazki filosofiarik gabeko eta zientzia hutsezko ote dira? Ezta inola ere: hasieratik azkeneraino enpiriarekin ezer ikusirik ez dadukan sujetuaren eta objetuaren arteko harreman modu batez baliatzen bait da. Geroxeago, haatik ere, zientista itzulirik, mundu barrura datu esperimentalen bidez ezpada sartzea debekatzen du, berak lehentxeago egina gero beste guziei ezestatu nahirik.

Marxismo sustantzialista

Kolakowskik *sustantzialista* ere baderitza materialismo horri, eta honek gorago ikututako gai batetara itzularazten gaitu: filosofia oro materialista ala idealista denekora. Berezkuntza hau, ezagunki, Leibnizek sortu zuen eta Feuerbach zehar Engelsengana sartu. Honekin 17-gn mendeaz gerorako bakarrik ezagutzen den kategoria bat (materialismo) filosofiaren kondaira guziaren gainera hedatzen da. Berezkuntza hori egiteko erizpidea sustantzia materiak, gauzazkoen ala izpiritualen lehentasun genetikoaren problema erabakitzaile bezala ikustean zetzan. Konzeptuokin sustantziari buruzko eztabaida tradizionalaren korapiloa ezpatazo batekin erabakita uzten zen, eta materialismoari sustantziaren esistentzia beitetsi araziz egin ere. Harrez geroko materialismoa katramila horretan kateiatuta ibiliko da, fisika atomiko modernuaren materia konzeptuaren erdian ere ikuskera sustantzialista tarraka dakarrela, bere ahaltasun filosofiko guziak itoaz. Materialismoa —hemen Kolakowskik Havemannekin batera epaitzen duenez— materiaren konzeptu arkaiko, primitibu batez baliatzen da, fisika modernuak iadanik onartzen ez duen batez. Baina materialismoak bere burua natur jakintzen materia konzeptuari lotu omen dio. Hori ederki egon liteke filosofia materialistak natur jakintzen emaitzak nolabait bere aldetik ere aberastu ahal izanez gero. Horrelakorik ezin izatekotan zertarako gabetsu izateaz gainera, doi-doi da, bere aitorleak haretaz gogotik harrotu arren, aldakor eta ebolutiburik ere. Itxuraz ezpada. Eboluzionatu natur jakintzek egiten dute, eta materialistek aldakuntza baiek kolkoratu besterik ez onenean ere, mendeen joanetorrian beren funtsezko formulazioari beti berdin eutsiz. Izakari fisikoari zein kalidade fisiko aitortu, izan ere, ez dago filosofiaren esku. Baina kalidade filosofikoak —sustantzialidadea edo errealidadea, adibidez— adierazterakoan,

zientzia esperimentalak arduratu ohi dituen zentzu batetan egiten bait da, materialismoaren independentzia metafisikatik ez da bere zientziazkotasunagatik inola ere.

Bai bait dirudi materialismoak —mundu ikuskera gisa— etengabeki aldatu eta sakondu beharko lukeela, zientzien aurrerapenarekin. Guziz aitzitik, etengabe geldi dago, pentsakera filosofikoak denboraren martxan lortzen dituen zehaztasun eta berezkuntza motez akordatu gabe eta egiazko desarroilorik batere gabe. Bere betiko tesien sumarioan gogortuta. Materialismo sustantzialistak, bada, ez du Demokritoren garaian zedukan maila baino gorago igotzerik lortu. Guzi honekin Kolakowskik zer adierazten duen argi dago: materialismo zientista ez da filosofiarik —nahi ere ez—, baina ezta filosofia baino zientziago ere. Zientismo pretensioa besterik ez da. Ideologikeria.

Ezagupena: jakite, ala imajinazio praktiko?

Bigarren Mundu Gerraren ondokoan batez ere krisi eta kritika haundiak sortu dira, pentsa dezakegunez, marxismoaren barruan. Hor dago Kolakowski. Baina pentsa daiteke, orobat, Polonian egin den marxismoaren kritika marxista ezin izan zitekeela, esaterako, Frantzian bezalakoa.

Kolakowski ez da aspertzen marxismoaren mota ezberdinen arteko sustantzialista, mistiko, zientista, pragmatista, positibista, dogmakoi, erakundezkoaren kontradizioak erakusten. Ez dago pentsatzerik, halare, Kolakowskik beste inork baino gutiago ahalegiten duenik,

bai marxismoaren zientziazkotasuna erakusten eta bai marxismoa benetan zientifikoki desarroilatzen. Marxismoa ezer izango bada bere deformazioak —hauk bere ustez egun gailen eta marxismo izenaren jabe konsekratu eta ia bakar izaki— porrokatu beharra dagoela sinesturik, ez da noski irizkera akademiko soilen batzuen alde eta kontra ahalegindu, irizkera haien eragindura eta obra, edo irizkera haiekingo hizkuntzaz baliatzen ziren obrez haino. Demokraziaren alde eta pentsamentuan ere normatibu agertu nahi lukeen diaktaduraren kontra. Eta arrazionalki saiatu da lan horretan, filosofo legez. Eta sozial-filosofo legez ongi ezagutzen bait du K. Marxen eragipen askatzailea, horrixe eutsi nahi dio bizirik, erakundeek egin dizkioten afeiterik gabe. Marxismoak ere, inor liberatzeko, berak ere libre egon behar bait du.

Aitortzako marxismoaren (fede marxistaren) lekuan Marxen azterketa, *marxologia* nagusiturik dago, beraz, marxista izeneko intelektual artean: *atzera iturrietara* mogimendu legez ezagutzen da krisi aldi hau. Marxismoaren propioa, erdigunea bilatu da, beste guzia haren funtzioan berpentsatzeko. Autorerik gehien-gehienak, uste dudanez, Marx gaztearekin gogotik enplegatu dira, eta marxismo berririk gehiena sujetuaren partea indarberrituz aritu izan da. Aparteko kasu bat nabariki Althusser dugu: honek sujetuari jaramonik egin gabe *prozeso historikoari* berari begiratu nahi lioke eta, esan bezala, Marx gaztea ez marxistatzat jo du. Frantzian arrakasta galanteko Autore hau estrukturalista izaki, agian begiragarriko dira bere lanak marxismoaren desarroilo bezala (berak ere sarri adierazi du halaxe ulertzen dituela), Marxen inbestigazio bezala baino. Althusseren inportantzia, orduan, batez ere nire oraingo maila baino goragokoan hasten dela deritzat: alegia, geure erako marxismo bat positibuki eraikitzen hasiko ginanerako, eta ez, ni oraindik ari naizen bezala, marxismo klasiko-

aren krisiari *positio quaestionis* bila, maila honetan Marx osoa bait dago hauzian inplikatuta —Marx zaharra haina Marz gaztea— Eta, horregatixe, baita Hegel ere: Althusserek marxismotik zeharo deserriratu duena. Bistan dago Althusseren eta —adibidez— Garaudyren antidogmatismoa ezberdinak eta joera kasi kontrariotan desarroilatuak direna. Althusserek zirti-zarta hautsi egin du marxismoaren tradizio klasioarekin eta ez ditu han deformazioak bakarrik aurkitzen, ezpada marxismoa zientzia bezala (gogoeta mailan, teoria legez, ez ekintza mailan) desarroilatzen egunotara arte hasi ere egin gabe dagoela baieztatzen du oraindanokoa ideologiko besterik ez omen bait da izan. Honekin tradizio guzi hura oso-osorik eta berezkuntzarik gabe errekara bota du (hemen darabilgun kontraespiladuraren teoria leninista barne) guzi hura ia *tabula rasa* eginez. Beraz, Althusserek tradizio marxista klasikoa erabatean kritikatu du. Beste gehienak, berriz, tesiz-tesi eta ponduz-pondu jardun dira beren kritikan. Eta hain zuzen, Marxen desarroilo partzial izateagatik —ez Marx osoarena— Marxen ponduren batzuen desarroilo eta beste hainbesteren ahazpen omen delakoxe kritikatzen dute ohizko marxismoa. Althusserek Marxen ezpezifikoa eta haren *coupure epistemologique* bilatzen ditu; besteok, aldiz, gehiago saiatzen dira berezgarriaren bila baino Marxek bere garaiarekin eta Europako tradizio korrontekin daduzkan loturez, Marx gazteaz bereziki orduan, marxismoa bere bakardadetik atera eta bere barrura atzera tradizio europearren izerdia sarrazteko.

Kolakowki ere Marxen *Pariseko eskuidazkietara* itzultzen da, marxismoaren bere kritika inmanentea hantxe finkatuta desarroilatzeko. Kolakowkik ez ditu positibismoa eta positibismorako joera duen marxismoa arras berdintzen, baina biok berezten ditu jatorrizko marxismotik bortizki, egungo marxismoa Marxen erro-

etatik baino gehiago Engelsenetatik erne eta hazi dela erakusteko.

Naturaleza eta gizona

Makina bat hauts harrotu duen *Karl Marx und die klassische Definition der Wahrheit* saiakeran (70) atal biko hauzi hau jartzen du: gizona naturaleza baitan baldin badago, nola egon daiteke naturaleza gizonon baitan? Aurrez emanik dago: ezagupidea gizonaren jardupide praktikoaren parte dela, —gizonaren jardupide praktikoa izaki ezagumendunarena, ezagutuzkoa dela, —eta «naturaleza ere, abstrakt hartuta, bere baitan, gizonagandik aparte banatu eta bere zertan finkaturik, gizona-*rentzat* ez dela deus eta ezer» (Marx). Adimenaren eta gauzaren arteko harremanak ezagupidean (hau praksiaren osakai izaki) premien eta hoen atsedenaren edo atsegingaiaren artekoen motakoak dira. Honela abiatzeak *gauza in se* delakoaren arazoa aldez aurretik garbitzen du, ikusgune aukerarekin berarekin: gauza bera in se ezin izan daiteke ezagupenaren helburu eta xederik, giza praksiaren gairik ere ez delarik. Kolakowskik Feuerbachi buruzko 2gn. tesiarekin hersten du bere oinarrion finkapena: *gogoramenduaren errealidaderik bai ala ezaren eztabaida —praksitik banatzen bada— hauzi eskolastiko hutsa da.* Izate oro da, bada, pentsatutako izate, idealistek dioten gisa; baina *izate pentsatua* izan (edo pentsatua-izan) eta (soilki) izan ez da —idealistek areago nahiko luketenez— inolaz berdin. Izana (Sein) pentsatutako izan gisa bakarrik baldin bada pentsamenduaren, kasurako ezagupenaren

(70) **K. Marx eta egiaren definizio klasikoa,** cfr. TSV, or. 51-80. Ik. orobat, bere kontra, G. Márkus, **Über die erkenntnistheoretischen Ansichten des jungen Marx,** in A. Schmidt, «Beiträge zur marxistischen Erkenntnistheorie», 1969, or. 18-72.

gai (a=a), haatik ere pentsamendua gizonaren izatearen (Dasein) funtzio da bestalde, gizasemearen jokabide praktikoarena alegia. Gizonak ezin bere burua pentsa edo burura lezake naturalezatik at, ezta naturaleza ere bere harekiko kontakto praktikotik kanpora.

Lehenik, bada, naturaleza bera ere gizonak *egiten*, kreatzen duela argituz gero, gizonaren kontzientzia praktiko bidez taiutu eta eratu den munduan nabariki gauza, izakari ezberdinak atzematen dira. Baina ez legoke gauzarik, hots, ezeren dohain sortarik osotasun nahasitik berezterik, aurretik konzeptu orokor eta arruntik bildu izan gabe, konzeptu orokor honen baitan gero bereziko den zerbait hura beste gauzen antzeko eta aldi berean ezberdin bezala atzemanez. Hau da, gauza bat bere izena edo beste izen batzuen bitartezko bere deskribizioa lortu duenean hasten da norbera, gauza izaten. Edo-ta oraindik: gauza bat abstraktua da, osotasunean urtua dago eta galdua, izenak osotasunetik ebaki eta altxa eta bere baitan zertu arte. Orduan, aldiz, zer-banako, norbera izaten hasten da, konkretu bilakatzen da beraz.

Abstrahikuntza eta orokortasuna konkretua eta partikularra baino lehenagoko dira, bada. Abia-abiaburuko. Giza ezagupide diskursibu eta hizkuntzaren egitamuetan bakarrik formulagarrien (71) mundua abstrahikuntza bidez zulatzen eta sakontzen da, izaki konkretu indibidual edo zer-banakoari atxiki arte. Konzeptu abstraktuak ohar eta obserbazio apurka eta konparazio bidez lortzen direla zeritzan enpirismo tradizionalari konzientziako fenomenu oinarrizko hau ezkutatu zaio: nola kon-

(71) «Geu errealidadeari eta hau geure premiei egokitzeko baliatzen garen tresneria multzoa hizkuntza da; baina hizkuntza [lan eta] jardun-abes aktibu, eragikor da, eraikitzeko langailu edo aparamen, ez miaketa edo bilaketarakoa», cfr. TSV, or. 62. Pentsamentua praksi legez ikusteak osatzen du hizkuntza ere lanabes gisa ikustea.

kretuaren hautemateko aldez aurretik jakite orokorra premiazko den.

Giza konzientziak *sortzen* duen mundua zer-banakoz, izaki motaz eta sailez, jenero eta espeziez eraikia da. Baina gizakumea, *tximu*-kume hau, bere onto eta filogenesian munduari eskua hartzen eta izadiaz jabetzen eta hura intelektualki menderatzen abiatzen denerako, eraikidurak eraikirik eta berezkuntzak eginik daudela kausitzen du (gizona gizon baino lehenago abere izan zen): ez klasifikazio eskema *naturalen* eta objetiburen baten arabera, orientazio praktikoaren premien araberako klasifikazioz baizik. Pregizonaren eta gizonaren premiek eman diote ordenua, tankera munduari eta munduan gauzei. Hementxe dago mundu ikuskera aristotelikoa eta marxista elkarrengandik banatzen dituen pondua: errealismo aristotelikoaren aburuz, zientziek dagiten errealidadearen berezketa, jenero eta espezietan (formak), errealidadeko bertako jenero eta espezieen kopia soil da, egon errealidadean bertan zegoena kontzientzian zehazki, geroz eta zehazkiago, kontraespilatzen eta isladatzen omen delarik. *Naturaleza gizongisatu* humanatu eta gizairudizko edo antropomorfo marxistak, aitzitik, ez daduka forma sustantzialik gizarte-gizonak itsatsi edo eman aurretik berak eduki, praksiak premien arabera itsatsitako formak baino. Sujetu ezagutzailea, bere premia material nahiz izpiritualekin, *natur premien araberako* (Marx) nahiz behartasun kultur historiko aldakorrekin, naturalezaren barruan egoteak ez du azalpiderik behar, noski. Horrelaxe bakarrik bait da gizasemea, naturalezaren kreatura izanez alegia, naturalezaren kreatzaile.

Hala Kolakowskik. Hau guzia Leninen errealismo sinpletik dexente urruntzen da. Eta hori badaki —dakielakoxe ari bait da— Kolakowskik. Eta *Eskuidaztiotan idoro* dituen inspirazio eta iturburuak eta egungo marxismoari

(ortodosari) nabari zaizkionak zeharo diferenteak direla juzgatzeraino doa azkenerako. Lenin, bere zentzu arruntaren errealismo sinplearekin atzera naturalezari forma sustantzialak aitortzera itzuli da (72), naturalezaren (materiaren) gizonaren aurrez-aurreko trazendentzia zaharberrituz, ezagupidean sujetua pasibu lotuz.

Esana biltzeko: munduaren tankera intelektuala gizonak praksiaren prozesoan eta bere premien arabera ezarria da. Lehenik tankera sozial-sujetibukoa da. Eta berezko, natural, gizasemearen jaioleku —zentzurik zabalenean— dagien sustantziari deritza, gizona gizon den arterako itsatsita dauden neurrian. Ez Jaungoiko mitologiko ala materialista inork halaxe egin duelako. Gizonaren eta naturalezaren arteko harreman praktiko aldakaitz edo aldaezinei dagokien arioan da zerbait objetibu ta natural. Errealidade orokorra bera in se ez da gure ezagupenaren gairik ere. Guretzat ezaugarritasunik, eta beraz inportantziarik dadukan errealidadeak esse concessum, prestamozko edo mailegu-izaera daduka. Ezagupenaren sujetuak (sozial, noski) ez du naturaleza apetaz ala kasketaz tankera, izakera hortaz hornitu: praksiaren, lanaren eta naturalezaren jazargoaren elkargunean sortzen da gauzen izendapena, ez adimen hutsetik irtendako argiz (idealismo) eta ezta materian gauzak berez halaxe izanik beren buruak konzientziaren artez kontraespilatzen dituztelako ere (materialismo arrunt eta errealismo sinple).

Horra nola Kolakowskik leheneratu eta birregin duen (marxismoari jatorrizko zaion eran) marxismo klasikoaren kontra (oroit Afanasiev), Leninek naturalezaren dialektikara bihurtuz desegindako sujetuaren eta objetuaren arteko dialektika ezagupide jardunean. Objetibutasuna salbatzeko sujetua sakrifikatu beharrik gabe.

(72) Cfr. TSV, or. 175/176.

Berezko ondorioa da: ezagupidea zerbait guziz historiko da, ez natur mekaniko. Ezagupideaz erabat hori esan ahal izatekotan, horrek fenomenu sozialen edo historiaren ezagupiderako ere zorrozkiago balio du.

Ekintza edo praksi biziaren garrantzia oinarriturik, erlatibismoa finkatzera pasako da Kolakowski.

Kondaira eta gizona

Batzutan uste izten da posible direla errealidadearen ikuskera eta ezagupen arras «objetibuak». Problema hau, batez ere, errealidade historikoari buruz jartzen da. Hemen errealidade historikoaren berezitasunak (gizonak gizonaz bait dihardu) objetibutasunaren problema bereziak sortzen ditu.

Ezagupide historikoa, dio Kolakowskik, azterkariari *bere* garaiak ezartzen dizkion betekizunen funtzio bezala kontsidera liteke. Betekizunok historigileari gai edo materia historikoa ebaki eta, bere garaiak eta inguruné sozialak ezarritako inportantzia erizpideen arabera, gaiari dagokion konzeptu tresneria hauta arazten diote. Arazo hau printzipialki pentsatu ala ideien kondairagintzari begiratuz egin, halaxe jarduten dela eta halaxe jardun beste erremediorik ez dagoela agiri da. Faktu berberaren adierazpen ezberdin asko da posible. Sarri ikusten da, orobat, ideien kondairagileak behinolako norbaiti, honek bere denboran susmatu ere gabeko galderen erantzunak behartzen eta itsasten dizkiola. Badaude arau teknikoak apeta, kapritxoa minimo batetara mugatzeko, eta interpretazioen artean hoberen samarra nordentzeko eta hobesteko (*ceteris paribus*, fakturik gehien esplikatzen duena onargarrien, e.a.). Bainan ez dago elkar ukatzen edo gainditzen duen adierazpen ezberdin oro ezinezkotu eta absolut objetibu bat

posibilitatzeko gauza litzakeen araurik. Platonen pentsamentuaren adierazpenak etengabe ugaritu dira oraino, eta zihur egon gintezke, iadanik betiko balioko duen adierazpen oso, erabateko eta definitibu bakarrik ez duela inork lortuko. Denborarekin eta egoerekin batera Platonen pentsamentua ere eboluzionatuz doa (73). Kondairaren objetibutasuna, nabariki, historigileak *asmatzen* bait ditu: bere nortasunaren, garaiaren, klasearen, kondizionamentuen ikusgunearen arabera.

Beraz, ideien kondaira-jakintza batez ere, bere errealidadearen, gaiaren aurrean, gizartea (gizadia) munduaren aurrean bezalatsu kausitzen da: Averroesen Jainkoaren antzean, aurrean kausitzen duen materia preesistente batetatik mundu adigarria eratu, atondu eta antolatu, zentzu honetan sortu egin beharrean. Kondairari konposizio sistima bat ezarri beharrik. Marxismoak hau betidanik jakin du, beste joeretako interesen batzuen mendean, ikuskera honen emariak galdu gabe objetibutasun zientifikoaren tesia azpimarkatzen zuenean ere: kondaira azterketa, kultur lana, ezinbestean alderdikor dena eta izan behar duena, esandakoaren ondoramena besterik ez bait da; kondairaren ezagupen absolut zihur eta objetiburik posible balitz, ordea, zaletasun alderdikor oro itxuragabe eta absurdu baizik ez litzake (74).

---

(73) Bistan dago kondaira-jakintzan eite guziz ezberdineko galderak daudena: zenbait denbora iraun zuen halako guduk?; zergatik sortu zen gudu huraxe?; zein honzientzia moldek moldatu zuen gudu haretako arerioen mentalidadea?; zein da halako guduren esanahia kondaira osoaren baitan? (Adibidez: abertzaleak izan ahal ziren karlistadak? Klase gudu XVI mendeko laborarien altxamenduak Alemanian?). Metodu eta burutapide txit ezberdinekin bakarrik saia daiteke banan-banan erantzutea, eta erantzunaren objetibutasunak nahitaez aldian-aldian esanahi diferentea eduki beharko.

(74) Honexek ere ongi erakusten du nola, desarroiloak jatorrizko marxismoari eragin dion eta ikusten ari garen itxura aldaketan, jatorrizko konzeptuak, tankera berrian ia inposible itzuli izan arren, gorde diren eta esanahia aldatu zaien. Alderdikaritza konzeptuaren deformazio itsusiena, halare, konzeptu hori bere testuingurutik atera eta gero gertatu da:

Hemen ere gorago ezagupideaz erabatean egindako gogaramenduetatik ateratako ondorioa ezar daiteke: kondairagileak kondairak berez ez dadukan taiua ematen, *sortzen* dio kondairari. Baina sujetibutasun guzizkorik ez dago, kondairagilea bera ere kondaira barruan bait dago eta —bera ere kondairak kondairaz egina— kondairari zor bait zaio. Sujetua eta objetua, objetibutasuna eta sujetibutasuna beraz, ez dago bi mutur punta kontrarioren antzean imajinatzerik, elkar inplikatuz baino.

Pentsakera benetan dialektiko honetan ez dago objetibukeriarentzako lekurik. Aldrebes, aitzitik, bildur izan bait daiteke, objetibukeriak egiazko dialektikarik ez duela permititzen).

> Beraz, gertakari sorta (fenomenu) bat beraren adierazpen diferente ugari elkarren parean egon baldin badaiteke, jardupide-arau tekniko onartuen araberakoak denak, beren arteko zein aukeratu, aukera orokorrago batek kondizionaturik egongo da, Weltanschauung edo mundu ikuskera jakin baten aukerak alegia, mundu ikuskera hau bera adierazpen historikoaren osagarri integral izaki. Mundu ikuskera ezberdinetan beti —eta honek ezinbestezko dirudi— zentzu hertsian ezin egiztatu den zenbait konponente dagoen pentsatzen bada (zerk ez duen ikuskera guziak berdin irrazional direnik esan nahi), ikusi ahal izango dugu, azterketaren uneren batetan oso gaitz gertatzen dela hurrengo aukera **egiaren** eta **ez egiaren** edo gezurraren arteko hautapen bezala juzgatzea. Gizalege, postura arteko aukeraren arazo da, hobeki, eta ez tesi teorikoen artekoa, —aukera praktiko batena, ez espekulatibuare-

---

ezinbestezko alderdikortasunaren aitzakiarekin —alderdikoikeria nabarmenez— datuak ezkutaku edo faltseatu, baztertu eta edozein zikinkeria egitea ontzat eman da maiz: nahitaez alderdikor izan beharretik apropos alderdikoi izatera eta alderdikeria zatarkienik programatzeraino ailegatuz. Hori bat, paradosalki, aldi berean ezagupen historikoaren objetibutasuna aho betean konfesatzen zelarik, cfr. E. Fischer, **Kunst und Koexistenz**, 1966. Marxek, ordea, kondaira azterketan alderdikortasuna ezinbestezkoa dela, hots, gertakaria bat adierazi egin du. Inola ere ez ohartzapen hori asmoren baten programa bihurtu.

> na—. Ezagupen historikoan inoiz **objetibutasun** osorik lortzea posible izango den itxaropena ez da, orduan, oso arrazoizko; honekin ez diogu inolaz ere zaputzik egiten, ez birregintza edo eraikidura filosofiko eta historiokoetan faktore arrazionalen partea zabaldu eta sakontzeari, ezta zentzu korrientean **egia** edo **gezur** bezala juzgatzerik ez dagoen hauzientzat beste nolabaiteko klasifikazioen posibilidade bilaketari ere. Ari garen kasuetan arazoa ez da iadanik baliogo logikoen arteko aukeraren batena, besterik gabe baliogo biren arteko aukerarena soilik baino (75).

Merezi luke Kolakowskiren borroka kritiko hau, dogmakeriaren aurka eta erlatibismoaren (tolerantziaren) alde, bere aberkide Schaffenarekin alderatzea. Zeren-eta Autore honen lanean ere interes berdinak nabari bait dira, geroz eta argiago. Gomulkak Schaff Alderdiaren Zentral Komitetik haizatu izan arren (Kolakowski Alderditik kanpora) ez da Schaff kikildu: 1970-ean berriro atera du liburu bat, *Kondaira eta egia,* ideologia marxistaren kritika jarraituz. Lehenago gizarte klase gabekoaren utopia azaldurik zedukan, sozialismoan kapitalismoa bezalakoxe zenbait alienazio mota posible dena erakutsirik (lurralde sozialistetako antisemitismoa gogorki kondenatuz) eta errealismo ezagupide-teoriko sinplea arbuiaturik edo berrikusi beharrezko aitorturik. Aurrerago jarraiki, oraingoan alderdikaritzaren tesia hauzipetaratu digu Schaffek ere. Alderdi funtzionarioek errezeloz ikusten dute koesistentzia ideologiko susmoa har lezaiokeen edozer: mundu bion artean ez bide dago borroka osoa eta kupida gabea besterik egoterik, hau da, *ideologia* burgesak eta proletarioak ez dirudite elkarren ukazio erabateko eta guzizko besterik. Schaffek, aldiz, pentsakera eta ikuspide ororen erlatibutasuna erakusten du. Batez ere alderdikaritzaren eta Alderdiarekin ados egon beharraren berdinkuntzari gai-

(75) Cfr. **Karl Marx und die klassische Definition der Wahrheit,** TSV, 19-67, or. 75/76.

tzirizten dio. Intelektualak —dio Schaffek— gizarte osoaren ordezkari eta aldezkari legez jokatu behar du. Gizartearen instantzia kritiko bezala. Intelektual sozialistak, horregatik, sozialismo zientifikoaren kritika ezin lezake zabartu: bere oker eta hutsuneak eta alderdi-bakarkeria salatuz. Jakite oro sozial-historikoki mugatu eta erlatibatu izanik, ez du zentzurik inongo inoren absolututasun pretensiok. Kontrarioaren egia ere erlatibu da, eta ez norberarena baino gutiago. Honek ez du borrokaren zilegitasuna ukatzen, baina bai borrokari iritzi honen araberako arrazoizkotasunaren eta zuzentasun moralaren neurriak ezarri. Egia erlatibu bategatik ari den jakinaren gainean aritu behar du borrokariak. Schaffek gustora aipatzen du Marx gaztearen pasartea:

> Egia bilatzailearen lehen-lehenengo obligazioa ez ote da zuzen-zuzen egiarantz jotzea, ez eskuinetara eta ez ezkerretara begira ibili gabe?

Batez ere klase erlatibutasunari buruzko Schaffen oharrak iruditzen zaizkit ohargarri: klase ikuspideari ere historiko-sozialki mugatu eta bere harmen nahiz baliagarritasun erlatibu konkretuko deritza Schaffek. Zientzia proletario/burges, kultura proletario/burges, etab. artean ez dago antinomiaka pentsatzerik. Diferentziaon balioa ez da neurrigabekoa, kasu konkretu batzuetan aplikazio eduki lezakeena bakarrik baino. Iritzi hauk geroz eta sarriago entzun genitzake filosofo marxistengatik, gorago ere Althusser baitan irakurri dugunez eta Kolakowskiren testuetan ere ikus daitekeenez.

Bukaera

Jakite oro erlatibu bada, horixe ahaztu gabe aritu behar genuke ekintzan ere. Orduan bakarrik has daite-

ke benetan sozialismoa eraikitzen, gurutzada-mistikarik gabe.

Orain, sozialismoa eraikitzeko hainbeste problema dago: ez dago itxaroterik batek adaska guzietan ibiltzea dadukanik. Problema filosofikoetan dabilenak ekonomikoei ezin begiratuko die ekonomistaren zorroztasun eta zehaztasunarekin, eta honek ez arazo politikoei horretan adituak haina. Hemen esparruak banatu beharra dago, sozialismoaz jeneralkeriak besterik ez esatea behin betiko uzteko. Hainbat hobe, talde eta azterkariak elkarren harian antolatzerik balego, elkar-lanean aritzeko. Baina ez dirudit euskal idazleon artean behintzat oraingoz holako elkar lana organizatzerik dagoenik, batzuek arazo filosofikoak, besteek ekonomikoak, etab. aztertzen ekin dezaioten.

Oinarriak lantzerakoan, batez ere, franko kritiko izan beharra edukiko dugu. Dirudienez denok nahi bait dugu sozialismoa, baina gutitan argitzen da nolakoa nahi dugun. Jeneralkeriekin eta sinplekeriekin batera, horregatik, hainbeste utopia eta dogma ere sartu da jendearen solas korrientean, ze hor ere ilusioak tipituz hasi beharko bait genduke, nik uste, luzarora desilusioak kalte okerragoak ekar ez dezaizkigun.

Eta, gero, gure sozialismo asmoei zabalero handiko oinarriak botatzea komeni litzaiguke. Sozialismoaz aritzekotan ez dago Marx bakarrik, esaterako, eta bai tradizio europar guziz aberats bat eta esperentzia mota ugari, artaz begiratu beharra dagoena. Marx haren baitan bait dago. Euskal tradizio herritarrik ere ba-dago, sozialismoaren nahiak beti sustrai herritarrak bait ditu eta edozein herritan bait dira halako sustraiak.

Modelu edo eredu konkretuak desarroilatzen hasi aurretik oinarriak mugatu eta finkatuz hasten bagara,

zein gizairudi dugun, langileriari norainoko posibilidadeak aitortzen dizkiogun, etab., hauziak erabakiz hasi beharko dugu. Produzio edo Erresuma gidatzeko, horretarakoxe profesional eta teknikoen premiaz sinesturik dagoenak, adibidez, aditu haien herrikoitasuna esplikatzeko ideologiak asmatzea baino hobe du langileei edo herriari Erresumaren eta produzioaren gidaritzan benetan parte hartzea eta gidaritzan enplegatzen direnen kontrola permititzen dien tresnei buruz pentsatzea. (Marxismo tradizionalaren esplikazioa, buruzagi haien herrikotasunari buruz, ideologiko huts agertu bait da: herriaren onerako arituz omen dira haiek herrikoi. Ezagunki —faxismoak ere arrazoipide hauxe erabili izan duela ahazturik ere— gizarte sozialistetako *klase berri* batez esamesa sortua dago). Gauza bera langileen borrokari buruz: langileriaren historian langileriaren antolamolde ezberdinak aurkitzen dira, eta haiek ere berpentsa genitzake. Sozialismo historikoak hauziok oso ezberdinki bururatu dituela nabaritzen bait da. Horregatik oinarri zabalak, inongo ereduri azpiratu gabe, eta inoizko optimismorik gabe, jabegoa ezabatuz gero bestea huskeria delakoan (Rousseau).

Zenbait gizonari eta gizarteari buruzko ideia «marxista», izan ere, pentsamentu europearraren ondasun komuna, arrunta da. Esaterako: 1) ideiei buruzko praksiaren funtzio eragilea eta ideien praksiarekiko dependentzia, 2) gizatasunaren gune eta muin, kondairarena bezalaxe, lana dela, 3) lana gizakumearen indar eta ahalmenen kanporatze (*alienatze*) eta birrirabazte eta norbereganatzean datzala, 4) lanaren emari edo sorkari dela gizakumea, eta 5) alderantziz, lanean bakoitzak norbera egikaritu behar duela. Ideia guziok marxismoaren oinarrietan bezalaxe daude Hegelenetan, eta Zelenyk erakutsi duenez, idealismo aleman guziaren eskuarte orokor arrunta dira, pentsamentu europearraren tradi-

zio jenerala dira Ilustrazioaz gero (76). Eta lana gizatiartzeko borrokak ez du oinarri horietxek besterik. Oinarri guzi horiek, bada, gaurko zientziaren eta esperentziak ehun urte honetan ere irakasten jarraitutakoaren araberan hartu beharko dira.

Zeren-eta lan gizatiartuko gizartea bururatzekoan sozialismo tradizionala oinarri horien nahiz kondairaren burutapide txit optimistaz eta utopikoz baliatu izan bait da: Fourierek barruti zoologikoa ere aldatu egingo zela egiten zuen amets, abere mota berriekin-eta (77), Trotzkik (Marxekin) gizona ederrago, zaluago eta hazkarrego bilakatuko zela (78), Marxen jarraitzaileren batzuek gizonaren eta emakumearen arteko diferentzia psikikorik ere ez zela egongo (79), familiarik ez noski, nonahi amodio librea baizik (80), gizonak lana zaletasunez bakarrik eta bere gogara egingo zukeela (81), lan bana kuntza fijorik ez zela ezagutuko, batzuek zientifiko eta besteak zapatari izaterik ere ez hortakoz, edozein edozertan trebe baizik (82). Erresumak suntsitu egingo lirakeela, hizkuntzak ere bai (Marx), etab., etab. Honelako irudipenak gaur itxuragabekeriak dira, eta holakoekin ez legoke inolako asmobide politikorik oinarri-

(76) Cfr. in A. Schmidt, oin-ohar 69 aip. lib., or. 82.

(77) Ik. I. Berlin, **Karl Marx**, 1968, or. 71.

(78) Id. S. Stojanovic, **Kritik und Zukunft des Sozialismus**, 1970, or. 31.

(79) Ik. P. Demetz, **Marx, Engels und die Dichter**, 1969, or. 140. Engelsek kritikatzen ditu iritzi horiek, nahiz-eta bere izenaren anparoan zabalduak izan.

(80) Ik. E. Fromm, **Das Menschenbild bei Marx**, 1969, or. 112, «Marxen eskuidaztietako testoak».

(81) Ik. ebd., or. 91.

(82) Ik. P. Demetz, aip. lib. or. 67/68. Marx gazteak uste du mehatzari mineralaren kolorea gustatzen zaienak izango direla, nonbait. Marxek iraultza osterako zentzuen desarroiloaz itxaro duenerako ere ik. hemen aipatu testuak. Engelsen ustez Errenazimendu ondorenera arte gizona ez dago langile, zientifiko eta artistaren arteko banakuntzaren «esklabu». Ik. areago Kolakowski, **Die Linken und die Utopie**, in «Der Mensch ohne Alternative», 1967, or. 127-131.

tzerik. Desiragarririk ere ez dirudi *erabateko berdintasun ideal* horrek.

Iraultza sozialistak ere ez hain ederki ta ez hain erabat zuzenduko du mundua, noski. Jobegoa deuseztatzetik arrakasta magiko guzti hori itxaro duena ez dago gaizki, ondo badago.

Gaurko sozialismoak, bada, posibilidade konkretuak zehazki neurtuz eta, gizonaz gaur dakigunari begira, ezberdintasunen alde posibitua ere onartuz aritu beharko du, sinesgarri agertzeko. Irakaskintza, produzioa, aginpidea, Erresuma, proletargoaren (edo herriaren) eskutan jarri behar den dudarik printzipialki ez dago Europan, gizon guziak berdinak direnik ez dagoen bezalaxe. Herriaren eskuetan guzi hori zein erakunderekin jartzen den dago hauzitan, aldian aldiko agiri diren neurrietan. Sozialismoaren problema, bada, sozialismoaren erakundeak erabakitzearena da; herri-demokraziaren problema herriaren (herriaren askatasunaren) tresna sozial eta politiko egokiak eraikitzearena. Sozialismoaren problema, sinpleki esan, sozialismo konkretuarena besterik ez da. Askatasunik itotzen ez duten berdintasun-erakundeak sortzea. Ez bat eta ez bestea osorik posible delako biok konjugatuz.

Hau ez ote da jeneralidaderik handienak esatea? Bai, noski. Honela aritzea gainditzeko lehen-lehenik hauxe garbitu beharko bait dugu: gauden monduan zer behar dugu, eta, honekin batera, dadukagunarekin zer zaigu posible eta onuragarri? Hortik abiatu behar. Nolanahi ere erlatibismoak aisa irakats dezaigukeena da kapitalismoa bera baino txarrago den herriaren izenean herria zapalduzko sistima *sozialistarik* ere posible dela, posible izan. Eta hori erraza ez balitz ere, ez dadukagu sozialismo ahalik txarrenarekin zergatik konformatu.

Ez helburu klasikoak (Marx, Lenin, etc.) onartzerik dago zuzenketarik gabe, zuzenketen premia oinarrien nahiz xedeen aldetik ikusirik dagoenez gero, ezta haiei begira pentsatutako jardupideak erabiltzerik ere, besterik gabe. Geure sozialismoaren oinarriak bota behar ditugu.

Ohar luzeak

(43) Seinale bat, nazioarteko mogimendu komunistan, azken urteotan AK nazionalak norbere autonomiaren eta **bere** sozialismo-tankeraren alde hain biziki saiatzean dago. «Gure sozialismoa ez da sobietarra bezalakoa izango», nonahi entzuten da eta, indirekte behintzat, esaldi horien lerro artean sozialismo sobietarraren kritika erraz entzun abar daiteke. Frantzian (Garaudy, Althusser, etc.) eta Italian AK-ko teorikorik importanteenak argi-argi ere Sobiet Batasuna kritikatzen ausartu dira. Eta gertuagorik ere **(Libertad y Socialismo,** 1971, or. 106/107) garbi azaltzen da giro aldakuntza hori: «Los Partidos comunistas hemos podido subordinar este tipo de problemas en otra época a una necesidad urgente e impostergable que hacía que nuestro interés supremo nacional e internacional fuera defender la Unión Soviética, único Estado socialista contra la jauría de Estados imperialistas que la cercaba. Entonces, el movimiento comunista era un partido único internacional, único, que estaba dirigido desde Moscú y su estrategia se identificaba con la defensa de la Unión Soviética. Ciertas personas creen hacer ahora un gran descubrimiento poniendo en evidencia esta verdad que nadie, por lo menos nosotros, niega. Es una forma de descubrir

el Mediterráneo. Las cosas eran efectivamente así en una época. En esa época teníamos como lema fundamentalmente justo —incluso si ese lema ha favorecido las graves faltas descubiertas por el XX Congreso—: «La piedra de toque del internacionalismo proletario es la actitud hacia la Unión Soviética». En la práctica este lema equivalía al apoyo incondicional de las iniciativas de la dirección soviética. Sin ánimo de excusar errores ni atrocidades que hemos conocido más tarde, aquella etapa de defensa incondicional y de identificación con la política exterior soviética fue, a mi jucio, una necesidad histórica, sin la cual quizá hoy no existirían ni la URSS ni catorce estados socialistas, ni movimiento comunista ni antiimperialista mundial. Hoy, algunos partidos siguen repitiendo el mismo lema. Pero las condiciones han cambiado radicalmente... Si no estamos de acuerdo con una iniciativa de la dirección soviética, si la consideramos errónea, nuestro deber de internacionalistas no es apoyarla a toda costa, y en algunos casos ese deber puede consistir en criticarla, sobre todo cuando esa iniciativa es susceptible de lesionar los intereses de un estado socialista o de un partido comunista». Jaun berak **sozialismo antisobietikorik** ez dagoela ere esaten du, eta ezin horretan luzatuko naiz, anti hori mugatuz hasi beharko bait litzake. Baina, distinguo metafisikoak utzi-ta, Txekoslobakiaren inbasioaz urliak bezalaxe pentsatzen duten txekoslobakiar sozialistak beste zer izan daitezke?: «...Nos hallamos ante la paradoja de un poder socialista que, por el momento, no se apoya decisivamente en su pueblo, sino en las fuerzas de intervención de otro Estado socialista... Pensamos que Dubcek y su equipo son la esperanza más concreta del porvenir del socialismo en Checoeslovaquia».

(45) Hona pasarte bat, pondu hau deusezetan ez uzteko, cfr. P. Souyri, **Le marxisme après Marx**, 1970, or. 39/40: «Marqué par l'idée, empruntée à Kautsky, que le marxisme est 'la science du développement social' et, sans doute aussi, influencé par le décalage qui existait alors entre le comportement effetif des ouvriers russes et le rôle historique que le marxisme assigne au prolétariat, Lénine evait argumenté comme s'il tenait que l'opposition entre le savoir du Parti et le non-savoir de la classe implique, entre eux, une séparation conduisant à situer leur relation réciproque sur le plan d'une subordination totale de l'une à l'autre. Pourtant, il n'est pas exact que Lénine ait conçu le Parti comme le dépositaire d'un savoir déjà donné et achevé, l'autorisant à imposer aux masses un comportement conforme à des schémas établis a priori, en déduction d'une connaissance atteinte séparément de la pratique du prolétariat. Il insistera au contraire constamment sur la nécessité pour le Parti d'être étroitement lié aux masses, attentif à l'évolution de leurs formes de lutte et ouvert sur la compréhension des innovations que leur pratique peut faire surgir: ainsi en ira-t-il lorsqu'il reconnaîtra les Soviets comme une création spontanée et imprévue du prolétariat. Mais en même temps, et Lénine avait d'abord très fortment mis l'accent sur cet aspect, le Parti ne pouvait pas être un simple reflet de la classe mais un organisme au plus haut point actif qui, précédant les masses d'un pas, leur découvrirait le sens de leurs propres actions, leur ferait apparaître de quelle manière elles s'intègrent à une lutte pour le socialisme et leur montrerait par quelles voies celle-ci doit passer. Le Parti etait ainsi conçu comme étant, à la fois, le lieu où les luttes partielles, multiformes et désordonnées du prolétariat sont pensées en fonction d'une vision d'ensemble de la situation et de sa dynamique et le centre, d'où partent les mots d'ordre capables d'amplifier

et de coordonner les lutttes, en fonction d'une vue claire des objectifs à atteindre. C'est parece qu'il lui assignait, par là, les tâches d'un état-major que Lénine insistait sur la nécessité pour le Parti d'être organisé à l'image d'une formation combattante qui devrait être capable d'entraîner les masses, au moment voulu, à exécuter les mouvements tactiques et stratégiques nécessaires à la victoire».

(49) Mila problema bai honetaz ere. Leninek berak ere halaxe esplikatu izan arren dudagarri da agintekeriaren eta burokratismoaren benetako sustraiak guduaren kalteetan, ksarismoaren hondakinetan eta produzio errusiar arkaikoan bakarrik ote dauden. Souyrik (or. 55) ongi ohartarazten du, nik uste, «que c'est précisément l'économie d'Etat qui risque de servir de fondement à la consolidation de la beaurocratie». Eta gero: askotan **komunismoa** herri subdesarroilatuak azkar lantegiztatzeko sistima gisa aurkezten da, komunismoaren gorazarretan batez ere produzio aurrerapena aduzituz, e.a. Burgesiak —eta egunotan edonongo teknokratak batez ere— beti arrazoi horrexetaz baliatu izan ohi direla ohartuz, halare, balegoke zer dudaturik, agintekeriaren legitimazio hori (desarroilo diktaduraren teoria) hain zuzen marxista ote den. Nazionalizatzeak eta produzioa jasotzeak ez dirudite sozialismo edo marxismo izena zilegiztatzeko aski. Engelsek behintzat **sozialismo prusiano** leritzake horri. Beharbada ez da alferrik izango gogaraztea, Engelsen zahartzaroko idazkietan behin eta berriro aurkitzen dela nazionalizazioa eta sozialismoa ez nahasteko deia. Cfr., adibidez, **Del socialismo utópico al socialismo científico,** Marx-Engels, Obras Escogidas, II (Moscú) 1966, or. 145/146. Eta **Anti-Dühringen** ere (1968, or. 302): «Recientemente, desde que Bismarck se ha dado a nacionalizar, se ha producido un falso socialismo que, degenerando aquí y allá en complacencia servil, declara socialista desde luego toda nacionalización, aún las de Bismarck. Mas si la nacionalización del tabaco era socialismo, Napoleón y Metternich se contarían entre los fundadores del socialismo. Cuando el Estado belga, por razones políticas y financieras enteramente vulgares construye por sí sus principales ferrocarriles, cuando Bismarck, fuera de toda necesidad económica, nacionaliza las principales líneas de Prusia, sencillamente para poder organizarlas mejor y utilizarlas en caso de guerra, para hacer de los empleados ferroviarios dócil rebaño de electores, y sobre todo, para procurarse una nueva fuente de ingresos independiente de las decisiones del Parlamento, no se trata en modo alguno, directa ni indirectamente, consciente ni inconscientemente, de medidas socialistas. Si así lo fuera, el comercio marítimo real, la manufactura de porcelana real y aún el sastre del regimiento en el Ejército, serían instituciones socialistas». Sozialismoaz mintzatzeko, aitzitik, oinarri-oinarrizko da «la toma de posesión de todas las fuerzas de producción **por la misma sociedad».** Anartean, kapitalismo nahi haina aurreratuan eta helduan, baina kapitalismoan gaude, sozialismoaren atarian **(estadio preliminar)** bakarrik.

1.— Eraskina

ZIENTZIA, MARXISMOA ETA PROIEKZIO ANIMISTA ZIENTZIAN

J. Monod. **El azar y la Necesidad,** 1971, or. 44 ta hur.

«Entre las ideologías cientistas del siglo XIX, la más poderosa, la que aún en nuestros días ejerce profunda influencia mucho más allá del círculo sin embargo vasto de sus adeptos, es evidentemente el Marxismo. Así es particularmente revelador el constatar que, queriendo fundar sobre las leyes de la misma naturaleza el edificio de sus doctrinas sociales, Marx y Engels hayan

recurrido, ellos también, pero mucho más clara y deliberadamente que Spencer, a la «proyección animista».

Me parece en efecto imposible interpretar de otro modo la famosa «inversión» por la cual Marx substituye el materialismo dialéctico a la dialéctica idealista de Hegel.

El postulado de Hegel: que las leyes más generales que gobiernan el universo en su evolución son de orden dialéctico, tiene valor en el seno de un sistema que no reconoce como realidad permanente y auténtica más que al espírtu. Si todos los acontecimientos, todos los fenómenos, no son más que manifestaciones parciales de una idea que se piensa, es legítimo buscar en la experiencia subjetiva del movimiento del pensamiento la expresión más inmediata de las leyes universales. Y ya que el pensamiento procede dialécticamente, está claro que las «leyes de la dialéctica» gobiernan la naturaleza entera. Pero conservar intactas estas «leyes» subjetivas, para hacer de ellas las de un universo puramente material, es efectuar la proyección animista con toda claridad, con todas sus consecuencias, comenzando por el abandono del postulado de la objetividad.

Ni Marx ni Engels han analizado con detalle, para intentar justificarla, la lógica de esta inversión de la dialéctica. Pero a partir de los numerosos ejemplos de aplicación que da particularmente Engels (en el **Anti-Duhring** y en la **Dialéctica de la Naturaleza**), se puede intentar reconstruir el pensamiento profundo de los fundadores del materialismo dialéctico. Las articulaciones esenciales serían las siguientes:

1. — El modo de existencia de la materia es el movimiento.

2. — El universo, definido como la totalidad de la materia, única existente, está en un estado de perpetua evolución.

3. — Todo conocmiento verdadero del universo contribuye a la inteligencia de esta evolución.

4. — Pero este conocimiento no es obtenido más que en la interacción, evolutiva y causa de evolución, entre el hombre y la materia (o más exactamente el «resto» de la materia). Todo conocimiento verdadero es pues «práctico».

5. — La conciencia corresponde a esta interacción cognitiva. El pensamiento consciente refleja por consecuencia el movimiento del mismo universo.

6. — Ya que, por lo tanto, el pensamiento es parte y reflejo

del movimiento universal, y ya que su movimiento es dialéctico, es preciso que la ley de evolución del universo sea dialéctica. Lo que explica y justifica el empleo de términos como contradicción, afirmación, negación, a propósito de fenómenos naturales.

7. — La dialéctica es constructiva (gracias especialmente a la tercera «ley») [alegia, ukazioaren ukazioarena]. La evolución del universo es pues ascendente y constructiva. Su más alta expresión es la sociedad humana, la conciencia, el pensamiento, **productos necesarios de esta evolución** (nire azpim.).

8. — Por el nuevo enfoque de la esencia evolutiva de las estructuras del universo, el materialismo dialéctico aventaja radicalmente al materialismo del siglo XVIII que, fundado sobre la lógica clásica, no sabía reconocer más que las interacciones mecánicas entre objetos supuestos invariantes y permanecía incapaz de pensar la evolución.

Se puede seguramente contestar a esta reconstitución, negar que corresponde al pensamiento auténtico de Marx y Engels. Pero esto es, en resumen secundario. La influencia de una ideología reside en la significación que permanece en el espíritu de sus adeptos y la que de ella dan los epígonos. Innumerables textos prueban que la reconstitución propuesta es legítima como representando al menos la «vulgata» del materialismo dialéctico. No citaré más que un texto, muy significativo en cuanto su autor era un ilustre biólogo moderno, J. B. S. Haldane. [Haldane, 1860-1936, fisiologo, biologo ta natur-filosofo eskoziarra, neovitalista, biologia mekanizistaren aurkako lehen borrokarietakoa]. Escribe en su prefacio a la traducción inglesa de la **Dialéctica de la Naturaleza:**

> El marxismo considera la ciencia bajo dos aspectos. En primer lugar, los marxistas estudian la ciencia entre las otras actividades humanas. Muestran cómo la actividad científica de una sociedad depende de la evolución de sus necesidades, o sea de sus métodos de producción, que la ciencia a su vez modifica, así como a la evolución de sus necesidades. Pero en segundo lugar, Marx y Engels no se limitan a analizar las modificaciones de la sociedad. En la Dialéctica, descubren las leyes generales del cambio, no sólo en la sociedad y en el pensamiento humano, sino en el mundo exterior, **proyectado por el pensamiento humano.** Lo que viene a decir que la dialéctica puede ser aplicada a problemas de ciencia «pura» tanto como a las relaciones sociales de la ciencia.

El mundo exterior «reflejado por el pensamiento humano» (...).

Es indispensable, para el materialismo dialéctico, que el «Ding an sich», la cosa o el fenómeno en sí, llegue hasta el nivel de la conciencia sin alteración ni empobrecimiento, sin que ninguna selección se haya operado entre sus propiedades. Es preciso que el mundo exterior esté literalmente presente en la conciencia, en la integración total de sus estructuras y de su movimiento.

(...) A esta concepción se podría oponer sin duda ciertos textos del mismo Marx. Aunque esto no quite para considerarla indispensable a la coherencia lógica del materialismo dialéctico, como los epígonos, e incluso los mismos Marx y Engels, han reconocido. No olvidemos, además, que el materialismo dialéctico es una adición relativamente tardía al edificio socio-económico ya erigido por Marx. Adición claramente destinada a hacer del materialismo histórico una «ciencia» fundamentada sobre las leyes de la naturaleza.

La radical exigencia del «espejo perfecto» explica el encarnizamiento de los dialécticos materialistas en repudiar cualquier clase de epistemología crítica que será en adelante inmediatamente calificada de «idealista» y de «kantiana». Se puede seguramente comprender en cierta medida esta actitud, de los hombres del siglo XIX, contemporáneos de la primera gran explosión científica (...).

Como se sabe, era por un retorno a las fuentes, a las mismas fuentes del conocimiento, que la segunda etapa de la ciencia, la del siglo XX, debía surgir. Desde el fin del siglo XIX, la necesidad absoluta de una epistemología crítica se vuelve evidente como condición misma de la objetividad del conocimiento. No son en adelante los filósofos los únicos que se libran a esta crítica, sino también los hombres de ciencia, los que son llevados a incorporarla en la misma trama teórica. Es gracias a esta condición que pueden desarrollarse la teoría de la relatividad y la mecánica cuántica.

Por otra parte, el progreso de la neurofisiología y de la psicología experimental comienzan a revelarnos al menos algunos de los aspectos del funcionamiento del sistema nervioso. Lo bastante para que sea evidente que el sistema nervioso central no puede, y sin duda no debe, expedir a la conciencia más que una información codificada, traspuesta, encuadrada en unas normas preestablecidas: es decir, asimilada y no simplemente restituída.

La tesis del reflejo puro, del espejo perfecto que no invertiría incluso la imagen, nos parece pues hoy en día más insostenible que nunca. Pero a decir verdad no era necesario esperar los ade-

lantos de la ciencia del siglo XX para ver aparecer las confusiones y contra-sentidos a los que esta ciencia no podría dejar de conducir. Para iluminar la linterna del pobre Dühring que ya los denunciaba, el mismo Engels propone numerosos ejemplos de la interpretación dialéctica de los fenómenos naturales. Citemos el famoso ejemplo del grano de cebada dado como ilustración de la tercera ley: «Si un grano de cebada encuentra las condiciones que le son normales, se opera en él una transformación específica, y bajo la influencia del calor y la humedad, germina: el grano desaparece como grano, es negado, reemplazado por la planta nacida de él, negación del grano. Mas ¿cuál es la carrera normal de esta planta? Crece, florece, se fecunda y produce nuevos granos de cebada, y tan pronto como han madurado, el tallo se debilita, la planta se niega por su parte. Como resultado de esta negación de la negación, tenemos de nuevo el grano de cebada del principio, no único, sino en número de diez, veinte, treinta...

«Ocurre lo mismo, añade Engels un poco más adelante, en matemáticas: tomemos una magnitud algebráica, por ejemplo **a**. Neguémosla, tenemos **-a**. Neguemos esta negación multiplicando **-a** por **-a**, tenemos a^2; es decir la magnitud positiva primitiva, pero de un grado superior...», etc.

Estos ejemplos ilustran sobre todo la amplitud del desastre epistemológico que resulta de la utilización «científica» de las interpretaciones dialécticas. Los dialécticos materialistas modernos evitan en general caer en parecidas tonterías. Pero hacer de la contradicción dialéctica la «ley fundamental» de todo movimiento, de toda evolución, no deja de ser un intento de sistematizar una interpretación subjetiva de la naturaleza que permite descubrir en ella un proyecto ascendente, constructivo, creador; volverla, en fin, descifrable, y moralmente significante. Es la «proyección animista», siempre reconocible, sean cuales sean los disfraces.

Interpretación no sólo extraña a la ciencia, sino incompatible con ella, así ha resultado cada vez que los dialécticos materialistas, saliendo de la pura verborrea «teórica», han querido esclarecer las vías de la ciencia experimental con la ayuda de sus concepciones. El mismo Engels (que sin embargo tenía de la ciencia de su tiempo un profundo conocimiento), había llegado a rechazar, en nombre de la Dialéctica, dos de los más grandes descubrimientos de su tiempo: el segundo principio de la termodinámica y (pese a su admiración por Darwin) la interpretación puramente selectiva de la evolución. Esto en virtud de los mis-

mos principios por los que Lenin atacaba, y con qué violencia, la epistemología de Mach; con que Jdanov más tarde ordenaba a los filósofos rusos combatir «las diabluras kantianas de la escuela de Copenhage», y por los que Lyssenko acusaba a los genetistas de sostener una teoría radicalmente incompatible con el materialismo dialéctico, o sea, necesariamente falsa. Pese a las denegaciones de los genetistas rusos, Lyssenko tenía razón: la teoría del gen como determinante hereditaria invariante a través de las generaciones, e incluso hibridaciones, es en efecto totalmente inconciliable con los principios dialécticos. Es por definición una teoría idealista, puesto que reposa sobre un postulado de invariancia (...). Se trata pues, aún, de una concepción relevante del «materialismo vulgar», mecanicista, y por consecuencia «objetivamente idealista», como lo anotó Althusser en su severo comentario de mi Lección inaugural en el Collège de France.

(...) Se ha visto que todas (XIX mendeko teoria ta ideologiak, eta Teilhardek ere bai), sin excepción, hacen de un principio teleonómico inicial el motor de la evolución, sea de la biósfera sola, sea del universo entero. A los ojos de la teoría científica moderna todas estas concepciones son erróneas, y esto no solamente por razones de método (porque implican de una manera o de otra el abandono del postulado de la objetividad), sino por razones de hecho, que serán discutidas concretamente en el Cap. VI.

En la base de estos errores hay, con toda seguridad, la ilusión antropocentrista. La teoría heliocéntrica, la noción de inercia, el principio de objetividad, no podían bastar para disipar este antiguo espejismo. La teoría de la evolución, en vez de hacer desaparecer la ilusión, parecía conferirle una nueva realidad haciendo del hombre no el centro, sino el heredero por siempre esperado, natural, del universo entero. Dios en fin podía morir, reemplazado por este nuevo y grandioso espejismo. En adelante el último designio de la Ciencia será formular una teoría unificada que, fundada sobre un corto número de principios, darán cuenta de la realidad entera, comprendida la biósfera y el hombre. Es en esta certidumbre exaltante donde se nutre el progresismo cientista del siglo XIX. Teoría unificada que los dialécticos materialistas creían haber ya formulado.

(...) Nosotros nos queremos necesarios, inevitables, ordenados desde siempre. Todas las religiones, casi todas las filosofías, una parte de la ciencia, atestiguan el incansable, heróico esfuerzo de la humanidad, negando desesperadamente su propia contingencia».

2. — Eraskina

MARXISMOA ETA MITO GIZARTE-INTEGRATZAILEA

J. Monod, aip. ib., or 180 ta hur.

«Durante centenares de miles de años el destino de un hombre se confundía con el de su grupo, de su tribu, fuera de la cual no podía sobrevivir. La tribu, en sí, no podía sobrevivir ni defenderse más que por su cohesión. De ello el extremo poder subjetivo de las leyes que organizaban y garantizaban esta cohesión. Algún hombre podía a veces infringirlas; ninguno sin duda habría soñado en negarlas. Viendo así la inmensa importancia selectiva que necesariamente asumieron tales estructuras sociales, y durante tan largo período de tiempo, es difícil no pensar que ellas debieron influenciar la **evolución genética de las categorías innatas** del cerebro humano. Esta evolución debía no sólo facilitar la aceptación de la ley tribal, sino crear la **necesidad** de la explicación mítica que la cimenta, confiriéndole la soberanía. Nosotros somos los descendientes de esos hombres. Es de ellos sin duda que hemos heredado la exigencia de una explicación, la angustia que nos constriñe a buscar el sentido de la existencia. Angustia creadora de todos los mitos, de todas las religiones, de todas las filosofías y de la ciencia misma.

(...) Es fácil ver que las «explicaciones» destinadas a fundar la ley aplacando la angustia, son en su totalidad «historias» o, más exactamente, ontogenías.

(...) De Platón a Hegel y Marx, los grandes sistemas filosóficos proponen en su totalidad ontogenías a la vez explicativas y normativas (...).

Para Marx como para Hegel, la historia se desarrolla según un plan inmanente, necesario y favorable. El inmenso poder sobre los espíritus de la ideología marxista, no es debido solamente a su promesa de una liberación del hombre, sino también, y sin duda ante todo, a su estructura ontogenética, a la explicación que da, entera y detallada, de la historia pasada, presente y futura. Sin embargo, limitado a la historia humana e incluso adornado de las certidumbres de la «ciencia», el materialismo histórico quedaba incompleto. Era preciso añadirle el materialismo dialéctico, que aporta la interpretación total que exige el espíritu: la historia humana y la del cosmos son asociadas como obedeciendo a las mismas leyes eternas».

3. — Eraskina

SUJETU/OBJETU ARAZOAZ MARXISMOAREN BAITAN

Neomarxismoak ortodosia marxistaren aldean dadukan tankera diferentzia hautemateko, pontu zentrala iruditzen zait Sujetuaren eta Objetuaren arteko harreman eta zerikusiak bururatzeko modua: honen arabera ulertzen bait dira, gero, gainegiturak, **devenir** historikoa, kondairazko «legeen» zentzua eta balioa (determinismoa?), etab. etab. Alegia, kondairarik zentzu korrientean ba al dagoen, ala dena natur-kondaira huts ote den, maila diferentetan. [Ik. X. Mendiguren, **Europako Ezker Berria**, 1972, or. 23 ta hur.]. Ezagupide teorian, batik bat, hau problema zentrala da. Pondu hau nazio arazoari zuzen-zuzenean eta bertatik bertara behintzat loturik egon ez arren, **Hizkuntza, Etnia ta Marxismoa** liburuan mintzamolde hau erabili da. Azkeneko hau norbaiti filosofikeria eta marxismoaren sofistikazio irudi dakioke, noski, kritika batek adierazten didanez. Nik, aldiz, bentajaren batzu aurkitu dizkiot jokaera honi: 1) marxismoaren baitako eboluzioa pondu honetan inon baino garbiago erreparatzen dela, Marx baitan bertan ere (eta areago Engels baitan). Berdin, nik salatzen nuen eta salatzen dudan marxismoaren eboluzio objetibista agertarazteko, marxismo sobietarrean. 2) Objetuaren eta sujetuaren arteko harremanak nola bururatzetan oinarritzen direla iruditzen zait eskola marxisten arteko ezberdintasunak. Marxismo klasikoaren eta neomarxismoaren artekoak behintzat bai, Horkheimerek, Adornok eta Habermasek ohartarazten dutenez. Modu honetan neomarxismoa, ez dut esango nazio arazoa ulertzeko eta adierazteko gaitu denik, baina bai arazo hari irekita dagokiola, eta hura ulertzeko kategoriarik lortu duela ere, zenbaiteraino egoki diren orain azterkatu gabe: Marcuseren marjinatuen, minorien, etab. temak, adibidez. Hirugarrenik, areago: Hegel bestela esplikatu arte, Marxengana ere halaxe ez hurbiltzeko arrazoiak eman egin beharko dira, eta urre garbitan eman. Ala Bloch eta Lukács, adibidez, ez dira iadanik haintzakotzat hartu behar? Baina besterik ere bada: nazio arazoa klase borrokatan urtzeko eta gesaltzeko lain arrazoi guti dagoela aldrebestarako, eta haretarakoxe lain arrisku bai. Bi gauza ezberdin dira biok. Eta bateratuz gainera, nahastu edo bata besteari azpiratu egiten dituen teoriak, hori printzipiozko gauza bezala dagien heinean behintzat, arrazoiarena baino gehiago dirudi deseoaren espresio. Bata besteari azpiratu beharra baldin badago, eta aisa gerta dakiguke hori, azpiratze horren ideologiaren beharrik ez dago batere. Lehenago klase borrokariek bezala, orain abertzaleek egin nahi dutela sasikeria hau bait dirudi. Baina burgesiaren aurka, «pobreen» alde, etab. joateak ez dirudi ezeren zilegiztapiderik aski, eta nazio borroka «pro-

letario» agertarazteko gutien-gutienik. Erromantizismoak dira horiek. Bion banakuntzarik gabe, bion berezkuntza egiteko, hoberik sortu arte behintzat, terminologia horrek balio lezake. Besteak beste.

Nolanahi ere, terminologia horrek nazio kontuan ez baino marxismoaren erabateko ulerkera hauzian daduka bere aplikazio barruti baliozkoena, eta deribazioz bakarrik nazio arazoan.

Ez dago ahazterik, Marxek idealismoa azpiratzeko haina interes eta enpeinu duela materialismoari ere gain hartzeko. Hots, sujetu/objetu eskema nahi du gainditu. Baina non ikusten da gaurko marxismoan gaindikuntza hori? Ortodosian behintzat ez.

Marxek **Sein** edo Izan orokorraren bi modu edo agerkera ezagutzen du:

1. — «Natura in se existens».

2. — Gizona, gizartea (nahitaez bere munduarekin batera hartu beharrezkoa, baina ez beti hala hartutakoa), kondaira.

Modu bion arabera, natur-kondaira bat eta giza-kondaira bat berez daitezke lehentasun metodologikoa biotako bati emanez jarduteko. Hauk, izadi-alde biok, mintzamolde ohizkoari jarraitzekotan, objetu eta sujetu izenda daitezke, **Hizkuntza, Etnia ta Marxismoa**-k egiten duen moduan. Hori egiteko arrazoi bat, hain zuzen, hauxe da: marxismo ortodosoak marxismoaren problema atzera maila (prekritiko) horretaraxe itzuli duela, alde bien antinomia mailara alegia. Ikus saiakera honetan ere. Lehenengoarekiko atxikitasunetik —eskemaren laburrez ari naiz!— materialismo arrunta sortu da. Bigarrenarekikotik idealismoa. Marxek hala juzgatzen du, ik. **Ad Feuerbach** tesiak. Praksia haintzakotzat idealismoak hartu du, eta bere abiaburuagatik hori. Marx bera, idealistak (hots, Hegel) bezalaxe. bigarren ponduan oinarritzen da, eta berak nahiko garbi dioenez, huraxe bakarrik azterketatzen du: Historia. Baina idealismoaren kontrario izanik, ez ideietan, —eta materialismo arruntaren kontrario izanik, ez materian— ezpada **praksian** ikusten du mundu adierazkera eta gogoeta ororen abiaburua. Praksiak, berriz, bi termino du berriro: sujetua eta objetua, ekilea eta zertan ekiteko gaia, ekaia. Zein har oinarritzat? Alegia, biok bitako baten hautabeharrez bezala bururatzea ere posible da, ez bait da bestegatik marxismo sobietarra —teorizko forman— posible izan, sujetuaren aldea objetuarenera erreduzituz.

Beraz, sujetu/objetu hauk elkarri buruz-buru eta bakoitza berenez-beren burura daitezke. Marxismo sobietarraren nire kritikak (beste askori jarraiki!), hain zuzen, horixe egin izana salatzen badu, bistan da neuk hori onesten ez dudana. Izan ere, dialektikoki

bururatzekotan ez sujeturik eta ez objeturik dagoela esan behar: ekintza bakarrik dago, praksia. Althusserekin esateko, prozesoa besterik ez (baina Althusserek ere noizpait izan ditu esaldi nahasiagoak hontaz, izpirituaren ala materiaren lehentasuna hautabeharraz mintzo delarik). Baina ez sujetua eta objetua suntsitu eta galdu egingo lirakeen zentzuan, ezpada bai ekilea eta bai zertan-ekin-gaia (objetua) ekintzan subsumituta. Frankfurteko eskolakoek argi samar erakutsita dagoela uste dut, hau dela Marxen jatorrizko pentsakera. Ekintzan sujetua nahiz objetua biltzen dira, hortakoz, inoren printzipiozko lehentasun absoluturik gabe.

Marx kondairaz arduratzen bait da, praksia hartu du bere gogoeten abiaburutzat. Abiaburu honek izadia azterkatzeko ere balio ote duen, beste problema bat da). Horregatik, **bere ikusgunetik, Sein** oro sozial agiri zaio. Baina —dialektikak aurrera segitzen bait du— **Sein** sozial hauxe bera ere atzera erdibanatzen da: alde objetibua, orain, «natur kondaira» da, hots, ez materialista arrunten naturaleza hotza, naturaleza bizia eta bizi-sortzailea baizik. Baina maila honetan ere sujetu/objetuak bat egiten dutenez gero, berriz ere sujetu naturalezaren beraren ekintzak dirudi. **Sein** ororen azkeneko sujetu, nolarebait, natur-kondaira litzake orduan: Marxen ustez Darwinek azterkatutakoa; eta, behin gizona gizadian agertuz gero, produzioa litzake natur-kondairaren luzapen hau: berak azterkatutakoa. Hontaz, bada, bai Marxek eta bai Egelsek, Marx eta Darwin elkar osagarritzat eduki dituzte. Baina ikusten da. zer zeren sujetu eta objetutzat edukitzea, mailaz maila itzultzen eta iraultzen dela.. Horregatk, **Sein** ororen azkeneko zolan natur kondaira jartzen duen ikusmoldeak zientismora joko du, Marxek historismora bezala. Esan nahi bait da, Marx baitan ba dela marxismo sobietarrera ailegatzeko sustrairik, egon. Baina Marxek berak bestela jardun zuela.

Arlo hau J. Kadenbachek iadanik sakonki azterkatuta dagoenez, harixe jarraituko diot.

MARX: Marxek mundua (**Sein** historikoa) azterketatzen du, ez izadia. Hau da, bere lana izadia sozial bilakatuz gerozkoari begira hasten da, izadi hutsa presupostu bezala hartuz. Gizona inplikatzen duen munduaz, beraz, eta inplikazio hau ere gogartuz (zientzia naturalak inplikazio hau metodologikoki baztertuz ibiltzen ohi dira). Harentzat gizonaren objetu bat da mundua, alegia, lanaren funtzioan bakarrik dago mundurik. Hau **Sein**-ulerkeraren erreduzio bat da, bera ere, eta zilegitzat edo zuzentzat hartzen den ala ez den neurrian, **Sein** sozialaren ulerpen hasiera ere aldarazten da. Premisen zentzuaren arabera, alegia. Hau da, naturaleza berezkoaz edukitzen den burutapenak (**ad casum,** giza irudiak, adibidez) izadi sozialaren ikuskera moldatu behar. Dena den, Marxentzat, mundu hic et

nunc esistente bakarra giza-naturaleza besterik ez da natur-naturalezari kontrajarriz horrela esaterik badago. Izadia, beretzat, giza *lanaren produkto da. Nola esan daiteke holakorik? Gizona izadia* baino zerbait berandukoagoa bait da. Baina hori esan, Marxen ikusgunearekin esan daiteke, eta ederki esan ere gainera: izadia giza lanaren produkto da, edo halaxe bakarrik pentsa daiteke. Marxen interpreteren batzuk harentzat naturaleza in se esistenterik batere ez dagoela esateraino joan dira (historismo osokoia). Landgrebe, adibidez. Kandenbachek erakutsi duenez, egon badago, baina postuladu bezala.

DARWIN **eta natur-zientzia:** bai logika eta bai ontologia heinean, halare, naturaleza in se esistentea Marxen giza-naturaleza baino lehenagokoa da, denboraz, ta denboraz lehenagoko ezezik, izatearen eta bilakatzearen ordenuan, beronen oinarri ere bai. Ikusmolde honetan Marxen sujetua izadiaren beraren objetu besterik ez, eta mundua gizonaren produkto ez baino aldrebes agiri da. Eta naturalezaren eta gizonaren arteko harremanak ere naturalezak sortuak. Naturalezaren ekarriok, hots natur/gizon harremanen *sorketa modua, naturalezaren beraren aldetik begiratuta*, Marxek ez zuen azterkatu, eta ezta doi-doi ezagutu ere. Darwin eta (Engelsen kontra-edo) Trémauxen azterketetan eta geognosian oinarritu da, munduaren sorkundea «generatio aequivoca» dirudio, eta darwinismoa bere teorian «oinarri natur-historikoa». Natur-historiaren luzapen soziala ikusten duela ekonomian, esan daiteke (baina maila batetatik bestetara eraman dugula, produzioa naturalezaren funtzio bezala ez baino naturaleza produzio faktore bezala kontsideratuko dela): gizon naturala ekonomikoa da, tresnagilea. Lana gizonaren, historiaren eta azkenean baita naturalezaren beraren ere, konprenitzeko ardatza bihurtuko da.

Naturalezaren konprentsio giza-funtzional eta antropozentriko hau nahiko arrotz egiten zaie natur-zientziei, eta zientziok ohitu bait dute gure pentsakera positibu zalea, egungo pentsakera korrienteari oso zail egiten zaizkio burutapideok. Marx ondoko marxismoa ere positibismorantz lerratu da.

Produzioaren sujetua gizona da, dio Marxek; eta kondairaren sujetua «egiazko gizona» da. Beraz, produzioa objetu eta «egiazko gizona» sujetutzat har ditzakegu. Eta zehazkiago nahi bada: kondairaren egiazko sujetua gizona eta egiazko objetua produzioa, baina biok dialektikoki bateratuta hartu direnez, halaxe hartzen diren giroan behintzat, ekintza litzake sujetua eta beste biok objetu (objetu aldeko faktore). Eskema honek «egiazko gizona» langiletara erreduzitu bait du, erraza da gizona ekintzaren objetutara laburtzea: Engelsek hizkuntza ekintza ekonomikoaren produkto antzean esplikatuko du, arraza bera faktore ekonomiko bezala, ber-

din familia, etab. Oso erraza, orobat, bide beretik dena gainazpikatzea: gizona lanak dagi (Marxek ere esan ahalgo zukeena, baina aldrebes ere beti esan ahal zezakeelarik), gizartea produzioak dagi, etab. Gainazpikadura hau, nire ustez, egungo marxismoak burutu du, ez Marxek berak.

Egia da Marxek, batez ere, sujetua bere objetuak zein determinatuta dagoen erakutsi duela. Nazio arazoan, gorago aipatutako teoria burgesen egia bera ikus zezakeen ezer ikustekotan: zuzenketa sujetibuena. Bere ustez, ordea, Iraultza sozialistarekin kondaira zeharo objetibutzera doa. Lan librearekin, etab. gizarte komunistarekin, sujetuaren eta objetuaren identidadea gauzatuko omen bait da. Beraz, nazio arazoa sujetuaren aldetiko problematzat jo behar, zuzentzea lehenago tokatzen zen arazotzat, «pasatutzat». Eta zuzenduta ez daudenekoan, prolertargoaren garaitzapenak zuzentzakotzat, oraindiokoan klase borrokaren azpikotzat orduan.

Marxek berak halaxe ikusi zuen, edo alaxe utzi zuen ikusi gabe. Baina, bitartean, marxismoaren barruan joera bi batik bat badago: Marxen determinismoa eta utopismoa (biak Garatek ederki erakutsita) abandonatu-edo duen joera, sujetuaren balioberritze aldera desarroilatzen ari dena. Premisak Marxez gero asko aldatu direnez gero, joera honekin, Marxen korrektura asko egin beharko da, baina badirudi posible litzakeela nazio arazoa konprenitzea. Beste joera sobietar ortodosoa da, eta funtsean Alderdi Komunista guztiek segitua: honek objetibismoa, utopismoa eta determinismoa abandonatu ez baino azpimarkatu egin ditu. Joera honekin ez da sekula nazio arazorik benetan konprenituko. Eta nazio arazoak bezain guti beste mila gauza ere: arte modernoa, adibidez (aldakuntza taktikoren batzuek gora-behera). Beraz, Marxengandik ortodosiara, nire ustez, ez konprenitzetik ezin konprenitzerako pausoa dago.

Honekin argituta gelditzen direla bi kontrakarraok uste dut: 1) zergatik Marxek hain jokabide ezberdinak eta eritzi inseguroak nazio arazo kontuan, klaseak eta herriak hain garbi berezten bazituen? Lehenengo: de fakto Marxek ez zituen herriak eta klaseak ez garbi ta ez zikin berezi, baina guri uzten digu bere oinarriekin ere berezteko haina modu. Eta gero: bere judizio ezberdinen azpian ez da berdintasunik falta. Baina bere iluntasun guztiekin ere, honetarako haina argi mintzo da: alegia, egungo historiagintzan klaseei printzipiozko lehentasuna eta herriei (alegia, herri arazo ohi deritzaienei) eginkizun sekundarioa emateko lain argi. Baina ohar batek beharrezko dirudi hemen: Marx nazio-arazoaren soluzio bila irakurtzeak oinarrizko zentzu-korapilo bat daduka. Marxek nazio-arazo edo herri-arazorik ez duela ezagutzen, eta problema horrekin Marxen idazkiei galdegitea, egoterik ez dagoen zerbaitez galdegi-

tea dela. Nazio edo herri-arazoa gure artean egin ohi den bezala definitu eta gero ez dago haren soluziobidea Marxi eskatzerik. Herriak hain Estaduaren funtziotan juzgatzen bait zituen, ze gehienetan Estadu eta naziorik ere ez bait da zehatz apartatu. Estadua, berriz, hots, «nazio-arazoaren» objetua, de fakto Marxen ustez klaseen obra hutsa da, eta klase batzuek bakarrik haretan interesatuak ere. Marxen gogoeten galgatan aritzekotan, nazio batek Erresuma lortzeari edo lortu nahiari, **pars pro toto** hartuz bakarrik eritz dakioke nazio-arazo. Guk herri arazo esan eta **herriaren** arazotzat ulertu ohi duguna, Marxentzat kondizio batzutan herriaren onerako ere gerta daitekeen gauza da, baina berez klaseena (burgesiarena) eta interes historiko sujetibu/erlatibuen gorabehera. Nik dakidanik behintzat, Marx ez da inon **herriaren** egintza eta ez eginkizunez beste zentzutan inoiz mintzo. Baina klaserik egotearen presupostua herria egotea dela, produzioarena bezalaxe, garbi esan du. Klaserik egoteak nahiz produziorik egoteak herria presuposatzen badute, bere dohainekin, eta herria bai produzioaren presupostu eta bai faktoretzat hartzen bada (lehen materiak bezalaxe, hein honetan) berez gelditzen dira klaseak eta herriak berezita. Hobeto esan: berezkuntza postulatuta bakarrik gelditzen da, eta gehiagorik egiten ez delakoxe herri/klase konzeptuak atzera aisa nahasten dira, edo-ta herriak klaseekin nahasten dira, herria gizarte abstraktu bezala soilik hartzen bait da laster: lanaren presupostua gizarte abstraktua bihurtuz, ez herri konkretua. Baina, azkenerako, joanaira historikoaren maila-sistimaketa osoak ere nahastuegirik bukatzen du horrela jardunez, eta kondaira filosofia marxistaren sistimaketa guztiak dirudi pondu hontan dudagarri.

2) Nolatan izan daiteke Marxen filosofian nazio arazoa marjinal, hain zuzen sujetua bera izaki? Hemen ere ekiboko bat dago. Ondo berezi behar dira herria, herri arazoa eta herriaren «aberri arazoa». Azkeneko honi bakarrik ohi deritzaio, hizkuntza korrientean, nazio-arazo, eta Erresuma arazoarekin lotuta geditzen da. Esan bezala Marxek borroka nazionalak beti «Iraultza objetibuaren», definitiboaren funtziotan juzgatu zituen. Eta hemen ondo berezi: kondairaren sujetua herria da ez «herri arazoa». Herriaren «nazio arazoa» kondizio batzutan bakarrik agertu da —ekintza gisa— kondairagintzaren sujetu eta erakarle. Baina kondairaren eragile nagusi izateko arazo honen garaia, soluziobide sujetibuena bezain pasea da Marxen ustez, salbuespenen batzu aparte. Hots, burgesia gorantz zetorrenekoa zen hori. Burgesiak egin ez baldin badu, Iraultza objetiburako beharrezko den neurrian bakarrik onetsiko du Marxek, eta beti haren zerbitzuan. Alemaniako burgesia, adibidez, aberria bateratu ez izana aurpegiratuko dio (**Die deutsche Ideologie,** 1953, or. 197) eta sozialista alemanen arauetako lehenengo paragrafoan nazioaren batasuna lortzea ezarriko du, bestela Iraultza

ezinezko iruditzen bait zaio: eta ez, lehenik behintzat, Poloniari buruz Engelsek dioenez, herri zapalduko semeak omen daduzkan postura sujetibuengatik, kondizio objetibu edo ekonomikoek heltzerik (=burgesia handia sortzerik) ez dadukatelako baizik. Berdin Irlandan. Bestalde, filosofoek beren sistimak, berauen alderen bat zabartuz, desarroilatzeak, ez daduka ezer bitxirik. Marxen beraren baitan halako gehiago ere badago. Adibidez: **Sein** orokorra alde-bikoitza dela esan da gorago. Marxek «kanpoko naturalezaren prioridadea» ere garbi asko aitortzen du, gizonari buruz-buru. Giza kondaira ororen aurrez-eman logiko nahiz ontologikoa, eraberean, giza banakoen esistentzia eta izadi in se esistentea direla ere berdin. Baina Marxek ez naturfilosofiarik eta ez zientziarik eta ez giza banakoarekin egin du gogoetarik behinere. Aitzitik: aitortza horiek egin, bere ikusgunea eta azter-eremua hautatu eta mugatu, eta —itxuraz logika guztien kontra— lasai baieztatzen du, «mundu sentigarriaren oinarria eta orpoa» praksia dela! Cfr. J. Kadenbach, **Das Religionsverstandnis von K. Marx, 1970**, or. 90-107. Alegia, bere ikusgunea hautatu ta gero!

Lau entsegu liburu baterako

Kolakowskiren lanetatik lau aukeratu ditugu: Marxismoaren burutapen gaurtiarra eta ezgaurtiarra» eta «Intelektualak eta mogimendu komunista»; bi hauek alemaneraz azaldutako Kolakowskiren Der Mensch ohne Alternative. Uber die Möglichkeit und Unmöglichkeit Marxist zu sein *liburutik hartutakoak dira; hirugarrena, «Jesus, erreformadore ta igarle»,* Geist und Ungeist der christlichen Tradition *alemanerako itzulpenetik hartua; laugarrena, «Ulermenezko materialismoa posible ahal da?* Traktat über die Sterblichkeit der Vernunft *liburutik hartua da.*

Mundu komunistan dauden filosofoetatik garrantzitsuenak Poloniakoak direla esan daiteke: Adam Schaff, Kolakowski, Baczco, etab. Kolakowski aukeratu dugu lehen itzulpen honetarako. Hona hemen arrazoiak: marxismoaren kritika bat suposatzen duelako, baina marxista izanik, marxismoaren barrutik, hau da: marxismoa teorian eta praksian ondo ezagutzen duen batengandik datorren kritika, pondu gehienetan beste zenbait kritiko baino zehatzago eta zorrotzago, gainera; Kolakowskik bere burua Europako kultura osoaren barruan eta kultura honen une batetan ikusten duelako, eta marxismoarekin horixe bera egiten duelako: Europako kultura osoan integratu, horrela marxismoa tradizio baten maila bat bezala ikusirik, ez lehenengoa —aurreko guzia Kolakowskirentzat ez da prehistoria—, *ez azkenekoa, eta agian ez gorenena; munduko agerpen kultural guziak —jakintza eta filosofi mailan— marxismotik abiaturik kritikatu beharrean, alderantziz egiten duelako: marxismoa jakintzatik eta filosofiatik abiaturik kritikatu, hau da: gizonak duen baliogorik handienaz baliatzen da, adimenaz, marxista izateko adimena ukatu beharrik ez dagoela pentsatzen bait du, eta marxismoak adimena ukatzen duen neurrian marxista izaterik ez dagoela; marxismoaren filosofi mailako barruko problemen jakinaren gainean dagoelako eta tesi bat defendatzeagatik problemak ezkutatzen ez dituelako, problemak hor baldin badaude, nahiz hauek tesi horren arbuiatzea eskatu. Motz eta labur esateko, marxismoa tradizioaren barruan ikusten duelako —Sokrates, Buda, Jesus eta Marx bereak dituen tradizioan—, razionalista delako, aldez aurretik onartutako marxismoaren jakintzatasunean sinesten ez duelako.*

Horregatik galdetuko du Kolakowskik lehenengo lanean marxistak eta ez-marxistak berezteak zer zentzu duen, zentzurik izatez gerotan, marxista izatea zertan datzan, marxismoa, gaur egun, *zer den. Lehenengo lan*

honen bigarren zatian marxismoaren ideologizatze bilakaera aztertuko du, ideologia zer den eta nola definitu daitekeen.

Bigarren lanean intelektualek mogimendu komunista batetan izan dezaketen eta izan behar luteken eginkizunaz galdetzen du; komunista mogimenduetan benetan intelektual hondradu *bat izateko zailtasunaz, eta zailtasun hauek nondik sortzen diren (erakunde politikoaren menpeko izatetik batez ere).*

Hirugarren artikuluan Kolakowskik duen tradizioarekiko errespetoa azaltzen da. Lan honetan Jesusek Europako kulturan suposatu duena aztertzen du.

Laugarrenean, marxismoaren arazorik zailenetakoarekin dihardu. Marxismoak bere burua materialista aitortzen du. Materialista *hitz honez zer adierazi nahi ote daitekean jakiten saiatzen da Kolakowski, gaiak dituen zailtasunak baztertu gabe. Izan ere, Kolakowskik badaki, marxismoari, filosofia denez, positibismoak jartzen dizkiola galderarik eta problemarik latzenak. Europako filosofiaren bilakaeran jakintzen askatasunak ez ditu erlijioak bakarrik arbuiatu, metafisikak ere bai noski. Marxismoa, ordea, materalismo bat denez, metafisikoa da. Baina positibismoak errotik ukatzen ditu metafisika guziak. Zer zentzu du, orduan, materialismoak gaur egun? Lan honetan, beraz, filosofiak gaur egun duen problemarik latzenarekin ari da Kolakowski. Kolakowskik ez bait du uste guzia egina, esana eta erantzuna dagoenik, baizik eta asko eta asko egiteko, esateko eta pentsatzeko dagoela uste du.*

Beste itzulpen batzuetan, gauzak ondo badira geroago argitaratuko direnak, marxismoaren beste problema konkreto batzuek aztertuko dira, adibidez Schaffen itzulpenean Der Marxismus und das menschliche In-

dividuum. Lan honetan marxismoak giza banakoei buruz duen ideiaz eta ideia honen problemaz dihardu Adam Schaffek. *Lan guzi hauekin, eta argitara berriak diren beste batzuekin, posible izango ahal da gure herriko ideologiak nolabait galbaitzea, eta sinesmen mailatik gogoeta edo reflexiogai izatera iristea!*

MARXISMOAREN BURUTAPEN GAURTIARRA ETA EZGAURTIARRA

PENTSABIDE

I.—Erakunde ala pentsa-metodu?

1. *Kolakowskik artikulu honetan azterkatzen duen galdera hau da: zer da marxismoa, zertan datza, marxistak eta ezmarxistak zertan berezten dira, inola berez baldin badaitezke.*

2. *Zer da marxista izatea?*

— *Alderdiak erabakitakoa onartzea.*

— *Marxek ateratako ondorio berdinak onartzea.*

— *Marxek erabili eta landutako metoduetan oinarritzea, eta haren joerak jarraitzea, nahiz ondorio ezberdinetara heldu.*

3. *Marxismoa horrela ulertzeak erlatibismo bat dakar, kondairako eta gizarteko agerpenak interpretatzerakoan.*

4. *Benetako berezketa ez da marxisten eta ezmarxisten artekoa, ezker-humanisten eta eskuin-humanisten artekoa baizik.*

Ideologia eta teoria:

1. *Ideologia mugatzen duena ez da egia edo gezurra, bere gizarte eginkizuna baizik.*

2. *Ideologiaren gizarte eginkizuna: baliogoen ordena bat osatzea.*

3. *Ideologiaren bi kasu berezi:* mitologia, utopia. *Hauek ere beren gizarte eginkizunaz mugatzen dira, ez bere oinarri historiko bat izateaz edo ez izateaz (mitologia), edo itxaropenak egikaritu ahal izateaz edo ezinaz (utopia).*

4. *Marxismoa, bere zuztarrak europear kulturan izanik, eta, hasieran, jakintza bat izanik, ideologia bat bilakatu da: norgaltzearen teoria Alderdiaren hutsezinezko dogma bihurtuz.*

5. *Ideologiarik gabeko gizarte bizitzarik ez dago. Alde honetatik ideologia baztertu eta ukatu ezinekoa da.*

— *Marxismoak, beraz, gizarte erakunde bihurtzen den une beretik ideologiarako joera du.*

— *Ideologia halabehar bat da (mito, utopia eta guzi), gizarte, klase, alderdi edo talde baten baliogo bilduma bezala, baliogo horiekiko sinesmen bezala.*

— *Horregatik, ideologiak zientziaren kontra jokatzen du, jakintzak ideologia den sinesmen hori ahuldu eta desegin egin bait dezake.*

— *Jakintzatasun absoluturik ez dago*

— *aipatutako gizarte baldintzapen horregatik,*

— *gizona, biologi mailan ere, mugatua delako,*

— *giza ezaguerak hasierako aurre-iritzi batzutan oinarritzea nahitaezkoa duelako; beti aldez aurretik baliogo judikapen bat egin behar duelako.*

6. *Esandako honetatik ezin jarrai daiteke jakintza ideologiatik askatzea, mailaka bada ere, ezinezkoa denik. Gauza bat bakarra da garbi dagoena:*

— *Ideologiaren deusezte absolutua ezinezkoa dela.*

— *Beste era batera esanik: jakintzatasun absolutua ezinezkoa dela.*

— *Edo oraindik beste era batera: jakintza ideologiaren menpekotasunetik askatzea posible dela, mailaka bada ere, edo mailaka gutienean.*

I. — Erakunde ala pentsametodu

Munduko hizkuntzalaririk handienak *Egunkarian* bere lana —Marren teoria faltsotzat joaz— argitaratuz gero, handik egun batzuetara gertakizun hori zela-ta hizkuntzalari konferentzia batetan egoteko aukera izan nuen. Sesiolarietako batek zilegi iritzi zion baldarkeria handi bat egiteari. Aste batzuk lehenago sesiokide batek idatzirik argitaratutako liburuxka bat atereaz, guti gora behera honela zioen pasarte bat irakurri zuen:

> ageriko gauza da Marren teoria bakarrik dela hizkuntza jakintzaren marxista-leninista teoria konsekuente bakarra; Marren teoria bakarrik dago marxismo-leninismoaren printzipioekin guziz ados; teoria hori bakarrik da hizkuntza azterketa marxista-leninista baterako lanabes leiala, etab.

Orduan, maltzur harek *Egunkariaren* azken alea atereaz, liburuxkaren egileak idatziriko lan bat irakurri zuen. Honela zioen:

> gauza nabarmena da Marren teoriak ez duela marxismo-leninismoarekin ezer elkarrekin; marxismo-leninismoaren bulgarizatze nabarmen eta narrats bat dela; hizkuntzaren marxista-leninista iritzia teoria horri garbiki kontrajarri behar zaiola, etab.

Zer esan nahi du guzi honek?, esan zuen kritikoak asarreturik. Nondik horrelako iritzi aldaketa aste guti barruan? Kamaleoia! Aipatutako autorea isilik gelditu zen, lotsaturik; han zirenak berriz, irriparrez, gertatutakoaz gozatzen ziren, bilera haretan zegoen partiduko funzionarioak hitza harturik, honela irakatsi zuen arte: *honetan ez dago ezer irripargai, bakoitza bere iritzia aldatzeko aske da, horrek ez dio inori kalterik egiten.*

Eztabaida hau entzun nuenean, arrazoia delako hizkuntzalariaren espirituzko oportunismoa eta haren itxuragabeko iritzialdaketak egiteko erraztasuna —segun eta nolakoa izan *munduko hizkuntzalaririk handienaren* iritzia— merezimenduz jorratzen zuenaren aldetik zegoela uste nuen. Askoz beranduago atxiki nuen aipatutako liburuxkaren autorea benetako marxista zela ta haren kritikoak bere ezjakintasuna bakarrik azaltzen zuela. Marren teoria, izan ere, —ta horrela aztertu nahi dugun prolemaren kakoa eskuratu zaigu— *munduko hizkuntzalaririk handienak* bere teoria argitaratu baino bi egun aurretik, marxismoarekin *benetan* bat bait zetorren; eta lan hori argitaratu zeneko, ez zegoen gehia-

go *benetan* marxismoarekin ados. Liburuxkaren egileak, marxista jatorra izan balitz, lotsatzeko arrazoirik ez zuen, marxismoaren oinarriekiko bere leialtasun egoskorraz arrotzeko baizik. Oinarriekiko? Agian, baldarki samar esana dago; marxismoa ez bait da inola ere, bere mamira erreparaturik definitutako dotrina bezala agertu behar, formalki bakarrik definitua den dotrina bezala baizik; eta Hutsezinezko Erakundearen aldian aldiko dekretoaren bidez definitzen dena noski; Erakunde honek gorpuzten bait du garai jakin bakoitzean *Hizkuntzalaririk handiena, Filosoforik handiena, Herri-ekonomistarik handiena, Historiagilerik handiena.*

Beste hitz batzuez: marxismoa, erakundezko —eta ez adimenezko— mamia duen ideia bat bilakatu da, edozein dotrina elizkoirekin gertatzen den bezala, noski. Era berean *marxista* hitzak ez du mami bateko edo besteko munduikuskera bat duen gizona adierazten, bere burua *funzionarioak* erabakitako edozein ideiaren aldeko aitortzeko erraztasuna ematen dion espiritu joera duena baizik. Ikusmira honetatik, marxismoaren gaur eguneko mamia zein den jakitea axola handirik gabeko gauza da. *Funzionarioak* gomendatzen duen mamia beti onartzeko prest dagoela aitortuaz bilakatzen bait da bat marxista.Horregatik 1956. Otsaila arte benetan marxista (beraz, baita iraultzaile, dialektiko, materialista ere) beste gauzen artean sozialismoa eraikitzeko iraultza indarraz at beste biderik ez zegoela aitortzen zuena zen; eta beste biderik egon zitekeela uste zuen edozein antimarxista (beraz, erreformista, metafisiko, idealista ere bai). 1956. Otsailaz geroz, ezaguna den bezala, alderantziz gertatzen da: herrialde batzuetan sozialismorako bakezko iraganbidearen posibilidadea aitortzen duen hura bakarrik da marxista. Arazo honetan, urte bete barru marxista izena nork mereziko duen asmatzea, ez da gauza erraza; era guzietara, arazo hone-

taz erabaki bat hartzea ez da gure eginkizuna, «Funzionarioarena» baizik.

Arrazoibide honexeri jarraiki, —eta marxismoaren adimenezkoa ez baina erakundezko izaera erreparatuz— benetako marxistak ulertu beharrik ez daduzkan iritziekiko leial aitortzen du bere burua. 1950. urtean edozein marxistek zekien Lyssenkoren jatorri-irakaspenak zuzenak zirela eta Hegelen filosofia berriz Frantziako iraultzari erantzun edo reakzio aristokratiko bat; Dostojewskij dekadentziaren ekarri bat zela eta idazle seinalagarri bat Babajewskij; Ssuworowek aurrerapena ordezkatzen zuela eta, oraindik gehiago, Oiartzun teoria, kimikan, zentzugabekeria atzerakoi bat zela. Edozein marxistek guzi hau zekien, kromosomei buruz inoiz ezer entzun ez izan arren, nahiz Hegel bizi izandako mendeaz aztarnarik ez eduki, nahiz Dostojewskijren noela bat sekula irakurri ez izan eta erdimailako kimika liburu bat sekula ikasi ez izan. Guzi hortaz jardun beharrik ez zuen, marxismoaren mamia «Funzionarioak» jartzen bait zuen bere horretan tinko.

Horrela, marxismoaren ideia guziz zehatz adierazita zegoen; eta —nahiz definizio-modu honek azalezko izaera edo formala bakarrik izan, hau da: marxismoaren mamia zertan datzan erakutsi beharrean, mami hori non bilatu behar den erakutsi— oker bat baztertuta zegoen.

Ikusten denez, kondairan azaltzen den marxismoaren bigarren ideia bat da hau. Hasieran Karl Marxen teoria ta iritzi berezien bilduma adierazten zuen soilki marxismo hitzak. Aurreneko ideia historiko honek bere balioa ta zentzu mugatu bat gordetzen ditu, munduan marxistarik —Marxen iritzien alderdikiderik— badagoen ala ez alde batetara utzirik, *kartesianismo* edo *platonismo* ideiak bezalaxe.

Galdera honen aurrean aurkitzen gara beraz: bere burua marxistatzat jotzen zuen intelektual talde handi baten kontzientzian *Funzionarioak* erabakitako mamia duen marxismo ulermodua hondatu egin denean, bai ahal du marxismo ideiak aurrerantzean esanahirik, eta zein da esanahi hau? (Dotrina honi izena eman zion gizonarekin lotzen den adieranahiaz beste). Zer zentzu dute marxismoa aurrerantzean ere desarroilatzea galdatzen duten dei-hotsak (sloganak) eta zer zentzu izan dezake jakintza barruan marxistak eta ezmarxistak oraindik berezteak?

Garai batetan, ez *Funzionariorik*, ez honekin lotutako marxismo ideia berririk ez zegoenean, galdera hau erantzutea ez zen hain zaila. Teoriko garrantzitsuak, Lenin, Trotzkij edo Bucharin bezalako errusiar iraultzaileak, esate baterako, Errusiako egoera ta kondaira azterkatu zituzten, horrela Marxek osatutako ideia-lanabesa Marxek berak inola ere azterkatu ez zuen situazio batetan erabiliaz. Marxen klase burutapenaz baliatu ziren —klase burutapen hau, zalantzarik gabe, Marxen berritasun bat zen, bere dotrina besteetatik berezi arazten zuena—, eta burutapen honen laguntzaz errusiar gizarteko harremanak deskribatu zituzten. Kasu honetan marxismoaren aurrerantzeko desarroiloaz ulertzen dena gauza garbia da: Marxen lanabesa ta metodua arlo berrietan aplikatzea. Eman dezagun, ordea, bilakaera historiko jakin batzuek gertatzen direla, eta hoietan ideia-lanabes hori desegokia agertzen dela. Onar daiteke ideia-lanabes hau Marxek azterkatutako kapitalista gizartean erabiltzea, eta baita lanabes honen laguntzaz burututako azterketa funtsean zuzentzat jo ere; bainan, une berean, ezkapitalista diren gizarte era berrien azterkatzeko aproposa ez dela uste izan, gizarte era berri hoiek heuren estrukturaren azterkatzeko ideia berriak eskatzen dituztelako. (Stanislaw Osowskik arazo honi ekiten dio bere *Klassenstruktur im sozialen*

Bewusstsein liburuan, beste batzuen artean). Horrelako ideia lanabes berri bat osatzeko saiakerak *marxista* izendapena beretzat galda ahal dezake? Inoiz ager daitezkeen gertakari (fenomenu, agerpen) guzien azterkatzeko eta deskribatzeko Marxek landutako kategoriak nahikoa direla suposatzen denean bakarrik dago saiakera hori marxismoari kontrajarririk, eta *ezmarxista* da. Marx, noski, ez zen horrelako presupostuetatik abiatu, presupostu hoiek bere estalinista epigonoen emaitz orijinalak izanik. Baina saiakera bat marxismoari ez zaiola kontrajartzen eta marxista ahal da, beste gabe? Jakintzaren lorpen guziak eta jakintzak onartutako egia guziak marxista izendatzean denak ados egon daitezke noski; baina orduan Astrobotanikako aurkimen berri bakoitzak, Fisiologiako lege berri bakoitzak eta Topologiako tesi berri bakoitzak *marxista* deitura beharko luke izan. Askotan eskatzen den honelako interpretazio batetan *marxismo* hitzari adieranahi guzia kentzen zaio, eta *egia* edo *jakintza-ezaguera* hitzen alferrikako seudonimo bilakatzen da. Seudonimo hau alferrikakoa ez-ezik, nahaspidezko ere bada; giza jakintza guzia Marxen inspiraziotik eta honek formulatu ta bere-bereak dituen metoduei esker desarroilatu dela suposa arazten bait du. Eta hori, inola ere, gezurra da. Eta hala ere —lehen erabilitako adibidera itzulirik— Marxentzat ezezagunak ziren gizarte sistimetan gizarte mailen azterketarako ideia-lanabes berri bat osatu nahi dugunean, hori egiteko Marxen lanetan konsekuente bakarrik ezezik, erabilkera orokar eta erabakiagatik honen seinalagarri den arau metodologiko jakin batetan oinarritzen gara. Hau da, gizarte bizitzaren azterketa guzietan, gizartea elkarren aurkako taldeetan zatitzen duten sustraieko banaketak bilatzea eskatzen duen arauaz baliatzen gara. Gertatzen bada gizarte era jakin batzuetan zatiketa honek Marxek 19. mendeko gizarte burgesean aurkitutako irizbideeri ez baina beste batzuei jarraitzen diela, honek zera demostratzen du, —azterka-

tzailea arau guziz orokar honez baliatu izateak, alegia—: Marxen bereizgarria zen jarrera metodologiko bat hartu duela; eta ikusmira honetatik beharturik, azterkatzaile hontaz soziologia marxista baten eragile dela esan daiteke.

Gertatzen da, ordea, jakintzaren aurrerapenak ez duela gaurko ideia-lanabesak eta azterketa metoduak Marxek bere lanetan erabilitakoekin gonbaraturik ugaritzea bakarrik eskatzen, baizik eta bere baieztapen zenbait egiztatzea edo zalantzan jartzea ere bai. «Funzionarioak» berak jakin arazi zuen bere garaiean Engelsen Estaduaren sorrerari buruzko zenbait tesi okerra zela. Honen jardunaren printzipio jeneralei zegokionez, *Funzionarioa* ez zen bere rebisioa oinarritzen saiatu. Hau ordea, ez da garrantzizko gauza gure eztabaidarako. *Funzionarioak* gizarte sozialista bat herrialde bakar batetan eraiki ezinaren Marxen teoria ere baliogabeztatu egin zuen. Stalin bere *Herrialde bakar bateko sozialismoarekin* agertu zenean, Trotzkijk, marxista klasiko ta ortodoxo lez, marxismoaren zuzenbideetatik desbidatu izana bota zion aurpegira, eta, horregatik, Stalinek antimarxista deklaratu zuen Trotzkij berriro. Orain orduko eztabaida haretan, kondaira aldetik arrazoi nork zuen erabakitzen hasi gabe, erraz igar daiteke horrela eramandako eztabaidaren antzutasun eskolastikoa. Nazioarteko egoera Marx geroztik aldatu egin dela-ta sozialismoaren etorkizuna klase indarren harremanak mundu osoko zabaleroan ikusita aztertzea Marxek berak gomendatu zuela esaten duenak, Stalinek bezala, Marxek benetan erabilitako pentsamodu bateko aitortzen du bere burua. Baina ez Marxek bakarrik, errealidadea adimen bidez (razionalki) azterkatu nahi duen orok ere bai, eta horregatik ezin inola ere pentsaera marxistaren ezaugarri berezia izan. Baina Marxek burututako kapitalismoaren azterketak ez duela ikusmira honetan gaurkotasunean ezer galdu aitor-

tzen duenak, Leninek eta Trotzkijk egin duten bezala, Marxen azterketaren metodu berezi eta ondorio konkretoetaz baliatzen da. Alde honetatik ikusita, bigarren postura marxistatzat jo daiteke, lehenengoa berriz —zuzena edo okerra ote zenez aparte— ez ezmarxistatzat, ez bereziki marxistatzat. Marxen azterketaren emaitzei kontrajartzen zaien tesia bat baldin bada ere, eskubidez edo gabe, Marxek erabilitako arau batez baliatzen bait da, nahiz Marxen kreazio berezirik ez izan. Baina gerta daiteke beste kasu batzuetan Marxek erabili bakarrik ez, baizik eta berari propio zaion era berezi batetan erabilitako arauen laguntzaz Marx beraren tesia batzuek zalantzan jartzea; eta, horrexegatik, honelako azterketa bat arrazoi osoz marxista izenda dezakegu.

Gure arazoa den pentsamenduaren formulatzera iristen gara horrela. Marxen lanak berari edo bere jarraitzaileei bereziki ez dagozkien berezgarri mordo bat agertzen du. Berezgarri hauek ez dute joera berezi bat nabarmentzen uzten: zuzenbide zeharo razionalista bat, sustraiko kritizismo baten sena, gizarte azterketan sentimentalkeriaren aurkako amorrua, metodu deterministikoa. Arau hauek errespetatzen ez dituztenak —bere burua marxistatzat jotzen zuen hainbat jendetan razionalismo metodologikoaren arau xehenekin kasu nabaria zen bezala— ez dira, inola ere, marxistak (heuren pentsaera eta *Funzionarioaren* jarduna marxismoaren ideiarekin hertsiki lotuaz marxismoaren ideia harriskuan jar dezakete, eta, horrela, Marxek jakintzan sar arazi dituen baliogoak heuren lanetan balio arazten dituzten gizonak marxista izendapenaz lotsa arazten dituzte); baina printzipio hoiek goraltxatzen dituztenek, bereziki Marxenak bakarrik ez direnez gero, ez dira horregatik, besterik gabe, marxista.

Bada, ordea, lan honetan (Marxen lanean, noski)

gizarte jakintzen kondairan Marxen ekarri berezia osatzen duen ezaugarri hilara bat. Batez ere giza ezagueraren gizarte-gaia irabazi handiz menderatzea ahaltzen dioten arau metodologiko jakin batzuek dira. Determinismoaren araua —hobeto ulertzen da arau hau pentsa-arau bezala ta ez teoria metafisiko bezala hartuaz— berez ez zaio Marxi berezia. Arau honek ez du xinpleki zera esaten: baldintza berdinen menpean agerpen berdinak azaltzen direnik, eta, gutiago oraindik, gertaera guziak kausalki baldintzatuak direnik. Modu honetan, determinismoa egiztatu ezin daitekeen eta jakintza azterketarako zerbitzu gutikoa den ezer ez dioen hitz huts edo topiko bat da. Orokarki mintzatuaz, zer galdatzen du determinismoaren arauak?: edozein gertakariren azterketa egiterakoan gertakari hori —eskuartean diren medio eta eginbeharra gogoan izanik— beste gertakariekiko duen menpetasun eta loturan ezagutzen saiatzea, gaia (menpetasuna eta lotura) agortu nahiez. Bada, ordea, Marxi guziz berezia zaion determinismo era bat: materialismo historikoaren sustraiko ideia batipait: bai politiko erakundeen, bai gizarte kontzientziaren era berezien jatorri edo iturriekiko azterketa egiterakoan, azterketa hau jabego harremanen sistematik darioten gizarte banaketei loturik egitea galdatzen duen sustraiko ideia; edo —gauza zentzu zabalago batetan hartu nahi izanez gero— produzio harremanetatik (teknika aurrerapenei loturik ikusi behar diren produzio harremanetatik) darioten gizarte banaketei loturik. Horrelako arau batek, bere jakintzazko baliogoa gordetzez gerotan, orokarki formulatua behar du izan. Guziz zorigaiztoko da, esate baterako, arau hau honako hau dioen lege bezala interpretatzea: sustraiko klase banaketak (klase, Marxen zentzuan) giza kondaira guzian bai gizarte erakundeen barneko, bai gizartearen espiritu bizitzako banaketa oro, nahitaez ta dudarik utzi gabe, determinatzen dituela alegia.

Desarroilo historikoa bereziki eragiten duten gizartearen erabateko banaketak definitzeko joera, lehenago esan bezala, Marxi berezia zaio. Berezia zaio baita ere azterkatzaileen pentsaera osatzen duten gizarte harremanen eragipean sortutako gizarte jakintzaren mugaketa eta deformazioaren kontzientzia. Berezia, baita ere, jakintzaren mistifikatze ideologikoaren aurkako borroka. [Ez genuen uste guk, garai batetan, Marxen izenpean ezkutatzen den dotrinaren aurka berriz sutsuki borrokatu beharko genuenik]. Berezia orobat, historizismoaren era jakin bat: Marxek ez dio bere buruari gertaera historikoak baliogo eternoen gaindik dagoen moralistaren ikusmiratik konsideratzea bakarrik ukatzen, ez ditu azterkagaiak erlatibatu bakarrik egiten. Gehiago ere bai: giza izaera giza-gizartearen kondairaren emaitza izatearen konbenzimendua du, guk osatutako munduirudi osoa gizarte baitako produkto (sozial subjetiboa) izatearen konbenzimendua. Hau da: munduirudi hori gizonaren gizartezko eta biologizko senen beharrei behatuz, errealidadea lantzen duen elkararteko jardunaren emaitz dela, eta horrela osatuta bakarrik itsasten dela giza buruan. Giza inguruko mundua giza etekin hutsa da beraz.

Berezia zaio, azkenik, gizarte jakintzak begiztatzeko era praktikoa. Hau da: problemak gizarte berdintzailearen arazorako, klase banaketaren erausteko, menperatuen eta explotatuen askatzeko duten garrantziaren araura mugatuak direnez aukeratzea. Berezia zaio beste uste sendo bat: ekonomi modu kapitalista eta burgesalgoaren nagusitza politikoa, gizarte legeen indarrez, nahitaez sozialista harremaneko sistema batetan aldatuko dela. Eta hori proletalgoa aginteaz jabetuaz, noski, jabetze honek eramanen bait du proletalgoaren beraren (klase bezala) eta, honekin batera, klase guztien eraustera, eta klase nagusitzarako bide den estaduaren eraustera.

Jakintzaren kondairan Marxen izenari hertsiki loturik dauden arau eta ezagupideen zenbakuntza erdiosoa da hau, noski: gizarte jakintzen metodologiarekin loturik dauden arazoetaz bakarrik ari gara hemen, izadi jakintzen aurrerapenean eraginik izan duen metodologia marxista berezirik ez bait dago (aurrerapen honen exitoa behaztopatu ere egin duen lehen aipatutako erakunde-adieranahieko marxista metodologia alde batera utzita).

Erraz erabaki daitekeen gauza da arau hoietako asko gizarte jakintzetan osoki onartuta dagoela eta, baita ere, erakundezko marxismotik urrun aurkitzen diren eta *Funzionarioaren* aldetik ezmarxista, antimarxista, burges edo beti bezala izendatuak diren taldeak erabiltzen dituztela. Marxen ideia asko jakintza bizitzaren zurrunbiloan sartu da, eta horrela Marx, eta bere burua haren jarraitzaile ortodoxotzat jotzen dutenek, beste gainontzekoetatik berezi arazten zituen jite berezia galdu dute ideia hoiek. Hoien ikusmiratik jakintsuak marxista eta ezmarxisten artean banatzeak ez du gehiago zentzurik. Ba dira, ordea, hain osoki onartu gabeko metodu marxistaren beste alderdi garrantzitsuak, eta, banaketa horren eusteko, gutienean azaleko oinarri bat jartzen dutenak. Gauza ez da, ordea, batere erraza, eta hori arrazoi askogatik, noski.

Lehenik, *marxismo* hitzaren adieranahi normala eta gizartebaitan gehienbat sustraitutakoa filosofian eta soziologian aurkitzen den espirituzko jardun itsusi batekin lotzen bait da, hau da: hemen aitatutako lehenengo sentiduan ulertzen da «marxismo» hitza, erakundezko sentiduan, *Funzionarioaren* jardunean pentsa arazten duenean. Jakintza aurrera eraman nahi duen edozein filosofo edo soziologo laizistak horrela ulertutako marxismo batekin zerikusirik ez duela eduki nahiko, garbi dago; ez bait luke sinesmen itxuaren susmoa be-

regan hartu nahi. Horrexegatik nazka ematen dio bere munduikusketari marxitsa izendatzeak, bere lana Marxek jakintzan sartutako metodoetan inspiraturik aurrera eraman nahi duenean; edo kasu bakoitzean izendapen honen esanahia argitu beharko luke. Horregatik marxisten eta ezmarxisten arteko banaketaren berritzeak orain jeneralki balioko bezala ageri den marxismoaren ideia hau ez baina beste bat osatzea eskatuko luke. Baina posibilidade hori gizarte errealidade bati loturik dago —hitzaren esanahia gizarte errealidade bat da— eta hori ez da esplikazio huts batez burutu daitekeen zerbait; benetako marxismoa eragin nahi dela esanaz, orainarteko marxistak seudomarxistak zirela esanaz, komilla arteko marxistak etab. (Horregatik, beste gauzen artean, ez naiz saiatzen ni stalinismo espiritualaz mintzatzean, hau marxismo faltso bezala benetako marxismoari kontrajartzen. Stalinismoak gizartean bizirik zegoen marxismo ideia bat —erakundezko ta ez adimenezko gertakari bezala— eraiki bait zuen, eta ideia hau bizitzan eraginkor izan zen. Mistifikazio bat bakarrik zegoen hor: berezgarri honen sorrerarekin zerikusia zuen Marxen izena. Baina etimologiazko asoziazioak gizonen baitan poliki-poliki suntsitu egiten dira, hitza erabiltzearen poderioan.)

Bigarrenez, —eta hau garrantzizkoago da— kategori bereziak desarroilatu dira gizarte jakintzetan, arau metodologiko bereziak, erakundezko marxismoaren izatearekin eta jardunarekin zerikusirik izan gabe sortu gainera. Badira beraz —marxismoa adimen mailan ulertuz gero— jakintzazko azterketa arlo osoak, zeinetan horrelako banaketa bat (mraxista-ezmarxista) guziz ezinezkoa den. Honetatik ezin jarrai daiteke marxista metoduak arlo hoietan ezer esatekorik ez duenik, eta marxista metodoak azterketa hoieri, gaur oraindik, eraginezko indarrik eman ez lezaiekeenik, ernetu ez dezazkeenik. Esaterako, herri iritziaren soziologia, ea osoki,

marxista tradizioaren hesparrutik at desarroilatu bada ere, posible dirudi, oro har, Marxen klase ideia jakintza honen kategori osatzaile bezala sartzeak azterketarako garrantzirik handieneko ikusmira berriak eman dezaizkiokeela. Baita ere, dirudienez, marxista azterketak semantika logikoa desarroilatzeko asko suposatu zezakeen, orainarte honek hitzaren gizarte esanahia ahazten zuten metoduak erabili bait ditu. Marxen aurkikundeak —erakundezko marxismoak sortutako kalteekin ere— zerikusi izugarria izan dute azterketa arlo askotan, batez ere kondairan, bai ekonomi kondairan, bai kultura berezien azterkatzean. Astakeria izugarria litzake kondaira idazterakoan atzera Rankera, Lietraturaren kondairan Kallenbachera eta Filosofiaren kondairan Zellerera itzuli nahi izatea, hortarako erakundezko marxismoan atxakia harturik.

Azkenik, ohar bat egin beharrezkoa da: dotrina bat, teoria bat edo kondaira interpretazio bat marxista edo ezmarxista bezala izendatzeak zentzu bat eduki nahi badu, zentzu hori teoria edo dotrina honen eratzean erabilitako oinarrizko printzipio metodologikoei begira bakarrik lortu daitekeela. Errealidade eta interpretazio arteko muga izadi jakintzetan bezain igikorra da gizarte jakintzetan, noski, eta haietan bezain zail hauetan ere zehazki mugatzea. Hala ere ba dago, maila hontan hain zuzen, amaika ezaguera, eztabaidatu ezineko benetakotasuna duena, eta hauek «marxistatzat» jotzea zentzugabekeria bat da. Bestalde, jakintzen kondairak erakusten duenez, interpretazio galderak ez dute inoiz behin betirako erantzunik. Eta honek errealidade ebidente hau frogatzen du (gizarte jakintzetako objetibidade absolutuaren ahalaren antzinako sinismena darda arazten duena): ea belaunaldi bakoitzak mundu kondaira guzia berrikitan idazten duela, eta —ohargarria dena— lan hau gehienetan burutzen dela. Eta honek esan nahi duena: gauzazko jakite bilduma berdin edo ea berdin

batek, adimenez sustraitutako eta, halaz ere, zeharo bereziak diren interpretazio ugariak ahaltzen dituela. Pena merezi ahal du, eta zer kasutan, horrelako interpretazioak marxista izendatzeak? Erakundezko marxismoaren ikusmiratik ikusita gauza garbia da: 1945. urtean Hegeli buruzko epai marxista bakarra eta benetazkoa esaera honetan bilduta zegoen, Hegel aleman chauvinista bat zela alegia, guduaren defentsatzailea, herri eslavoen etsaia ta faszismoaren aurrelari bat; 1954. urtean berriz, idealista joerako dialektiko seinalagarria, Marxen filosofia osatzean zerikusi handiko izan zelaren ustea zen baliozkoa.

Adimenezko marxismoaren ikusmiratik, ordea, bestelatsu azaltzen da. Ez dago ta ez da inoiz egongo estoiko filosofiaren benetako marxista interpretazio bakar bat, Mickiewiczsen poesiaren marxismoarekin guziz ados dagoen interpretazio bakar bat egoterik ez dagoen bezalaxe. Metodologi historiko marxistaren arau orokarrak erabiliak izan diren filosofia estoikoaren interpretazio batez mintza daiteke, bainan metodu berdinaren erabilketak ondorio ezberdinak ahaltzen ditu, ze, dato mordoska berdin batetik kalkuloneurri batekin bezala beti ondorio berdinak atera ahal izateko moduan gizarte jakintzen metodologia logaritmizatu daitekeela uste izatea ilusio bat da. Ez da gauza egina metodua oraindik zehatzago erabilita ere, —egin ahaleko jakintza operazio guziak agortu ezin daitezkeenez gero— ondorioak Engelsen estoizismoari buruzko ohar bakoitzarekin bat etortzea. Horregatik alferrikako jolasak dira azterkatzaileen eztabaidak batak besteari benetako marxismoaren arraskasta eta garaitzapena eskutik kendu nahiez eta marxista konsekuentearen monopolioa bakoitzak berarentzat eskatuaz dabiltzanean. Eztabaidatu daiteke teoria batek pentsamendu zientifikoaren eskabideei hobeto edo gaizkiago erantzuten dien, —eskabide hoien barruan daude, nahiz ez hoiek bakarrik, Marxek

landatako araurik garrantzitsuenak. Arau hauek, ordea, nahiko orokarrak izan beharko luteke, eta kondairako gertaera honi edo hari dagokion bakarkako irakaspenik ez eduki. Arau orokar hauek beti ematen dute interpretazio askorako bide. Materialismo historikoaren arauak, izan ere, ez dute inolaz ere aldez aurretik argi eta garbi adierazten, adierazpen bat bakarrik izateko moduan alegia, kondairako aro guzietan eta bakoitzean gizonaren pentsaera soziala tajutzeko bizitza baldintza materialen kopuru osoak zein modu, maila eta indarreko eragipena daukan. Oraindik gutiago dauka erabakita materialismo historikoak Pascalen filosofia, esate baterako, uzkalitako feudal jauntxoen malenkoniaren adierazpen bezala, ala burges pentsamenduaren gorpuzte bezala, ala beste zerbait bezala begiratu behar den. Soziologiazko eta, oraindik gutiago, filosofiazko azterketetan zeharo adiera bakarreko hitz teknikurik ez dago eta terminologiaren zalantzatze hau dotrina baten sustraieneko tesietan ere aurkitzen da; eta tesia hauetako bat ere ezin daiteke adiera bakarreko bezala jo. Materia, gizarte kontzientzia, ezagupena, gainegitura, baldintzape kausala, produzio harremanak eta hoien gisako adierazpenak garbiak ez direnean, ez dago adierazpen hoiez baliatzen den arau metodiko bakar bat, ez errealidadea jaso nahi duen tesia bakar bat ere, adiera bakarrekoa denik. Horregatik guk marxismoa deitzen dugun honek, bere adimenezko eginkizunean eta pentsametodu bezala ulertzen badugu, barne mami oso ezberdina izan dezake, oso hesi zabal batez bakarrik hertsitu daitekeena. Aingeruen jakintza marxista bat aurrera eramatea zaila litzakeela badakigu, eta Bossueten kondairaren filosofia marxistatzat inola ere ezin jo deitekeela ere bai. Baina hori jakitea alferrikakoa zaigu, *marxismo* hitza ez bai dugu erabiltzen pentsamendu zientifikoa teologoen irrazionalismo nabariari kontrajartzeko. Aitzitik ordea, pentsamodu ezberdinak eta metodologi tipo ezberdinak bata bestearen ondoan

egon eta bata bestearen kontra leiatzen diren jakintza arloan, marxista eta ezmarxista arteko muga bereziki igikorra da. Orain arte aipatutako bi inguru-giroetan pentsatzen baldin badugu —Marxek ezarritako arauen jakintza lan modernurako urritasun eta eskasia eta beroien adiera askotasuna— eta baita ere arau hauen balioaren mugen gora-beheratan, erraz ulertuko dugu ezin zitekeela bestela izan. Gainontzeko mundu guziari garbiki kontrajartzen zaion talde marxista itxi eta batu batetaz mintzatzeak batere zentzurik ez du, hau da, bere izate hutsez jakintzan banaketa hesi bat jasotzen duen taldeaz. Adimen mailan ulertutako marxismo batetan marxista dotrinaren garbitasunaren soluzioaren predikuak bezain sentidu guti du honek; eta politiko edo erlijioso gertaera, baina ez jakintzazko gertaera bezala konsideratzen den marxismo baten ikusmiratik bakarrik izan daiteke zerbitzuko.

Pauso bat ematera erabaki behar den egoera batetan, 13. gizaldian Averroistak ortodoxiaren aurka jakintza sinesmenetik banatzeko ausartu zirenean bezala, jardun politikoak bere indar deuseztatzailea jakintzan erabiltzeko geroz eta aukera gutiago izango duen egoera batetan beraz, marxista taldea jakintzan garai batetan zen indartalde trinko izatetik aize-gorputz bilakatuko da. Marxista eta ezmarxista arteko antzinako berezketa gogorraren tradizioa ez da oraindik itzali, noski, eta erakundezko marxismoa hilda eta gizarte kontzientzian dagoneko konpromiso batetan jarririk dagoen zirkuloetan ere, oraindik luzaro jakintzan indar izango duela gauza garbia da. Hala ere, hainbat jakina da erakundezko marxismoa jakintzatik bazter arazten den neurri berean egingo duela atzeraka tradizio honen indarrak.

Hortatik, ordea, ez darrai inola ere, espiritu jakintzetan, hau da, gizarte harremanen eraginak nahitaez gehienbat sofritzen dituzten jakintzetan munduikuske-

tetatik sortutako berezketa guziak suntsitzen direnik. Baina funtsezko banaketa ez da marxisten —batez ere dotrinaren garbitasuna edozein errespetu gabeko nahaskerietatik gorde nahi luketeneen— eta gainontzekoen artekoa, baizik eta —politika mintzaira erabiltzea zilegi bazait— ezker humanistiko eta eskuin humanistiko baten arteko banaketa; oso orokarki ezaguarazten den banaketa eta inola ere ez azterketa metodu jakin baten bidez, intelektual jokaera jakin baten bidez baizik. Espiritu jakintzetan ezker intelektual izenez ulertzen duguna zera da: pentsamenduaren funtsezko adimen zaletasunaz ezaguarazten den espiritu jokaera, jakintzan agertu daitekeen edozein mitologiaren aurkako borroka sutsuaz, munduikusketaren begiramenik gabeko laizizatzeaz, beti handitzen doan kritizismoaz, eratutako dotrina eta sistema hitxien aurkako mesfidantzaz, pentsamenduan behar den egizaletasunerako joeraz, hau da: onartutako teoria, tesia eta metoduak egiztatzeko eta jakintza mailako berrikuntzak baliotan hartzeko senaz. Jokaera honek jakintza barruan ager daitezkeen jakintza mailako beste ikusmirekiko tolerantzia eta edozein irrazionalismori gudua —bedi hau eraso gudua— deklaratzeko irrika batzen ditu; eta beste ezaugarri bat oraindik: jakintza ezagueraren baliogoaz eta gizarte aurrerapenaren posibilidadeaz sinetsirik egotea.

Baina banaketa hau, beste banaketa guziak bezala, bi estaduen arteko muga bezain zehazturik egon ez arren, marxista talde tradizionalak burututakoa baino askoz ere beharrezkoagoa iruditzen zait neri, dena dela. Horrelako jokaera bat aitortu daitekeenean, nahikoa da hori, Marxek bere lanaren bitartez pentsamendu zientifikoan sartutako baliogoak gorde eta finkatzeko, —espiritu jakintzetarako duten garrantzia gehiegitu beharrik ez dagoen baliogoak, alegia. Baita ere nahikoa da jokaera hau, kondairan zehar gezurtatuak izanik gehiago gaur eguneko ez diren tesiak eta orokartze

presakakoak eguzki argitan jartzeko. Gaur egun gauza jakina baita Marxen hainbat pentsamendu, batez ere kondairaren geroko bilakatze arloan zutik ezin iraun ahal izan dutela gertakarien probarriaren aurrean, igarkizun gehienei gertatzen zaien bezala; eta edozein utopiri dagokion baliogoa bakarrik dutela, hau da, zientifiko teoria batena baino gehiago moral joera baten baliogoa.

Hortaz gainera, onartu daiteke, baita ere, espiritu jakintzen lanabesa osatzen dohaken neurrian marxismo ideia, joera berezi denez, suntsitu egingo dela, fisikan *Newtonismorik,* botanikan *Linneismorik,* fisiologian *Harveysmorik* eta matematikan *Gaussismorik* gehiago ez dagoen bezala. Jakintzaren berezko desarroiloak Marxen jakitatean izatea duen guzia asimilatu egingo duela esan nahi da, baieztapen zenbaiten erabilketa mugatu, beste batzuek zehaztu, eta beste batzuek baztertu egingo bati dira, zihurrenik. Bestaldetik, jakintsu handi baten lorpenik handiena honetan datza, bere jakitateak pentsajoera berezi izateari uztean alegia, jakintza bizitzaren mogimenduan sarturik, honen barnetik azitzen joanik, bere berezi ezineko alderdi osatzaile bilakatzean eta bere izate propioa galtzean. Espiritu Jakintzetan bilakatze hau beste era batetara eta mantxoago burutzen dela gauza garbia da, baina hemen ere aurrerapenaren benetako osakaia da.

Munduikusketaren adierazpen diskursiboa bezala konsideratzen den fiolsofian besterik da: hemen kreatzaile handien izenak joera eta norabide berezien seinalatzaile bezala irauten dute, urteetan zehar, nahiz eta heuren karakteroa aldatu. Gaur eguneko edozein filosofi joera adierazteko *platonismo* hitza erabiltzen dugunean ez dugu noski Platonen irakatsien aitorle ortodoxo batetan pentsatzen, honelakorik ez bait dago gehiago. *Platonismoak* gaur eguneko filosofian zera adierazten

du: Platonen pentsamenduaren alderdi osatzaile bezala gaur arte gordeak izan direnekiko aidetasun hertsiago edo zabalagoa: generoaren banakoarekiko nagusitzaren ustea, edo gauzaren izate bikoitzaren ustea, zentzuzkoa ta aldakorra batekoz, aldakaitza eta edozein hautematetik at dagoena bestekoz. Munduikusketen kondairan —dotrina ugaritasunaren suntsitze osoa eta sistema bakar baten monopolio harrizkotua une batetan ere pentsatu ezin daitekeen kondaira horretan— filosofian ikusmira berri eta kreatzaileak ireki edo kriterio bereziki hedatuak osatu dituzten pentsalarien izenetatik darioten ezaugarriak beti iraunen dute.

Horrela ulerturik, berezgarri marxistak ez du guziz aitortua edo ukatua izan daitekeen dotrina edo sistema orokarren bat adierazten, mundu erreparatze modurik orokarrenean inspirazio filosofiko bizi bat baizik; gizarte adimenean eta gizadiaren gizarte pentsamenduan aurrera eragiten duen indarra baizik, bere etengabeko influentzia gure espirituari ireki dizkion beti balioz betetako kriterio berriei zor izaki. Kriterio hauek giza arazoak kondaira handiaren ikusmiratik behatzeko bidea irekitzen bai digute; gizartezko giza izatearen osatzearen prozesoa ezagutzeko; pentsamendua jardun pratikoaren ondorio bezala ulertzeko, gizonen baitako mitologiak etengabe berritzen diren gizarte bizitzaren norgaltzeen —bere buruarekiko identidadearen norgaltzeen— ondorio bezala agertarazteko eta bere kausa propioetara ekarri ahal izateko. Gizarte bizitza bere etengabeko borroka eta istiluetan azterkatzea zilegi eta posible egiten diguten kriterioak dira; amaika bakarrekiko saiakeren, bakarrekiko desioen, bakarrekiko oinaze eta etsipenen, bakarrekiko garaipen eta frakasoen bitartez eboluzio batu bakar baten irudia osatzeko batzen diren borroka eta istiluak. Eta eboluzio hontaz sinista dezakegu, kondairaren neurri zabalean neurturik, atzerapena ez baina aurrerapena bat adierazten duela.

II. — Ideologia eta teoria

Ideologia ideiaz ulertzen duguna erabakitzen saiatuko gara orain, modu oso jeneral batetan, eta, bereziki, ideologia jakintzatik berezi arazten duten ohargarriak aztertzen ahaleginduko gara.

Ideologia hitzez zera ulertzen dugu guk, gizarte talde batek (klase batek, baina ez klaseak bakarrik), bai talde honen kontzientzi mistifikatua, bai bere jardunaren kontraispilatzea diren baliogoen ordenatzeko erabiltzen duten baliogo bilduma. Hau ez da noski definizio zehatz bat, ideologia jakintzatik zerk berezten duen jakiteko lagun dezaigukeen momentuko berezgarri bat baizik. Ideologia baten gizarte eginkizuna taldeak benetan ekin, jardun ahal izateko beharrezkoak dituen baliogoekiko sinesmenaren eustean datza. Ideologia beraz ez da teoria *huts* bat, eta ezin daiteke hori izan, errealidadearen ezagutze hutsak ezin bait dezaioke inori ekintzara eragin. Ideologiak baliogo judikapenak edo errealidade judikapenak ditu bere barruan, edozein baliogoekiko sinesmenaren adierazpen mistifikatua direnak, edo baliogo hoiekiko sinesmena sendotzeko beharrera zuzenduta dagoen mamia dutenak. Horrela ideologia dira, esate baterako, abertzaletasuna, eta baita nazionalismoa ere (hau ez da sentimendu bezala interpretatu behar, Nazioa baliogo bat izatearen konbenzimendua bezala baizik). Askatasunaren, Berdintasunaren, Ohorearen, Aberriaren, eta betiko salbazioaren dei-otsak, dei-ots ideologikoak dira. Dotrina sozialistak, damokratikoak edo liberalak bezalaxe, ideologia bat dira, batez ere baliogo politiko sistema guziak bezalaxe.

Ideologia eta jakintzaren arteko ezberdintasuna ez da egiaren eta gezurraren arteko diferentzia bat. Duten gizarte eginkizuna dela bide berezten dira eta ez bere

zuzen izatearen bitartez. Marxek erabilitako sentidu berean erabiltzen dugu guk ideologia ideia, gutxi gora behera, eta ez gaur eguneko marxista literaturan ohizko den sentiduan. Marxentzat ideologia ideiak mezpretxu sentidu bat zedukan, era guzietara desitxuratutako kontzientzia bat adierazten zuen. Honek ez du esan nahi ordea, ideologia, besterik gabe, teoria faltsuez osatuta egon behar duenik; duen eginkizunaz definitzen da, baliogoak ordenatzean datzan eginkizunaz. Edozein ideologiaren onartzea ez da beraz ekintza intelektual huts bat, baiezte praktiko bat baizik, jokaera baten hazia. Eta edozein gizartezko jardutek ideologia bat behar duenez gero, ideologia gizarte agerpen bezala ezin daiteke deuseztatu.

Ideologiaren kasu berezi bat mitologia da, hau da, jarraiko ezaugarri hauez adierazi daitekeen sistema bat:

Mito bat jainkoen kondaira edo gizon batzuen kondairen gisako gertaera batzuei buruzko ipuin bilduma bat da. Ipui baten mitiku karakteroak ez dauka egiazkoa edo gezurrezkoa ote denarekin zer ikusirik, baizik eta betetzen duen eginkizunari erreparatuz definitzen da. Ebangelioen mitiku karakteroak ez dauka Jesukristo pertsonaia historiko bat zen ala ez galderaren erantzunarekin zer ikusirik. Bazen Ossirisen mito bat, baina baita Napoleonen mito bat eta Stalinen mito bat ere, eta hauek, zihurki, pertsonaia historikoak izan ziren. Herri bakoitzak eta mogimendu politiko bakoitzak bere mito propioak osatzen ditu, baliogoen eratze jakin bat diren mitoak, hau da, baliogoen sintesia bat, ez abstraktoki formulatua, pertsona banakoetan edo egoera banakoetan gorpuztua baizik, sortzen dituen gizarte taldearen elkar-eustearen zerbitzuko. Jatorri berdin batekoak izatearen oroekiko kontzientzia ere bada mitoa; ipui mitikoak, mitoan sinesten duten gizonen artean ea

sendi moduzko lokarriak sortzeko ere serbitzen dute, gizarte bateko kideen lokarria, giza banakoak gorpuzten dituzten odolezko jatorri edo jatorri moral diren baliogoen bitartez definitzen dena.

Utopia ere (hitzaren esanahirik zabalenean) gizarte harremanei buruzko baliogo onartuen bilduma denez, ideologiaren kasu berezi bat da. Baliogo hoiek zertu edo egikaritu ezinekoak dira eta egitamu modura proposatuak. (Paradisuaren edo Urrezko Antzina garai baten ipuinak mito dira, baina Kristoren mila urteko erreinuaren irudia utopi bat da). Ipuin jakin batzuen mitiku karakteroak bere egi edo gezurrarekin zer ikusirik ez duen bezala, era berean baliogoen utopiko karakteroak ez dauka egikaritu daitezkeenak diren ala ez jakitearekin zer ikusirik. Sentidu honetan sozialismoaren ideia ere utopi bat da, baina honek ez du esan nahi inola ere sozialismoa zertu ezinezkoa denik. Mitoak, bere gizarte sikologiazko eginkizunean taldearen baliogo propioekiko sinesmena eratzen duen bezala, eratzen du utopiak gizarte erakundeetan baliogoak egikaritu ahal izateko itxaropena. Orain arte utopia ta mitorik gabe bizi zitekeen gizarte mogimendurik ez da egon.

Sarrera moduko berezgarri hauen ondoren hasi gindezke marxismoaren —ideologia bezala— sortzearekin eta bilakatzearekin loturik dauden berezgarri bereziak eztabaidatzen.

Marxismoaren antinomiarik (kontraesanik) harrigarriena eta kondairan paregabekoena honetan datza: gizarte kontzientziaren mistifikazioa politiko harremanen eraginaren ondorio bezala deskribatu zuen dotrina bera mistifikazio honen opari bilakatu izanean, eta una berean, mistifikazio honetatik zeharo askaturik zegoela aitortzean.

Egoera honen paregabekotasuna berriz, honetatik dator: guk eskuartean dugun kasoan, teoria benetan zientifiko bat, pentsamendu razionalaren tradizio barrutik hazia eta europear kulturaren bizitz ez-erlijioso eta intelektualean sakonki sustraitutakoa politikuki eratutako jendetza-mogimendu baten gainegitura ideologikoa bilakatu izatetik. Gizarte kontzientziak kamara ilun batek bezala errealidadea buruzgainka hautematen duelaren Marxen pentsamendu orokarra, ordea, geroago ideia sinple honetara reduzitu zen: mistifikazio honek (gizarte kontzientziarenak noski) bere zuztarrak klase kontzientzian bakarrik dituela, heldugabetasun intelektualaren fruitu bat izanik (kondairan langile klasearen aurretik izandako klase menperatuen kasuan bezala), edo jakinaren gainean egindako makurkeria bat (nagusien kasuan bezala).

Bi kasutan, gizarte kontzientziaren agerpenak edo fenomenuak zeharo era idealista batetan izan ziren interpretatuak, giza pentsamenduan sortutako mundu irudia pentsamendu honen berezitasunetik etorri arazi bai zen, jakite eskasiatik edo nahimen makurretik. Bi kasutan, beraz, Marxen dotrinaren mamia, norgaltzearen teoria galdu zen. Horren ordez konbenzimendu guziz optimista bat azaltzen da: langile klasea, *beretzako klase* bezala, partiduan eta han bakarrik gorputz hartzen duena, eta munduirudiaren desitxuratzean batere interesik ez duena (itxuraz honek bere eginkizun historikoari darraio) erakunde politiko bat osatu duen une berean mistifikazioaren lilura guzietatik berehala, automatikuki, libre dagoela, alegia. Iritzi hau sortu izana esplikatu erraza da, honen ondorio bait da, partidua gorputz hartutako klasearen espiritua bada, askatasun hori zeharo lortzea; eta honek hau besterik ez du esan nahi: partiduak ez duela inoiz hutsegiten, alegia. Praktikan, beraz, Marxen norgaltzearen teoria, susmoa erraz

hartu leikiokeen joera batetan oinarrituta, hutsezinaren dogmaz aldatu zen.

Egoera honetan, erakunde politikoak kontzientzi teorikoaren gain dagian desitxuratze eraginaren problema ezin zitekeen marxismoaren barruan azaldu. Garai batetako jendetza mogimenduetan problema ezin somatu zitekeen inola ere, ideologia (Marxen sentiduan) bakarra bait zuten eskuartean, eta ideologia bakar hau ez zuten gehienetan pentsamendu zientifikoaren ekarriz osatzen; hasieratik beretik edozein jakintzazko kontrol mezpretxatzen zuen kontzientzi hedakorra bait zedukaten. Orain ordea, lehenengoz, jatorriz jakintza zena erakundearen eragipean jarri behar zen, adimenezko edozein kontroletik askatu behar zen, beraz.

Ideologia erlijiosoak ez dira sekulan jakintza aro batetatik erlijio aro batetara igaro, ez bait dira inoiz jakintza izan;horregatik gizarte egoeraren momentuko behar bakoitzari erraz egokitu ahal izaten zen. Marxismoak, aitzitik, jakintza ideologia bihurtu du bere desarroiloan, mito beraz, adimenezko pentsamenduaren bizkar hezurrik gabeko mami ahul bat. Ideologiaren eskema tipikoari jarraiki jardun du, baina, une berean, itxura zientifiko bat zeraman bitartean, tradizioaz profitatu da. Hori zela-ta, marxismoa jakintza dei-otsen giroan sortu bait zen, kultura bere maila guzietan besarkatu eta irensteko ideologiaren joerak bizitza luze bat zedukan bere aurrean, nahiz aspalditik jakintza desarroiloaren legeen menpean gehiago ez egon — egon, agian, gehienez ere, alboko-ekarri baliotsu eta kreatzaile berezi batzuek egongo lirake, eta hauek jeneralean erakundezko marxismoaren kontra sortu dira (hori dela eta ez dira zeharo ahaztu Marxen aurkikunde metodologikoak eta balio handiko lan zientifikoei bizitza eman ahal izan die, Georg Lukasen lanari esate baterako).

Erakundezko marxismoaren kondaira, errealidadean, Marxen norgaltze teoriaren zuzentasun edo egiaren adibide bilakatu da. Zera azaltzen zuen: politiko erakundeak, erakunde denez, jakintzazko pentsamenduaren gain duen ezerezte indarra, —pentsamendu hau nolabaiteko elkar bizitze baten izenean ideologiarekin nahasten bait da; elkar bizitze izan behar eta zorrikeria bilakatu. Ideologiaren gorputzak jakintzarena eten gabe jaten bait du, eta honen izatea mugatzen. Hori horrela izateak ez gaitu ez asarrera, ez hori kondenatzera eraman behar, erakunde politikoari berez dagokion jardukera hori bait da. Erakundeak, gizarte errealidade bilakatuz gero, bere interes berezi bat badu: bere barne elkartasunari eutsi, eta elkartasun hau desegitera doazen joera guzien aurka gogor egotea ere eskatzen du. Eta, bere definiziotik darionez, erakunde baten elkartasuna bere kontzientzian datza, klasearena ez bezala, klasearen izaera bere egoera objetiboak mugatzen bait du (Marxen «berezko klaseari» —klase an sich— jarraituz). Horregatik desegin behar ditu erakundeak kontzientzia desegin dezaketen errealidade guziak eta horregatik zaindu behar du bere ideologia adimenezko edozein kontroletik.

Jakintza bizitzak, aitzitik, honako oinarri hauek sendotzen ditu bere eboluzioan: gizarte kontrolarena, ideien mamia ohizko esijentzietatik aske gordetzearena (eta ez jartzen diran problemak), objetibidadearena, errebisionismoarena, uneoroko kritikarena, irizbide posible guzien etengabeko elkarneurtzearena (konfrontazioarena). Horregatik ideologia eta kultura bata bestearekiko etengabeko kontraesanean aurkitzen dira eta kontraesan hau borondate ona aitortuaz bakarrik ezin daiteke baztertu, borondate ona ez bait dago gizarte legeen gainetik. Marxismoaren erakundetzea ez zen, bekatua aitortzaren bidez bezala, borondate onaren bidez zuzenbideratu daitekeen desitxuratze bat. Batez ere esan behar

da, ez dela inola ere *desitxuratuko marxismorik* egon; erakundezko marxismoa bere eginkizunari zegokiona zen eta kondairak seinalatutako eginbeharra ondo baino obeto bete zuen. Eginkizun hau, jakintzari dagokionez, ondoren kaltegarrikoa izan izanak, hori bere jardunaren beharrezko osatzaile zela bakarrik adierazten du. (Berdintsu gertatzen da politika bizitzan: stalinismoa ez zen desitxuratze bat, printzipioei zeharo egokitutako medioak erabiltzen zituen sistema bat baizik. Stalinismoak, ez du ezer desitxuratu, efikaza izan bait da bere jardunean, eta oker guti burutu du, hau da, eraginik gabeko ekintza gutitan ahalegindu da).

Elkarbilduz, beraz, mogimendu eratuetako oroekiko kontzientziaren izaera egunen batez desegiten joango denik eta deus bihurtuko denik suposatzeko batere oinarririk ez dadukagu. Bizitza politikoak, bere erakundezko eran, ideologiaren zimentua alde batera baztertzerik ez dauka; ideologia honek, ordea, bere iraun ahala desegite indarrez ornitutako adimenezko edonolako kontrolaren ukatzeari zor dio. Gainera, berezko errealidade hau ere gogoan izan behar da: erakunde mailako herste joerako edozein prozeso integrazio ideologikoarekin lotzen dela alegia, eta horregatik jakintzaren arazoak, mamiari dagokionez, ideologiaren arazoak estalirik dauden alde guzietan jakintza mailako pentsamendua bortxatu egin behar dela.

Bestaldetik —eta hau ere marxismoaren egoera berezi eta apartekoari dagokio— pentsamenduaren ideologizatze osoa lortu ezinezkoa da hemen, hain zuzen. Jakintzatik honekiko norgaltzeaz sortu den ideologia batek ezin dezake bere jakintzazko itxura bazterreratu, eta itxura hau bera ideologiarekiko norgaltzearen menpean dago. Horrela, itxura honetan noizean behin bere jakintzazko jatorriaren aztarnak eta oraindik zeharo akabatuta ez dagoen tradizioaren gogoratzea berriro bizi

bihurtzen dira. Mitologizatutako kontzientziaren barruan beti dago jakintzazko marxista kontzientziaren zati igikor bat, muga garbirik ez duena, baina marxismoaren jatorriari loturik dirauena. Horregatik eta oztopo guzien aurka, zen gai Marxen metodo dialektikoa eragin intelektual bat edukitzeko; eta askotan, harrigarria bada ere, ideologia bera zen, jakintzazko tradizioarekin nahasteari esker, jakintzazko baliogoen eramaile. Horregatik marxismoaren hedatze ideologikoak ondoren bikoitza ekarri du: ez zeramakien berekin indar deuseztatzaile bat bakarrik, jakintza sororako hazi ugarikorra ere bai. Marxismoa, bere kondairan zehar, ez zegoen adimenezko indar huts batetan eta presio ideologikoa zeragien indar batetan zatiturik, baizik eta, bata bestearen aurka zeuden, bainan zeharo berezgaitzak ziren bi modutan izan da eragile. Eta ideologiari berezia zaion eragikerak bere baitan adimenezko pentsamenduaren baliogo abstraktoak baino gizarte indar eta eraginkortasun askozaz ere gehiago duenez gero, baliogo abstraktoak, maiz, ideologiarekin batera tokatzeari zor diote bere exitoa. Nahiz eta hau, beste ikusmira batetatik, beroientzat kaltegarri izan.

Marxen ideiak exitoa intelektual arlotik kanpoko indarrek bultzaturik lortu zuten. Ideia hauen bizitzan kontraesan ohargarri hauek direla ta, marxismoaren gaur eguneko balioa neurtzerakoan, ilusio ugari sortu dira eta sortzen dira: batetik adimentasun garbiaren ilusioa, jakintzazko ideologiaren mitoa eta marxismoaren estereotipo bat sortu dituena; eta hau zalantza ezineko jakintzazko exitoei esker sortu da, edo, hobeto esateko, exito hauen bitartez justifikatu izan da; bestaldetik marxismoaren jardun ideologikoan aitzaki harturik marxismoak bere balioa zeharo galdu duela uste izatea. Errealidadean kontraesanez betetako prozeso batekin aurkitzen gara; jakintzatasuna mito bilakatzen da eta, hori dela-ta, mito ideologikoa berari a-

rrotz zaion jakintzazko pixu bat eten gabe bizkar gainean eramatera behartua dago; prozeso honetan, beraz, mitoa berari hain arrotz zaion adimenezko pentsamenduari omen egitera behartua dago; omenaldi hori egitea, hasiera-hasieratik, bere mamiaren dohairik bereziena bait da. Marxismoaren espiritua, beraz, bere izatearen barne kontraesanetik bizi da, bi alderdiak nabarmenki mantentzen dituelarik, eta une berean, bietatik batentzat izate baldintza izanik. Jakintza, beraz, ideologia bihurtu bazen ere, ideologiak ez dauka behar haina indar jakintzarekin zeharo akabatzeko. Jakintzaren kultoa, jainko arrotzaren kultoa, beraz, askatasunez hartu bait du bere gain eta bere izate konkretoaren oinarritzat jarri du (nahiz eta bere sorreratik darion behar izatetik).

Ideologia, etsi gabe, beragan dituen intelektual haziak hitotzen saiatzea, eta une berean intelektual itxura zutik eusten saiatzea, haziak berriro itxura hortan zuztarrak botatzea eta itxurari bere higidura berezia eman nahi izatea —amairik gabeko joku honek, etengabeko borroka honek definitzen du marxismoaren azken amar urteotako kondaira, gizarte agerpen bat denez.

Ezin ukatu daiteke, ordea, ideologiak jakintzazko pentsamenduari askotan eragin dezaiokeenik, bizitza emanez —kondairak erakusten duenez—. Hauxe erakusten du, esate baterako, numeroen baliogoei buruzko pitagorikoen gogoeta metafisikoen eta pitagoriko beroien aurkikunde matematikoen arteko harremanak, edo Leibnizen ideia filosofiko nahiz teologikoen eta bere azteketa matematikoen arteko harremanak; eta azkenik, Marx beraren adibideak: honen jakintzazko ezagupenetan eragin ideologikoak zerikusi beharrezkoa dute: *Kapitala, Manifestu komunistaren* ondoren izan zen idatzia. Ideologiak munduirudia argi berritan erakus dezake, ezagumena askotan espero eztako modu era-

ginkor batean zuzendurik. Batez ere espiritu jakintzetan da hau gauza garbia. Munduikusmiren kondairaren azterketan, bakoitza bere baitan egokia izanik, bata besteagandik funtsetik berezten diren interpretazioak aurkitzen ditugu. Hauetan aztertutako gaien aukera, azterketan bertan erabilitako ideia lanabasen ondoren da. Eta ideia lanabes hau ez dute problema historikoek bladintzatzen, azterkatzailea bizi den garaiko ikusmira problemek baizik. Baina, halaz guziz ere, bere garaiko eta giroko filosofian oinarriturik dauden interpretazio desberdin hauek gai historikoaren azterketarako baliogoz beteriko iritziak eskeini ditzazkete. Horregatik da, beste arrazoien artean, hain zaila espiritu jakintzen alorrean objetibidade oso bat burutzea, baina honek ez du esan nahi jakintza hauetan aurrerapenik batere posible ez dela.

Bereala ikus daitezke ideologia desberdinek jeneralki espiritu jakintzetan eta ea oinarri metodologiko guzietan dagiten presioa. Baina nahiz ohar jabetze hau zuzena izan, zeharo okerbidekoa litzake honako sentidu honetan interpretatzea: espiritu jakintzen ideologizatze osoa nahitaezkoa dela, ideologietatik mailaka askatze prozesoa hemen ahalezineko dela, eta arlo honetan edozein aurrerapen ameslarien utopia bakarrik izan daitekeela. Honetara joko luken interpretazioa ez litzake zuzena izango, jakintzaren kondairarekin kontraesan garbian dagoelako eta intelektualki atzerakoia delako, jakintzazko iritzi egokien osatzea ahalezineko egiten duenez. Horrelako interpretazio baten aldeko denak Marxen *Kapitala* bere berezgarri ideologikoan S. Agustinen *Jainkoaren Uriatik* ez dela berezten eta Max Webersen protestantismoari buruzko estudioak Martin Lutherren predikuak bezain ideologizatuak daudela ere onartu behar du. Baina ez da honela benetan, eta desberdintasun honetaz jabetzea guziz beharrezkoa da jakintzan edozein erantzukizunik gabeko asmakeria

desegokiri aurre egin nahi bazaio. Asmakeria mendera ezineko litzake ideologiazkoa jakintzazkotik garbi eta konzeptualki ezin berez daitekeela onartuko balitzake.

Halaz ere, esan bezala, espiritu jakintzetan objetibidade osoa ezin lortu daitekeela iruditzen zait, hau da: bai gizonak, izate biologiko bezala, duen ezaguera gaitasun mugaketaz, bai gure ezagutzearen jabego mailako gizarte baldintzez desitxuratu gabeko gizarte munduaren ezaguera bat lortzea. Gizarte erakunde guziek berdinak zaizkien gizarte bizitzaren baldintza orokarrak badituzte. Haueri dagokienez, ezaguera eraginetik askatu ahal izatea, noski, ezinezkoa da. Eta honelako askatze edo emanzipazio bat posible izango balitz ere, ez legoke inor hori frogatu ahal izateko, hortarako gizona gizartezko izate bezala mugatzen duten harremanen eraginaren kontra txertatuta egon beharko bai luke.

Beste galdera bat egin dezakegu ordea: ezagumena, ez gizonak gizartezko izate bezala duen izaeratik, baizik eta gizarte barruko banaketetatik sortzen diren desitxuratzetatik askatu ote daitekeen. Banaketa hoietatik zein daitekeen garrantzitsuena eta oinarrikoena, eta zer sentidutan —galdera hau alde batera uzten dugu; ezaguna bait da banaketa jakin batzuek aztertzailearen baitan sortzen den gizarte irudian ageriko eragin bat dagitela (ez klase banaketak bakarrik, baita lanbide —ofizio— banaketak ere), gizarte bizitza deskribatzeko zerbitzen duen ideia lanabesa behartu eta galdera jartzeko modua bortxatu egiten dutela.

Ez dago gizarte bizitzaren azterketa metodorik, aldez aurretik onartutako hipotesia jakin batzuetatik zeharo askatuta dagoela esan daitekeenik. Logika hutseko operazioak orokar baliodunak bezala jo ditzazkegu, baina epai edo judikapen hipotetikoak bakarrik ahaltzen dizkigute. Azken finean zera bakarrik adierazten dute:

logika mailan zuzenak diren judikapenak baliogo berdinekoak direla. Aitzitik, judikapen baten mamiaren egiaz edo okerraz ezin ezer esan dezakete (barne kontraesanaz beste). Orokarki onartutako metoduak zenbaiteraino hutsegin arazi dezaken, estadistika zuzen batzuen laguntzaz gizarte errealidadearen irudia sustraiki desitxuratu ahal izatearen errealidade xeheak erakusten du. Estadistika zuzenek ere fenomenuen aukeratzean iritzi jakin batzuek presuposatzen bai dituzte. Aldez aurretik onartutako hipotesiak errealidadea galdetzeko moduan gordeta daude, baita galdera egite honetatik erantzun garbi bat lortu behar denean ere. Esperimentu moduan aztertu dezakegu, esate baterako, gizarte jakin batetan elizkizunetan parte hartzeak ikasketa mailarekin duen zerikusia. Galdera estadistika mailan azterkatu daiteke eta, modu orokar honetan, arazoa guziz zuzen planteatuta dirudi hemen.

Baina guk ez dugu jarraiko hau galdetuko: ea zer harreman dagoen burusoil eta hileduen arteko banaketaren eta gizarteko eskuin ezkertiarren arteko banaketa politikoaren artean, zeharo zentzugabea iruditzen bait zaigu galdera hau. Gizarte agerkarien arteko harremanei dagokien galdera ezin egin daiteke galdera egitea onuragarria izango den ala ez jakin gabe. Goragoko galderaren zentzurik eza gauza garbia da, baina kasu askotan galdera zentzuz beterik egina izan den ala ez jakitea ez da gauza erraza. Klase banaketarekiko gizarte bizitzaren beste formen menpekotasuna azterkatu nahi baldin badugu, guziz funtsezkoa da jakitea lantresneriaren jabegoaren kriterioan oinarritzen den Marxen klase ideia onartzen dugun ala beste bat —bakoitzak nazio errentan duen partearen iritzia, adibidez. Gai honetan zein den banaketa hoietatik garrantzizkoagoa erabakitzea gauza gaitza da eta galdera osoa eragin ideologiko indartsu baten mendean dago. Gizarte talde eta maila desberdin bakoitzak gizarte fenomenu-

en aukera jakin bat aldez aurretik mugatzen duten ideia sistema propioak sortzen dituzte. Gizarte giro edo klase jakin batzuek berez gutiago ideologizatutako ideia lanabesak osatzeko joera dutela suposatu dezakegu; halaz ere, bereziki gaitza da horrelako objetibitatearen egoera zoriontsua posible egiten duten baldintzapenak zeintsuek diren erabakitzea; soziologia ere bere giro-inguruko gizarte eraginetatik askatutako sustantzi garbi batetan ezin bihurtu daitekeela konsideratzen bada —ulertze desberdinen eztabaida, bertan hartukizunik izan gabe, kanpotik behatu eta epaitzen duen sustantzia. Jakintsuak, gizarte fenomenuen azterketa objetibuari dagokionez, egoera pribilegiatu batetan aurkitzen direla esan genezake, intelektual edo jakintsu talde berezi eta itxiak osatzen dituztenez, talde honetakoa izatearen azaleko edo benetako kontzientzia beste gizarte loturen kontzientzia baino handiagoa bait da. Baina hoietan ere, lan baldintzapen konkretoak eraginik objetibidadetik aldentzeko berezko joera sortzen da. Hori, esate baterako, intelektual edo jakintsu taldearen gizarte eginkizuna gehiegi baloratze nabarmenean eta, jeneralki, intelektualen eginkizuna neurrigabe azpimarkatzean azaltzen da. Horregatik, gizarte agerkarien azterketan zeharo loturarik gabe egotea ezinezkoa da.

Lehenago esan bezala, honek ez du esan nahi sentidu honetan jakintzan inolako aurrerapenik posible ez denik, edo-ta desmenpekotze mailatu bat posible ez denik. Azterketa historikoak igarotako garaietako talde desberdinek sortutako deesitxuratzeak ikustea ahaltzen digu noski, zeinekiko baloratze konpromisoaren edonolako harreman pertsonal zuzenekoa galdua dugun. Elkarrentzat zeharo hertsiak izan gabe eta gizarte baldintzapen bereziak behartutako ezaguera sistema berezietatik darioten ideia lanabes ezagun desberdinak

eta ikusmira ezberdinak etengabe elkar aurkeztea posible da. Honelako elkar aurkezteak ideiak lanabes desberdinen nolabaiteko elkar osatze batetara darama beti, eta danekiko lanabes berdin baten osatzea laguntzen du. Horrelako lanabes bat badago, dagoneko, espiritu jakintzetan eta hazitze joera ageri du. Hortaz gainera, bakoitzaren gizarte baldintzapenen eragin mendean egotearen kontzientzi garbia izatea posible da, eta menpekotasunaren kontzientzia askatasunaren erdia ba da.

Faktore guzi hauek jakintza giro jakin batzuen partikularismotik (bakoitzkeriatik) askatze mailatu bat ahaltzen dute noski, baina errealidadea giza antzera ikustetik ezin askatu gaitzazkete, erraz eraso daitekeen ikuskera, baina, une berean, guk izan dezakegun bakarra.

Guzi honekin loturik, hain zuzen, *ideologiaren eta jakintzaren arteko diferentzia egiaren eta gezurraren artekoa ez dela* behin gehiago azpimarkatu behar da. Konstantinowren *Materialismo dialektikoaren* ikasliburua lan zeharo ideologikoa da, nahiz egiazko esaera mordoska bat eduki. Eta egiaz bakarrik osatuta balego ere —eta ez da hau kasua— ez litzake horregatik bere karakter ideologikoa aldatuko, eta S. Agustinen *Jainkoaren uria* bezain ideologikoa ta ezjakintzazkoa geldituko litzake. Eta S. Agustinen lana bere presupostuetan okerra da (nahiz eta Konstantinowren ikas liburua baino sortzaileagoa eta ideiatan aberatsagoa izan, hura ikastola katekima bat besterik ez bait da; ideologi mailan, gizarte kontzientziaren edozein arlotan bezala, agerpen sortzaileak posible bait dira).

Agerpen bat ideologi mailakoa izatea ez du bere mamiak erabakitzen, batez ere edozein mami onartze edo ukatzeak baizik. Ideologiaren garrantzizko berezga-

rri bat bere jardute pragmatikoa da, bere barruan dituen elementoen onartzeko edo ukatzeko adimenezko inolako arrazoirik eza. Zentzu honetan jakintzatik at kausitzen da. Eta ez da ezjakintzazkoa bakarrik bihurtzen, baita jakintza aurkako ere, Konstatinowen ikasliburuarekin gertatzen den bezala; honek bere gaiean adimenezko pentsamendua gizartean *ordezkatzea* bilatzen bait du.

Ideologia, jakintza —gaur eguneko ohizko sentiduan— ez bezala, talde, partidu, edo klase bakoitzaren gizarte eginkizunari menperatuta dago, ez bere problema mailan bakarrik, baita bere mamian ere. Mami honek, arrazoi horregatik, aldabera eta zauli izan behar du, honela beharren arauera eratu ahal izateko. Ideologiaren sustraiko bigarren berezgarria honi loturik dator: nahitaez ilun eta adierabikoa izan behar du. Bere formulak ahalik eta denborarik luzeenean aldatu gabe gorde behar bait ditu, sinesmenaren indarra gorde ahal izateko, batetik, eta bestetik, bere jardunean eraginkor izan nahi badu, formula hoien zentzua etengabe aldatu behar du eta une bakoitzeko eginkizunari egokitu. Horregatik 1870. lehendabizikoz onartutako *hutsezinaren* dogma, beste edozein dogma bezala idazteunean aurkitutakoa izan zen, noski. Dogmak ez bai dira aldatzen eta ezin bai daitezke berri bezala finkatu, lehendik diren eta santutuak izan diren idatzi kanonikoetatik atereak baizik. Horregaitik sozialismoa herri bakar batetan eraikitzearen teoria Leninen, eta are gehiago Engelsen idaztietan aurkitutakoa izan behar zuen.

Baina ideologiaren sendotasun erlatibuak bere mamiaren interpretazioa instituzionalki ontzat emandako moduetan monopolizatua denean bakarrik irauten du. Hau da: ideologiaren mami jatorra agertzeko bakarrik deitua izan den apaiz kasta bat dagoenean. Pentsamen-

du ideologikoaren pentsamodu tipikoak diren ortodoxiaren edo dotrinarekiko leialtasunaren ideiak orduan bakarrik bait dira posible. Beste hitz batzuez: erakunde moduan sendotzen denean lortzen du ideologiak bere biztzaren betea, apaiz kasta bat eta eztabaidatu ezineko aginte bat erakunde bat oinarri dutela bakarrik pentsa bait daitezke. Eratu gabeko ideologiak bizitza labur bat dute eta ertz garbirik gabeko mamia.

Ohar hauekin ez dut ideologia agerkizuna deuseztatzeko programa bat formulatu nahi. Horrelako ekintza-arau bat guziz itxaropenik gabea bait litzake, erraz hauteman daitekeen bezala. Ideologia mailakoak dira judikapen moral eta politikoak, ta jarduketa honen ezak ezineko egingo luke bizitza. Ideologiatik zeharo askatzeko oihua irudipen inuxente bat da eta ideologiatik libratu direla uste dutenak ideologiaren seinale garbia duen mistifikatze baten mende erori dira. Zeren eta ideologiaren ezereztea eskatu aurretik ideologiaren balioa neurtu behar da, eta hau, berriro, ekintza ideologikoa da. Aitzitik berriz, ideologia *desorokartzearen* dei-otsa ez dirudi itxaropenik gabea, eta nahiz ideologiak bere lege berezien auraura bizi eta hoiek gainditzeko borondate ona nahikoa ez izan, halaz ere, ideologiaren arloa mehartzen eta jakintza pentsamenduan duen ezerezte eragina geldiaraztean ahalegintzen den jardunak zerbait lortzeko itxaropena izan behar du. Itxaropen honen kontra iritzi hau dago: jakintza pentsamendua, espiritu jakintzetan, nahitaez ideologiaren langailu bilakatuko dela alegia, honako esaera itxuragabe honek dion bezala: ideologia eta jakintza ezin erreparatu daitezke bata besteagandik banaturik, eta hau praktikan pentsamendu mailan ideologiaren edozein erasori baietza emateko bidea da. Honelako iritzi batek maila honetan eztabaida oro ukatzen du, ideologien artean ez bait dago eztabaidarik, errealidadean oinarritutako berezketarik, indar-

keria materialetik hasi eta medio guzietara eskubide duen borroka baizik.

Ideologiek bide espiritual hutsak erabiltzen dituztenean ere ba dute eraginik,ez adimenezko arrazoien bidez, esterotipoen bidez baizik, sentimenduetara joaz, maisu handietara, tradizioetara, irudimenera, nahikundeetara, aurreiritzietara, superstizioetara, ipuinetara, arrenguratara joaz. Ideologien arteko borrokan ez dute argudioak erabakitzen, indarrak baizik, —ez dauka beti indar fisikoa izan beharrik, nahiz hau berezko bide natural bat izan—, gizarte baitan dauden amaika sena irrazionalen indarrak. Gizarte kontzientziaren bizitza legeen menpean dago, eta bestela izan daitekeenik uste izatea, hau da, adimenaren erreinua errealidade bihurtzea posible dela —zein erreinutan gizarte kontzientziaren aldaketa guziak oinarri logikoen zeru oskarbian burutuko diren— ameskeria izugarri bat da. Ameskeria hau ez da berez gaitzeko, aitzitik baizik, onuragarri izan daiteke, adimenezko jokabideen eragin maila gizarte bizitzara heda arazten duenean. Honelako hedatze batek, eragozpen askori loturik egon arren, aurrerapenak lortu bai ditzazke, nahiz eta oso makal. Adimenaren erreinua dagoneko gorpuztua dagoela, adimen hutsa munduko erregearen jaurgoian eseririk dagoela eta erresuma zuzentzen duela adierazirik hasten denean ameskeria hori, orduan harriskuzko ta beldurgarri bihur daiteke. Orduan jakintzazko ideologia bizitza maila guzietan diktadore bilakatzen da, orduan atzerri politika zientifiko bat dadukagu, jakintzaren araura zuzendutako pintura, eta musika, jakintzan oinarritutako aberri maitasuna, hitz batez: *eguzki erresuma* itxura farregarrian.

Jakintzazko nahikundez jantzitako ideologiaren satrapia, esperientziak erakusten duenez, bereziki beldurgarria da, bizitza maila desberdinetan bereziki era-

sogile delako. Gizarte errealidadeko maila desberdinetan ideologiaren eraginaren mehartze bat litekeena ote den eta zenbaiteraino —ez dugu horretan hasi nahi, jakintzazko pentsamenduak ideologian eraginik jardun ote dezaken eta zenbaiteraino, eta *jakintzazko munduikusketa* esaerak sentidurik duenentz (nere iritziz ba du bai sentidurik). Nahikoa dugu gure konbenzimendua adieraztearekin, zera alegia, *aro ideologikoaren amaia* izarrak bezain urrutiko gero -batetan datzala, kondaira--igarleen begientzat ere itxirik datzan geroan. Mogimendu aurrerakoi guzietan betidanik bizirik dagoen itxaropena —adimenak, azken finean, garaile izan behar duela alegia— ezaguna denez kondairako kurpilek beti berriz txikiatu izan dute. Kondairak izan ere itxaropen hori erraztasun harrigarriz zeharo zapaltzen bait zuen, eta razionalista inuxenteeri, adarra jo nahiean edo, mundu bat eskeini zien, zeinetan argudiorik burugabeenak garaitzarik dizdiratsuenak ospatzen zituzten.

Gauzak horrela egoteaz bat harritu daiteke noski, eta bere ondorenen artean arraza gorrotoa, nazionalismoa, pentsamendu erlijiosoa edo gudu poza bezalako aurrerapenaren aurka gogor dauden gizarte fruituak egotea damutan hartu, —jakintzazko pentsamenduan oinarritutako herri kulturaren hedatzeak halaz guziz ere burutzen duen aurrerapenaren aurka—. Baina kondairako legeez harritzea, hauk sekulan ez ulertzeko bide bat besterik ez da, eta nork bere burua urkatzeko arrazoi on bat bilakatu daiteke. Adimenezko pentsamenduak, ordea, ideologiaren inperialismo lapurraren aurkako borrokan garaipen apal bat irabazi du. Garaipen apal, nekez erdietsitako eta garesti pagatutako honetan hartukizun izan nahiago dutenak —mito itxuragabeak eta neurrigabeko estereotipoak heuren boterea ulermen jatorraren indar ahulen kontra etengabe demostratzen dutela ikusiz pauso bakoitzean harriduraz hiltzen egotea baino— haientzat onuragarriagoa da heuren ardura es

perientziak erakusten duenez ideologia garaitzeko posibilidade jakinak dauden mailan jartzea. Zihur gaude gu espiritu jakintzetan honelako aukerak ba direla, batez ere Marx geroztik egon direla. Honi ez bait zitzaion nahikoa, Comteri bezala, metafisika jakintzatik bereztea, baizik eta kontzientzia ideologiaren bitartez bortxatzea gizarte borroken ondorio bezala azterkatu zuen. Marxek bazuen itxaropenik gizona, proletargoaren klase borroka bitartez, norgaldutako kontzientziaren loturetatik berehala askatuko zela. Itxaropena hau gezurrezko gertatu izanik ez du marxista dotrinaren muina desbaliogotu, dotrina hau bera, bere kondaira aztertzeko ere erabili bai daiteke.

Guk ez dugu beraz ideologia ororen ezereztea —ezinezko izaki— oihukatuko, eta ideologizatutako kontzientziaren era jakin batzuek, batez ere baliogoei dagokienez, gizarte bizitzan ezinbesteko direla onartzen dugu. Ideologia beste ezerk bete ez ditzazkeen gizarte eginkizun jakin batzuek betetzen dituen irudikatze bat da. Ideologia giroan ere ba dago leku sorketarako eta eraberritzeko, aurrera egiteko, ala geldirik jarraitzeko, kultur osatzaile diren baliogo desberdinak jasotzeko, ala hoiek berak ezerezteko, biltzaile izateko ala kultur maila desberdinetan oztopo izateko.

Sozialismoaren ideiak karaktero ideologikoa daramala diogunean ez dugu ideia honen baztertzea eskatzen. Baina sozialismoaren ezinbestekotasuna fisikako lege bat bezain zihurki eta zehazki frogatua dagoela uste izatea, inuxentekeria da. Zalantzarik gabe Marxen interpretazioan sozialismoak ikusmira guziz bestelakoak ditu Fourierenaren aldean. Marxengan sozialismoarekiko sinesmena argi frogatutako garrantzizko presupostuetan sustraitzen da. Halaz ere ekintza ideologikoa ez da sozialismoa baliogo bezala aitortzea bakarrik, sozialismoaren baliogoak praktikan egikaritu daitezkee-

la sendo uste izatea ere bai. Uste sendo honek ustegabe edo zori itxuaren elemento bat ezkutatzen bait du, harrisku praktiko bat. Harrisku honetan exitoaren jakintzazko zihurtasun absolutoan sendo uste izatea, onespen ideologikoa da, justifikatze mistifikatu bat. Sozialismoa ezinbestekoa dela aldez aurretik zeharo zientifikuki ikusi ahal izatea, sinesmen-ekintza ideologikoa da. Aitzitik, jakintza ideologiaren etengabeko mehatxutik askatzeko egitamua, egikaritu zaila izan arren, ekintzan pausoz-pauso aurrera eramatea ez da ezinezko. Horrelako egitamu batek politiko erakundeak harriskuan jartzen duten jakintzaren askatasunaren aldeko borroka izan behar luke, batez ere gai. Eta, baita ere, adimenezko bizitzan gizarte kontrol eta gizarte egiztatze metodu eraginkorrak osatu. Egitamu honen burutzea ez dago giza banakoaren kontzientziaren mende bakarrik, baizik eta ideologiaren eragin astunaren benetako indarraren mende ere bai. Baina kontzientziaren eginkizuna ez da horregatik txikiagoa, gizonak, bere egoeraren harriskuaz jabetzen denean, egoera honen ondorenak goxatu, gutitu ditzazke, nahiz zeharo galerazi ezin.

Azken garai honetan erreparatu zitezkeen marxista ideologiaren desarroilo atzerakoien agerkizunak. Halaz ere, gure iritziz, desarroilo jeneralak gehiago jotzen du beste sentidu honetan: ideologiaren gehiegikeria agresiboak geroz eta gehiago mugatze sentiduan. Hau da: ideologiari bere boterea moztera eta bere hedatzea muga apalagoetan eustera behartzen zaiola. Polonian ideologiaren eragina izadi jakintzen mailatik kanpora bota da, erti sorketa mailan neurri handi batetan ere bai (honek ez du inola ere esan nahi —zentzugabeko pentsamendua— inspirazio ideologikorik gabeko erti lanik inun egon daitekeenik; baina inspirazioa eta ertia erakunde politiko batek zuzentzea bi gauza desberdinak dira orotara. Sentidu honetan Polonian errealismo sozialistara itzultzea erti bizitzaren organizazio

sistema bezala, errealismo sozialistara, dotrina bezala, itzultzea bezain sinestezineko dirudi. Errealismo sozialista dotrina bezala bere oinarririk garrantzitsuenetan —ertian kontraispilatzearen teoria edo erti baiezkorraren eslogana, adibidez— objetiboki faltso eta ertiaren benetako kondairarekin elkartu ezineko agertu bait zen. Baina ez hori bakarrik. Ekintzan herio ondorenak zekarzkien erti mailako sorketaren desarroilorako).

Neurri honetan bakarrik da oinarritua marxista ideologiak, hau da erakundezko marxismoak —itxura honetan bakarrik azaltzen bait da ideologia hau gaur— jakintzaren ordezko izateko nahikundean etsiko ote duen itxaropena (jakintzazko ideologia baten edo ideologia suntsitzearen itxaropena berriz oinarririk gabekoa dager). Ideologiak, ordea, indarraren aurrean bakarrik etsitzen du bere nahikundeetan. Indarkeria hori beste ideologia batetik etor daiteke, eta baita ere, kondairak erakusten duenez, jakintzatik. Mendebalean kristau ideologiaren diktaduraren aurkako ehunka urteetako jakintzaren borrokak erakusten du borroka hori ondoren onuragarriz aberatsa dela. Borroka honek ideologia behartu dezakeela bere nahikundeetatik zati bati uko egitera; beharturik noski eta borondatearen aurka.

Kondaira, ordea, geroz eta abiada azkarragoa duen higidura izaki, itxaro dezakegu gaurko egoeran honelako bilakaerak ez dutela gehiago ehunka urterik beharko.

INTELEKTUALAK ETA KOMUNISTA MOGIMENDUA

PENTSABIDE

1. *Nor da intelektuala?: izpiritu lana bizi- edo ogibide duena:*

   — *izpiritu tresnak bere esku ditu,*

   — *ez hala ekonomi eta politika medioak,*

   — *eta azken medio hauek dituztenen mende eror daiteke.*

2. *Agintean dagoen edozein talderentzat intelektualak beharrezkoak dira. Hauengan oinarritu nahi izaten dute beren boterea.*

3. *Komunismoarentzat duten garrantzia:*

   — *komunismoaren helburuak eta jakintza zientzi mailan oinarritzeko,*

   — *komunismoaren gaur eguneko arazoak lantzeko. Arazo hauek ongi lantzeak garrantzi handia izan dezake komunismoaren etorkizunerako.*

   — *gizarte barneko harremanak beren aldaketetan aztertzeko. Hori zientzi mailan bakarrik egin daiteke. Ideologiak ezin dezake teknika ordezkatu.*

   — *intelektualak dira, beraz, kultura sozialistaren sortzaileak, batez ere zientzi eta erti mailan. (Langileriaren borroka eta egoerak badu eraginik kultura sozialistan).*

4. *Aginte politikoak, intelektualak eta zientzia bere menpe har ditzake. Orduan teoria bat (komunismoa) ideologia bilakatzen da, eta ez oldeetara zabaltzen delako, monopolizatua delako baizik. Honen ondorioak:*

   — *zientzia, aldez aurretik onartutako erabakien frogatzeko erabiltzea: zientziak* post factum *obratzen du, apologetika bihurtzen da.*

   — *ideologia ilun, zehaztasunik gabeko, adiera askoko bihurtzen da.*

   — *azkenik, sistima hitsi bat, denetarako erantzuna duena, mitologia.*

5. *Egoera honetatik irten ahal izateko zientzi lan sakon*

bat egin behar da. Hori da jakintsuen eginkizuna. Eginkizun hau posible izan dadin, zientziaren eta politikaren harremanak behar bezala eratu:

— *azterketa gaia arrazoi politikoetan oinarriturik ez mugatzea,*

— *zientziako egiarik politika mailan zuzen ez deklaratzea,*

— *zientzia, onartutako erabakien apologetika ez bihurtzea,*

— *egia guziak zientzi mailako eztabaidaren menpe egotea.*

6. *Ondorenak:*

— *joera honetan lan egin behar dute intelektual komunistak, beren burua erlatibatuz, zientzi maila jasotzen ahaleginduz.*

— *arrisku bat: marxismoa onartzen duten guziek zientzi mailan oinarriturik onartzen dutela uste izatea; marxismoa, neurri batetan jendearentzat sinesgai dela ahaztea.*

— *zientzi mailako eskabideak: guzia berriro azterkatzea, guzia zalantzan jartzea.*

— *intelektual komunistak menpetasun politikorik gabeko pentsatze baten aldeko izan behar dute.*

Jakintsu hitzez beren bizibidea izpirituzko lanetan dutenak, edo gutxienez bere jardun nagusitzat honelako lanen bat dadukan jende ikasi guzia adierazten badugu, ez da zaii erabakitzea ikasi hauek, kondairan estaduak sortu zirenetik, estadu hoien funzionamendurako beharrezkoak direla. Talde honek gizarte kapitalistan duen egoera berezia gauza biri zor dio: batetik, ikasiak direnetatik gehienak, gizarte kapitalistan, bere espiritu mailako lanetik bizi dira eta ez, aintzinatean bezala, une berean lantresneriaren jabegotik; bestetik formazioak, jakintzak, bizitza kulturalak, izpirituzko hezierak gure egunotan gero eta garrantzi handiagoa du;

aginte jarduna zenbait eta demokratikoagoa izan, hainbat eta handiagoa da garrantzia. Gizarte moderno bat medikurik eta injinadorerik gabe ezin bizi daitekeela, eralguntza eta hauzi kontuak hortaratutako espezialistarik gabe ezin aurrera eraman daitezkeela alde batera utzita, intelektualak izpiritu medio gehienak eta heziera eta kultur mailetan eragiteko gaitasuna ere eskuetan duen talde bat osatzen dute. Aitzitik, ez dauzka bere esku (edo oso neurri txikian) medio material eta teknikoak. Horregatik ekonomikoki indartsuenak diren edo estaduan agintea dutenen mendean erraz erortzen da. Menpetasun honen zenbaiterainokoa, *jakintsuen* bere gain dagoen sistema politikoarekiko loturaren hertsia bezala, bere atal banakoetan desberdina da. Agerikо gauza da kapitalista herrialde batetan funzionario taldea artista jendea baino askoz ere kontserbakorragoa izan behar duela, agintean dagoen sistemaren iraupenean ikusten bait du bere bizibidearen oinarria.

Jakintsuetaz mintzatzen naizenean irakasle-jakintsuak deitzen ditutenak ditut nik batez ere buruan. Hauen artean ez ditut ikastola maila guzietako irakasleak bakarrik ulertzen, baizik eta bizibidezko eginkizun bezala izpirituzko kultur baliogoen, edo jakintzaren, munduikusketen, gizarte bizitzako ezagueren, iritzi politikoen sortze edo tartekotzean dihardutenak ere bai, hau da, zientifiko, irakasle, ertilari, periodista, propagandista etab. Batez ere bere bizibidezko eginkizuna gizarte bizitza eratzeko beharrezkoak diren arloetako lan teorikoetan jarduten direnetaz ari naiz bereziki. Agintean dagoen klase baten izpirituzko boterea, izan ere, bere botere materiala baino neurri handiago batetan klase honekin loturik dagoen *jakintsu* talde bat izatetik dario. Horregatik, edozein gizarte eratan, agintean dauden taldeak aginte hau, ahalik eta neurririk haundienean, *jakintsu* taldearekin elkarlanean jarduten saiatzen dira. Bestela gobernu sistema polizian eta gudutaldee-

tan oinarritu beharko litzake. Baina hauek, nahiz itxuraz efikazia handikoak izan, agintebide guziak hauekin agortzen badira, oso oinarri fidakaitza osatzen dute, esperientziak erakusten duenez. Zenbait eta handiagoa izan *jakintsu* taldearen parte hartzea gobernu sisteman, hainbat eta meharragoa indarkeria aparailuaren zatia, nolabait. Izan ere zenbait eta gutiago izpiritu bidez agindu ahal izan, hainbat eta gehiago egin beharko indarkeria bidez. Horregatik dira intelektualak poliziaren eta militarren berezko gorroto gai.

Baita ere gauza guziz garbia da mogimendu komunista eratua, *jakintsuak* talde burgesekoak izanik, proletargoaren ikusmirak onartzeko gai izan eta proletargoaren joera historikoari dagokion jokaera heuren bizitzan hartzen duten gizonen hartukizunik gabe pentsaezinekoa dela. Hori, nahiz eta langilediaren borroka ekonomikoa berez jakintsuen hartukizunik gabe sortu ahal izan.

Sozialismo zientifikoaren teoria ezin zitekeen ez klase borroken ekarri automatikoa, ez klase senaren ekarria, ez langile soilen lana izan; hortarako ikasketa luze, sakon eta berezien bitartez bakarrik lortu daitekeen gizarteari buruzko jakitate guziaz jabetzea beharrezkoa zen. Hortatik, —Leninek dion bezeala—, ideologia sozialista langile mogimenduan kanpotik sartu beharra. Langiledia bera ez bait zen ideologia hori sortzeko gai. Horregatik ez da inola ere ustegabeko proletargoaren bururik garrantzitsuenak —Marx, Engels, Lenin— bere formazioz, jatorriz eta ogibidez intelektualak izatea. Eta hauetatik inork ezin bete ahal izango zukeen bere eginkizun politikoa bere garaiko gizarte bizitza ekonomi eta politiko aldetik azteretzeko eta alderdi hauen geroko aldaketa posibilidadeak ulertzeko jakite mailan gaitu izan ez ba zen.

Eta gaur egun ere gizartearen jakite teorikoa mogimendu komunistaren borroka eraginkorraren aurrebaldintza da. Aurrerantzean ere balio du beraz, mogimendu hau, bere horretan gelditu nahi ez badu, intelektual komunistak sortu eta desarroilatutako teorien aurrerapenak bizitu behar dutela esateak. Intelektualen eginkizuna askoz ere handiagoa izan da komunista mogimenduetan *Labour Party*-ren gisako alderdietan baino. Hauetan berehalako lorpen ekonomikoetara jo dute gehienbat, eta aginteaz jabetzeko proletargoaren borrokaren ikusmira eta aginteaz jabetuz geroko bizitza ekonomikoaren eratzea alde batera utzi dituzte. Aitzitik, bere helburu politiko bezala burges agintea porrokatu ta giza bizitzako maila guziak aldatzea duen mogimenduak ezin dezake aurrera egin uneoro kritikatu, egiztatu, eta jakintzaren egoera berriari egokitutako teoriarik gabe. Hau guzia beharrezkoa du garaiko egoerari eta etengabeko gizarte aldaketeri beti egokitu ahal izateko. Intelektualak, ekintza politikoaren oinarri teorikoak jartzen dituztenak, ez dira, beraz, langile mogimenduaren *laguntzaile hutsak*, mogimendu honen izatearen nahitaezko baldintza baizik.

Intelektualak langile mogimenduan duten eginkizuna marxismoa gaur egunean dagoen irtenbiderik gabeko bidean nabarmentzen da bereziki. Gaurko garaiari, bonba atomikoaren garaiari, inperialismoari bere gaurko aroan, gaurko kultura burgesari, eta kapitalista ez diren estadu talde bati egokia daitekeen marxismo bat birjasotzea, komunismoaren geroan garrantzizko itzala izan dezakeen eginkizuna da. Gauza garbia da, esate baterako, txartze orokarraren legeak gaurko mundu kapitalistan oraindik balio ote duen galderari erantzuteak eragin handia izan dezakeela mundu guziko langile mogimenduan. Galdera hori, ordea, ezin daiteke esaera batekin edo kasuistika sofistiko batekin baztertu edo eliminatu. Galdera hori erantzuteak gauzaren egoera ob-

jetiboa zein den erabakitzeko joerak bakarrik, eta ez beste ezerk, mugatu dezakeen jakintzazko ikasketak eta eztabaidak galdatzen ditu. Berdin gertatzen da krisiaren teoria marxista gaur eguneko kapitalismoari buruz erabakitzerakoan, eta iraultza sozialistaren teoriarekin. Arazo hauetan oinarri objetiburik gabeko oharrak ez bait dira nahikoak. Baita ere berdin gertatzen da alderdiaren teoriarekin eta alderdiak bere aginte maila den estaduan duen eginkizunarekin; eta batez ere alderdi erakundearen sustraiko eginkizuna estaduaren produzio sistemaren ondo funzionatzeaz kezkatzea dela, eta lantegietan buru-belarri dagoen funzionarioaren eginkizuna betetzea dela dion interpretazioarekin bereziki. Horrela gertatzen da komunista alderdiek gobernatutako herrietan agintearen gurpilarekin lotutako arazo guziekin, eta bizitza politikoak, erakunde ekonomikoak eta gizarte jerarki tipo berri baten sortzeak elkarrekin dituzten zerikusietatik sortzen diren arazoekin. Askatasun osoan burututako horrelako azterketarik gabe —eta honek, beste gauzen artean, soziologia, jakintza oso eta berezi denez, birjasotzea galdatzen du, eta ez esaera herrikoien bilduma bezala— alderdiak ezin ditzake bere erabakien ondorenak ez ezagutu, ez aurrez ikusi. Eta orduan harrisku bat sortzen da: edo lege ekonomikoen ordez ekintza ideologikoak balio duelaren uste inuxente, ustel eta nabarmenki idealista zabaltzen da, edo teknika eraltzeko gai ez izateagatik errepresio bide gogorragoak erabiltzeko beharra sortzen da. Nola nahi ere, gauza bat bai badago garbi: zenbait eta gutiago asmatu gauzak eraltzen, hainbat eta behartuagoak aurkitzen gara gizonak eraltzera. Orduan gerta bait daiteke asmo onak bere kontrarioetan bihurtzea eta onartutako erabakiak, gizarte bizitzaren barruan aldaketa harremanak ezagutzen ez direlako, ustegabeko ondoren harrigarriak eguneratzea.

Baina *jakintsu* taldearen eginkizuna mogimendu ko-

munistan ez datza ekintza politikorako behar-beharrezkoa den lan teoriko sortzailean. *Jakintsu* talde hori da kultura sozialistaren berezko sortzailea, bere maila ezberdinetan, batez ere intelektual eta erti mailan. Hau da: klase borrokari darraion eta kapitalismoa porrokatzera daraman bilakatze historikoari forma edo era bat ematen dio *jakintsu* taldeak, gizarteari dagokiona eta gizarte kontzientzian eraginkor izan daitekeena. Kapitalismoaren baldintzapean proletargoa, halabeharrez, hertsienik loturik dagoen taldeen etengabeko eragin kulturalaren eraginpean aurkitzen da, talde hauen eta proletargoaren artean etengabeko haruntz-honuntza bat bait dago: nekazari taldea eta hirietako burgesalgo txikia. *Jakintsu* taldea bazterreraturik, zail askatuko du langilediak bere burua burgesalgo txikiaren kulturazko eraginetik (*jakintsu* taldea, beste gizarte arrazoi batzuegatik, bere bizitza langilediaren zoriarekin lotu gabe kapitalismoaren menpetasunetik askatu ezin daitekeen bezelatsu); gizarte berriko izpiritu bizitza eta sozialista kulturaren hazi guziak nekazari kulturako gusto eta ohiturek ito ditzazkete. 20 mendeko erti abantgoardak —pinturan, literaturan, antzerkian— gehienetan (ez beti, noski) zuzenbide politiko ezkertiarra zuen oinarri: horrela ziren espresionismoa, futurismoa, kubismoa (*erti bolchewista da kubismoa,* idatzi zuen Hitlerrek bere *Mein Kampf* liburuan). Horrelako joera askotan, agian, geroko munduko kulturaren hazia zegoen —eta dotrina ofiziala hoietatik gogor apartatu zen—. Ez zen besterik gertatzen jakintza bizitzako maila desberdinetako joera sortzaile berri askoekin. Guzi honek ez du adierazi nahi langilediа berarekin zer ikusirik gabe gertatzen den sorketa kulturalaren objeto pasibo bakarrik izan daitekeenik. Garbi dago langilediaren borrokak eta egoerak kultura sozialistaren sorrera baldintzatzen duela, kultura honen alderdirik garrantzitsuenak, batez ere moral bizitzan, klase borrokaren bilakaeran berez osatuak izanik. Baina, nekazari jendea

ugari den herrietan batez ere, langiledia ezin daiteke burgesalgo txikiaren kultura eta bizikeraren eragin indartsuari zerbait lortzeko moduan kontrajarri.

Gaur eguneko espiritu bizitzaren egoeran, ertirik —indar izugarriko gizarte medio bat— ezin daiteke sortu espezializatutako talde bat oinarrian sortzen ez bada; eta gizarte neurrian *jakintsu* taldetik at ezin daiteke goreneko maila batetara jaso.

Baina estaduaren bizitza politikoa ta ekonomikoa, alderdiak zuzentzen duena, eta alderdiaren bizitza bera ere jakintzazko sortze kulturalaren menpe baldin badaude ere, aginte politikoa jardute sistemaren menpekoago da sorketa hori. Erraz ikus daitekeen gauza da agerpen kulturalak direla —gizarte gorputzaren atalik minberenak bezala— gizarte gorputz horretan sortu daitezken endekatze habi guzien eragin deuseztatzaileak gehienbat jasan beharrean daudenak. Berezko gauza da *pertsonen kultoa* esaera sinboliko ta ohikoaz adierazten diren agerpen multzoak —bakarkako agintearen edo oligarkiaren alderdi guziak bezala— bere eragin deuseztatzailea ta antzulea ageriko bizitzan luzatzen duela. Demokraziaren oinarriaren etengabeko bortxatzeak, hau da, herri iritziari gizarte bizitzari buruzko erabakietan hartukizun izaten uztearen printzipioa bortxatzeak, (mogimendu iraultzailea talde erlijioso batetatik funtsez berezten duen printzipioa beraz), ondorio negatiboetara eraman zuen. Ondorio hauetan harriskurik handienekoak oldeen asmakizun indarrak moztea, kanpoko posibilidadeen paralizatze osoa eta, denboraren poderioan, baita politika, ekonomi edo intelektual bizitzarako giza banakoen edo talde osoaren gaitasun sortzaile guzia ere moztea izan zen. Erlijioa jakintzaren heriotza da. Erlijioa izan zen intelektual talde askorentzat, urteetan zehar, izpiritu bizitzaren forma berezia; —erlijioa bere alboko agerkizun guziekin: ezaguera

mailan errebelazioa, aztikeria eta tabu sistema batekin, egia albistatzeko eskubidea monopolizatzen zuen apaiz kasta batekin, giza era guziak (pentsamendu, erti, ohitura eta beste maila guziak) oso osorik ideologiara bultzatuaz. Gertakizun hau marxismoak olde karakteroa onartzearen nahitaezko ondoren dela ez da egia, eta Bruno Baueren teoria, edozein teoria, oldeetara heldu orduko, erlijio bilakatzen dela diona, okerra da. Aitzitik, egoera honen ziorik garrantzitsuenetakoa sortze teorikoaren monopolizatzea zen, hain zuzen. Eta horrela teoriaren baliogo handiari buruzko deklarazioetan ezkutatzen zen teoriarekiko mezpretxu izugarria garbi azaldu zen. Teoriak benetan *post factum* obratzen zuen, iadanik onartutako erabakien oinarriak fabrikatzen zituenez: ez mundua aldatu, ezta argitu ere ez du egin. Elkarren kontraesaneko erabaki desberdinak oinarritzera beharturik, halabeharrez edo, lainotsu bilakatu zen, eta dialektika —gizarte agerkizunak bere bilakera dinamikoan eta bere barne istiluetan aztertzeko lanabes zehatza— adiera askotasunarekin eta zehaztasun ezarekin berdindua izan zen. Ezinbestekoa zen hori, teoriaren eginkizuna lanabes apologetiko izatea bihurtu zenez gero, hau da, eginbehar intelektual guziak kendu eta ezer gabe utzitako lanabesa. Alde batetik oldeak kondairaren egile zirela esaten zen, eta bestetik, pertsonalidadeak, kondairaren joera ulertzen duenean, kondaira horretan eragin handia izan dezakeela —karakteru benetan iluna, ze bere laguntzaz autokraten jainkozko kultoa zuzenetsi edo borrokatu berdin egin daiteke. Alde batetik nazionalismoa gainditu behar zen, bestetik kosmopolitismoa borrokatu; eta horrelako topiko batetan oinarriturik, beharren araura, chauvinista gertaerak baietsi zitezkeen, edo itxu-itxuan kondenatu. Era honetako adibideak nahi haina daude. Danerako serbitu behar duen teoria batek, *bai bezain ondo ez* eta *batetik-bestetik* bezalako formula ilunetan oinarritzen zen teoriak, bere burua edozein desarroilo eta zehaztasu-

netik gorde behar zuen, bere indarra zehazgabetasun herrikoiean bait zetzan. Hau zen, besteen artean, gizarte teoria guziek duten klase karakteroaren printzipioaren ulertze arruntaren oinarria: antzinako seudomarxista soziologiak zera onartu zuen, edozein gizarte teoriaren mamia klase interesak mugatuta dagoela alegia. (Horrela, pasadako ohar bezala diot hau, burges soziologian eta filosofian joera ugariak egotea zeharo ulertezin bilakatu zen). Ulermodu honi jarraiki beraz, marxista dotrinaren mamia ere langile partiduaren interesak mugaturik dator. Baina printzipio batek dionez, langile alderdiaren interes hauen zerbitzurako dela onartzen den guzia egia izan behar du, interes hauek benetako jakintzazko mundu ezagueraren desarroiloarekin kontraesanean ezin egon bait daitezke. Baina interes hauen serbitzuko zer zen, teoriarik gabe, politiko erabakien laguntzaz erabaki zen. Baldintzape honetan, printzipio honi jarraiki jardun behar zuen teoriak: *benetakoa den guzia arrazoizkoa da*. Eta hau ulermodu hain sinple honetan.

Teorian ordena sartu zen. Sistematutako osotasun bat egin zen itxuraz, baina benetan beragan hertsiki itxitako osotasun bat. Osotasun honek posible diren problema teoriko guziak eta onartu ditezkeenak bezain ondo azterketak eskuratu ezin ditzazkeen fetitxe bihurtutako konzeptu guziak besarkatzen ditu. Zer-nolako printzipioen araura egin den *ordena* hori, axolarik gabeko gauza da. Azken finean zeharo berdin bait da marxismoa dialektikaren lau oinarrien araura ala dozena bat kategoriren araura ikasi, hori egiterakoan oinarri edo konzepto hoiek, aprobatutako ideia lanabes guzia agortzen dutela eta beharrezkoa den pentsamendu sistema bakarra direla isil-isilik onartuz gero. Dotrinaren harriztatzeak mitologi antzo erabiltzera darama nahitaez, kultoaren eta gurtze gogotsu baten gai bilakatzen den mitologia, eta edozein kritika baztertzen duen

mitologia. Une horretan edozein aurrerapen teoriko ezinezko gertatzen da, eta sortzen diren dogma berriak monopolizatuak dira eta oinarritu gabe sinesgai bezala zabalduak, banalidade lotsagarriak lorpen teorikoak balira bezala ezagutu araziak. Jakintzazko aurkikunde bezala azaldu zen, esate baterako, honako interpretazio hau: draman istilu batek egon behar duela eta tipifikazioa printzipio mailara jasoa dela; Aristotelesen «Poetikan» iadanik aurkitu daitekeen zerbait, alegia. Teknikaren kondairan aurkikunde guziak herri bakar batek eginak ez direla esateak, txiste penagarri baten aidea du. Agerkizun guziak bata bestearen menpeko eta batak bestea elkar baldintzatzen dutela dion egia, deskubrimentu izugarria bezala azaldu zen —aspaldidanik ezagututako topiko bat izanik, amaika joera desberdinetako amaika filosofietan aurkitu daitekeena. Aspaldidanik ezagunak diren arruntkeriak jakintzako aurrerapenaren lorpen sortzaileak bezala azaltzen dira. Zein lotsagarri den dokumentu historikoak okerbidetzerik ez dagoela, jakintzan aurkeztutako interpretazioa oinarritu egin behar dela, jakintza mailako kontrarioaren kritikak objetiboa izan behar duela eta abar erabakitzea.

Marxista teoria gaur egun dagoen egoeran egonik, gauza bakar bat irrika daiteke: Marxen berpiztea. Baina honek gertatuko den itxurarik ez du. Horregatik mogimendu komunistaren ekintza politikorako gaur egunari dagokion oinarria zientifikoki oinarritu behar duen lan teorikoa intelektual humanisten taldeko lana bakarrik izan daiteke. Intelektual humanista hauk bait dira, maila ezberdinetan, gizarte jakintzaren espezialistak, eta herri oldeen eguneroko esperientziatik ikasteko bezala herri abotsari erantzun bat emateko ere gaituak bait daude. Gehiago oraindik, hori beharrezkoa da mundu ikusketa komunistak gure egunotako mundu ikusketen bizitzan sortzen diren arazoei erantzun bat eman ahal

izateko. Mundu-ikusketen bizitza, hau da, gizartearen azaleko iritzi eta esloganen azpian ezkutaturik igarri daitekeen bizitza, gure gizartean estaduko bankuetan, edozein zentraletik eta edozein bulego estadistiketatik at, burutzen den diru joan-etorri izugarria bezala.

Pentsamenduaren laizizatzearen aldeko borroka bere gain hartzeko eginkizunaren aurrean aurkitzen dira intelektual komunistak. Mitologia seudomarxistaren eta santukeriaren kontrako borroka, erlijioz eta aztikeriz jantzitako ekintzen aurka, mugatu gabeko adimen mundutarrarekiko errespetoa berriztatzeko. Eguneroko bizitzak erakusten du bilakaera hau ez dela bukatu eta aurrera dihoala baina ez oztopo handirik gabe, —bere gizarte posizioa aginte jardunean elemento antidemokratikoak mantenduaz eta hauekin hertsiki lotutako pentsaera anti-intelektualaren bitartez bakarrik gorde dezaketen aintzat hartu beharreko gizon (eta egitamu eta erakunde) ugari dagoelako. Eta lotura hau (elemento antidemokratikoak eta intelektualkeria) aldakorra dela-ta, aipatu bezala, fetitxismoaren gainditzea bera komunista ekintza eraginkor baten aurrebaldintza delako, edozein mitologiaren etsai diren intelektual guzien elkar ekiteak alderdia birjasotzeko ahaleginetan behar-beharrezko atala osatzen du. *Jakintsuen* talde sortzaileak, ofizioz, bizitz maila guzietan joera berriekiko ernaiagoak dira ta beste edozeinek baino errazago askatzen dituzte heuren buruak kontserbakortasunetik.

Intelektualak, batez ere jakintza mailan, gizarte lan banaketak erabakitako bere eginkizun propioa bete ahal izateko, bi iturri hauetatik darioten mugaketa guziak baztertzea beharrezkoa da: jakintzaren eta politikaren harremanak oker eratzetik dariotenak, eta elkarren aurkako istiluen bakeatzeko metodo okerretatik dariotenak.

Lehenik, jakintzazko azterketaren gaia arrazoi politikoetan oinarriturik mugatzea guziz zorigaiztokoa da. Mugaketa hau badago oraindik, eta errealidadearen alor jakin batzuetan burututako azterketaren ekarriak ez publikatu, ez baliarazi ezin daitezkeela jabetuz gero, zail izango da hortarako talde-azterketa lanik eratu ahal izatea. (Hau batez ere kondaira politikoaren atal batzuetan eta ideologien kondairan gertatzen da, eta baita bere burua kapitalismotik askatu duten herrietako gaur eguneko bizitzaren galdera batzuetan ere.)

Bigarrenez, hain zorigaiztoko da, baita ere, jakintzazko azterketa arloan sartzen diren gaieri buruzko edozein egia, politiko aldetik, zuzen eriztea, eta egia hoiek jakintzazko edozein eztabaidatik at zabal daitezkeela eskatzea. Horrelako jokabide bat inposatzen den tokian espiritu jakintzak intelektualki hil beharrean daude, eta heuren eginkizuna, hortakoz, bizitz sozialistaren igeltsuzko etxaurrean girnaldak albaintzean datza. Guti iratzartutako espirituek egin dezakete hori, baina ikasiagoak zinismoari esker bakarrik. Jakintzazko zinismoa jakintzazko pentsamenduaren oinarriak bortxatzearen berezko ondorio da.

Hirugarrenez, azterketa zuzenbideak aldez aurretik erabakitzea (teknika mailan ezin dakioke batek honi ihes egin) espiritu jakintzentzat guziz harriskuz josia dago. Harriskuzkoa da horren azpian eskabide edo esijentzi hau dagoelako: aldez aurretik zuzentzat jotako interpretazioetarako argudioak fabrikatzea, alegia. Jokaera honek, gehienetan, galderak egiteko aitzakiarekin, desiatutako tesiak bortxaz har azartera darama (nahiko adibide badago honetaz). Alde honetatik askoz hobe da komunista intelektual taldearen gaitasunean fidatzea.

Laugarrenez, edozein eztabaidatik kanpora gelditzen

den egia sagaratuen hesparru bat jartzea harriskuzkoa ta arinkeria hutsa da. Honek jakintza barruan ezjakintzazko era desberdinetako monopolioetara darama, hesparru hori zein den erabakitzeko eskubidea duten taldeak beharrezkoak direnez gero. Honelako erabakiak sustraitik beretik ezinezkoak dira. Espiritu jakintzetan, soziologian eta filosofian batez ere, oinarri konzeptoak —eta hauek erabiliaz osatutako tesiak ere— adiera bakarrekoak ez direlako, argi eta garbiak ez direlako. Horregatik da zorigaiztoko mugak aldez aurretik mugatzea, eztabaidarako baimena muga hoien barruan gelditurik. Horrela *Marxismoa* eta Marxista hitzak bortxaren medio bilakatzen bait dira, eta jakintza mailako eztabaidaren ordez, bortxa administratiboa sortzen da. Bortxa administratibo honek eztabaidakide bezala duen argaltasun teorikoa bakarrik agertzen du. Guzi honek ez du esan nahi antijakintza era guzientzat askatasun osoa galdatzen dugunik, —bestela ere badute gure espiritu bizitzan zuztarrak nun bota antijakintza hoiek. Beste hau bakarrik esan nahi du: giro bat sortu nahi dugula; giro honetan eztabaidaren mugak sortzaileki lan egiten duten talde espezializatuek determinatu dezaketen maila zientifikoak jartzen dituela. Eztabaidatik at dauden tesi batzuek dauden tokian, eskola dogmatika bat beraz, nolabait, gainontzeko pentsamendua apologetika bihurtzen da. Kulturaren eta antikulturaren kondairan zehar nahikoa eta gehiegi demostratuta dagoen lege bat da hau.

Harreman objetiboaren alderdi bakar bati dagozkio arau edo erregela hauek: jakintza taldeen gain jardundako eragina, talde hoien iritziak ezagutu ere egiten ez dituen eragina eta talde hoien lanaren oinarriei kontraesaten diena. Erlazio objetiboaren beste alderdia talde hoien gizarte erantzukizuna da. Intelektualen arteko komunistak ez bait dute komunista izatea uzten soziologiaren eta filosofiaren galderekin dihardutenean.

Langile mogimenduak ez ditu helburu politiko bereziak bakarrik, jakintzazko printzipio ugari dituen mundu ikusketa berezi bat ere bai. Horregatik, badirudi, komunista, komunista denez, jakintzazko printzipio multzo bat onartu beharrean dagoela. Baina jakintzazko jokabidean iraun nahi badu, une berean, konbenziturik egon behar du kritikara, eztabaidara eta azterketara eraman ezineko tesiarik ez dagoela. Honetan bait datza jakintzaren eta teologiaren arteko berezkuntza nagusia. Langile mogimenduak bere mundu ikusketa berezirik ez dezala eduki eskatzea ezinekoa da, eta neurri berean ezinezko da egia jakin batzuen ikuitu ezina onartzea. Gaur egun garbi dago ideologiaren ustelkerien (kondarren) kontra borrokatu behar dela, alderdiak, alderdi denez, bere burua jatorri lege bateko edo sortze musikalaren ulermodu bateko aitortu behar duela sinesteraino heldu bait da. Honelako sistema baten ondorio katastrofikoak berehala ikusteko modukoak badira ere, komunista ideologia jakintzazko oinarriekin batere loturarik gabeko helburu politikoetara laburtzea kalte gutiagokoa ez da. Eztabaidatu ezineko gauza da, baita ere, espiritu gaietako jakintsua ez dagoela intelektual sustantziz bakarrik osatua, ezagutze minez bakarrik jardungo litzaken sustantzia. Jakintsua gizarte eraginen mende aurkitzen den gizon bat ere bada; klasearen, taldearen edo klanaren bitartez mugatutakoa —ahaztu ezineko errealitate bat da hau ere.

Gu ere bekatu berdinean erortzen ez bagara, hau da, oinarri bezala jakintsu asmatu bat hartzen ez badugu, jakintsu besterik ez dena —jakintsu purifikatu bat, nolabait esateko, jakin minez bakarrik ari dena— orduan baztertu ditzazkegu aitatutako kontraesanak. Honako printzipio hau benetan, eta ez hitzez bakarrik, onartzen badugu: komunista mogimenduaren interesak ez daudela munduaren jakite objetiboarekin kontraesanean. Honek zera esan nahi du: bere zuztar intelektualak Eu-

ropako pentsamendu razionalean dituen mogimendu honen inspirazio *politikoak* ezin eraman gaitzazkeela jakintzazko egia desitxuratzera, aldez aurretik erabakitako *egia* eta errebelazioak frogatzeko. Beste hitzez: komunismoaren benetako interesek zuzentzen duten jakintzazko ekintza bat jakintzaz kanpotikako eragin guziekiko ahalik eta askatasunik handienean eta jokabide sendo eta kritiko batetan datza. Oinarri hauekin, santututako printzipio batzuen moldaketa ez da beharrezkoa, langile mogimenduari beharrezkoa zaion jakintza lanerako jakintzan bertan sortuak eta jeneralki onartuak izan diren egi-neurriak bakarrik behar dira; jakintzazko ezaguera objetiborako senaren eta helburu politikoak lortzeko mogimenduaren borrokaren artean ez da kontraesanik sortzen. Horregatik alderdi ideologia —soziologia, ekonomia eta filosofia alorretan— gai hauetan jakintza mailan gaituak egonik, gizartearen esperientzi kolektiboak kontrolatutako gizonek landu behar dute. Mogimendu iraultzailearen desarroilatze ideologikoa eskubide eta betebehar da intelektual komunistarentzat. Aitzitik berriz, helburu hauetarako edozein eztabaida edo kontrol aurretik hartutako printzipioak onartzea, ez dute, ez eskubide, ez betebehar.

Urte askotan besterik egikaritu izan delako, jakintza talde marxisten eginkizunik garrantzitsuenetakoa hau da: jakintzazko edozein lanekin loturik dauden *arauak* —*adimenezko petnsamenduaren printzipioak* eta lan zientifikoaren ondo landutako teknika ere bai, beraz— berriro balio araztea eta espiritu-ekintzan sendotzea.

Guk dakigunez, inork ez du oraindik zuzentasunezko zerbait defentsatzen zuelako bakarrik gudu bat irabazi, eta jakintza bizitzan ere ezaguera espezializatuak erabakitzen dute. Makiavelik egoki ohartarazten duenez, harmatutako igarleek garaile izan dire, harmatugabeak,

berriz, galtzaile. Iraunkor eta ekintzan onurakor diran jakintzazko baliogoak espiritu lanerako teknika gorengo mailako batetan bakarrik lortu daitezke; eta honelako maila bat sortzea langaiak finkatzea baino beharrezkoagoa da gaur egun (maila honetako aurrerapenaren oinarriko presupostua jakintzalariarentzat lanbaldintzak sortzea dela ere gainera esatea, honezkero, alferrikakoa da. Lanbaldintzak, batez ere denbora librearen moduan: jakintzan ustegabeko asmaketa zoragarriak gaur egun nohizbehinka bakarrik gertatzen bait dira). Ez daukagu batere arrazoirik teknika on batekin dihardun adimenezko pentsamenduak jakintsua langile mogimenduaren helburuekin etsaigoan jarriko duela pentsatzeko, jakintsuak bere burua langilediaren etorkizunaren erantzulekide jotzen duelarik.

Halaz ere gogoeta honetan ba dago itxurapenik: aurreiritzi eta sineskeri guzitik aske den adimenezko pentsamendua hain oroekiko ondasun bilakatu daitekeela sinestea, marxismoaren printzipioak onartzen dituzten guziek printzipio hauek jakintzazko azterketa huts batetan oinarriturik onartzeraino alegia. Sinesmen hau, ordea, okerra da. Marxista teoriak —batez ere bere atal espezializatuetan— gizarte neurri zabal bat harturik, sinesmenaren bitartez obratzen du, zalantzarik gabe. Marxek aitatzen duen ekonomia politikoko *fictio iuris* hark gauza erosle edonorrek salgaiei buruz ezagutze enziklopediko baten jabe direla presuposatzen duen bezala, presupoastzen dugu guk, isilka noski, mundu ikusketen harpideduna adimenezko kario hutsez bakarrik zuzentzen dela. Baina hori horrela ez baldin bada, onartu al ditzazkegu hemen formulatutako presupostuak? Irrazionalismo seudomarxistaren jakintzari buruzko eraginei kontraeraso genezaioke, mundu ezaguerari buruzko jakintzatik kanpotikako eraginetatik askatu genezake espiritu bizitza, okerra eta gezurra borrokatu, ezjakintasun eta kritika gabetasunarekiko ja-

sanpenarekin bukatu, gezurrezko jakintza lanak, aldez aurretik helburu apologetikoekin idatzitakoak, jakintza farregarri bihurtzen dutenak borrokatu eta teoria eguneroko galdera taktikoen mende egotea eragotzi dezakegu, zalantzarik gabe. Hitz batez: delako ikasgai (disziplina) ideologikoak heuren sinesgarritasuna galtzerainoko egoera batetara eraman duten arrazoiak sendatu ditzazkegu eta ikasgai hoiek berriro intelektualki oinarritutako konfidantza irabazi dezaten borrokatu ere bai. Baina jakintsu komunistak marxismoaren oldeen artean ere zabaldu behar dute, jakintzazko oinarriketa nahikoa izan ez daitekeen maila batetan beraz. Jakintzazko ezagueran oinarriturik onartzea ezinezkoa den tokian jakintzazko egia batzuek sinesgai bihurtu al daitezke? Egin daiteke hori, noski, jakintza maila guzietan ohizkoa bait da ez-espezialistei jakintza ondorio batzuek oinarritu gabe jakin araztea. Inork ez du horretan gauza itsusirik ikusten. Arazoa eginkizun hori jakintzaren herrikoitze bezala ulertzea da. Hau da: mundu ikuskera bat zabaltzea, arrazoiketa zehatzik gabeko jakintzazko ezagupen bezala, ta ez *politiko mailan zuzen* den egia bezala. Hori horrela izanik, ez da pentsatu behar marxismoa, jakintzazko teoria delako, bere jarraitzaile guziak arrazoi berdinagatik onartu dezaketenik, edo behar dutenik. Horrelako onartze batek ez du herrikoitzea jakintza mailara jasotzen; aitzitik baizik, jakintza guzia herrikoitze batetan aldatzea eragiten du (hau zen, hain zuzen, partiduko egunerokoak galdera filosofikoentzat nahikoa zirela esanik aldizkari filosofiko bat sortzea borrokatzen zuten guzien asmo ta programa ofiziala).

Bestalde, gizarte jakintzen zabaltzea dela-ta sortutako sinesmena eta izadi jakintza hedatzearekin sortutakoa zeharo ezberdinak dira. Ez-ikasi batek masa zalutasunari dagokiola dion formularen egian sinesten duenean, eta gizarte bilakaeraren dinamika beste edozein harremanei baino gehiago klase arteko borrokari

dagokiola sinesten duenean, ez du inola ere berdin sinesten. Era askotara baiezten da azken tesia hau eguneroko bizitzan, eta ez da jakintzazko agintean oinarriturik bakarrik sinesten. Hala ere, tesia hori jakite ekonomiko eta historiko orokar bat gabe eguneroko esperientziaren bidez ezin daiteke aski oinarritu.

Intelektual sorketa mailan, aitzitik, guzia berriro azterkatu, guzia zalantzan jarri behar dela (ez noski guzia gaitzetsi) konbentziturik egon behar da; jakintza gizonak, lan teorikoa neke izugarriz utzi berria duen egoeran berriro jarri nahi ez badu, bere azterkagaiarekiko kupida arrastorik ez duela eduki behar. Jakintza gizonak ez dauka bere burua, bere azterkagaiari dagokion galderaren batetan, iruzur egin zaiola esanaz zuritzerik. Bere eginkizuna bere azterketa lanaren arloan bere burua tronpatzen ez uztea bait da. Berdintsu gertatzen da bizitza politikoan, eta ez jakintzari dagokionez bakarrik: politikan engainatua izatea ez da justifikazio bat, bere burua engainatzea bezain kriminala bait da askotan.

Edozein arrazoigatik errealidadea desitxuratzen duen teoria bat, defentsa gabeko bilakatzen da, eraginik izateko posibilidade guziak galtzen ditu. Eta nahiz bere baliogoaren ohoretan alabantza doinuak entzun, danerako den neskatila bat bezala dago, ironiz edo, paperezko errege jantzi batez estalirik.

Ez bere erabakien jakinduriaz pozteko behar ditu alderdi komunistak intelektualak, hauei esker bere erabakiak zuhurrak izan ditezen baizik. Bere pentsatzean aske diran gizonak behar ditu komunismoak; oportunistak alferrikakotzat jo ditzazke. Benetako ezaguerarekiko eta jakintzazko zehaztasunarekiko irrikaz ez baina beste zerbaitez mugatua den lan teorikoa ezin daiteke iraultza mogimenduarentzat onuragarri izan: mogimen-

du honen onerako aske izan behar du. Horregatik, intelektual komunistak menpetasun politikorik gabeko pentsatze baten alde baldin badaude, ez da jakintzaren askatasun abstrakto baten izenean, komunismo beraren izenean baizik. Komunismoak —komunista manifestuaz gero guziok dakigun bezala— gizadi osoaren interesa ez denik ez bait du, ez produkzioan, ez kulturan.

Marxismoa fetitxe bihurtzea, bere eginkizuna gizartearen etxaurreko apaindura apologetiko konbenzional bat bihurtzeak zera du ondoren: bizitza intelektualaren odol bilakatu beharrean, pozoi bihurtzea. Azkenik buruak zulatzeko edo txikitzeko langailu trebe bilakatu daiteke. Marxismoaren aurrerantzeko desarroilorako ez da nahikoa *formulazio* berri bat, buruz ikasi daitekeena. Behar dena gizarte agerpen berrien —eta zaharren— azterketa objetibo ta goimailako bat da.

Hortarako, jakintzalarien marxista kontzientzian konfidantza behar da, intelektualaren sozialista kontzientzian. Hori gabe ezinezkoa da mitologia bizitza espiritualetik kanpora botatzea, primitibismoa eta ilunkeria jakintzatik, itxumena eta arinkeria politikatik, moral burgesa bizitza moraletik, eta edozein jokabide atzerakoi —daraman izenaz axolarik gabe— giza izatetik.

JESUKRISTO, IGARLE ETA ERREFORMADORE

PENTSABIDE

1. *Jesus azterkatzeko ikusmira ezberdinak ditugu: historikoa, ideien kondairakoa, erlijio-zientziena, biografikoa, etab.*

2. *Interpretazio filosofikoa: Kolakowskik ikusmira honetatik ekingo dio. Bere asmoa: Jesusek europear kulturan duen lekua erabakitzea.*

Filosofuak eta Jesus:

Jesus ez zen filosofu bat izan; filosofi-kondairaren ikas-liburuetan ez da bere izenik arkitzen, ezta kristauetan ere. Bere irudiak filosofuentzat garrantzirik izan dezakeen neurrian jardun dira hauek hari buruz.

— Hegel:

— *honentzat Jesus, gizonaren desarroiloan, beren buruaren ulermenari buruz eta Jainkoa ulertzeari buruz, maila garrantzitsu bat da: Jesus, Jainkoaren zentzuzko esistentzia da, eta honetan gizonak bere burua Jainkoagandik berezia eta bestelako bezala ulertzen du.*

— *Jesus desbenetakotzeko arriskua dago Hegelengan.*

— *Hegelek Jesusi batez ere bere behingotasun berezia kentzen dio.*

— Kierkegaard:

— *honek, aitzitik, Jesusen gaurkotasunari eusten dio gogor.*

— *Jesus beti da zerbait bizia gizonarentzat, orain eta hemen.*

— *horrela ulertu behar da Jesus, ez dogmen irakasle bezala, hemen eta orain neretzat salbamena dakarrena bezala baizik; bestela informazio historiko huts bat bilakatzen da.*

— Pascal:

— *Jainkoa ez dago mundutik ez zeharo urrun, ez zeharo bertan. Munduak ez du ez Jainkoaren urruntasuna, ez bere presentzia argi eta garbi salatzen.*

— *egoera bikoitz honi gizonaren egoeraren bikoiztasuna dagokio: Jainkoa ezagutzeko gai, baina, hala ere, bekatua dela-ta, usteltasun zoriaren menpe.*

— *Jesusek egoera hontaz jabetzea ahaltzen digu. Gure zoritxarra errebelatzen digu Jesusek, baina, une berean, salbamen bide baten itxaropena.*

Pascalen eta Kierkegaarden ulermoduak guzientzat onargarriak dira, duten erlijio eta sinesmen alderdia alde batera utziaz gero. Filosofuaren jokabidea ez bait da tradizioa egia-metatze bat bezala begiratzea, tradizio honen jatorria den pertsonarekin loturik baizik.

Jesusen igarkizun nagusia:

— *Jesusek bere buruaz uste zuena: Jainkoak bidalia zela.*

— *ikasleak Jesusi buruz uste zutena: mirariak egiten dituela; gantzutua, Kristoa, Jainkoa zela (Jesusek ez zuen bere buruaz sekulan horrelakorik uste izan, Jainkoa zenik, alegia).*

— *Jesusek etorkizunaz uste zuena: munduaren amaia berehala zetorrela, amai horretarako gizonak beren burua antolatu behar zutela, Jainkoagandik albiste hori zekarkiela, eta katastrofe horren aurrean gainontzeko guzia erlatibu bihurtzen dela.*

Jesusen erreforma:

— *Jesusek bakea, errukia eta barkamena hotsegiten ditu, baina bera sarri asarratzen da, sutan jarri, mehatxuka ari:*

— *Jesusen erreforman Testamentu Zaharrarekiko harremana da problema:*

— *legea gainditu maitasunaren onetan,*

— *legea barnekoi bihurtu: asmo garbia da, garrantzizkoa,*

— *munduaren eta espirituaren arteko dikotomia, eskatologia apokaliptikoaren eraginez radikala: onaren eta txarraren artean tartekorik ez.*

— *Testamentu Zeharrean, herri aukeratuaren eta gainontzekoen artean zatitzen da. Jesusek zatiketa berri bat dakar: Aitaren borondatea egiten dutenak eta besteak, sinesten dutenak eta besteak, etab.*

— *ikasleek guzi hau orokartu egin zuten (Paulok): Jesusen biztueran oinarrituaz, Jesus Jainko eginaz.*

Jesus guretzat:

Zer da, Jesusi esker, Europako kulturan sartu den garrantzizkoena?

— *maitasunaren nahiez legearen gainditzea,*

— *gizonen arteko harremanetan indarkeria gainditzeko itxaropena,*

— *gizona ez dela ogitik bakarrik bizi,*

— *herri aukeratu baten ideia gainditzea,*

— *denboratasunaren zorigaizto fisikoa.*

Jesus kulturarako ber-irabaztea:

Europako kultura ez dago Jesus gabe ez ulertzerik, ez aurrerantzean lantzerik. Jesusena zen oro, Jainkoan sinesten dugun ala ez alde batera utzirik, Jesus kulturarako ber-irabazi behar dugu, gure kulturak ezin ditzake ez bere sustraiak, ez bere jatorria uka.

Historiagile bat Jesusi buruz ari denean, gizon honi buruz guk zihur eta benetan jakin dezakegunaz galdetzen du; baita ere galdetzen du bere irakatsiak zein aintzindari dituen judutar kulturan, judutar Jainkoa zenbait aldatu den Moisesen bost liburuetatik azken igarleetaraino; eta Jesus igarle aldaketa honen jarraipen ala burutze bezala uler daitekeen jakin nahi luke; Qumramgo eskuidatzien azterketak, ikusmira honetatik, ekarri dituzten ondorioetaz arduratzen da. Benetako espezialistak bakarrik daude gai honi buruz ezer arrazoizkorik esateko egoeran. Hau ez da, ordea, nik erantzun beharreko galdera.

Ideien kondaira saia daiteke, horretaz gainera, Jesusi, bere izena daraman kondaira osoan leku bat ematen; agor ezineko gai hau azkeneraino landu dezake eta Jesus mitoaren inguruan sortutako gertaera eta pentsamendu aleunetan buru-belarri sar daiteke. Zail egiten zaigu guri Jesusen pertsonari buruz ari garenean hogei gizaldietako gertaerak —bere gureganako bide diren gertaerak— alde batera uztea. Jesusen irudia teologiaren eta eztabaida teologikoen itzaletan datza —ebanjelioetako hitz bakoitza batera ta bestera etengabe darabilzkiten eztabaidak. Kristautasunaren kondairak bere sortzailearen irakatsiari erantsi dizkion izugarrizko adiera-askotasunak ezin ahantz daitezke, ez egiazkoak, ez itxurazkoak. Baina ni ez naiz ikusmira honetatik arituko.

Erlijio jakintzalariak interpretatu dezake Jesukristo eskema mitologiko jakin baten zati bezala, eta horrela beste batzuekin alderatu, kulturen bat-etortze eta desberdintasunak argitara ekartzeko. Ahalegin daiteke —eta ez da erraza— Jesusen irudia gaur eguneko egoerak eta Eliza munduan egoteak zenbaiteraino itzalez betetzen duten ahazten; ejiptoar edo gerketar mitoen aurrean hoztasun bat dugun bezala —erlijio jakintzako eta estetiko distantzi modua hain zuzen— saia daiteke erlijio jakintzalaria horrelako interes pertsonalik gabeko hoztasun maila bat lortzen. Baina hau ere ez da nere ikusgunea.

Biografoa saia daiteke, areago, Jesusen irudi sikologikoa ahalik eta garbien azaltzen, eta irudi honi barne-joskerazko sentidu bat ematen, bere burua edozein asmo apologetikotik —dela kristau, dela irainle eta antikristau espaz sortutakotik— askatzea lortzen duen neurrian. Alderdi hau ere, ordea, ez dut gogoan hartuko.

Interpretazio filosofiko huts batetan pentsatzen dut nik, hau da: ez historikoa, ez sikologikoa, ez erlijio jakintzakoa.

Askatasunez jarduten saiatu nahiz, hainbesteraino, ebanjelio kanonikoak eta apokrifoak irakurtzerakoan, ez komentarioak, ez Pauloren eskutitzak gogoan hartu behar ez izateraino. Ez naiz saiatuko hitz xeheetan gogoeta teologiko eta filoosfikoak bilatzen. Nik nahi nukeena zera da: Jesusen irakatsi eta irudiak ni bezalako laiko batentzat zer barne-mami duen azaldu. Ni bezalako laiko batentzat, bere burua ez kristau sinesmen bateko, ez dogma bateko, ez Eliza bateko aitortzen ez duen batentzat. Baina bai bere burua tradizio batekoa aitortzen duenarentzat, kristautasuna bere-berea duen tradizio batekoa, Buda, Sokrates, Kant eta Marx ere bereak dituen tradiziokoa. Ez da nere asmoa Jesusen irudi sikologikoa ber-ematea; Jesusek europear tradizio osoan —beraz, ez bereziki kristau tradizioan bakarrik— duen lekuaz galdetzen dut nik. Jesusek bere buruari eman zion eginkizunaz galdetzen dut, eta eginkizun hau gure ondasun kulturala moldatzen duen mami konplikatuaren zenbaiterainoko zati bihurtu den. Tradizioaz galde egiten dut, dogma kristologikoak alde batera utzirik, zeinetan kristauak bere buruaren erlijiozko ulertzea moldatu duten.

Filosofuak eta Jesus

Jesu Kristo, dakigunez, ez zen filosofo bat, eta filosofiaren kondaira ikasliburuetan, nahiz kristauetan, ez dago ezer berari buruz. Azken garai hauetako filosofoak gutitan jardun dira Jesusi buruz. Eta egin dutenean, irudi harrigarri hari buruzko ardura filosofikoaren forma posibleak traxu jeneraletan dibujatzeko. Handie-

tatik, beste batzuen artean, Pascal, Hegel, Kierkegaard, Nietzsche eta Jaspers mintzatu dira Jesusi buruz.

Hegelen ulermoduan Jesu Kristo, gizonaren bere buruaren ezagutze historikoaren —absolutuarekiko harremanean—, desarroilo maila jakin bat da: Jesus Jainko ideiaren ikus daitekeen zentzuzko hor-dagoen izatea (existenzia) da. Gizona ideia honetara iristen da Jainkoa zera bat bezala ulertuaz, Jainkoa den zera honetatik gizonak bere burua beste izate bitartez berezirik. Honek ez du esan nahi Hegelek Jesus desbenetakotu egiten duanik edo Jesusi bere pertsonatasuna eta gizatasuna ukatu nahi izan dizkionik —Jesus gekertar giza-antzeko jainko guziak baino gizonago dela bait dio—. Baina Jesusen pertsonatasunari betiko eta oraingo behingotasun berezi hura kentzen dio, kondairatik kanpoko egoera (estatus) hura, kristautasuna oinarritu eta sinesmenezkoa den kualidade hura: kondairan bertan kondairatik kanpotikako izadiz-gaindiko albiste bat sartu dela.

Kierkegaardek ere, pundu honetan, traxu jeneraletan Hegelen kontrako bere posizioa marraztu zuen. Beti gaurkoa den eta kristauentzat benetako, gaurkotasun honi esker bakarrik bihurtzen den Jesusen irudi bat landu zuen. Kristo gertatutako errebelazio baten ekarle bezala ikusten badugu, informazio historiko huts bat izango litzake. Aitzitik ordea, benetako kristau bizitza osatzen du Jesusek izaera bakoitzarentzat, izaera bakoitzak Jesus berarentzat hitzez-hitz gaurkotu baldin badezake, hau da: *zatozte nigana nekaturik ta zamapean zabiltzatenok, nik atseginduko zaituet* inbitazioa bakoitzak beretzat hartzen baldin badu, beti berriro balioko eta beti berriro esandako inbitazio bezala ulertzen baldin badu. Jesus ez da dogmak irakatsi eta aginduak ematera Jainkoaren izenean kondairan zehazki mugatu daitekeen une jakin batetan etorritako Mesia,

besterik gabe. Bera, kristau bakoitzean, Kristo-izatearen iraupen pertsonala da; bera nolabait kontra-alderdia da, beti bizia izaera bakoitzarentzat, kontra-alderdi bizi honen aurrean bere ahultasun ta zoritxarrarentzat erantzun bat bilatzen duen izaerarentzat.

Pascalengan —deismoa ta *filosofoen Jainkoa* arbuiatzen ahalegintzen denean— antzeko harremana aurkitzen dugu Jesusekiko, bere ezberdintasun eta guzi. Pascalek dioenez mundu osoak ez du, ez Jainkoaren zeharoko urruntasuna, ez bere presentzi garbia adierazten; mundua ez dago Jainkoaren eskuetatik zeharo utzita, ezta ere argi ta garbi jainkotiar zaindaritzapean. Munduak ezkutatzen den Jainkoaren presentzia salatzen du, eta Jainkoaren munduan egotearen bikoiztasun hau gure zoriaren bikoiztasunari dagokio: Jainkoa ezagutzeko gai, baina, bekatua dela-ta, beti usteldurik daudenen zoria. Jesu Kristoren bitartez, Jainkoa ezagutzea gure zorigaitzaren ezagutzea bihurtzen da guretzat, eta ezaguera bikoitz hau bereziki beharrezko da gizonarentzat. Bi egia hauetatik —Jainkoa ba dela ta gu behartsu garela— bata bestea gabe gure egin dezakegu, baina Jesus pertsona bezala ezagutzeak biak elkarrekin hartzea beharrezko egiten du. Gure ezerezaren jakitate hutsa etsipenaren iturri da, eta Jainkoarekiko jakitate hutsa bizitzarako baliogorik gabeko aitormen espekulatibu gelditzen da. Jesusen ezagueraren bidez iristen gara gure erorpenaren ezagutze garbira eta, une berean, osasun posible baten itxaropenera —eta honek sortzen du berez sinesmena—. Bere ustea argudio espekulatibuen indarrean duen kristautasun filosofiko huts bat, edo salbamen kondairako ezagueratan oinarritzen den kristautasun historiko huts bat ezinezko da beraz. Bere aurpegi dogmatiko ta historikoaz beste, salbatzailearen benetako izate bezala datorkigu Jesu Kristo. Horregatixe eta honen bitartez, hain zuzen, —pertsona bat delako ta ez dato edo dotrina huts bat

bakarrik— sortzen da guregan bizi dugun iluntasunaren sentimendua, eta, une berean, susmo bat iratzartzen, ba dagoela iluntasunetik kanpora daraman bide bat.

Kristoren irudiaren interpretazio filosofiko handien artean Nietzscheren dotrina ere aurkitzen da. Bere burua Kristoren etsai, ez kristautasunaren etsai bakarrik, aitortzeko ausardia izan zuten guzien artean handiena bera da. Nietzscherentzat Jesus bizitzaren benetako baliogoak ezereztea bilatzen duena zen, bere ezgaitasuna kontraegote deklaratu zuena, eta ahulezia bertute mailara jaso zuena; Jesusek errealidadeari baliogo guziak lapurtu zizkion, baliogo direnez gizonaren «barne» espiritualean jarriaz; bere eskubidea defentsatzeko gai ez direnen morala egin zuen, pasibutasunean ihes egiten dutenena, eta, oraindik, hortaz harrotu egiten direnena.

Laburki hartuaz, hara hemen filosofoen Jesusen irudiarekiko hiru harreman modu: Nietzsche Jesusengana igarle bat beste batengana bezala zuzentzen da —eta benetako igarle bat igarle faltso batengana bezala, noski—. Hegel berriz espiritu kondairagile bat aztertzen duen kondairaren zati baten aurrean bezala; Pascal eta Kierkegaard, beren izadiz gaindiko sinesmenaren errealidadeak Jesusen baliogo pertsonaletan bilatzen dituzten kristauak bezala.

Pascalen eta Kierkegaarden interpretazioa, sentidu reduzitu batetan, kristautasunaren inolako mami dogmatikoarekin lotu gabe daudenek ere onartu dezaketela pentsatzea bidezkoa da —baina onartu dezakete ez sentidu honetan: Jesukristogan izadiz gaindiko munduaren behingo gorpuzte historiko eta pertsonala ikusi behar dela, zeinetara gure galdera eta kezkekin jo dezakegun— baizik eta beste honetan: Jesus edozein pen-

tsalari, igarle, erreformadore edo filosofo handi bezala gaurkotze berezi hartarako egokia dela, zeinetan baliogo orokarrak jatorri jakin pertsonal bati loturik dauden. Filosofoak, ikusmira historiko hutsa edo objetibo hutsa gainditu nahi baditu, tradizio filosofikoa eta erlijiosoari buruz bi jokabide baztertzen ditu: tradizioaren mamia ez da sinpleki ulertu beharreko errealidade bat, ezta ere pentsamendu bat zeini buruz, pentsamendu hori aitortuz edo ukatuz, *jokabide* bat hartu behar den. Filosofoak ez bait du tradizio kulturala pilatutako egia bilduma bat edo historikoki antzututako gertakizun kate bat bezala maneiatzen, baizik eta sortzailearen irudiarekin iraunkor loturik egonik bere jatorri pertsonaletik askatu ezineko baliogo orokarren errebelatze bezala. Bikoitztasun hau lan filosofikoari tradizioaren aurrean jartzen zaion eginkizunik zailenetakoa da. Horrelako ikusmira batetan ikusirik, Jesus ezin daiteke ez gertaera bilduma batetara reduzitu (gertaera hoien artean kontatu beharko genituzke bere irakatsien mamiak ere, gertaera bezala noski), ezta ere gure gogoeta objetiboaren gai izan daitezkeen baliogo abstraktoen bilduma batetara ere, baliogo hoiek zer egoeratan sortu diren alde batera utzirik. Jesusen irakatsia errealidade esenzial bat bezala lantzen saiatuko gara edo, mamiari dagokionez, gertatutako bere jatorri batekin lotutako baliogo orokar bezala.

Jesusen igarkizun nagusia

Kondaira hutsean ikusirik, Jesusek judutar Jainkoan eta honek berari eginkizun berezi bat eman ziola sinesten zuen. Bere ikasleek, Jesusek hitz batez ekaitzak lasaitu, oin lehorrez ur gainean ibili, arrainak sarera eragin, hilak heriotzetik iratzarri, legenardunak sendatu, itxuei ikusmena eman, deabruak jabetuetatik jaurti. Moises eta Eliarekin elkarrizketan ari, behartsuentzat ogia

gehitu, ura ardotan eta ardoa odoletan aldatu, hau guzia egin zezakeela sinesten zuten. Hori zen Jesus; hortaz gainera, bere ikasleentzat, Jesus TZ-ko Mesiari buruzko hitzemanak burutzen zituena zen, eta bere eginkizuna biztueraz frogatu zuena. Jesus honek, nahiz sinesleen gurmena onartu, ez zuen bere burua Jainkotzat eduki. Ez zuen nahi Jainkotzat har zezaten, on deitzen ziotenean Jainkoa bakarrik zela ona esaten bait zuen, aitortu bait zuen ez zekiela noiz etorriko zen hitzemandako eguna, eta *gerta bedi zure borondatea eta ez nerea* esan bait zuen. Jesusen Jainkotasunarekiko sinesmena kristautasunaren oinarrietako bat izan behar badu, sentidu honetan ezin esan daiteke kristautasuna Jesusek sortu duenik. Paulo izan zen, batez ere, Jesusen jainkotze prozesoari hasiera eman ziona. Prozeso hau. Nicea aurreko gurasoen kontraegote gogorrak aurrean zituela ere, eta nahiz hamaika krisi *arriano* igaro, konzepzio nagusi bezala irabazle irten zen. Zilegi zaigu esatea Jesus honek bere burua berekin izadiz gaindiko eginkizun bat zuen judutar erreformatzailetzat zedukala esatea, gantzututakoa edo Kristoa, Jainkoagandik —bere eta bere entzuleen uste onaren Jainkoagandik— munduaren berehalako amaiaren albistea zekarkiena eta dei bat: azken katastrofe baterako berehala antolatzeko deia. Konbenzimendu sendoa zuen bukaera ez zegoela urruti, bertan baizik, hain berta ze bere ikasle eta entzuleei sarri esan ohi zien heuretatik askok ikusiko zuela bere begiz Jainkoaren erreinua lurrera etortzen, izurri eta gose eta behar gorria aurretik direla, eta izarren erortzea eta eguzkiaren iluntzea. Eta azkenik, aingeru tronpetadunak lagun dituela, Jainko Semearen ageriko etorrera lainoen artetik. Igarkizun hau zertu ezak ez zuen bere ikasleen sinesmena zalantzan jarri; baina katastrofe kosmikoa berehalako espero izateak, gauza guziak ikusmira berri batetan ikusi arazi zizkien. Apokalipsiaren itzaletan, une honetatik hasita, munduko gauza guziak ezerez bilakatzen dira. Errealidade

mundutar guziak, bizitzaren zerbitzutan dauden gauzen askotasun osoak, sentidu eta berezko baliogo guzia galtzen du, apokalipsia dela-ta. Gorputzeko mundua ez da gehiago garrantzizko. Agian betebeharraren gai izan daiteke, baina ez gehiago nahimenaren helburu, bere ezerezean amaira urreratzen doanez.

Jesusen erreforma

Idazburu honekin hasten dugun atal honetan, dotrina berriaren aginduak izango dira gai, zenbaiteraino benetan berri diren aztertuaz. Aspaldidanik nabaritu dituzte ebanjelioetako irakurleek Jesusen pertsonatasunaren elkarren kontraesanean dauden aldarteak. Jesusek bakea, barkamena, errukia eta txarrari kontraegitea alde batera uztea iragartzen ditu; baina erraz jotzen du berak asarrera, eta sarritan ezerezekin sutan jartzen da. Bere izenean mirariak egin, igarri eta deabruak botako dituztela agintzen dieneri, ez dituela inoiz ezagutu esaten die, eta beragandik alde egiteko esaten die, Jainkoaren borondatea bete behar ez badute. Bere albistearentzat sinesmenik ez zuten hiriei mehatxu izugarria igartzen die: *Tiro eta Sidongo biztaleek samurrago izango dute azken egunean Korazain eta Betsaidakoek baino.* Hauek, nahiz bere mirariak ikusi, bere irakatsia gutiesten zutelako. Pedrok bere Jauna ez zutela hilgo, itxaropen hau adierazi zuenean, *urrun nigandik, Satan,* erantzun zion Jesusek. Pikua madarikatu egin zuen eta ihertzera kondenatu, alerik aurkitu ez ziolako, nahiz piku urte-sasoia ez izan. Merkatariak zigorrez jaurti zituen santutegitik eta bera bakea ez baina ezpata ekartzera etorri zela esan zuen, familiak banatzera; etxe bakoitzean, bera dela-ta, aita semearen aurka eta alaba amaren aurka altzako direla. Hori entzuten zutenek *gogorra duk hizketa hori* zioten. Aurkatasuna edo ezeptizismoa aurkitzen duenean gogor

bihurtzen da. Zalantzan jarri ezineko konbenzimendua du bere eginkizunaz, eta azkenean bakarrik, izu artean hiltzen denean, dirudi etsipen garraisi batez eskutik utzi duen Jainkoaren aurka jeikitzen dela; baina etsipen garraisia hau bera, salmoetako aipamen bat da.

Badirudi Jesusen karaktero oldarkorra ez dela bere irakatsietara zeharo egokitzen, berak bere jokaera batzuetan garai hartako judutar Jainkoaren asarrea errebelatuko balu bezala, bere irakatsietan Jainko honen irudia aldatzen ahalegintzen den bitartean —lehenagoko igarleen asmoa beregain harturik.

Jesusen Itun Zaharrarekiko harremana hitz batez adiaraztea benetan zaila da —hori bera lekukotzen dute kristautasunaren kondairako amaika eztabaidak (Itun Zaharra desegin egin du Jesusek? burutu? hobeagotu?). Horrela hasten du Jesusek bere mendiko predikua, lege zaharra desegin ez baina bete egin nahi duela esanaz —zaila da ordea predikuan zehar esandakoa afirmazio honekin bat etorri araztea. Jesusek inor hiltzeko debekua lagunurkoarekiko ohizko asarrerik izateko debekura hedatzen duenean, eta ezkontza honetan, Kristoren irakatsi osoa betetzen duen espirituan hain zuzen, ikusi dezakegu legearen betetzea: garrantzizkoak ez dira keinuak, iturri duten espiritua da garrantzizkoa; ez jokaera, bihotz garbitasuna baizik, asmo okerrik gabeko lagunurkoarekiko maitasuna. Baina *begiz-begi* printzipioari, txarraren kontra altzatzeari uko egitea ta beste masaila jartzea kontrajartzen dizkion une beretik, ez du gehiago lege zaharra betetzen, aitzitik baizik, anulatu egiten du, hortaz ohartuko ez balitz bezala. Judutar sinesmenaren jarraipena ez du eten nahi, noski, berritu egin nahi du, zentzu sakonago bat eman; Mosaismoaren preskrizio ritualak gutiesten ditu, ez ditu ez larunbata ez garbiketak gordetzen, ez du kulto di-

rurik ordaintzen, honela ortodoxoen asarrean eroririk. Beranduko igarleekiko jarraipena da bera, baina, une berean, Deuteronomioko harrizko gogortasunera jotzen du, bere irakatsiaren eta neurri batean ordurako igarotako tradizioaren arteko kontraesana argitan jarri nahi baluke bezala. Jarraipenaren etetea, bere ikasleak eraginik, diaspora judutarrean gertatzen da batez ere, baina ez da piztuera miragarriaren berri ona bakarrik etete hori eragiten duena, bere irakatsien elkar biltzea ere bai, erraz formulatu bait daitezke honela: ez Israelen sinesmenaren osatze bat bakarrik, oinarrizko pondu batzuen gainditzea baizik. Horrela azaltzen da gauza Pauloren albistean.

Korapilo honek sentidu hau du: Jesusek ez ditu, hainbeste, preskripzio batzuek beste batzuez aldatu, ez ditu, hainbeste, osatzen edo hobeagotzen; askoz gehiago egiten du: preskripzio guziak alferrikakoak direla irakasten du, honela maitasunak agindua beragan irentsirik, eta neurri batetan, borondatezko itun batean agindua alferrikako eginik —maitasuna bakarrik da beharrezko. Beste hitzez: Jesusek ez du Jainkoaren eta gizonaren arteko ituna —kontrato bezala— bir-moldatzen, kontratoaren mamia aldatuz. Kontratozko ituna maitasunezko itunaren onetan desegiten du. Horrela ulertu dute Paulok, Agustinek eta Lutherrek Jesusen irakatsia. Maitasunetik dariona bakarrik da baliozko eta maitasunaren oinarritik sortzen dena ezin daiteke ez eskubidearen bitartez epaitu, ez lege idatzietan neurritu. Keinu batek ez du ezeren baliorik Jainkoaren borondatea egiteko asmoa ez baina beste nolabaiteko iturri bat badu. Gutako bakoitzak ditu eginbeharrak munduari buruz, baina ez inolako eskubiderik, ezin dezaioke munduari ezer esijitu edo mundutik zerbait espero. Dikotomiaren araua zeharo azpimarkatuz adierazi zen —lehenengo aldiz hain radikal mediterraneo

kulturan—: arima eta gainontzeko mundua, borondate ona eta gauzen izate oro. Arima bakarrik da baliozko. Datorren katastrofe osoaren begiz-begi itxu bat bakarrik arduratu daiteke munduko exitoaz. Zeruetako erreinua harri bitxi bat da, zeinen lortzeko gizonak duen guzia ematen duen, bere ondasun guzia: *zertarako luke gizonak mundu osoa irabaztea, ariman gaitz izatez gerotan?*

Jesusen eginkizuna denboratasunaren zorigaitza errebelatzea da. *Hartu duzuten neurrian eman berriro. Zuen gerrikoetan ez urrerik, ez zilarrik, ez metalik ez duzute izan behar, ezta zakurik biderako, ez bi soinekorik, ez oinetakorik, ez eskumakilik:* Munduko lotura guziak, mundu fisikoari gateatzen gaituen guzia deus bilakatzen da betiko egia baten argitan —Jainkoarekiko loturaren aurrean. Gainontzekoa, bigarren mailakoa da —garrantziarik gabeko edo etsai. Jesusek uko egiten die bere ama eta senideei, eta bere sendia ikasleak direla dio; haueri aita eta ama, emazte eta ume, arreba eta anaia bere izenean uzteko esijitzen die; Lukasek dioenez, aita eta ama, anaia eta arreba eta umeak garrotatzeko galdatzeraino iristen da.

Jesusek dakarkien mundu-ikuskeran onaren eta txarraren tartekorik ez dago, mundua aukeratu eta gaitzetsietan zatitzen da, bildots eta aker, erreinuko seme eta gaitzaren seme, hazi on eta belar txar. Daukanari emanen zaio, eta ez daukanari daukan hura ere kenduko zaio. Ez dago ezer tartekorik. Zatiketa hau maitasun espirituaren eta nahimen espirituaren arteko banaketari zehatz egokitzen zaio. Ez dago ezer tartekorik. Gizon guzietara zuzentzen da Jesus noski —hala ere bekatariei dei egitera etorria dela dio, ez zintzoei; zorra zazpi bider zazpi aldiz barkatzeko agintzen du —baina une berean zihur daki arrokeria egoskorra ezin

duela hautsi. Arroak eta indartsuak, bere buruaz zihur direnak eta eskubide eta boterearen jakinaren gainean egotean pozten direnak, aberatsak eta euki-gosetiak gorrotatzen ditu: hauei ez die erreinua hitzetan ematen; mezpretxatuak eta oinazedunak, emagalduak eta zergabiltzaileak onartzen ditu, beragan sinesten duten hauek, mundu honetako bizitza oinaze eta zoritxar dela bait dakite; hau da, hain zuzen onartu beharrekoa, bere irakatsia ulertzeko.

Jainko erreinuaren eta munduaren arteko dikotomia sustraikoa da. Baliogo guzien buruzgainkatze bat dakar: mezpretxatuak izen onera iristen dira, arroak mespretxuz dira ukatuak. Banaketa hau tradizio mosaikoan osatutako mundu irudia aldatzen duen bigarren pundu bat da: beharrezko banaketa bakarra, orokarra, herri aukeratu bat eta gainontzeko bat banatzearekin zer ikusirik ez daukana. Zihur aski, honetan, Jesusek judutar tradizioaren berritzaile bakarrik izan nahi zuen, ez tradizio honen deuseztatzailea, —igarleetan hasitako iritzi bat jarraitzen du honela—, baina bere burua tradizioari kontra-jarri zion, tradizioaren garai hartako era radikalena aukeratu zuen neurrian, mosaismo klasikoarekin konfrontatzen zen neurrian, herri aukeratuaren ideia ezereztu zuen neurrian eta banaketaren oinarri edo printzipio orokorra sartu zuen neurrian.

Gauza guzi horietan berria zen guzia bere ikasleek orokartu egin zuten, Paulok batez ere. Honek bere eskutitzetan, modurik orokarrenean, legea eta sinesmena buruz-buru jarri zituen eta unibertsalismoa adierabide bakarrean formulatu zuen (Jainkoaren aurrean ez dago ez gekertar ez judutarrik); denboratasunaren zorigaitza askesirako agindu bihurtu zuen. Une berean, ordea, eskutitzetan, hoietan hain zuzen, banaketa berri hori dogma batetan finkatu zen: heretikoen kondenatzeak

hasi ziren. Jesusen heriotzak erreforma sendotu zuen, eta honen ondorena, elkarte separatista bat zen. Kristautasuna elkarte bezala, hain zuzen, ez zen sortu ikasleen Jesusen irakatsiekiko sinesmenean oinarriturik bakarrik, Jesusen biztuerarekiko sinesmenaren bitartez baizik, eta beranduago Maisuaren jainkotasunarekiko sinesmenaren bitartez. Nahiz ebanjelioek egiztatzen ez duten Kristoren jainkotzea kristautasunaren geroagoko kondairan sarri zalantzan jarri izan, kristautasunaren dogma berdin bakarra, zehastasun gehiagorik gabe, sinesmen hau zela: Jesus Kristoa da, kondairako gizon bat, Galilean jaioa eta Jerusalenen gurutzatua, bera da Jainkoaren gantzutua. Kristautasunarentzat osatzaile bilakatu zen dogma hau, baita bere (kristautasunaren) desbiaziorik ausartenetan ere.

Hala ere, Jesus ez zen gure kulturan bere jainkotasunean edo bere izadiz gaindiko bidalia izatean sinesten dutenentzat bakarrik gelditu. Jesus ez da gaurko gure kulturan elkarte honen edo haren dogmei esker bizi, benetan zerbait berria diren irakatsi batzuen baliogoei esker baizik. Irakatsi hoiek —eta hau benetan azpimarkatu beharrekoa da— ez daude bizirik arau abstraktoen itxuran, Jesusen izen eta bizitzarekin iraunkor loturik baizik; tradizioak eskuratu dizkigun irakatsiak dira —eskuratze historiko hau, bere mamian, zenbaiteraino zuzen edo zehatz den alde batera utzirik.

Jesus guretzat

Elkar bil ditzagun arau berriak bost ponduetan, Jesusen igarkizun apokaliptikoak —munduaren berehalako amaiaren sinesmena— alde batera utzirik formulatu ditzazkegunak. Hau egiten saiatuko gara, nahiz ondo jakin arau hauek Jesusen irakastaldian igarkizun hoiekin loturik zeudela.

I.—Legearen gainditzea maitasunaren nahiez.

Berriz diot: gainditzea eta ez burutzea. Pentsamendu hau europear kulturan konbenzimendu honen itxuran sartu da: konfidantzan, uste onean oinarritutako *gizonen arteko* loturak kontratoak alferrikako egiten dituztela; elkarrekiko konfidantza eta maitasunak elkarbizitze solidario bat eratzen dutenean, kontratoa, eskubide eta obligazio-harremanak alferrikakoak direla. Moiseren bost liburuetako Jainkoak, bengadizua eta esaneko izatea, esaneko izate beldurgarri bat galdatzen duenak, Abrahamekin ituna egin zuen Jainkoak, menpetasun osorako prest egotearen ordainez, bere seme bakarra eskeintzeko prest egotearen ordainez —Jainko honek, errukiaren Jainko bihurtzen denean, ikusmira berrien posibilidadeak irekitzen ditu gizonen arteko harremanetan ere. Kontrato-ituna ta maitasun-ituna aurrez-aurre jartzeak jarraiko modu honetan iraun du gure kulturan: nahiz biak (kontrato-ituna eta maitasun-ituna) jatorriari dagokionez elkarri loturik egon, ez dira organikoki elkarrekin hazi (bakoitza bere aldetik baizik), kristau sinesmen ideietan ikus daitekeen bezala. Aurrez-aurre jartze horrek gaur arte irauten du, mila aldaketen barruan. Izan ere, zer besterik da gaur eguneko filosofian komunikazio existenziala eta objetiboa aurrez-aurre jartzea, lehen aitatutako oinarriko banaketaren edizio berri bat baizik? Ez da kristau filosofia bakarrik izan aurrez-aurre jartze hori etengabe berritu duena; Rousseauren filosofian, Kierkegaarden filosofian, Jaspersen filosofian birazaltzen da. Eta Marxek ondasun aldaketa-gizarteko interes kontratoa gizonen —askatasunez elkarrekin solidario direnen— borondatezko elkartzearen akordioari kontrajartzen dionean, garai hartako sozialistekin batera, bere jatorria Jesusengan duen gai berdina jasotzen du, gaurko kristautasunean gehienbat heresietan eta gutienbat elizan bilatu daitekeen gai berdina. Nietzschek berak maita-

sunetik darion guzia onaren eta txarraren gaindi dagoela dionean, bere etsaiaren pentsamendua jasotzen du, jakin gabean. Akordioaren ordena, eskubidezko kontratoak, benetan solidario agertzen den borondatez egindako ordena baten onetan desbaliagotu nahi lituzteken utopia guziak, hitz batez, anaitasun orokar baten utopia guziak, zuhaitz berdinetik dituzte heuren fruituak, utopia hoieri bere hasiera, nahiz urrutikoak, berdintsu izan arren.

II.—Gizonen arteko harremanetan indarkeria gainditzeko itxaropena.

Asmo hau agertzen zaigu, hain zuzen, sarritan bereziki utopiko eta inuxente. Edozeinek erraz aitor dezake kristautasuna hitzez-hitz hartu duen kristaurik ez duela sekulan topatu, hau da, belarrondokoa hartuz gero beste masaila jarri duenik. Agindu hori, hitzez-hitz hartuta gauza bat da ordea, eta beste interpretazio mugatu bat, indarkeriaren gainditze bat eskatzen duena. Inork ez bait die kristauei ebanjeliotako aginduak hitzez-hitz betetzeko eskatzen. Benetan eskatzen zaiena zera da: eramanpen edo tolerantziaren araurik oinarrikoenak eta apalenak serio har ditzatela, indarkeriari uko egin dezaiotela. Baina eskabide hau bera itxuragabeko dager askotan. Bere bizitz-errealismoaz arrotzen direnei, —errealismo hitzak ezer esan nahi balu bezala, edo hitz hori erabiltzetik indikazio konkretoak sortuko balira bezala—, indarkeriari uko egite ideiak irripar osasuntsu bat merezi duela iruditzen zaie. Baina nor da benetan inuxente? Gizadiaren kondairaren ezaguerak kontutan hartu gabe gizonen arteko harremanetan indarkeri neurria moztu daitekeela esaten dutenak, gauza asko indarkeriarik gabe borrokatu izan dela, eta aurrerantzean indarkeriarik gabe oraindik gehiago borrokatu daitekeela diotenak, —edo indarkeria-

rik gabe ezer ezin daitekeela lortu pentsatzen dutenak, baina aitzitik, indarkeriaz dena lortu daitekeela? Kristautasunaren etsaietatik batek ere ezin dezake diskutitu kristautasunak posizio bat erdietsi zuela indarkeriarik erabili gabe, —behin posizio honetara heldurik kristautasunak, noski, indarkeria erabili zezakeen eta Jesus izena torturagailu bezala erabili zezakeen. Egia da, baita ere, zenbait ekintza, indarkeriarik gabeko behartzearen printzipioan oinarriturik, ez direla ondorenik gabekoak izan (Gandhiren ekintza adibidez). Nazio-arteko harremanetan indarkeriari uko egitearen esaera hitzez ea orokarki onartua da. Norbaitek esan dezake: onartua da, bai, eta ondorenak? Handiak, darantzut nik. Hitzez onartutako eta praksian bortxatutako baliogoak, baina hitzez behintzat onartuak. Zergaitik? Herri iritziaren indarrak, hitzez ados egotera beharturik, honetan zerikusirik baduelako. Zurikeria hau dela eta ez dezagun negar egin, hitzezko aitormen batek ere, praksian, baliogoen gizarte indarra adierazten du, baliogoen azpian ezkutaturik dagoena —La Rochefoucauldden aforismoarekin bat etorririk. Oraindik asko ez dela lotsarik gabe aitortzen zuten estaduetako buruzagiek hedatze, harmaz hartze eta gudu politika zela heuren politika; gauza arraroa bilakatu dira horrelako aitormenak. Indarkeriarik gabeko mundu baten itxaropena ez da ameskeria irrazional bat. Inuxenteak ez dira indarkeriaren neurria laburtu ditakeela pentsatzen dutenak eta benetan labur dadin borrokatzen direnak —indarkeriz guzia lortu daitekeela uste dutenak baizik. Horrelako uste bat, ume ilusio bat da; umeekin, adin jakin batean, indarkeria erabiltzea ezinbestekoa da; hala ere, umea urteetan aurrera bezala, indarkeria mailaka gutxitzea gehienetan posible da. Sarritan ordea, indarkeriaren erabilketa beharrezkoa baino gehiago luzatzen dute, neurririk gabe, gurasoak. Horrela hezitako gizon bat giza arteko harremanak indarkeriaz kanpora beste ezerk ez ditzazkeela zuzendu uste izatera iristen da jeneralean, eta

bere aurtzaroko esperientzietatik aur mailako mundu ikuskera bat osatzen du eta kondairaren filosofia arrunt baten mailara jasotzen du; filosofia hontaz arro egotera iristen da, eta *realista* eta *desengainoetatik askatua* dela dio. Errealidadean ordea, indarkeriaren ahalguztidun-tasunean sinestea inuxentea ez-ezik, neurri zabalago batetan harturik, eraginik gabekoa da: ezaguna da indarkeria beste oinarririk ez duten elkar-bizitze erak pikutara joaten direla, indarkeriak ezertarako balio ez duen egoeratan zer egin ez dakitelako, aurrak bezala, indarkeriaren baliogo orokarrean sinesten bait dute. Iraupeneko gizon erabakiak, aitzitik, burua eta ausardia erabiliaz, sarritan erdiesten dituzte heuren helburuak indarkeriarik gabe. Indarkeriari uko egitea ez da inola ere pasibidadea edo esaneko izateko ixuria; Kristok indarkeriari uko egin zion, baina iritziaren alde etengabe borrokatu zen, eta, horretan bere bizia eman zuenez gero, indarkeria bere zutenen asmoak hautsi zituen. Indarkeriarik gabeko bizitzaren ideia, ez da, ez zoro eta ez utopiko: *ausardia bakarrik* galdatzen du, eta ausardia hau ez dute izaten gehienetan indarkerian medio orokarra ikusten dutenak —indarkeria bere esku, ahularen aurka dutenean bakarrik daudelako prest borrokarako, bestela ez.

III.—«Gizona ez da ogitik bakarrik bizi».

Esaera hau, Deuteronomiotik hartzen du Jesusek, hain sarritan ukatzen duen textotik. Eta zentzu zabaldu bat ematen dio. Soroko liliak eta txoriak bezala, biziaz eta jateaz ez dugu zer arduratu beharrik. Hau ere Jesusen inuxentekeri jainkozalearen asmakeria bat al da? Europear kultura osoan etengabeko nahi zahar batek irauten du, bizitz fisikoaren atseginen beharretara reduzitzerik ez dagoen baliogoak onartzeko; badago sena bat honetan ados egotera: horrelako baliogoak ba-

daudela, benetakoak direla eta besteen mendeko ez direla. Honelako ados egote batek uskeria iruditu behar du, ez du itxutzen berrikeria batek bezala —baina Jesusi esker bilakatu zitekeen behin uskeria. Gizonak ez duela jan eta bere burua jantzi bakarrik egiten —zer arruntagorik? Hala ere sarritan gertatu da gizonak uskeriak onartzeko borrokatu behar izan duela, esate baterako konbenzimendu hau lortzeko: espirituzko lorpenak, lorpen materialetarako ekar dezaketen nolabaiteko probetxuagatik ezin neurtu ditezkeela. Izan gaitezen, beraz, esker-oneko ogitik ez garela bizi gogora arazi digun harekin —une berean bai bait dakigu, lilioak eta txoriak bezala bizitzeko aholkua ez dela hitzez-hitz hartu behar.

IV.—Herri aukeratu baten ideia gainditzea.

Jesusek Jainkoa guzien esku jarri zuen. Edo: bere aurretik judutar igarleak irekitzen hasitako pasadizoari akabera eman zion. Jesusen Jainkoak ez dio bere herriari galerazten sinesgabeen alabak ezkontzeko, ezta beste herriak porrokatzeko aholkatzen; bere herria zuzen guziak osatzen dutela dio; sortaldetik eta sartaldetik, ifarretik eta hegoatik Jainkoaren erreinuan Abrahamekin, Isaakekin, eta Jakobekin esertzera asko etorriko direla hitzematen du. Jesusen Jainkoak mundua maite zuen eta hainbesteraino maite, ze, Juan apostoluaren hitzek diotenez, bere semea eman zion salbamen. Berarentzat ez dago ez gekertar ez judutarrik. Mintzagaitzat hartzea ea lotsagarri egin behar zaigun uskeria batetaz ari gara hemen berriz. Baina Europako kulturan garrantzizko arazo bezala sartu dena, behin printzipio bezala formulatuz gero, baztertu ezineko galdera bezala. Baliogo hau onartua izan dadin, askok eman du odola. Jainkoak edo kondairak aukeratutako herririk ez dagoela, beste herriak baino kultoagorik,

edozein legeren izenean beste herrieri bere nagusigoa ezartzeko eskubiderik duenik —hori ikustea baino gauza errazagorik ez dago gogoeta teorikoaren munduan; aldi berean ez dago ezer, serioski hartuz gero, istilu gogorragorik sortzen duenik. Gizadiaren oinarrizko baliogoak guzien jabego direla, eta gizadiak herri bat osatzen duela, —Jesusen irakatsiari esker bilakatu zen ideia hau gure mundu espiritualaren salduezineko zati.

V.—Denboratasunaren zorigaizto fisikoa.

Giza munduaren irudi hau, senda ezineko ahultasun bezala, zenbaiteraino zuzena den ala ez jakiteak ez du garrantzirik; garrantzizkoa dena, Europako desarroilo espiritualaren berezko atal bilakatu izana da. Gogoeta filosofiko desberdinetan beti berriro azaltzen den gai bat da —eta inola ere ez kristauetan edo kristautasunak zuzenki eragindakoetan bakarrik. Jesusek gizonei behartsu direla adierazten die, eta heuren behar gorria heuren buruari ezkutatu egiten diotela; Pascalek sinesmen hau bere egin zuenean, bizitz espiritualaren muin bihurtu zuen. Arrazoi du pentsamendu honek gizonak munduko izatea hobeagotzeko senatik apartatzeko sarritan zerbitu duela dion edozeinek, zoriaren aurreko etsipena justifikatu duela, aurretik emanda baldintzapenak onartzera behartzen duela, menperatu eta deseskubidetutako jendeen esplotazioaren aurkako garraisia isilarazteko irakatsi hortaz baliatzen dela, honako sentidu hau eman zaiola: munduaren hobeagotze batetan ez sinestea bertute dela. Egia da baita ere, aseen eta ondo bizi diranen taldeak askotan apaindu duela bere burua pentsamendu honekin —gosetuei eta deseskubidetuei mundutar ondasunak baliogo handirik gabekoak direla esaten diotenak, eta ez dela larritu behar mundu honetako zoriaz. Apatiko bihurtu gara

horrelako interpretazioen nazkagarrikeriarekin, kristautasunaren kondaira horrelakoez josita bait dago.

Hala eta guziz ere, badago pentsamendu hau ulertzeko beste modu eta era bat, nahitaez ondo bizi diranen eta pribilegiatuen juztifikazioa berekin ez daramana. Horrelako juztifikazioaren nazkagarrikeria aspaldi deskubritu zen eta, ikusten dugunez, kristautasunak berak poliki-poliki uko egiten dio. Giza izaeraren zaharkitze fisikoaren ustean gogoeta filosofikoaren gai izan daitekeen zerbait beti dago eta sarritan gai izan dena —uste hori zertarako erabiltzen den alde batera utzirik—; filosofoentzat gai bezala beti garrantzizkoa zen zerbait, geroko bizitza batetan sinesten den ala ez alde batera utzirik, beti gogoetaren gai izan daitekeen zerbait. Gogoeta honetan ez dago ondorio honetara iritxi beharrik: gure izatearen zaharkitze estrukturala ikusirik hobeagotu daitekeenaren hobeagotzean ahalegintzea alferrikakoa eta fruturik gabeko dela alegia. Izan ere gizona benetan ahalegindu daiteke eta borrokatu giza izatearen baldintzetan aldatu daitekeena aldatzeko, eta, hala ere, jakinaren gainean egon, absolutua lortu ezinekoa dela, giza izatearen zaharkitze fisiko batzuek aldaezinekoak direla, gugan oinarriko ezgaitasun bat badagoela, giza mugatasun honekin loturik dagoena hain zuzen. Gai hauek beti emango die zeregina filosofoei.

Jesus kulturarako ber-irabaztea

Jesusen irakatsiari esker, —nahitaez kristau dogmei loturik egon gabe—, Europako ta munduko muin espiritualean barneratu diren baliogoen erresuma bat da hau. Ez osoa, aukerakoa baizik, baina ez, —aukerakoa delako—, nahi halakoa. Baliogo hauek, bere ezkristau itzulpenean, heuren Jesusen pertsonarekin loturi-

ko jatorritik eteten badira, honek kultura maileko pobretasun bat ekarriko luke. Pobretasun hori kristau elkarte batzuek Jesus monopolizatzearekin loturik dago eta mundu espiritualeko beste hesparruetan Jesus desagertzearekin. Harrisku bat dago, kristautasunaren zaharkitze agerpenak, beste gabe, Jesusen izatearen garrantzi historikoaren zaharkitze bilakatuko ote diren. Hori ebitatu nahi dugu.

Aipatutako pundu guzietaz esan daiteke benetan: *horrelakorik lehen ere bazen;* guk geuk bila ditzazkegu, ez oinarririk gabe, antzeko gaiak asiatar erlijioetan. Hala ere, jatorriz gurea dugun mediterraneo kulturan baliogo hauek Jesusen irakatsiarekin, bere izenarekin loturik daude. Ondasun espiritual bat dira, berak kulturaren zainetan sartu zuena, berak eragin indarrez jantzitakoa. Horregatik, Jesus *desegiteko* ahalegin bakoitza, Jesus gure kulturatik baztertzeko, —berak sinesten zuen Jainkoan ez dugula sinesten-ta—, farregarri eta alferrikako da. Ezjakinak bakarrik saiatzen dira horrelako zerbaitetan, honako hau pentsatzen duen jendeak: ateismo arrunt bat ez dela nahikoa mundu ikuskera bezala, baizik eta hortaz gainera, tradizio kulturala bere egitamu dotrinarioen araura podatu ta honi bere mami bizienak kentzeko eskubidea ematen diola berari.

Mundu kristaua, —gure itxaropen ez oso sendoak betetzen badira—, behingoz benetako aldaketa baterako gai agertzen bada, bere burua hobeagotzeko indarrak bere iturri propioetatik hartuko ditu (kritiko ezkristauak kristautasuna ahuldu dezakete, hobeagotu ordea ez); baina kristau munduak bere burua hobeagotzeko gaitasuna bere ardura Jesusen izenarekin lotutako baliogoetan jartzen badu bakarrik ber-irabazi dezake. Agian orduan helduko gara gu gure kultura nazionala lau gizaldietan zehar menperatu ta antzutu duen katolizis-

mo fanatiko eta itxuaren irudi beldurgarri, ilun eta klerikaletik gure buruak askatzera.

Hala ere, itxaropen hontaz aparte, ezin ditzazkegu Jesusen pertsona eta irakatsiak gure kulturatik kanpora bota, edo baliogabekotzat aitortu, kultura honek aurrerantzean ere izan behar badu, eta osatua izan behar badu. Gizaldietan zehar dogmen irakasle ez-ezik giza baliogo gorenen adibide zen gizonaren irudia ezin daiteke ezerezean amildu, bizitzaespirituala oinarritik eten gabe; bere pertsonatasunean bere egia abots betez adierazteko gaitasuna gorpuztu zuen Jesusek, egia hau konpromisorik gabe azkeneraino defentsatzeko gaitasuna, bera onartu ez zuen errealidadearen eragin gogorraren aurrean azken aurkatasunerako gaitasuna. Berak irakatsi zuen nola indarkeriara jo gabe bere buruari ta munduari kopeta jarri daiteken. Zera zen, beraz, Jesus: giza banako bakoitzari bizitzaren baliogo propioak benetan egiztatzea ahaltzen dion sustraieko jatortasun haren ispilu eta adibide.

ULERMENEZKO MATERIALISMOA POSIBLE AHAL DA?

PENTSABIDE

Diltheyren printzipio hermeneutikoa:

— *ulermen mailako eta argitze mailako ezagupen ekintzak oinarritik bertatik elkar bereztea.*

— *printzipio honek, bere interpretazio sikologikoan. ber-bizitzearen araua du berekin (azterkatutako autorearen egoera sikikoa ber-bizitzea, adibidez). Arau honek oinarriko bi mugaketa ditu:*

— *beste gizabanako baten esperientzia sikikoa bere betetasun eta osotasunean erakartzeko zailtasuna*

— *ez da agerpenen ulermen mailako deskribapen bat, ikustatze bat baizik. (Guzi hau dela-ta, nahi halako oinarriak hartzen ditu, arbitrarioak).*

— *Diltheyren printzipioaren baliozko mamia: gertaerak* barnetik *hasita bakarrik uler daitezkeena. Honek zera esan nahi du: azterkagaiarekin baliogo bilduma berdina elkarrekikoa izan beharra.*

— *ulertzea, izpiritu zientzien zentzuan, edozein estrukturaren barruan dagoen barne-joskera egokiaren izpirituzko hautematean oinarritzen da. Baieztapen honek bi argibide behar ditu:*

— *ulertze ideiaren bidezkotzea: ulertze ideia ukatzen badugu, behaviorismoan erortzen gara. Behaviorismoarekin, ordea, ulermen mailako ezaguerarik ez da posible. Ulertzeak, helburu-jakineko jokabideak beharrezkoak ditu (zentzu bat duten gertaerak).*

— *ulertze arloaren mugatzea: ulertzearen oinarria helburuaz jakinaren gaineko jokabideak bakarrik izateak ez du esan nahi ulertzea giza-banakoen barne esperientziak eta barne egoerak deskribatze bat denik.*

«Izadi» munduak, berez, ulermenezko estrukturarik ez du:

— *Orain arte esandakotik ondore hau atera daiteke. Hau izadi zientziei ulermenezko interpretaziorako gaitasuna ukatzea da.*

— *horregatik, alkimisten sinestea bukatu da: alkimistak* izatean *liburu batean bezala irakurtzen saiatzen ziren,* izadiak *berezko ulermen mailako estrukturak dituela sinetsirik.*

— *metafisika, ordea, baztertu ezinekoa da. Zientziak alkimistari, metafisikak bizitzarekin zerikusirik ez duela dioenean, alkimistak aitormen honetara behartzen du zientzista: baliogo pragmatikoak dute erabakia. Baina, urrunago joanik, baliogo teknikoetara moztu behar ditu.*

— *zientzismoa pragmatismoan bukatzen da. Metafisikoak pragmatikoki zuzendutako zientziatik at oinarri egokiak aurkitzeko eskubidea galdatzen du. Izan ere, metafisika, mundu ulerkera jakin bat da, agerpen enpirikoak ordena ez-enpiriko batetan kolokatzea ahaltzen digun arau-bilduma bat. Metafisika ezin daiteke inolako enpiriatan oinarritu. Izadi zientzietatik at bilatzen ditu bere oinarriak.*

Materialismoa metafisika ahal da?

Arrazoi mailakoa ala argitze mailakoa da materialismoa? Iritzi materialista ezberdinak daude. Bi nagusi:

— *zientzismoarekin bat datorrena. Ez da metafisikoa.* Esperimendu *burutazioa du oinarri. Fisikak dioena ber-esaten du.*

— *zientziazko datoetan oinarritzen ez diren munduari buruzko judikapenak formulatzen dituena. Iritzi honek ezagueraren teoria realista du aurrebaldintza bezala. Teoria honek hau dio: ezaguera gaiak gu baitatik at daudela, ezaguera egoerak erlatibatu gabeko mundua ikusteko egoera bat*

badagoela. Horregatik trazendental eta mistiko deitzen zaio.

— *materialismo mistikoa errealismo mistikoari arau hau erantsiz sortzen da: errealismo teoriak onartutako ezaguera egoeraren menpe gelditzen diren jabetasunak bakarrik onar daitezkeela.*

— *materialismo hau metafisikoa ahal da? Arau batean bai, eta bestean ez. Kontraesan honetatik (eta errealismoak berekin dituenetatik) askatzea zaila da. Metafisika sustanzialista (Demokritoren garaikoa) eta fisika atomikoa batu nahi ditu. Fisikaren menpeko gelditzen da zeharo.*

Mundua, giza hesparrutik at uler ote daiteke?

Galdera garrantzizko hau ageri da eztabaida guzi honetan. Gizonarekin zerikusirik ez duen mundu bat ez da ulermenezko interpretazio batetara egokitzen. Horrela, metafisika negatibua edo ukazio metafisika sortzen da:

— *ezezko judikapen esistentziazkoak ez dira zientzi arlokoak. Giza egoeraren sustraiko jabetasunak ulertzeko garrantzia izan dezakete giza beharren jakiteari loturik daudenean.*

— *zientzismoak mundua eta gizona* ulertzeko *biderik ez du. Metafisika positibuak (erlijioak, mitoak) zientziak agertzen digun errealidadearekin kontraesan garbian daude. Irteera bakarra: ukazio metafisika; erlatibutasunaren printzipioa absolutura jaso nahi ez duena, giza beharren jakitearekin loturik doanean, gizona eta mundua ulertzeko bide bat eskeintzen diguna da ukazio metafisika.*

Diltheyk egindako ezagupen ekintzen oinarrizko berezketaren baliogoa —ulermen mailako eta argitze mailakoen arteko berezketarena alegia, berezketa honen interpretazio sikologikoak ilundu eta itzaletan utzi du, neurri batean.

Frogatua dago interpretazio sikologiko hau, berez, ez dagoela oinarrizko berezketa horretan; berezketa hori Diltheygan arau hermeneutiko berezi bat dela. Sikologismo honek konbenzimendu hau zuen oinarri: zantzuen edo keinuen ulertzea honetan datzala, zantzu hoien laguntzaz, zantzu horiek sortu dituzten gizonen

asmo eta zioetara iritxi ahal izatean. Hau baliozko da, zantzuak semantiko mailan karaktero baliozkorik duen ala ez alde batera utzita ere. Hareago oraindik, sikologismoak zera suposatzen du: ulertzea, sentidu betean, ber-bizitzean datzala alegia, hau da: norberaren egoera sikikoa zantzuen sortzailearena bezala jotzen den egoera sikikoarekin identifikatzean. Ber-bizitzearen arauak bi funtsezko muga ditu gutienean. Azterkatutako zantzu multzoan bere adierabidea aurkitu duen beste giza-banakoaren esperientziaren berritzea hain osoa behar luke izan, bere adibide egokia zantzu multzo hori bakarrik posible izaterainokoa, eta ez beste multzorik. Adibidez: Hölderlinen *Gizadiari Himnoa* poesiaren ulertze bete batek honetan oinarritu beharko luke, bere adierabide egoki bakar bezala *Gizadiari Himnoa* poesiaren textoa izango lukeen egoera sikiko bat erakartzean. Gauza garbia da, bere hitzezko formulatzean jatorrizko textotik apartatzen den edozein interpretazio saiakera, bere irudirik garbiena poema horretan aurkitu duen Hölderlinen esperientzi oso berezi horretatik ez baina beste egoera batetik abiatzen dela. Ba dago erti lanaren nabaritze (ohar hartze) modu bat, adierabide honen eta ez beste inoren alabehar nahitaezkoaren sentimendua bezala seinalatu daiteken esperientzi batekin eskuz-esku doana. Orduan *betetasun gorenenaren agerpen* bezala bizitzen da ertilana. Edo batek erti lan horretan mamiaren muina topatu uste du. Aurrean dagoen erti lanean beste inola adierazi ezin zitekeelaren sentimendua du. Honelako sentimendu bat erti eta filosofi mailako sortze lanik osatuenekin elkarrizketa edo komunikazioan nabaritzen dugu. Bainan horrelako nabaritze (oharartze) edo sentitze ilun bat arau hermeneutiko bihurtzea ezinekoa da, *ulertzeak* bere adierabidea agerpenen ulertze mailako deskribatze batetan aurkitu behar badu, eta ez alferrikako ikustatze huts batetan.

Hortaz gainera, ber-bizitzearen arauak kultur interpretazioan kriterio (erabakiarau) zeharo arbitrarioak dituzten instanzietan oinarritzera behartzen gaitu. Izan ere azterkatutako sortzailearen sikearekin ez dago beste komunikazio posibilidaderik sike honek bere sorketan eta bere biografian aurkitzen duen expresioa besterik. Kondairagileak honela edo hala deskribatutako esperientzia, lortu nahi den sortzailearen esperientzi egoeraren benetako berritze bat den ala ez jakiteko batere posibilidaderik ez dago.

Diltheyk berak ez du ulertzearen ideia beti nahitaez ber-bizitzearen teoriarekin lotu. Errealidadean, kultur produktoak eta gizarte gertaerak *barrutik* hasirik ezagutuak direla onartzeak ez du suposatzen ezaguera hori beste gizon baten egoera sikikoa ber-osatze bitartez lortzen denik. Hori nahikoa da, bere helburu-egokiko jokabidean eta, kausal loturaz beste, inolako helburu--egokiko estrukturarik aurkitzen ez den gertaeren artean berezteko. Weberen interpretazioan kultur gertakarien ulermen mailako interpretazioa Diltheyn ber-bizitzearen dotrinatik aske dago. Kultur gertakari eta zantzuak giza baliogoen munduan lokalizatzeak ez du inola ere suposatzen azterketa humanistikoaren helburua esperientzi arrotzen ber-bizitzea denik. Nahiz eta azterketa humanistikoaren helburuak abiapondu hau izan: guk, gizonen jokabide desberdinak eta beroien emaitzak, noski, beste gizonekin komunzki ditugun baliogoen bilduma jakin bat eskuetan dugulako bakarrik ulertu ditzazkegula, alegia. Gure baliogo bildumatik zeharo baliogo bilduma desberdina lukeen kultura bat, izadi jakintzazko azterketa baten gai bakarrik izan daiteke guretzako. Espiritu jakintzazko sentiduan, ulertu ezina litzake. Baina jatorri berdinak baldintzatutako beharretan dugun elkartasunak ohitura mailan gugandik urrutieneko gizarte estrukturak guretzat zeharo arrotz ez gertatzea eragiten du. Edo guztiz aparteko eta bere

moduko jokaerak, azken finean, behar jakin batzuetara reduzitu ditzazkegu, behar hoietan guk ere hartukizun izanik, baina gure kulturan beste atsegin edo lasaipide bat aurkitu dutenak.

Nere asmoa ez da hemen gai honi buruz gogoetetan jardutea: semantika mailan balioz beteriko zantzuak ulertzea beste ulertze era askoen artean ulertze sub-era bat ote den —espiritu jakintzen hermeneutika jeneralaren gai dena—, edo eskuartean dugun arazoa agerpen zeharo berezi bat den, eta horretxegatik beste gainontzeko ulertze moduekin batera maila goragoko ideia edo burutazio bat galdatzen duena ote den. Nahikoa dugu hau onartzea: ulertzea, espiritu jakintzen sentiduan, edozein estrukturaren barruan dagoen barne-joskera egokiaren espirituzko hautematean oinarritzen dela. Honelako onartze bat argitasun biren beharrean dago: batetik, humanistikarentzat tipikoa den ulertze ideia edo burutazioaren or-egotea (existenzia) justifikatu behar du, eta bestetik arazo hau dela-ta erabilitako helburu-egokitasun ideiaren arloa (hesparrua, soroa) zehatzago karakterizatu behar du.

Aurreneko galderari buruz honako hau azpimarkatu behar da: humanistikaren interpretazio behaviorista hutsa —eta interpretazio honetara beharturik gaude *ulertze* ideia baztertzen badugu— *jakitearen* definitze arbitral batetan oinarritzen dela, baina inork ez gaituela hortara behartzen. Erraz erabaki dezakegu gizona ez beste bizitz-zeren azterketan gure ikusmira behaviorísten helburuzko hizkuntzak ez duela, azken finean, ezer gehiagorik esaten. Ber-egite baldintzatu batzuen ondoren arratoi batek, esate baterako, zantzu jakin batekin ihesi egiten duela badiogu, orduan arratoiak zantzu horrek adierazten dituen zoritxarrei ihes egitearren alde egiten duela esateak azterkatzaileak arratoiaren jokabideaz jakin nahi lukeena ez du ezertan aberasten. Horre-

gatik, gehigarri hori laburpen konbenzional lez bakarrik jasan daiteke. Espiritu jakintzetan jakintzazko helburu ezkutu bat ezin lortu daiteke helburuzko hizkuntza erabiltzeke. Horretarako nahikoa da historikoki finkatutako dokumentu jakin baten idazleak bere gogo edo asmoaren kontra errealidade bat edo berezgarri propio batzuek salatzen dituen kasoen ugaritasunean pentsatzea. Horrelako berezketa bat bidezkotzeko historiagilea beharturik dago helburuaz jakinaren gaineko jokabidearen eta helburu ohargabeko jokabide biologiko hutsaren artean bereztera. Jakite humanistikoak galdatzen dituen agerpen-agertzeen irudi egokiak, helburuaz jakinaren gaineko jokabideen azpimarkatzea (resaltar) ezin baztertu dezake. Espiritu jakintzak, jakintza historikoen adar guziak batez ere, pentsa ezinekoak dira espiritu behavioristan landu izanak badira. Behavioristak jakitea honela definitzen badute: helburuaz jakinaren gainean egotea aitortzen zaien deskribatutako agerpenen agertzeak, beste batzuen artean, behaviorismoarekin elkartu ezinekoak deklaratzeko moduan, orduan bere balioa erabaki arbitrario batetik hartzen duen definizio bat ematen dute, eta, ondoren bezala, jakintza humanistikoak aurrera eraman ahal izatea kanpora uzten dute.

Honetan, ordea, —eta honekin bigarren argitasunean sartzen gara— helburu egokiko jokabidearen agertzea ez da inola ere jarduten duten giza-banakoen esperientzien eta *barne* egoeren deskribatze bat. Diltheyren interpretazio sikologikoak bere kritikoen aldetik nahiko gogor gaitzetsiak eta zalu erasoak izan direnez, galdera honi berriz ekiteak ez dauka gehiago zentzurik. Helburu egokiko estrukturaren agertzea ez da ari giza banakoan suposatutako *barne munduaz*, giza banakoen jokabide ta emaitzetaz baizik. Ohar gabeko helburu egokitasunaren ideia, sikoanalista zentzuan, gaitzesteko arrazoirik ere ez daukagu. Gaur eguneko ulertzearen metodo sikoanalitikoetako bat edo beste onartzeko

pronto gauden edo ez alde batera utzirik, sikoanalistak izan dira zeharo asmo-gabeko giza jokaerak zentzuz betetako estrukturetan aldatzea lehenbizikoz posible egin dutenak. Beroiek lortu dute, beraz, gure jokaeraren eta pentsatzearen itxuraz zentzugabeko berezgarriak ulertzearen gai izan ahal izatea. Erti lanen ohargabeko estrukturak, ametsen eraketa ohargabekoak eta eguneroko bizitzaren desitxuratzeak, sena ezkutuen eraginez, —guzi hauk ulermenezko agertzearen gai bilakatu ziren agerpenen hesparroa asko hedatu dute. Eta gertaera honek, bere aldetik, *ulertzearen* erabilketa mailaren hedatzean izan zuen eraginik. Horregatik, helburuaz jakinaren gaineko estrukturak ez dauka jakinaren gaineko asmoeri jarraiki sortutakoa izan beharrik. *Leonardoren putriak* humanisten ardurarik handienaren gai dira. Baina ardura hori sentidu honetan hartu behar da: ez humanista bakoitzak bere arloan Freuden eskemeri jarraiki osatutako eraketak aurkitzeko joera lukeenik, baizik eta humanisten lanaren zatirik baliotsuena, elkar-jartze enpirikoan oinarriturik, besterik gabe, azaltzen ez diren estrukturak gai historikoan aurkitzera jotzen duela. Kondaira gaiari, gai hau ulertzea posible egiten duen ordena bat ematea ahaltzen du. Lan hau zenbaiteraino lehendik den ordenaren aurkitzean bakarrik datzan —kondaira gaiean ezkutaturik bakarrik dagoen ordena—, eta lan hori zenbaiteraino kondaira ulerbera izatea *eragiten* duen historiagilearen —eta honena bakarrik— eratze ekintza den, galdera hau ezin eztabaidatu daiteke hemen, nahiz eta jakite humanistikoaren interpretaziorako garrantzizkoa izan. Gure arazoa hemen gure zerbitzurako nahi dugun ulertze ideiari buruz sarrera ohar batzuek egitea da.

Diltheyk izadi jakintzei, azterkatutako gaiaren ulermenezko interpretaziorako gaitasuna ukatu zienean, 17. mendea ezkero europear filosofiak etengabe ber-esan duen eta gure baitan itsatsirik gelditu den pentsamen-

du bera beste hitzez ber-esan zuen: gizonagandik aruntz dagoen munduan helburu-zioak ukatzea. *Izadi* mundua, (mundua giza interbenzioetatik at dauden bere jabetasunekin, ezin ulertu daiteke, eta interpretazio bat ahalduko lukeen ikusmirarik ez du beregan. Alkimisten sinesmena, ikus daitekeen errealidadearen egitura guzietan ikus-ezineko izatearen reproduzioak bilatzen zituena eta izate enpirikoan, liburu batean bezala, irakurtzen, eta izadi agerpen guziei zentzu mami bat ematen saiatzen zena, sentidu honetan bukatu da —Böhme edo Paracelsok emandako sentiduan—. Honek, sinesmen harek izadi jakintzalari batetan ere ez duela iraun esan nahi du. Hala ere, presaka ibiltzea litzake alkimista mundu ikusmirak bere bizitasuna zeharo galdu duela onartzea. Zientifista debekuaren mundu ikusmirak bere bizitasuna zeharo galdu duela onartzea. Zientifista debekuaren aurka azterketa metafisikoaren ber-baliarazteko ahalegina egiten den toki guzietan, alkimia da garaile. Metafisikoa ez da beti gai bere hermeneutika kosmikoaren arauak formulatzeko. Honelako arauak aurkitu daitezkeela sinesten duen une beretik da metafisiko. Heidegger sentidu honetan da alkimista: bere teoria gizonak izatearen hizkuntza deszifratzen duenean gizonarentzat izatearen zentzua argitu daitekeelaren ustean eraikitzen duelako. Ta ez Heideggerek izateari berak sortutako zentzu bat, proiektatuz, oinarri jartzen diolako. Gai honetan, nik ez dut hainbeste aitormen erlijiosoetan pentsatzen, giza-banakoaren bizitza osoa probidentziarekiko elkarrizketa bezala ulertzea agintzen duena, eta giza banakoen mende ez dauden gertaerak zaindaritza gogor edo errukizko baten agerpen bezala hartzea. Alde honetatik ikusita, metafisika orok —Popperen sentiduan inolako okerren mende ez dauden mundu-osotasun izaerari buruzko konbenzimendu (uste) bilduma orok— sinesmen erlijiosoarekin, ororen egiztatu-ahal izate hura du berdin. Hortatik berezten dira mundu ikuskerak jakintzan oina-

rritutako jakitetik. Nahi bada, deitoratu daiteke giza izaeraren gogo pobretasuna, jakintzaren lorpen guzien aurka ahuldugabeko indarrez, beti berriz, munduaren interpretazioari buruzko arauen bildumak sortzen dituena; ezagunak diren dotrina metafisikoak hain zuzen.

Hala ere, alkimisten eta zientzisten aurkatasunak —adibidez Leibniz eta Locke, Fludd eta Gassendi, Engels eta Hegel, Bergson eta Spencer, Heidegger eta Carnapen artekoak beraz— badu adierabikotasun jakin bat, hain erraz baztertu ezinekoa. Alkimistak galdera hau jartzen badu, zienzistak bere jakite modeloa edozein pentsamendurentzat adibidezko eta beharrezko bezala osatzen duenean, ea zertan oinarritzen den alegia, orduan indukzioaren legetasunaren oker-zirkuloan nahaspilatutako zienzistak, azken finean, jakituriaren azken argudiora jotzen du: jakite enpirikoaren kriterioak onartzen ditu, jakite honen baliogo praktikoa, edozein zalantza gainditurik, agerpenak aurrez-esateko gure gaitasunean eta gauzen manejuan frogatu daitekeelako. Honen zai bakarrik dago alkimista. Bat nator, noski, dio berak, horretan: munduaren interpretazio metafisikoei esker, ate sarraila bat ere ezin konpondu daitekeela eta izadia menderatze mailako giza aurrerapen oro izadi jakintzak eta matematikak bere egin dituzten ezaguera metodoei esker lortu dela, alegia. Kriterio honen bidez lortutako rekursoak jakintza barruan funtsean onuragarri izan daitekeen guzia onartzea agintzen digu, azken finean. Hori horrela bada —kriterio horretan bertan oinarriutrik eta pragmatisten asmoekin bat etorriz—, edozein aitormen erlijioso edo dotrina metafisiko ontzat jo dezakegu, hoietatik batek bere indarrak askotzeko probetxurik atera ahal badezake edo hortatik norbaitentzat bere ekilibrio sikikoa sortuko balitzake. Eta horrela zientismoa bere oinarrietan bere buruaren aurka itzuliko litzake. Garbi dago kriterio pragmatikoak kasu bakoitzean zentzu ezberdina dutela, izadi

jakintzetan edo espekulazio metafisikoetan erabili; zehazkiago esateko, beste onura modu bat da onartu ahal izatearen oinarria. Baina hemen ere, jakitearen ezagueera baliogorako erabakitzaile bezala onura tekniko hutsa (hau da: gauzak maneiatzeko ahala, gauza hoiei buruz bildutako informazioei esker) ikusiko lukeen kriterioa, zeharo arbitrarioa litzake; zehazkiago esanik: honelako restrikzio batetarako erakarri ditekeen arrazoi bakarra hau da: gizonak tekniko neurrien bidez lortzen diren baliogoak baliogo bakar bezala aitortzea. Hau, ordea, ez du zienzista bakar batek ere aitortzen.

Motz eta labur: zientismoa, konsekuente erabiliz gero, pragmatismoan bukatzen da. Horrela, ezagueraren interpretazio pragmatikoak, bidenabar eta bere kriterioei jarraiki, erabaki metafisiko berdinak balia arazten ditu, zeinetatik, bere oinarriko asmoei jarraiki, gizadia askatu nahi zuen.

Baina ber-balia arazte hau ere ez da zeharokoa. Edozein jakintza konbenzimendu osoz lantzea posible da Jakintsuak jakintzazko teorien jakitearen metodoei buruzko bere gogoetetan zentzu pragmatikoa ta ez besterik jartzen duenean ere. Metafisikaren kasuan, honelako interpretazio bat zentzu sikologikoan aitortzea zail da. Dotrina metafisikoak *kanpotik* hasita deskribatu ahal badaitezke eta heuren eginkizun ekilibranteagatik giza bizitzan ber-balia arazi ahal badaitezke (gertakariak baliogo ordena ez-enpirikoan integratzea), hala ere, giza banakoak jakite metafisikoa benetan bere egitea ez da erraz pentsatzen, giza banakoak bere buruari kontuak bere sinesmena baliogo instrumental hutsez neurturik ematen badizkio. Sikologi mailan zail da munduaren edozein ordena metafisikotan sinestea eta une berean sinesmen honek bere heldulekua *sinesmen beharrean* bakarrik duela ustea, eta munduaren benetako aurpegiarekin berez ez duela ezer berdinik. Horre-

gatik metafisikoak pragmatikoki zuzendutako jakintzatik at oinarri egokiak aurkitzeko eskubidea galdatzen du beti. Arazoa, beraz, benetako *konbenzimendu metafisikoak* edukitzea ahalmentzen (baimentzen) diguten oinarriak dira, zeinetaz kondaira edo sikologi mailan eraginezko instrumetnu bezala hain erraz ezin daitekeen mintzatu. Husserlen saiakera guziak zuzenbide honetan eginak dira. Bere ahalegina ezerezean gelditzea, —*Azterketa Logikoetatik* subjetibismo traszendental radikalerako igarobidean ikusten denez—, horrelako saiakera baten zailtasunaren, agian itxaropenik ezaren, argudio bat gehiago besterik ez da.

Metafisika oro mundua ulertze modu jakin bat da. Agerpen enpirikoak ordena ez enpiriko batetan hileratzea ahaltzen diguten arauen bilduma bat da. Positibisten ahaleginak, dirudienez, baliogo iraunkor bat utzi dute gutxienez ondoren: mundu-osotasunaren izaerari buruzko esaerak inoiz sortze enpiriko batetan oinarritu ezin daitezkeelaren konbenzimendua. Nahiz guk formulazio hau Wittgensteinek bezain radikal ez aitortu (Wittgensteinentzat *munduak hiru gauz ditu* esatea ere zentzugabe da), nahikoa da hau garbi jartzea: errealidade orori propiedade edo jabetasun jakin bat ematea ez da inolako enpiriatan oinarritzen, horrelako jabetasun bat, printzipioz, aurkako inolako jabetasunekin konfrontatu ezin daitekeelako. Jabetasun hori ezin daiteke, ezta ere, jabetasun honen ez egoteaz adierazi diteken egoerarekin konfrontatu. Horregatik, metafisika era guziak, bai materialistak, bai erlijiosoak, (hontaz gero eta sarriago mintzatzen dira teologo protestante eta katolikoak) bere oinarriak beste printzipio batzuetan oinarritzera beharturik daude, eta ez guk edozein objeto klaseren bat beste klase batekoa izateari buruz erabaki behar dugunean gure ezaguera-jokabidea zuzentzen dutenetan.

Argibide hauek beharrezkoak dira *materialismo* bezala ezagututako dotrinaren ezaguera-eginkizunari buruz kontuak emateko, baina, batez ere, materialismoak munduarekiko jakintzazko harremanen artean (argitzaileen artean, beraz), edo metafisikoen artean (ulertzaileen artean, beraz) duen lekuari buruz.

Honetan, ordea, berehala sortzen da materialismoa iritzi metafisiko bezala hartu ote daitekeen galderaren erantzuna materialismo ideiari emandako zentzuari loturik dagoelaren susmoa.

Gaur egun dauden iritzi materialisten ulermoduetako bat zientzismoarekin bat dator. Horregatik ezin hartu daiteke metafisiko bezala, metafisikaren ohizko zentzuan. Horrela ulertutako materialismo batek ez du, printzipioz, iritzi filosofiko berezi bat izan nahi. Bere burua horrelako iritzi baten ez egoteaz definitu nahi luke. Honek zera presuposatzen du: gauzei, esperientzi bidez mugatutako jabetasunak beste, ez zaizkiela inolako jabetasunik aitortzen. Jakintza esperimentalek erabiltzen duten *esperimentu* burutazioa du ulermodu honek oinarri. Kasu honetan ez dago inolako filosofi ikuskerarik agertu beharrik, jakintza esperimentalaren onartutako ondorenen ber-esatea ez balitz, edo jakintza horretatik erakarri ahal izango ez balitz. Garbi dago interpretazio honetan edozein aitormen filosofikoren karektero orokarra (batez ere mundu-osotasunaren izaerari buruzko esaerak) fisikak bere desarroilo jakin batean onartutako printzipioen karaktero orokarretik ez litzakeela ezertan bereziko. Edo hobeto esanik: aitormen filosofiko hoiek, mamiari dagokionez, fisikan balioko diren printzipioetatik ez litezkeela ezertan aldenduko. *Materiaren hilezkortasunaren* esaerari, masaren iraunkortasunaren printzipioak duen adierazpenaz besterik aitortzeak, ez du sentidurik. Zera fisikoei, lekuzko eta denborazko jabetasunak, jakite esperimentalek

bere gaurko egoeran aitortzen dizkien zentzuan bakarrik aitor lizaizkieke. Mikrogauzen hedatze edo lokalizatze galdera, praktikan, fisikan erabiltzen diren medioez bakarrik erabaki daiteke. Zentzu honetan filosofia ez da munduari buruzko esaera berezi batzuen bilduma bat, baizik eta fisikan onartutako ondorioen ber-esate bat, era herrikoi eta sinple batetan, —joera zienzistako materialistek sarri dioten bezala—. Filosofia jakitearen herrikoitze unetik bereizten duen eginkizun bakarra, ezezko judikapenak adierazteko gaitasuna da. Judikapen hauk izadian jabetasun jakin batzuen ez-egoteari buruzkoak dira, —izadiari ulermenezko dotrina metafisikoak aitortzen dizkioten jabetasunak—. Horrelako ezezko esaerak texto filosofikoetan agiriki adieraziak ez bait dira azaltzen. Zienzistikoki ulertutako materialismoa —jeneralean, iritzi zienzista bezala—, filosofoari buruzko judikapen negatibo baten ber-esatea da: filosofiari buruzkoa, hau zehaztasun enpirikoaren esaneko ez den eta ezezko aitormenetatik kanpo gogoeta arlorik ez daukan disziplina bezala.

Baina badago fisikaren ondorenen ber-esate herrikoiarekin lasai gelditzen ez den beste materialismo bat. Jakintzazko datoetan oinik hartzen ez duten munduari buruzko judikapenak formulatzen ditu. Lehen aipatutako eraren eta oraingo honen arteko berezketa ezin egin daiteke, gai hontaz jardunik bata besteagandik zeharo desberdinak diren pasarte filosofikoetara joaz. Honen arrazoia hau da: gehienetan aurkitzen diren ulermoduen autoreak, une berean, konbenzimendu bikoitza dutelako: batetik materialismoa, beroiek ulertzen duten eran, nolabait, jakintzazko datoetatik sortzen dela, baina bestetik, munduari buruz oinarri dituen jakintzak baino zerbait gehiago diola. Materialista zientistak ez luke nahi, berez izadi jakintzetan jardun gabe, jakintza hoien ohorea filosofoen artean zabaltzen duen herrikoitzailea bezala hartu dezaten. Horrelako materialistak

badu, gehienetan, jakintzazkoak, noski, izan behar bai baina, inola ere, bere garaiko fisikan baliokoak diren teorien ber-esate bat ez diren aitormenak formulatzeko anbizioa. Honelako materialistak teoria hoiek interpretatu bakarrik egiten dituzte.

Ezaguera-realismo teoria deitzen zaiona jotzen da —nahiz bera bakarrik nahikoa ez izan— honela ulertutako materialismo baten nahitaezko aurre baldintza bezala. Iritzi hau, ordea, ez da batere atsegina aditzera emateko. Teoria hau, hain zuzen, ingurumiraka deskribatzen da, gure esperientzi gaiak gu baitatik at daudela aitortzen duen ideiaren laguntzaz. At edo kanpoan, ordea, ulertezineko burutazio bat da, lekuzko harreman bat baino zerbait gehiago adierazi nahi baldin badu. Horregatik harreman hori gaiaren eta sujetoaren arteko harremanerako erabiltzen bada, garbi dager, harreman honen bi alderdiei lekuzko mugatasun bat aitortu behar zaiela. Esan daiteke, adibidez, *subjetibidade* hitzez adierazitako prozesoek gorputz fisikoen —esate baterako, giza organismoen— esfera jakin batzuetan gertatzen direla, eta beste prozeso batzuek, organismo hoietatik at. Kontzientziaren gorputzekiko harremanen honelako irudikatze bat bidezkoa da noski. Adiera bikoitzatasuna, hala ere, materialista, iritzi honetan oinarriturik, aurkako ideia bat borrokatzen saiatzen denean sortzen da. Kontrarioari aitormen hau jartzen dio ahotan: gorputzak, sujetoarekiko, ez daudela kanpotik, hain zuzen; hau da: gauza fisikoak, lekuzko zentzuan, giza atal zentzuzkoetako nerbio saretan gertatzen diren prozesoen zati direla. Horrela ulertutako *idealismo* bat borrokatzea zeharo da erraza. Askoz zailago da, hala ere, bere burua horrelako idealismo batekoa aitortuko lukeen filosofo bakar baten adibidea aipatzea. Artikulo honen idazleak behintzat ez du horrelako dotrinarik topatu, eta dotrina hori bere egindako gizonen izenik ere ez du ezagutzen. *Kanpotik* beza-

lako hitzek eta lekuzko harremanei buruzko burutazio mugaketa oro bazterrean uzten baditugu, ordea, iritzi errealistak bere burua susmo honetara mugatuko luke: munduari buruz esperimentalki lortutako informazioak gu aurkitzen garen ezaguera-egoerakin zerikusirik gabeko zera hoien irudikatze bat direla alegia. Beste hitzez, interpretazio honetan, baieztapen honetara mugatzen da realismoa: ezaguera-egoera batek erlatibatu gabeko mundu-ikus-irudi bat damaigun ezaguera-egoera bat posible dela. Honek zera esan nahi du: ezaguera--egoera batzuek egoera honek bere zati ta jabetasunetan erlatibatu gabeko mundu bat irekitzen digutela. Bestela esanda: izatea gizonei irekitzen zaie, aurkitze honek erlatibatu gabeko irudi batetan. Mundua, beraz, sekula *emana* ez den bezala da *emana.* Materialismoaren itzulpen hau traszendental bezala adierazi daiteke, giza objetoak benetako munduaren aurrean egoera bat lortu dezakeala suposatzen bait da, egoera hontan Husserlen *ego* hutsa agerpen galbaituen munduaren aurrean aurkitzen delarik. Hala ere materialismoaren itzulpen hau zehazkiago mistiko bezala adierazi daiteke, honako iritzi honetara behartzen gaituelako: ezaguera--egoerak, egoera izateari utzi dezaiokeela, hau da, izandun ezberdinen arteko harreman jakin bat izateari. Horrela egoera hori gaiaren eta gai hori jakite edo esperimentatze ekintzaren berdintze bat bihurtzen da. Horrelako berdintze batetan bakarrik bait da posible edozein irudikatzetatik aske den sujeto-objeto harremanean objetoa *emana izate* egoeratik aske emana izatearen susmoa.

Realismo mistikoa (orainarte ondoenik Akinoko Tomasen metafisikan, *Species-ari* buruzko zatian agertua izan dena) materialismo mistikoaren zati osatzaile nahitaezkoa da. Materialismo mistiko hau, berak bere burua inola ere egoera ez den ezaguera-egoera susmatu baten kontraesanetatik askatu ahal duenean, errealis-

mo mistikoaren tesiari printzipio jakin bat erantsiaz sortzen da. Printzipio hori berez hau dion arau bat da: berdintze edo kontraispilatze era haren mende erortzen diren munduaren jabetasunak bakarrik onartu daitezkeela. Kale hizkuntzan horrela esan daiteke: izadi jakintzetan ohizko den zentzuan esperimentalki hor-daudela frogatu daitezkeen gauzen jabetasunak bakarrik dute eskubide gure mundu-ikuskeran sartzeko (edo: jabetasun hoiek, beroien hor-egotea hipotetikoki finkatu daitezkeen atributoetan oinarriturik onartu daitezkeenean —jakintza hauetan ohizkoak diren hipotesi osatze arauen araura).

Galde dezaiogun orain gure buruari, honela ulertutako materialismo bat dotrina metafisiko bat ote den. Bere lehen atalean, hau da, bere delako errealista printzipioan, susmo metafisikoen baldintzapen jakin batzuei dagokie, batez ere zeharo enpiriaren haruntzkaldetik dagoen sujeto-objeto harremanean oinarritzen da. Bigarren atalean aitzitik, mundu-irudian jakintza mailan ulertutako esperientzi datoetatik kanpora beste ezer sartzea debekatzen duen aitormen zientzista hura da. Materialismoaren interpretazio hau beraz, bi printzipioen elkartzea da: hoietako bigarrenak lehenengoan dauden susmoak erabiltzea debekatzen duelarik. Kontraesan hau materialista joerako filosofoen idaztietan sarri aurkitzen da. Ta ezin espero daiteke kontraesan hori egoskor bi jokabide hauek batera hartzea saiatzen direnek gainditu dezaketeenik: jakintzazko fenomenalismoaren jokabidea batetik (kritiko materialistak sarritan, modu harrigarri batetan, iritzi subjetibistarekin aldatzen dutena), mistika errealista ta inmanentearen arteko istiluan esperientzi-ondorioen neutralidadean oinarritzen dena alegia; eta bestetik lekuzko —beraz, baita finkatu ahaleko— harreman orotik aske den sujeto-objetoaren ezaguera berdintzearen sinesmena eskatzen duen jokabidea.

Posible ahal da realismoaren eta zienzismoaren arteko kontraesanetatik batetik, eta bestetik iritzi errealistaren barne kontraesanetatik aske litekeen materialismorik? Ezaguna denez, materialismo ideia 17. mendeko bukaera aldera azaldu zen, eta, Wolffen askotan aitatutako beranduko interpretazio bati jarraiki, existentzia gorputzei bakarrik aitortzen zietenen iritzia deskribatu behar zuen. *Materialismo* hitzaren erabilketa, ordea, berez, filosofiaren kondaira osora hedatu zen. Leibnizek landutako oinarrizko bi jokabide filosofikoen ezaugarria, Feuerbachen eta azkenik Engelsen pentsamenduan *materialismoaren idealismoarekiko* aurkatasun bezala sartu zen.

Bi burutazio hauen kontraesanekotasuna gogozko ala gorputzezko sustantzien jatorrizko lehentasunaren printzipioan oinarritzen da eta honek kontraesaneko bi dotrina hauen iritzi bikoitz edo dualista bat suposatzen du. Bikoitztasun edo dualismoaren redukzio saiakeretaz —Avenariok ekin zion, batez ere, lan honi— ez gara gu hemen jardunko. Garrantzizko, hau bakarrik da: hitzaren jatorri etimologikoak bezala jatorri historikoak, irudikatze mundu jeneralean, materialismoa sustantziaren existenzia aitortzen duen eta nolabait sustantziaren inguruko istiluan erabaki egiten duen iritzi mailara jaso duela. Iritzi materialistaren adieraztean zailtasunak honetatik datoz: garai batetako materialismoaren karaktero *sustantzialista,* hain zuzen, ohizko obserbazioekin loturik baieztapen filosofikoen abiada-pondu bezala gaur egun ere zabaltzen saiatzen dela, une berean fisika atomikaren ondorioekin bat etorririk. Une berean bi arauei eutsi nahiak, —fisikoari ta filosofikoari—, materialismoari formulazioak aldatu arazten dizkio, gai fisikoei jakintzaren gaurko egoeraren araura lekuzko ta denborazko jabetasunak zenbaiteraino aitortu ahal izateari edo ezinari jarraiki. Hala ere formulatze hutsak hipotesi fisikoei ez die ezer erasten, zerikusirik gabe

ber-esandako sinesmen honen ondoan: *gai fisikoak* —fisikaren gaurko egoerak baimentzen duen hitzaren erabilketan— direla benetako gai bakarrak. Honetatik sortzen da materialismo sustanzialistaren antzutasun nekagarria eta bere ezgaitasuna bere burua saiakera filosofikora mugatzeko, fisikaren herrikoitzeaz beste, zerbait gehiago eskeintzeko. Hau, hain zuzen, ezinezko da une berean Wolffen formulazioan —existenzia gorputzei bakarrik aitortu daitekeela— geldituz gero.

Materialismo ideiarekin adierazitako garai batetako filosofien oinarriko muina, irudikatze fisiko jakintza-aurrekoekin lotu du materialismoaren definizio sustanzialistak; eta gaur eguneko materialismoa honetara behartu du: bere mamia egun bakoitzeko izadi jakintzen egoeraren menpeko egitera. Menpean jartze hau onurakor izango litzake, noski, iritzi materialista bera izadi jakintzaren jakitea aberasteko egoeran balegoke. Baina egoera honetan ez dagoenez, horrela bere karakteru aldakorra, —materialistak, arropuzturik, beretzat bere jakintzazko egoeraren adieragarri bezala hartzen dutena—, itxura bakarrik da. Kasu honetan, arazoa izadi jakintzen aldakortasuna bakarrik da, materialistak zeharo sinpleki beregain hartzen dutena, une berean mendeetan zehar gogor bezain antzu den formulatze konstituzionalaren aldaezintasunaren menpean egonik. Hortaz, gai fisikoei ze jabetasun fisiko aitortu dezaizkieken, ez du noski gogoeta filosofikoak erabakitzen. Baina berezgarri filosofiko tipikoak —*sustanzialidadea* eta *errealidadea* beraz— gauzei jakite esperimentalek bere burua onartzera sentitzen ez duen sentiduan aitortzen bazaizkie, orduan materialismoaren metafisikarekiko menpetasunik eza, ez da inola ere bere jakintzazko sensibilidadean oinarritzen. Filosofi hoien jarraitzaile askoen usteen kontra —materialismoa, jakintzazko jakitearen aldaketa onurakorrei menperatu behar zaiela uste dutenen kontra— materialismoak ez du jarraitzen

gogoeta filosofikoaren benetako desarroiloetatik bat ere, arnas hartzeko astirik gabe, bere formulazioak ber-esaten ditu, azken mendeetan landuak izan diren zehaztasun filosofikoetaz batere arduratu gabe. Egoskor jarraitzen du bere erabaki xeheetan. Horregatik materialismo sustanzialista, Demokritoren garaiean lortu zuen maila berdinean gelditu da. Aitzitik, izadi jakintzazko jakitea aldatu da, hoien ondorioak materialistak herrikoitu besterik egiten ez dituztelarik. Hori egiten dute, horrela heuren iritzi filosofikoa *gaurkotzen* dutelakoan.

Elkar bilduz esan daiteke: materialismo zientzista, oro har, iritzi filosofiko bat ez baina zienzista bat dela. Izadi jakintzen gaurko egoerari jarraiki zentzuz beteak edo oinarrituak bezala balio ez dezaketen iritzien formulatzea galerazten duen arau bat da.

Horrelako iritzi bat materialista bezala izendatzeko arrazoirik ez dago, iritzi hau inolako teoria *sustanzialistarekin* edo inolako errealismo mistiko edo traszendentalekin akordioan ezin jarri badaiteke. Materialismo sustanzialista, berriz, zalantzarik gabe dotrina filosofiko bat da, baina arrunt sinplea. Antzinaren desarroilo mailan egoskor iraun duelako eta azken mendeetako desarroilo filosofikoak ikuitu gabe gelditu delako. Dotrina honek noski, bere tradizioak Demokrito eta Holbachekin lotzen ditu, eta bitartean bere mamiak Kant, Hegel, Marx, Hume edo Husserlen existenziaz inoiz bere buruari kontuak eman dizkienik inola ere ez du adierazten.

Baina guk gure burua materialista dotrinaren zori historikoarekin loturik dagoen alderdi sustanzialista osotik askatzen badugu, gauza bat jarri behar dugu garbi: horrela ulertutako materialismo baten bilakaeran, ideia batek adierabidea aurkitu duela —nahiz ez mate-

rialista joera honetan bakarrik— sustanziari buruzko galdera eztabaidatuak ez bezala, bere bizitasuna galdu ez duena, eta, itzulpen ezberdinetan gaur oraindik ere eztabaida metafisikoen muin bat dena.

Honekin galdera honi buruzko iritzia dut burutan: ea mundua giza hesparrutik at ulertu ote daitekeen. Konbenzimendu honetan aurkitzen du adierabidea: gizonaren aurreko erlatibizatzetik aske behatutako mundua, —bere egoera *instrumentaletik* kanpoko mundua—, gizonari langailu bilduma bezala zerbitzea edo ez zerbitzea kontutan hartu gabe eztabaidatzen den mundu bat ez dela ulermenezko interpretazio batetara egokitzen. Beste hitzez: giza-zerarekin erlazioan jarri ezin daitezkeen gertakariak, ez dute inolako baliogo kualidaderik. Gertakariak eta gauzak helburu egokiko ordenu bat hartuko lutekeen edo baliogo bezala (—hala aitortzen dituen giza erabakitik aske diren baliogoak—) azalduko lirakeen ezaguera ikusmira bidezkorik ez dago.

Onartu daiteke honelako ideia batek tipiko filosofikorik ezer ez duela, mundu-irudi zienzistari berdin aitortu daitekeen ukamen bat besterik ez dela, mundu-irudi zienzistak ere ez bait du giza kanpotikako munduan helburu egokiko ordenarik edo baliogo kualitateen existenziarik onartzen. Lehen aitatutako redukzio antropologiko hura eta jakintza hutsezko indiferenzia ez dira, ordea, gauza bat eta bera. Redukzio hori gizonaren aurrean zeharo indiferente den munduan, gizonak daukan egoeratik ondorio guziak ateratzeko ahalegina da, batere baliogo eta helbururik gabeko mundu batetan.

Munduan helburu egokiko ordenarik ez egotea, funtsean, ez da jakintzazko jakiteko finkapen bat; sinesmen erlijiosoak eta dotrina teologiko metafisikoak baiezten dituzten galderak ukatuz erabakitzen dituzten beste

aitormenak bezala. Hau garbi jartzea, ordea, ikusmira *geozentriko* batetan guziz funtsezkoa da. Ikusmira hau, ez izadi jakintzazko jakitearen ordezko izan nahi, ez honen galderak erantzun nahi ez dituen materialismoaren joerak, zeharo jakinaren gainean hartzen du. Ezezko *judikapen existenzialak ez dira jakintza arlokoak*. Hoiek, ordea, munduko giza-egoeraren sustraiko jabetasunak ulertzeko garrantzi jakin bat eduki dezakete —batez ere mistifikazio erlijioso eta metafisikoen iturri diren giza beharren izateari buruzko jakitearekin loturik daudenean. Ordena kosmikoaren ukazioak berak, ba daiteke gauza handirik ez adieraztea. Baina guk, ordena honetan sinesteak giza-arrazaren ekilibrioan betetzen duen eginkizun sobera garrantzizkoan pentsatzen badugu, orduan sinesmen behar hori eta, mamiari dagokionez, bere gairik gabeko karakteroa aurrez-aurre jartzeak, giza izatearen ezaugarri jakin eta tipiko batzuek ager arazten ditu, guk beste era batetara hauteman ezin ditugunak.

Ukamenaren metafisika hau, gizona giza zera bezala ulertzearekin eskutik doanean, ulermenezko ikusmira bat bilakatzen da —*metafisika positiboak sortzen* dituen edo, Heideggeren ezaugarriaren araura hain zuzen, izateari buruzko ulermenezko jokabide honen bitartez ezagutu arazten den giza zeraren ulertzearekin. Ukazioaren metafisika orduan, antropologia filosofikoaren alderdi funtsezko bat bihurtzen da. Honetan, metafisika positiboa, ulertzeari menderaturik dagoen alabeharrezko mistifikazio bezala azaltzen da, bera adimengabeko izadia, ordena batetan integratuz, menderatzeko giza lanabesetako bat delako.

Hala ere ukazio metafisikak, filosofi joera geozentristarekin, (nahiz mundua interpretatzeko beste metafisiko erekin jakintzazko erabakiekiko funtsezko askatasuna elkarrekin izan), edozein metafisika positiboren

aurrean gehiago delaren ustea izan dezake. Uste hori ez da jakintzazko argudio hobeagoetan oinarritzen, ulermenezko esperientzian baizik. Ulermenezko ukazio metafisikak, bere aldetik, hipotesien arteko harremanak bezala, karaktero analogoa du. Edozein metafisika positiboren ikusmiratik, noski, ukazio metafisika eza bezala ageri den bitartean, ukazio metafisika gai da jokabideetarako bere aurrean elkarren aurkako diren funtsezko oinarriak erakartzeko, —oinarri hitza bere zentzu historiko antropologikoan. Ez ukatu bakarrik, baizik eta ulertu ere egiteko egoeran dago. Baina hori egin dezake, berriz esan nahi dugu hau, metafisiko aitormenak ager arazten dituzten giza izaeraren baldintzapenei buruzko jakitearekin eta horrelako aitormen hoien bidez atseginduak izan daitezkeen benetako beharrei buruzko jakitearekin loturik dagoenean.

Antropologi filosofikoaren zati osatzaile bezala ulertua den ukazio metafisikaren ikusmiratik, bere kontraesan den guzi hura uler ahaleko bilakatzen da. Ukazio metafisika, metafisika positiboak giza beharretara erlatibatuz —baina batez ere, gizonaren haruntzdik dagoen zentzuz beteriko ordena batetarako *antzekotasunaren* behar tipikoaren bitartez—, metafisika positibo hoiek ulertzeko egoeran badago, orduan, susmatu daiteke ulertze hori horrelako erlatibatze bati esker bakarrik gertatzen dela, erlatibatze horretan bera (ukazio metafisika) —berak bere burua metafisika bezala ulertu badu— beste guziak bezain erlatibu bilakatzen dela. Beste hitzez: ukazio metafisika lehenbizikoz ulermenezko jokabide bat bilakatzen den eta indiferentzi zienzistaren landak gainditzen dituen, interpretazio historiko radikalean, ukazio metafisika honen oinarriak edozein metafisikaren argudioak bezain historikoak direla. Gehiago oraindik: erlatibismo historiko honek bere burua deusezten du, argudio historiko hutsak ez diren beste argudioren posibilidadea bere buruari kentzen

bait dio. Hau, ordea, erlatibismo guzien paradoxa tradizionala da, ezagueraren oker-zirkuloa. Eta zirkulo horretatik ezagueraren abia-ponduari buruzko erabaki arbitrario baten bidez ihes egin daiteke. Horrelako erabakiak, filosofian berez egiten diren tipo logikoen teorietako bat dira. Hau diote argi eta garbi: ezaguera *mami guziak ikuspondu jakin batetatik baloratuko dituztela*, balorazio kriterio hauen mende ez dagoen ikuspondu batetatik; edo edozein beste jakintzak adierabide bezala erabiltzen duen hizkuntzan sartzen ez den abia-pondu bat mugatzen dute oinarri bezala. Baina horrelako ezagueren hasiera absolutu finkatzen duten erabaki guzi hoien arbitrariedadeaz gure buruari kontuak emateko garaiean, horrelako ihesak ezin zutik iraun dezakete erlatibismo orokarraren radikaltasunaren aurrean. Sustraiko erlatibismoak berak erlatibismoaren printzipioa ezin dezake erlatibatzearen kriterioen mende ez legoken zerbaitetan bihurtu. Erlatibismoaren printzipio hori bere erlatibotasunaren jakinaren gainean erabili behar da.

Erlatibismoaren paradoxatik ezin ihes egin daiteke. Paradoxa bera, ordea, giza izaera beraren funtsezko antinomiarekin erlazioan jarriz gero ulertu daiteke, eta ez izaera hori deskribatu duen hizkuntzarekin bakarrik. Giza arrazak egokitze teknologikoaren lanabes etekingarriak sortzen dituenez —honetan lanabes nagusia jakintzazko pentsamendua izanik— badu eskubide dotrina metafisikoak iritzi teknologikotik ikusirik huts bezala baloratzeko edo baita ere, ezaguera mailako giza akatsetik ikusirik, esplika ahaleko bezala. Giza arrazak —munduari buruz ulermenezko iritzi baten beharra etengabe sortzen duten baldintzapetan bizi bada— orduan, bere ikusmira propiotik jakintzazko jakitea eginkizun pragmatiko hutsera erlatibatzen duten sinesmenezko aitormen metafisikoak sortzen ditu. Elkar ukatzen duten jokabide bi hauen azpian dauden oinarriak

onartzea, giza arrazaren oinarrian dagoen kontraesan praktikoa onartzea da; nolabait esateko izadia bere burua gainditzen ahalegintzen den izaera horretan beraz. Teknologiaren eta jakite teknologikoaren erlatibatze metafisikoaren posibilidadea, —hau da: pragmatikoa ez beste guzia den munduaren ulermenezko interpratazio bati ekiteko posibilidadea—, edonolako erabilketa teknikotik aske den munduan izaera *nahitaezkoari* buruz judikapenak adierazteko posibilidadea, *naturtasunaren* mugak gainditzeko honelako saiakera bat da. Jakintzazko jakintzaren eta ulermenezko metafisikaren elkarrekiko etengabeko erlatibatzea, egoera honen nahitaezko ondorio dela dirudi. Itzul arazi ezineko moduan 17. mendea igarota zegoen une beretik —jokabide metafisiko ta zienzistaren arteko sintesi betearen urrezko gizaldia— *homo faber* eta *homo sapiens*-en arteko leizea etengabe handitzen doa. Orduz gero bien bat etortze batetan gogorturik daude itxaropenak. Kontraesanak, hizkuntzak bereziaz ezkuta arazten ditugu. Honek, Erdi Haroko Averroistei bezala, bi ezaguera ordenak onartzea ahaltzen digu; horrela aldez aurretik aitortzen dugu, bien artean dauden kontraesanetaz ez garela ohartzen.

Ukazio metafisikak ez du kontraesan hori baztertzen. Esplikatzea bakarrik baimentzen du. Oraindik *materialismo* ezaugarria merezi ote duen? *Materialismoa* materialismo sustanzialistaren tradizioarekin bakarrik lotzen badugu, ideia honek okerbideratu gaitzazke. Horrelako metafisika batek genealogi historiko askoz ere aberatsagoa du, *materialismoak* bere ohizko zentzu tradizionalean baino, nahiz eta honela ulertutako materialismoak neurri handi batetan tradizio horretan bere lekua eduki. Hobe da, noski, okerbideratzeko asoziazio ugariz zamatutako adierabide batez ez baliatzea. Gure eginbeharra, ordea, ez da dotrina-ezaugarri berriak aurkitzea, eta hare gutiago hemen agertutako ikusmirak

ezer berririk ez duenez gero. Baldarki adierazita: ukazio metafisika pentsamendu positibistaren ideia nagusiarekin bat datorren printzipio batetan oinarritzen da: mundu-osotasunaren izaerari buruzko konbenzimenduak, ez era baikorrean baizik eta negatibuki adieraziz gero, jakintzazko baieztapenetatik funtsean ezberdina den karaktero bat dadukala alegia. Ideal positibistaren kontra ordea, oraindik zerbait gehiago dago hor: horrelako konbenzimenduak gizonen bere izate propioarekiko ulermenezko harreman funtsezkoan nahitaez sarturik daudela. Horregatik gizarte zeharo razional baten modeloa —hitz honen adieranahi teknologikoan— ameskeria edo fikzio bezala hartzen da.

Hau beste erabatetara ere formulatu daiteke, honako hau esanik adibidez: *adimenezko aberea* esaera ez dela txarra, baina funtszeko mugaketa esplikatzaileak behar dituela:

1. — *Adimena* ez da sinpleki abere beharren atsegintzeko lanabes bat gehiago, interpretazio pragmatikoak, eta, jeneralean, biologi joerakoek onartzen duten bezala.

2. — *Adimena* es da —dotrina bikoitz edo dualistak onartzen duten bezala— *abere* alderditik aske den gehigarri bat, beste ezaguera maila batetan eginkizun autonomoak dituena, eta *aberetasuna* ikuitzeke uzten duena.

3. — *Aberetasuna* ez da —interpretazio hilemorfistaren aurka— *adimenaren* menpeko lanabes bat, gizonaren bi *alderdien* elkar-bizitze harmonikoa beste koordinazio eskema batetan ahalmentzen duena.

4. — *Adimena aberetasunari* iruzur zaio. Giza izatearen oinarriko bi jabetasunen kontraesana —jakintzaren

eta metafisikaren aurkatasunean adierabidea aurkitzen duena— giza izatea baztertzen ez bada ezin daiteke gainditu.

Honelako interpretazio bat honetatik abiatzen da: giza izan eta izaeraren bat etortze osorik ez dela posible. Utopi orokar bat jasotzeko ezgaitasuna filosofiaren alde on bat balitz, orduan hemen agertutako interpretazioak izango luke alde on hori.